

JOSE MANUEL ETXEITA

Jose txo

Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita



SUTONDOAN

SUTONDOAN bilduman euskeraz, eta berariaz bizkai-euskeran, idatziriko obrarik bikainenak batu nahi ditugu, lora-txorta eder bat eginez. Jose Manuel Etxeita bere elabarri biek in ordezkaturik dogu beronetan.

Etxeitaren *Jose txo*, orain dala hamar urte argitara genduan obra berbera dakargu barriri, erabarriturik eta moldakuntza txukunagoan. Lehenengoz urten ebanik eta hona ia mende baten tarte dagoanarren, gaurko begientzat gaurkotasunik ez ditzirarik galdu ez dauan obra dogu. Mundu aberatsa eta benetakoa darakusku egileak: itsasoa, baserria, uria, atzerria, amodioa, gorrotoa, haserrea, euskal gizarte-giroa, gudu-hotsak, lanbideak eta beste. Giro desbardin ugariak isladatzen deuskuz Etxeitak, berak bizi izan zituan legezkoak. Mende-mugako gizartearen kezka larriak itxaropen-pozgarri bihurtzen daki idazleak, halako gozotasun erromantiko batez legundurik.

Euskera errazean, abenturaz beteriko istorio ezin gogaituzkoa brodatzen jakin dau idazleak, obra borobil, bete eta poz-emongarria, irakurleok irribarre gozoa darigula itxiko gaituana.

SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)
Aurkezpena: Xabier Perea-Jesus M^a Agirre
2. JOSETXO
Jose Manuel Etxeita
Aurkezpena: Adolfo Arejita
3. AZALPENAK
«Lauaxeta» (Estepan Urkiaga)
Aurkezpena: Jon Kortazar
4. BERTOLDA ETA BERTOLDIN
G. C. della Croce-«Otxolua»
(Bernardo M^a Garro)
Aurkezpena: Adolfo Arejita
5. JAIOKO DIRA
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Lino Akesolo

JOSETXO
Jose Manuel Etxeita

JOSE MANUEL ETXEITA

Jose txo

Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita

Bigarren argitaraldia



LABAYRU IKASTEGIA



Bilbao Bizkaia Kutxa

BILBAO

1995

1. argitaraldia, 1982
2. argitaraldia, 1995

© LABAYRU IKASTEGIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA
Aretxabaleta, 1-1. - 48010 BILBAO
Tfnoa.-Fax.: 443 76 84

ISBN: 84-86833-86-8
Lege gordailua: BI-2596-95

Fotokonposaketa: Ikur, S. A. - Cuevas de Ekain, 3, 1. - 48005 BILBAO

Silutegia: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO

ETXEITAREN IDAZLANGINTZA

Sartaurre antzera

0. AURREKO ARGITARALDIA ETA ARGITARALDI BARRI HONEN ASMOA

Badira hamairu bat urte Etxeitaren *Josetxo [J]* elaberriaren argitaraldi bat atera nebala, *Sutondoan* bilduma beronetan. Oker ez banago, Durangoko Florentino Elosu-k 1909an atera ebanik eta harrezkero egin izan dan lehenengo berrargitaraldia; artean, luzaroan, ez da obra honen ezagupide handirik izan, liburu zaharren liburudendetan mende-hasieretako edizinoaren ale bat edo beste aurkitu eitekezan baina. Orduko gure argitaraldiaren asmoa apala bazan be, arrazoi sendoak bultzatua etorren: bizkai-euskeraz idatziriko irakurgai atsegin gitxi egoan merkatuan eta sorkuntza barriak nekez erabilten eban bizkai-euskera bere idazkuntzan. Labayru Ikastegiak eta batez be honen babesean 1970etik gora urteoro eratzten zan Derioko Uda-ko Euskal Ikastaroak mendebaldeko euskal hiztunen eskolabiderako bizkai-euskerea jotzen izan dau, batasunbidea ikasbide horrezaz gozatsu eta eskertsuagoa zalako uste sendoaz. Derioko Ikastaroaren metodologia hori, Labayru Ikastegiaz haruntzago be hedatu zan, besteak beste, Eleizbarrutiaren Irakasle-Eskolara, Bilboko Hizkuntza-Eskolara eta beste erakunde batzutara. *Josetxo* eta haren antzera beste idazle batzuren irakurgaiak argitara genduzanean, ikasleri eta irakurlego jakin baten eskariari erantzutea izan genduan asmoa: irakurle gazte eta helduei, euskara-eskolen sendagarri izango zan irakurliburu egokiak eskura zuzentzea. Hori izan zan argitaraldi «egoki-tuak» izatearen arrazoi nagusia. Bizkai-euskararen literatura-

tradizinoak ezagutu dituan ortografia eta morfologia eredu desbardinak ezaguturik, ulergarri ezeze beharrezkoa zan textuen egokitzapena, irakaskuntza emonkorra izango bazan. Edozein modutan be, jatorrizko textuakanako begirune handia erabili genduan geure erizpideetan, azken urteotan Kirikiño edo Txomin Agirregaz besteren batzuk izan dabean baino zatiakaz handiagoa. Eta filologo batzuen aldetik jasan dituen kritikak filologia-ikuspegi hotzetik ulergarriak badira be, pedagogia-alderditik gure jokabideak baeban, eta badau, bere izate-arrazoia. Gaztelania eta beste hizkuntza batzutan beste horrenbeste egin ohi da zabalkunde-argitaraldietan, eta doitzera legezko hizkuntzetan ez hain textu zaharrekin. Orain dakargun ateraldi barri honi baino aldaketa askoz gehiago eragin geuntsazan orduko hari: gehiago kezkatzen ginduzalako arazo didaktikoak, eta une horretan geure eskoletan irakasten genduan bizkaiera landuaren ereduak beti aurrean izan gendualako, zorioneko aldaketa eta gaurkotzeok egiterakoan. Geuk uste baino harrera askoz hobea jaretsi eban *Josetxo* hak, bai gure ikasleen artean, bardin Unibersitate eta erdi-goi mailako ikastetxeetan, eta orobat euskara irakurri gura eban euskal gizarte zabalean. Eta gehiago edo gitxiago, urteak igaro-ahala be ez ditu irakurle zaletuak falta izan gure Josetxo baserritar eta itsasgizonaren abentura-munduak.

Baina zertara dator harik hamairu urtegarrenera argitaraldi barri eta berezi bat egitea? Hainbeste urte bete ezker, bere aldia egin ebala generitxan argitaraldi zaharrari, eta horri itxita, hirugarren «barri» bat ateratea hobeto eristen jakun. Arrazoiak bagenduzan horretako: jatorrizkoari hurragotik eutsiko eutsan textua gura genduan batetik, hizkeraren morfologiari ahalik eta ikuturik gitxien eginaz; Etxeitaren hizkera atzera barrio ausnar erabili gura genduan, eta hiztegi hautatu barri bat antolatu. Eta azkenez, gogoeta egin gura genduan elaberriaren eta Etxeitaren sorkuntzaren inguruan, sarrera labor honen bidez. Eta gura izan ezker, idoro geinke laugarren bat be: Etxeita euskal zaldun itzal handikoari eta bere nobelagintza goizetikoari deusagun begikotasuna. Bere sasoiko beste asko baino hegazkada

sendoagoko txoria zala erakutsi euskun, eta Domingo Agirregazko lehia atzetik gelditzea ez zala. Euskerea dala-ta be, bada beste zehaztasun deigarri bat: Bizkai erdialdeko euskerearen ordezkari dogu Etxeita, Busturialdea deritxagun horretakoa bete-betean; ez Markinaldeko, ez Arratia aldeko ereduoa. Berezitasun horrek balio apartekoa emoten deutso haren lanari, eta bide batez esan dagidan, ni neu be, euskereari dagokionez, inongoa izatekotan Bizkai erdialdekoa nazala; eta ezin ukatu, horrek be gehiago estutzen dauala Etxeitagazko lokarria.

1. BIOGRAFIA ETA BIBLIOGRAFIA

1.1. Bizi-zertzeladak

Gure aurretik be izan dira Etxeita estimuz hartu izan daben idazle edo ikertzaileak. Oraindino oraintsu hil dan Eusebio Erkiaga adiskideak hartu deutso aspaldion ardurarik handiena gure mundakarrari, 1961eko Olerti egunean Larran eskainiriko berbaldian (*Olerti* 1962, III-IV, 107-123). Honen aurretik, Gregorio Mujika-k, Etxeitaren heriotzea dala-ta, *Euskal-Esnalea*-ko zuzendari legez omenaldi modura eskeini eutsan biografia beroa daukagu (1915), edo Zirilo Arzubiagak *Jaungoiko zalen* (1915-IV-4) eginiko laburragoa. Horreezaz ganera, oraintsua-go, Villasante, Zarate, Mitxelena, Aita Onaindia, Kortazar, Sarriguarte eta Aitor Etxebarria arduratu izan dira, besteak beste, haren bizitza edo lanaren nondik norakoaz, guri geuri be jakin-min apartekoa sorrerazo izan deuskuna bestalde. Argitaratutako guztiaz ganera (ikus atzeko bibliografia laburra), itsasgizon musika- eta euskalzaile honen nonzebarriak ezagutzeko ez da iturri txarra bere *Memorias* eskuizkribua.

Berezia dogu Etxeitaren nortasuna euskal letretan, bera-riaz lanbidea kontutan hartu ezker. Ez dogu ez eleizgizona, ez letradua, ez osagilea, ez irakaslea; itsasgizona, «itsastarra» dogu; ez itsasgizon zehea horraitino, goi mailako *marinoa* baino, eskolatua eta jaun taiukoa: euskal letretako itsas zalduna. Bere

izaera *atipiko* horrek bihurtzen dau aldiberean erakargarri, eta ohizkoaz osterantzeko mundu batetik etorria izateak modu apartekoan aberasten dau euskal literatura bera. Bere denboran ez geroagoan be ez dago beste euskal literato bat, erbeste zabaleko gizarteak eta batez be itsas handietakoak euskal nobelagintzan Etxeitaren neurrian txertatzen jakin dauanik. Beraren idatz-emaizta handiegia ez bada be, erbestean ibilte luzeak egin ondorengoa da, han-hemengo osteretan jakite eta ezaguerazabala batu ostekoa. Bizitza luze horretako ikasiek aberasten dabe beraren sorkuntza.

Izan be, Etxeitak bizitza kontatzen deusku bere idazlane-tan; kristau balore sendoetan oinarriturik eta balore etiko-moral artezen saretik iragazirik, beraren begiz dakusan gizarte eta bizimoduaren gorabeherak isuriko deuskuz idatzietan. Eta urruneko gizartea baino gehiago, hur-hurrekoa, bere burua be tartean dala.

*Jose*txo elaberria parebako lekukotasuna dogu Etxeitaren bizitza ezagutzeko.

Uritarra dogu Etxeita, kaletarra; baina uri txiki euskaldun batekoa. Gaur dazaugun Mundaka eta Etxeitaren sasoikoa ez dira hain desbardinak handi-txikian; bai tamalez, euskalduntasunean. Udatiar erdaldunen etorrereak erdaldunduago eta erdalzaleago bihurtu dau gaurko eta aspaldiotako Mundaka. Nahi dana esan bedi, uria jakintza-gaietan beti be emonkorrago gertatu da baserria baino; beste gizarte eta kultura batzutan legez, euskaldunenean be: euskal literaturan bertan be ikusi baino ez dago «kalearen» ekarria: Domingo Agirre be uritarra genduan, eta beronen antzean, itsasaldekoa; oraintsuago, Erkiaga eta Zubikarai izan ditugun moduan. Baina lehenagora jota, zer esan Mogel markinarra, Añibarro areatzarra, Astarloa durangarra edo Zabala bilbotarra gogoratu ezker? Bizkaiko urien euskalduntasuna guztiz makaldurik dakuskun aldi honetan, ezinbestez halako lehenminez begiratu behar gure lehengo urien emoi aberatsari. *Jose*txo elaberrian baserriko bizimodua goratu nahia nabarmen egonagaitik, Mundaka, Bermeo, Bilbo eta Buenos Aires legezko uri eta uriburuen ardatzguna ez da ahaztu behar.

Etxeitaren idazkuntza berandu-berandukoa da: Filipineta-
tik etorri ostean argitaratua. Gogora daigun 1915ean hil zala 72
urtegaz, eta aurre-urretxoan (1909 eta 1910ean) argitara emon
zituala bere liburuak. Artean bizi luzea igaroa zan. 1842ko
abenduan jaio zan Mundakan, bere ama Josefa Luzarragaren
jaioterrian. Aita Durangaldekoa eban, Garaikoa hatan be:
Markos Etxeita. Ez da alperrekoa datu hau, ze Josetxoren abe-
raspidearen iturri izango dan Dari Basogane-ko, Buenos Aires-
tik hurreko etxaguntza galant baten jabe dana, jaiotzaz Abadi-
nokoa dogu, eta jaioterrira behin betiko datorrenean be, Du-
rangoko alaba bategaz ezkonduko da. Durangaldeagazko lotu-
ra hori, bada, aitatatik jatorko Jose Manueli. 1867an
ezkonduko zan Juana Abaroa Mundakako alabeagaz eta seme
bakarra izan eben, Salvador izenekoa. Honen antzekoa da ela-
berriko protagonista bien egoerea be: Eladi, alaba bakarra, eta
Josetxo be, Ondartzako bizialdian behintzat, seme bakarra.

Erkiagak dirauskunez, gizon bardingoa ei zan, baltzerana
baina begi-urdira, bekoki-zabala eta ezpan-lodia. Izaeraz, atse-
gina eta mazala ei zan; jauntxo zein jende zeheagaz hartuemon
bardintsu eta txerakorra jagoten ekiana, oso-osoko gizona, atze
txar bakoa. Buruz argia ei zan, horraitino, eta behar egin zale
amorratua. Etxeitaren kanpo-irudia, Manilako alkate zan den-
borako argazki baten bidez egin da ezagun, batez be. Dotore
jantzirik, alkate-makila eta guzti agiri da argazkian Etxeita zaldun
euskalduna. Eta nortzuk ete dira *J-n* barruko bigarren orriko ar-
gazkian datorren mutiko mardoa (Josetxo) eta *Jaioterra Maitia*
[JM]-ko orri berean agiri dan neska gazte sendoa (Jule)?

Josetxo elaberria bera dogu Etxeitaren bizi-aztarrenak bi-
latzeko gidabide aproposa. Alboan ipini daiguzan Jose Manue-
len eta Josetxoren bizi-urratsak. Elaberriko protagonistearen
antzean, gure idazlea gazterik sartu zan itsas bizimoduan, ontzi-
mutil legez, itsas trebetasunak ikasten. Bilbon burutu zituan
Nautika-ikasketak, azterketetan emaitza ezin hobek aateraten
zituala: Josetxok legez, fina ez eze, adimen zolia ebalu erakutsi
eban. Itsasaldi-saioak eginda gero, pilotu izatera heldu zan, eta
bere itsas ibilaldietan bereak eta bi jasan behar izan ei zituan

itsasoetan, ekatx eta galarrena bildurgarriei aurre emon beharrez. Bilboko «Larrinaga y Compañía» dalakoaren ontzietan lan egin eban bere bizian, ontzidi honen kapitai kargua jadisieraino. Itsasaldi luzeen ondoren, Manilan lekutuko da, ontzidi beronek uri haretan emon eutsan ardura nagusia dala-ta: bere baforeen kapitai begirale ardurea, egoitza Manilan eukana hain zuzen. Ardura bat baino gehiago izango ditu Etxeitak, batera edo tarteka, han egingo dauan hamasei urteko egotaldian: «Larrinaga y Compañía» ontzidiaren zuzendaritza hamasei urtean, Manilako Portuko Lan-batzordeko Bozemaile, Filipinak Isletako Administrazio-Kontseilari, Tabako Alkartasuneko Aholkulari eta Merkatal Ganbarako Lehendakari. Bere ardura guztietan artez, zintzo eta guztien eretxi onean jokatzen jakin ebalako, azkenez Manilako alkatetza eskeini eutsen. Holan bada, merkatalgo, administrazio eta politika-ardurak ditu bere gain egotaldi horretan. *Jose txo* elaberrian ia azkeneraino ez jaku aitatzen Filipinetako lurraldea eta Manilako uriburua, orduan oraindino Espainiako kolonia zana. Jose txoren aita odolkoa, Erromulo naparra, goi-karguko militarra izanik, hara bialduko dabe han espainiarren aurka erabilen guduan parte hartzera, eta merkatal harremanen bidez, egotaldi luzea eginda gero, han aberastuko da. Pertsonaia horren bidez erakutsiko deusku Etxeitak Manilako bere egotaldia:

«Manilan egon zan arte, usmau eban, gauza batzuen salerosiaz, irabazi leitekeala polito dirua, ta asi zan salerosietan, eukan diruaz. Ogetabi urtetan egon zan Manilan, da etxeratu zan erdi makalik, baina diru askogaz: etxean, urtebetean jarri zan gizon ederra.» (356)¹

Zertzeladok ez dabilz urrun Etxeitarengandik, Erromuloren kanpo-egotaldia luzetxoagoa izan arren. Erdi-makalik etxeratzean be hur dabilz: zahartzaroruntz bere burua makal-

¹ Sarrera honetan azalpenen argigarri jarri diran adibideak nobela honen lehenengo ediziotik hartuta dagoz, 1909-kotik; beraz, bai grafia bai orrialde zenbakiak hangoei dagokez.

tzen ikusi ebanean Mundakara bihurtzea erabagi eban gure idazleak. Eta heriotzea ekarriko eutsan bronkitis kronikoa noiztikoa eban ez dakigun arren, pentsa leiteke etorri aurretikoa izan zeitekeala.

Baina Manilako egotaldiaren atzera-begiratu bat «Negar Atsegintzuak Sortaldean» kronikatxoan (1912) be egingo dau. «Urrun, guztiz urrun sortaldean, Indostan eta China baiño sortalderago dago, taiu ta andiera bardingak dabezan ugarte (isla) asko aurkitzen diran itxasoa. Ugarte orretan lurralde orritsuak dagoz, eta uzta ugariak artzen dira; ez bakarrik bertan bizi diranentzat, baita atzerrietara biraltzeko be» (25). Eta honetara jarraia emoten deutso: «Jesusen Lagundiak zabaldu ebazan bere sustrai ongille luzeak Sortaldeko Lora orretara be, ta an euken Iñazio Deunaren izenean eregiriko eliza eder bat, lurrikaren bildurrez sendo egiña ta ondo apaindua». Eta ondoren San Inazio egunean eleiza horretan egin zan meza nagusian San Inazioren «ibilneurria» edo martxa ezaguna euskeraz eta bertako biztanleak kantaturik entzutean, euskaldun batek barruan sentitu eban negargura samurra kontatzen deusku, han izan ziran euskaldun biren arteko solasaldiaren bidez.

Mundakara bihurtzen danean, astronomia nautikoa, musika eta euskal literatura lantzeari ekingo deutso. Etxeitak berak egina da, bere abizena izentzat daroan Mundakako txalet-etxea, tren-geltokitik hur dagoana. Atzeko aldetik itsas ikuspegi galanta dauka. Handik ikusten dira bere *Josetxo*-an zertzelatzen dituan itsasaldeko hainbat inguru: Gernikako errioa Mundakan itsasoratzen dan gunea, Izaro islea, Ogoño lurlepoa, Atxerre mendia. Eta Villasantek dirauskunez, idazlearen denporan terraza bat ei eukan, eta handik itsasadarraren Gernikara arteko ibilia ikusten ei zan. Ikuspegiaren aldetik, Ondartzako baserri-etxeak bere bizitexearen oihartzuna dirudi, V, atalaren hasieran damaigunez².

² Hara hemen deskribapen polit hau:

«Ondartzatik begiratuezkero sortalde edo eguzkiak igoten daben alderantz, ikusten da, begien aurrean aurkeztu leitekean laurkarik ederrena. Itsasoa ta leorra, itsasoak urrunean eratuten daben marboila, zeru ta itsaso alkarregaz batuten

Jose txo elaberriari, autobiografikoa izate horrek emoten deutso balioaren zati on bat: idazleak, bere haragian bizi izandako jazoera eta bizipenak dakarkuzalako. Obrako eduki asko eta asko ez dira begitantzinoak ez asmakizunak, bere bizimodu eraginean ikusi eta jasandako gertaerak baino, batzutan latzak, beste batzutan pozgarri edo barregarriak. Bizipenok euskeraz idatziak egotean, baleiteke euren berezko bizitasuna apurren bat galtzea eta erdaraz idatzi izan baleu, emoten daben baino sinesgarriago gertatzea. Ustekizun hutsa da dinodan hau. Halandia be, badira kontaldi batzuk bene-benetan gertatuaren antza hobeto erakusten dabenak. Txomin-txikik *Jose txo* koskondu itsasoratu-barriari, ekatx-estualdi baten ostean, garantzen deutzan Cabo de Hornos lur-muturreko ekatx gogorrarena da guztietan sinesgarriena. Jose Manueli berari jazorikoa da izan be. Hirugarren pilotu izateko azterketak Ferrol-en egin eta ostean, Guayaquil-era ostera batzuk egin ei zituan lur-mutur horretan zehar. Eta haetariko baten, ekatxak erasota, kakao-zama astuna alde batera saihestu ei jaken, eta hondatu barik bizirik urten ebenean pozik, *memorietan* dinoskunez. Berebiziko gomutakizuna, bere elaberrian aitatu barik itxi ezinekoa, edoze lan be. Agirrerren *Kitolis*-i darion egia-antz berbera dario Etxeitarren honi be. Kontakizunaren sarrera modura, halan dino:

«Eztok ikusi zer dan *Cabo de Hornos* esaten deuzten lekua! An dozak aizeak eta itsasoak! Edurmendiak irudi izaten dabez ango olatuak, aizeak indar andiak daukazanean: nik eta nire lagunak, Guayaquiltik Santanderrera kakaoz zamaturik etorri gineanean, artu genduzan ekatxak eta edurrak, ezin sinistu leitekez ikusi baga. Gomuta dot zireana garagarrilean.» (94)

direala iruditen dan ustaia: onatxoago, Izaro deritxon itsasleorra, itsasertzak, itsasbazterrak, atxak, ondartzak, itsasertzetik gora jasoten dan Ogoño deritxon ikusgarriko atx-mendia edo itsasmunea, Mundaka aldetik, serreaz ebagiriko atxa dirudiena: beste aldera begiratuezkero, ikusten dira Oiz mendia, ta an-da-emen, beste andiera ezbardinak daukezan asko: baita Gernikara arteko itsasarte luzea be, urgorenean urez beterik eta urberenean ondartzeta edatsuakaz. Ganera, eguraldi onetan ikusten dira Bermeo, Mundaka ta Elantxobeko txalupa, potin da batel arrantzuan dabilzan guztiak, eta sarri ontzi andiak be euren belak edo aize-oialak zabaldua, itsasoan zear doazanak. Onekaz ikusbide eder guztiokaz, ondo jolastu oi dira Ondartzan bizi direanen begiak eta ikusmenak.» (J 27)

Ondoren, orrialde bi t'erdi betetzen dituen monologo baten bidez garantzen dau Txomin-txikiren ahoz zehe-zehe jazo-kune guztia.

Baina Hornos-era bidaiaren aurretik, Habana-ra joanetorri bi egina zan, hirugarren pilotu izateko azterketak Ferrol-en goitu baino lehen. Hornos-ko esturaldiaren ostean atzera barriro joango da Kubarantz, Matanzas deritxon uri eta itsaskolkora, eta beste bidaia bi be bai, bigarren pilotutzea lehenbailehen lortu ahal izateko. Geroago, Derrota-pilotu edo itsas guztietakoaren pilotu izatea lortu ei eban.

Liverpool-en fragata baten sarturik, Habanan zehar Mexiko-ko Matamoros urira joateko agindua hartu eben eta orduan be beste ezusteko gertaera txar bat: lau bat hilabetean bertan geldi lotu beharra suertatu jakon, han ebilen Espainiagazko gudua zala-ta. Bizitzako zehetasun jakingarriok ezin hobeto nobelaturik dakuskuz Josetxo gazte protagonistearen bidez, elaberriko XIII. kapituluan, «Josetxo katigu Mexikon» izenburupean. Josetxok, katigualdiaren ondoren, Englandara joko dau, gero atzera barriro, ontziko «bigarren agintari» legez Puerto Rico eta Habana aldera joteko, itsasaldi horretan be harrigarritzko gertaerak jasaten dituala. Baina Mexikoren oihartzuna, zabalago oraindino, bere hurrengo elaberrian dogu: *Jaioterri Maitia*-n: Sabas eta Jule, eta euron moduan beste mundakar batzuk, lurralde zabal hatan aurkituko dabe babesa.

Josetxo, kapitaiia makalik jarri zalako, ontziburu jarri zane-ko gertaera be Etxeitari berari jazorikoa da, Matamoros-etik honantzean; oraindino hogei urte besterik ez zituala.

Munduko itsasoetan luzaroan jardun eban ordurik aurrera itsasginen. Itsasoa, Etxeitaren ezeze bere pertsonairik gehienen bihotzean dago: itsasoa, mundu zabalerako leihoa da eta itsasgintza, gizaki eta merkatalgaiantzako zubia. *Itsas* sustrai hori Etxeitaren euskeran bertan da ezagun, lexikotik bertatik hasita (itsasalde, itsasarte, itsasbazter, itsasbete, itsasertz, itsas gane / itsaspe, itsasgora, itsasketa, itsasleor / itsasleortu, itsasmuna, itsastar, itsastxori...). Bere idatzietan isladatzen dan ugaritasun

eta maiztasun horretan agiri dau noraino sentitzen eban itsas mundua.

Itsasgintza-urteen ondoren, Filipinetako egotaldi luzea dogu, gorago aitatu doguna. Ospe eta itzal handia irabazi zituan Manilako urian, nahiz urte latzak izango ziran hareek independentziazaleen jazarraldi etengabeakaitik. Pentsatzekoa da diruak egingo zituala oraindino Espainiako kolonia zan hatan (1898 arte), eta besteak beste, hori izango zala han hain egonaldi luzea egitearen arrazoietariko bat.

1.2. Etxeita idazle

Bere zahartzaroan ekin eutsan biziroen euskeraz idazteari, Filipinetatik Mundakara bihurtu ostean, euskera lantzeko zaleztasuna gazterik ei eukan baina. Dan sasoikoa izateko, idazle ugaria dogu Etxeita, bere elaberri biak eta poesia-liburuaz gainera, sasoe hatako euskal aldizkarietan eurrez idatziko dauana. Bere idazlan laburrik gehienak, batez be, *Euskal-Esnalea*-n ateratu zituan; idatzi eban baita, *Revista Euzkadi* eta *Jaungoiko-zale* aldizkarietan, eta *La Gaceta del Norte* eta *Euzkadi* egunkarietan. Ipuin eta poesia-sari batzuk be jaso zituan.

Bere obra luzeen artean, argitara dakargun hau da lehenengoa, *Josetxo* elaberria (1909), eta handik urtebetegarrenera dakar hurrengoa, *Jaioterri Maitia* (1910), baktotxean ortografia eta morfologia aukera desbardinak egiten dituala, aldi hatan bizkaieraren barruan lehian egozan biak: tradiziozko joera lehenengoan, Azkue eta ingurukoengandik hurragokoa, eta aberztale aranatarrek bultzatutako barria bigarrenean.

Etxeitaren idazkuntza zahartzaroko langintza da beraz, 1915ean gertaturiko heriotzeak ugariagoa izatea galerazoko ebana.

Elaberriak

Josetxo da (1909) lehenen argitaratuko dauana. Elaberri luzea orduan ohi zanerako: 376 orrialde guztira eta hogeitabat

kapitulutan banandurik textua. Villasantek dirauskunez, Arantzazuko arkibuan datza honen eskuizkribu jatorrizkoa.

Jaioterri Maitia (1910), hurrengo urtean argitaratua. Aurreako baino hainbat laburragoa, nahiz kapituluetan bardintsua izan: hoge, guztira.

Aurretiazko plangintza baten ondorio dira bitzuk, *Jose txo-n* iragarten deusku-eta aranatarren idazkera-moldez aterako dauala laster hurrengoa.

Olerkia

Etxeitaren olerkigintza nagusia *Au, Ori ta Bestia. Neurritzak* (1913) liburuskari dator, olerkietariko zati batzuk aurrez aldizkarietan argitaratuak bazituan be, *Euskal-Esnalean [EE]* berariaz. Liburu honen ostean be idatzi zituan beste olerki dotore batzuk aldizkari hatan.

Idazlan laburrak

Etxeitaren idazlan laburrek txorta polit bat osotzeko adina dira, nahiz eta ez izan guztiak genero batekoak. Kontaera labur-laburrak dira *EE*-ko ia danak, ipuin edo narrazio luzeago izan daitekezan zirriborro edo esbozo antzera idatziak, eurentariko batzuk.

Neska-mutilen arteko amodioa, jaioterria, atzerria, natura eta izadia (negua, ur eta errekek), giza sentimenak (poza, zorriona, errukia, gaztezero eta zahartzarora), giza jokaera on edo makurrak (laneko fintasuna, zintzotasuna, eskuzabaltasuna, guzurra eta iruzurra), giza izaerak (tematasuna), itsas gertaerak (itxaslapurrak, hondamendia), herri-pasadizu zelebrea (lapurretak).

Elaberri zein idazlan laburrotan barru aberatseko gizon bat ikusten dogu isladaturik: gizatasun handikoa, barru zabalekoa, izaera bigun eta adikorra dauana, baina aldi berean, etika eta moral artezaren jabe dana. Etxeitaren lana ez da jazoeren kontatze hutsera mugatuko; gizartea onbideratzeko asmo moraladarabil buruan idazte-lanaren bidez.

Gure idazlearen kristau-nortasuna errazago antzeman daiteke *Jaungoiko zale*-ko «Ikasbidiak» eta antzeko idatzi laburretan.

Itzulpena

Etxeitaren itzulpen-lanean Antonio Truebaren ipuinak beteten dabe arlo nagusia. *EE*-k atondu eban liburuskua baten argitara urten eban itzulpenok, itzultzailearen heriotza-urte berean. *Euskalerrriaren alde*-k aurreko urtean eratu eban Truebaren omenezko lehiaketan sarituak gertatu ziran lanok. Etxeita, G. Mujikak dinoskunez, bere kontura beste argitaraldi bat egiten ebilen, baina heriotzeak aurrea hartu eutsan. Horreez ganera, *Euzkadi*-n be badauka itzulpen-lantxo bat, «Zorijona» izenburuduna.

Itzulpen-lanokaitik esan daitekeena, ez dala asko igarten itzulpenak dirana. Bere kabuz idazten dauanean zein itzultzen dabilenean, estilo beretsua dario.

2. ETXEITAREN HIZKERA

Hizkuntzaren kezka

Mende-hasierako euskal idazle bat —are gehiago, elaberri-gilea izanik, ze aurretiko gitxi zituan genero horrek euskal literaturan, Etxeitak hurren zituanak Mogelen *Peru Abarka*, Azkueren *Bein da betiko* eta Tx. Agirrerren *Auñemendiko Lorea* eta *Kresala* dirala, ezinbestean egon behar hizkuntzaz eta honen erabileraz kezkatua. Hizkuntza literaturgintzan erabilteak berez dituan zailtasunez ganera, garai jakin horretan gertatzen ari diran barrikuntzek behartzen eban idazlea horretara. Eta Etxeitak txukun agertuko dau burua ardura horretan. Bere hitz-lauzko liburu biei gainbegiratu bat emon eta oin-oharrak irakurtea nahikoa da horrezaz ohartzeko. Hiztegi-oharrak dira ia beti: textuan agiri dan hitz ezezagun eta bitxi samarra, erdal ordezkio eta guzti ezarriko dau orrialde-barrenean. Batzutan hitz tradizino edo arrunt antzekoak diranak erdaraz adiera zehatza zein daben erakusteko (*Asabak* = Antepasados, *Atzerapide* = Inconveniente, *Parkamen* = Perdón), beste batzutan kultura-konzeptu finkatu bat euskeraz zelan emon dauan adie-

razoteko (*Gudulari* = Militar, *Legezkoa* = Legítimo), neologismo baten adiera azaltzeko (*Antzezki* = Imágen, *Geiganatu* = Redituar, *Ingi* = Papel). Hirugarren multzo honetakoak dira ugarietak. Dana dala, lehendik be inoiz esanik daukagu, Etxeitak neurria hartzen deusala neologismoari, eta sortu edo hautatzekotan be, gurago dauala euskal sustrai jatorretatik konzeptu modernoetarako ordezkooak eregi, eratorri edo konposaketa bidez, aranatarren bide ausartagotik baino. Neologismoak neurritz erabiliko baditu be, badirudi azken urteotako idazlan laburretan, artean erabilten ez zituan batzuri be sarrera emon eutse-la. Dana dala, *Revista Euzkadi*-ko idazlan banaketan darabilzan neologismo batzuk ez daukie bereak direan antzik —ortografia eta beharbada morfologiako beste ezaugarri batzuk ez daukien moduan—, aldizkariko hizkuntza-begiraleen galbahetik igaroke-ran txertatuak baino: *jaupari*, *oben* (pekatu), adib.

Morfologia eta sintaxian be igarten da hizkuntza-ahalegin hori: aditz-jokoan, hitanoaren erabileran, deklinabidean —nahiz honetan *J-n* darabilzan erizpide batzuk bitxi samar gertatu—, hitzen ordenan, mende-perpausen kateaketan, etab. Zertan aitatu ez da ortografian egiten dauan aukera orekatsua. Eta hizkuntza-baliapideak dirala-ta, hitz mailan egiten dauan ahaleginaz ganera, esakera eginak, pertsonaien esatemodu eta ateraldiak, errefrau eta antzekoak be gogoan hartzekoak dira. Adibidez, honetara emoten deutso hasierea *JM*-ren *Berbaurria*-ri: «Aginduba zorra dala esan oida».

Azkue, Orixe edo Zamarripagandik gure idazlea urruntzen dauan ezaugarri bat, eta Kirikiño eta Tx. Agirrerenganako kideago egiten dauana, hau da: Etxeita ez da gramatikaria, idazle soila baino, eta idatz-jardunaren bidez erantzungo deutse dituan hizkuntza-ardura guztiei, nekez gogoetaren bidez. Noiz edo behin harrituko gaitu halandabe euskal hitzen morfologiazko azalpenen bategaz³. Nahiz berariaz berak autortu ez, haren

³ *Euzkadi* aldizkarian (1912, 472) -en eta -riengo atzizkiekin sorturiko gaiso edo eritasun eremuko eratorriez jardungo dau erdaraz. Orduantxe aurreratxoago

idazkerak garbi salatzen dau, aurretiko idazleen ereduaz (klasi-koenaz be bai apurren bat) eta herritarren berbakeraz hornidu gura dala, gramatikarien esanez baino. Eta hori da arrazoia, hitz-ordena eta sintaxi mailan, haiek eskatzen ebezan zorrozta-sunei jaramon lar egin barik, nasai jokatzearena, geroago ikusi-ko dogunez.

Hizkera landua

Idazten dauanean arreta handia jartzen dauan gizona dogu Etxeita, txukuna eta kurioa. Formaren aldetik, beraz, hizkera borobila darabil, morfologia landuaz eregia. Bizkaiera idatzia- ren barruan estilo bat finkatzen jakin dau, bere inguruko ber- bakuntzan eta aldiberean aurreko literatura-tradizioan oinarri- tua. Beste hizkuntza landuagoetan erdua guztiz aurrez emona izan ohi da, idazleak hartu eta erabili beste zereginik ez dauala. Euskerearen kasuan, ostera, eta bizkai-euskerearenean bera- riaz, idazlea aukera-ahalegin bat egitera behartua dago, eta Etxeitaren garaian oraindino biziago: grafia, morfologia, sintaxia, lexikoa. Hitzaurrean bera jatorku honen autorraz: «landu- bako arri txatxar onegaz euskerearen alde eregiten dagoan jau- regira» datorrela dinoskunean. Grafiarena arazo larria zan oraindino aldi hatan, bizkai-euskeraren kasuan morfologia-ere- duaren bikoiztasunaz larriago bihurtzen zana: eta aurrez eratu- riko planaren araura, *J*-n Añibarroren tradizinoko hitz-ebakera erabiliko dau, Etxeitaren denboran Azkuek bultzatzen ebana; eta *JM*-n, Mogelen tradizinotik hurragoko aranatarrena, Omaetxebarriaren konparantzaz (1959) baliatzeko. Bakeak eta

argitara emon eban Ignacio Maria Etxaidek liburuska interesgarri bat —*Sub- fijación, Prefijación y Composición en el Idioma Euskaro*—, aranatarrek jera onaz hartu ebana; izan be, euren hitz-sorkuntza bidean argi egitera etorrelako.

1914an, Txinan misiolari egoan Akordagoitia euskal idazleari *S* eta *Z* euskaraz noiz erabili behar diran erantzunez bialtzen dau Etxeitak erantzun-gutun bat, «Galde-erantzupenak» atalean. Sabino Aranaren, haren «Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino» liburutxoaren jarraitzaile agertzen da bete-betean erantzun horretan.

alkarbideak bilatu gurean dabil joera bitzuren artean, guztiei poz emon gurarik; baleiteke autoreak berak begikoago izatea *J*-ko eredia, bigarren elaberrikoa baino, baina aranatarren giroa indartsuago etorren gizartean, batez be *Euzkadi* egunkaria abian hasten danetik, eta Etxeitaren idazkerak be eboluzio txiki bat ezagutuko dau giro barri horren eraginari eskerrak. *J*-ko sarreran aitutzen dituan euskal letragizonen izenak, hizkuntzari (edo hizkuntzazale) joerakoak dira, literaturgileenak baino gehiago: Astarloa, *Campion*, Azkue eta Arana-Goiti. *Campion Euskal-Esnalea*-ko lehendakaria zanagazko begikotasuna ezagun dau, aldizkari honi eskeini eutsan-eta idazlan bidez laguntzarik handiena. Erromulo eta Anatole, Josetxoren guraso napparrak (Etxaurikoak), *Campione*ek bizkortu gura eban nafarren euskalduntasuna on egitera datoz.

Hizkera erraza

Etxeitaren euskal hizkera guztiz erraza da; horretan bat datoz eritxi-emole guztiak. M. Zaratek (*BEI* 119) ondo dinoanez, «euskal-idazle zintzo ta jakitun onen idazlanak irakurgarriak dira, euskeraz irakurten asten diranentzako, batez bere». Erraztasun horren arrazoiak argiak dira: Etxeitak darabilzan hizkuntza-egiturak ez dira korapilatuegiak sintaxiaren aldetik. Estilo argia dauka, bestalde: adierazo gura dauana argi esaten daki. Bestalde, Etxeitaren hizkuntza-baliapideak nahiko mugatuak dira, Kirikiño, Zamarripa edota batez be Azkuegaz konparatzen badogu. Etxeitaren hizkera erraza ez da nahastau behar hizkera herrikoiaz. Kirikiño eta Zamarripak herri-hizkera darabile, baina baliapide ugarigaz eta bizitasun handiz. Etxeitarena motelagoa da, mugatuagoa dalako. Bestalde, esaldi eta egituren errepikak ugariak dira: behin lehenengo atalak irakurri ezkerro, erraz antzematen da hurrengo guztietako estiloa. Bardin gertatzen da *JM* elaberriaz, behin *J* irakurri ezkerro: esamolde eta hizkera bardintsua bietan.

3. «JOSETXO» ELABERRIAZ

3.1. Ekandua, historia eta biografia

Josetxo da Etxeitaren obran bizitzatik hurren gertatzen dana; *Jaioterri Maitia* baino askozaz hurrago, edozelan be, bere idazlan laburretan be zehaztasun autobiografikoak ugariak dira baina. Ezin esan daiteke horraitino, oso-osoan errealismo joe-rako obra bat danik: egileak inguruan bizi izan eban gizartea zan modu-moduan adieraztetik hurrun dagoalako. XIX. mende-mugan errealitatea itsusiegia zan, zan legezkoa isladatzeko; are gehiago, Espainiako erreinuak, kolonien eta guduen galera mingarriekin, eroian gainbeherako abiadan. Euskalerrriaren ge-roa pozkorrago ikusten ebala dirudi Etxeitak, indarra hartu ba-rrri egoan Sabino Aranak ereindako abertzaletasunaren epele-an. Orduko egoerea euskera eta euskal jakintzarentzat hain argia ez bazan be, itxaropenez eta fedez ikusten eban euskal geroa, giro horren alde euskal uriburu guztietan sortu ziran mogimenduei esker.

Errealismoaren mogimendu zabalaren barruan, ohitura-elaberriaren ezaugarria joako beste edozein baino hobeto Etxeitaren nobelagintzari. Tx. Agirrerena legez, Espainian XIX. mendean nagusi zan errealismo-kostunbrismo txokozale-aren giroan kokatu behar dogu batez bere obra hau. Truebaren ipuinen euskeratzaile izan zala gogoratzeak berak indartzen dau iturri horren lorratza. Elaberria Mundakan kokatua dago, izen eta guzti, bigarrena egongo dan legez. Hurreko zein urru-neko auzo, mendi, bazter, herri, uri, uriburu eta toki guztiak egiazko izenekin bateatzen ditu, euren ezaugarriak elaberrian kazetari-erreportaia baten balitz legez emoten dirala. Bere ela-berri bien kokagune nagusientzat izen barriak asmatzen ez eban irudimen-ahaleginik egin gura izan, Arranondo edo Luza-ro legezko uri begitanduak bilatzen.

Erromantizismoaren usaina be badario elaberriari, batez be euskaldunen jatorrizko gizarte garbi eta arkadiakoaren bi-lakuntzan. Orainaren akats, muga eta hutsuneak antxinate ede-

rrago baten izareaz estaltzeko joerea, Euskalerriko ezeze, beste herrialde batzutako Erromantizismo-aldiko literaturgintzaren ezaugarria be bada. Amesten dogun gizartea antxinate galduan kokatuaz, estaldu, leundu eta apaintzen dogu bizi dogun giroaren lorra eta itzaltasuna. *JM* elaberrian askoz nabarmenagoa da joera hori, *J*-n baino. Baina honetan be, pasarte batzutan guztiz agirian dago euskal mundu paradisukoi baten amesa. Lehenengo atalean, *Ondartza* izenburutzat dauan horretan, hara ze mundu aurkezten deuskun idazleak: industriagintza eta teknikak kutsatu bako euskal gizarte bat, baserri baten irudipean. Peru Abarkaren Landeta, Joanes artzaiaren Zabaleta, Apaolazaren *Pachico Cherren* ipuineko —Truebaren *El Judas de la casa* izenekoaren egokitzapena berau— «Etxe-alai», egokitzailak Antzuolatik Deskargara bidean mendi-magalean kokatu dauan baserri-etxe ederra, eta Txomin-txikiren *Ondartza* tradizio beraren katebegi antzekoak dira, zein bere aldi, giro eta lekuan kokatirik. XIX. mendearen erditik indartuz etorren lantegi eta uri-gizarte aurrerazaleak kaltetu bagako basagirotz garbiaren aldeko apustua egingo dabe euskal idazleek; tradizioa eta ohitura zaharren aldeko jokoa. Larramendi, Mogel eta Astarloak askozaz lehenago gogoeta erabili eben antxinate googarria bersortuko deusku Etxeitak be, foruen galtzearen ondoren eta sortu barri zan abertzaletasunaren berotasunean helburu amesgarri bihurtu zana:

«Antxiña, erri batetik bestera joateko, bide ziorrak eta burpide bedarrak edo estuak egozanean; aberats edo dirudunak zaldi-ganeko kartoletan berera jesarrita, txaka-txaka, oinbideak zear, mendirik-mendi joaten zireanean; gaztaña zugatzari gexoa agertu-orduko, ta olloak euren txitatxoak egopean berobrotan eukiten dabezan lez, Gernika-ko Aritx ederrak ezkurrik-beste lege, ondo neurtuak eta obeto zainduak, bizi-bizirik, bere orripean eukazanean, burdinbide, tximist-argi ta oraintsuko asmo ta aurrerapide asko agertu-orduko; Mundaka-tik Bermeo-rutz, ordulaurengo bidean egoan *Ondartza* izena eban baso-etxe zar, orma sendoakaz egiña.» (35)

Sarrerako hori igaro eta elaberriaren maminean sartu ez-keru, narrazioak beste neurri bat hartzen dau igarri-igarrian. Ohiturazaletasunak obran daukan pisua nabaria izan arren, ekintza edo abenturazkoa dala gehiago autor daiteke, eta historikoa be bai zati baten, nahiz kontaktzen deuskun historia orain-sukoa gertatu, ez antxinakoa. Autobiografismoaren alderdi garrantzitsua esan barik doa. *Jose txo* erakargarri bihurtzen bada gaurko irakurleentzat, egia antzeko abentura etenbakoz beteriko narrazio bat dalako da, alde batetik. Pio Barojaren elaberriekin jazoten dan antzera —eta *Las inquietudes de Santi Andia* jatort berehalakoan burura—, pasadizu eta jazokuneak bata bestearen ondoren kateatzen dira (Mundakako herri, portu edo eleizakoak, itsasoetakoak, soldadutzakoak, erromerietakoak, ferietakoak, urruneko lurraldeetakoak), hasieratik eta akabura iraungo dauan protagonisten arteko amodio isil-ageriko harreman gorabeheratsuak danari batasuna emoten deusala. *J*-ko pasadizuak egiazko espazio eta denbora-guneetan kokatzen ditu Etxeitak, berak bizi izan dituen XIX. mendearen bigarren erdiko jazoeren artean. Azken buruan, autorearen biografiaren ispilu izan nahi dauan elaberria izateak emoten deutso, hein handi baten, obrari bere trinkotasuna eta balioa.

3.2. Egitura

3.2.1. Kanpo-egitura

Elaberriaren lortze handienetariko bat, bere egitura trinko, oso eta biribila da; hainbat meritugarriagoa, obraren mardultasuna ikusirik (laurehun orrialdera hurreratzen da jatorrizkoan). Etxeita ez da etorri-ahala idazten dauan horreetarikoa: lehenengo gogoan erabili, ondoren egitura bat marraztu, obraren koherentzia bermatuko dauana, eta gero ekin idazteari. Elaberri bien «Argibidea» edo aurkibidea irakurteak berak erakusten dau metodologia hori ondo. Narrazioaren laburpen zehatza da, *JM*-n legetxe. Bestera esanda, aurre-zirriborroaren berridazketa da, elaberria osotu ondoren erabarritua. Baina

Etxeitak aurrez lotzen ditu kontakizunaren ertzak, neurriak, pertsonaien arteko lokarriak, ekintzen katebegiak, atzenean dana ora bat eginda gera dadin. Etxeitak heldutasuna, gogoeta-ahalmen trinkoa eta adimen zolia erakutsi ditu bere literaturgintzan: egitura koherente bat eiho dau; hasieratik eta amaiera-ra, bere ibili guztian zehar, bizitzaren ziklo bat betetzen da, ertzik agirian edo dindirrik solte itxi barik. Bere narraketa ondo arildurik, orapilaturik eta egitamu sendoaz trentzaturik geldituko da.

Hogeiabat ataletan garanduko jaku Josetxoren bizitza, Ondartzan agertzen danerik eta Eladigaz ezkondu eta Etxauriko gurasoakaz harremana sendatzen dauan arte. Egia da atal batzuk guztiz laburrak (I, II, XVI, XVII eta XIX) eta beste batzuk guztiz luzeak dirala (batez be hamabostgarrena), gehienak tarteko neurria (hogei-hogeita hamar orrialde) dabean bitartean.

Narrazioaren eta kapitulu batzuen luzerea gorabehera, irakurraldia ez da gogaikarri egiten: ekintzaz josia, pasadizu oso desbardinez betea, eremu fisiko ugarigaz hornidua eta pertsonaia danetarikoz osotua egoteak laguntzen deusku irakurketa arintzen. Badaki idazleak episodio dibertigarriak txertatzen irakurlearen pozgarri.

3.2.2. *Barru-egitura*

Osagai guztiak garantzen ez gara hasiko, geure interesguneko bat-edo-batzuk baino:

PERTSONAIAK

Elaberriari izena emoten deusan izena, Josetxo, da protagonista nagusia, zeinen Eladi neskatileagazko amodio-istorioak gidatuko dauan narrazioaren ardatz nagusia. Etxeitaren sorkuntzarik ia gehienegitua da era honetakoa: erakarpen edo tirabira harremanean dagoan polaritate bikotxa: gizaseme-andrakumea. *JM*-n binomio gehiago arilduko dira argudioan: Sa-

bas eta Jule, Tomas eta Amele, eta Agaton-korkotx emakume desbardinekiko harremanean.

Amodioa, Etxeitaren kontakizunetan, txikitatik emerik, nagusi bihurtu arteko aldikada guztian dirauan eta sekula amatatu ez itxaropenez makaltzen ez dan neska-mutilen arteko eraspena da. «Nikanor eta Julecho» ipuina dogu, bere laburrean, Josetxo eta Eladiren eredutik hurrenekoa: «Nikanor'en auzoan bizi izan zan Julecho; biak ziran sentzaroko laguntxoak, goian zerua ta beian lurra ta itxasoa baño besterik ezegoala uste ebenean. [...] Julecho emaztegeia ebalá esaten eutsen Nikanorri auzoetan bizi ziranak» eskolara batera ibili ziran denboran. Nikanorrek atzerrian egotaldi luze bat eginda atzera bihurtu zanean, ez eukan gogoan besterik Juletxoganako maitasuna baino. Eta halan ezkondu ziran, seme-alabak ekarri eta zoriontsu bizi zahartzaro guztian be. «Errekartean» ipuinean Serapin eta Beniteren arteko amodio-eredua be beretsua da. «Kontze ta Bittor» ipuinekoa bardin. «Maitetasuna» ipuinean amodioa personifikaturik eta protagonista nagusi legez aurkezten deusku, lehen pertsonan amodio-bikote desbardinén gora-beherak azalduz. Badira, dana dala, Etxeitaren ipuinetan, amodio galduen edo beste eredu-mota batekoen kasuak be, orain harira ez datozanak.

Juana Mari eta Txomin-txiki, Josetxoren gurasoen paperean ditugu, nahiz odolekoak ez izan. Baserri-gizarteko tradiziozko ereduari oso-osoan dagokiozan pertsonaiak ditugu. Txomin-txikiren irudikapena erakargarriago begitantzen jaku, beragan dauan umore eta graziagaitik. Juana Mariren amatasuna ondo borobildurik darakusku Etxeitak. Amaganako lotura estua etengabea da Josetxoren bizi-joanean, eta susmoa dogu Etxeitaren beraren sentiera barrenengoak ete dagozan harreman horren atzean be. Beste gehiagotan be badarabil amaren irudia lehen planuan: «Amacho maitte-maittea» ipuinean, ama alargundu bat aurkezten deusku. Bere seme bakarrak erbestera joko dau diruak egitera, bien bitartean ama alargunori zahartzaroruntz ezindurik eta pobrero bizitzera beharturik dagoala. Hogeita hamar urtegarrenera aberasturik bihurtzen danean, es-

keko bihurturik aurkitu dau ama, ezagutu be nekez egiten dauala. Geure elaberrira bihurtuz, Juana Mari eta Txomin-txikiren irudia ez da hain dramatikoa. Euren presentziak elaberraren hasieratik akabura iraungo dau, eta euren zoria be protagonista nagusien bide berean joango da, zorion betean amaitzen dala.

Martin-zaldi eta Mari Jesus Demikukoren amodio-istorioa, Josetxoren umetako aldiunea aberastera dator, eta Karlos-geiztogazko tentsioak, Afrikako guduak eta erromerietako burru-kaldiek sortzen dabean interesgailurren bidez, bizitasun zolia txertatzen deutse kontaktari.

Bigarren maila baten, baina elaberri guztian zehar, Masi-ma eta Ermoken ditugu, Eladiren gurasoak. Antibaloreen eredu bihurtuko dira, emaztearen grina setatsuak iraunerazoten deusala aurkaritza-paper honi.

Gainontzeko pertsonaien artean Ankokerrenari deritxat erakargarri. *Ankoker* (85) tambolin-soinulariak, bere izakera, umore eta pikardian, gerrateko pasadizuaren aipuetan, bere deskripzio fisikoan, ezeukia izatean, guztiz benetakoa dirudi, autoreak ezagutzen eban gizartetik aterea: ziurrenik, herriko pertsonaia ezagunen baten espilua. Gerra-denporako kontakizuna umore handikoa da, egia eta begitantzinoaren arteko zerbait. Polen, Txotxo-tontorren ama zaharra eta honen gaztetako lagun Gordenegaitik be beste hainbeste esan daiteke (89).

Jitanoen aurkezpena be txito zelebrea da: «*Gitanuok* zirean, iru gizon, iru emakuma, lau ume, lau asto ta txakurtxo bi».

NARRATZAILEA

Narratzaileak bere eretxi edo sentierak zuzen-zuzen emoten daki batzutan, pertsonaia eta honen jokabideei buruzko ebaluazioak eginez. Halan, Eladitxo eta gurasoei buruz:

«Ume zoribakoa! Jaungoikoak ikusten ditu zure naibageak, eta berak erakutsiko deus munduan jarraitu bear dozun bidea!» (75)

Orojakilea da alde guztietatik, ondoko txatal honek ondo erakusten dauanez:

«Mundakan begoan inor, Eladitxo ikusten ebanik, nun ebi-
len, txalupak porturatuten zireanean? Portu ingurura begira-
tuezkero, aratxoago edo onatxoago, an ikusiko zan, bere lagun
bat edo bestegaz, txalupak ondoen ikusten zirean lekuan. Bere
begi baltz ederrak, zerbait bilatuten eben txaluparen baten: Jo-
setxo ikusiezkeru, joaten zan andik beste jolasetara.» (79)

Irakurlea be behin eta barrero aitutzen jaku, obra honetan
zein *JM*-n, kontaktetan partaide bat gehiago balitz legez.

ESPAZIOA

Etxeitaren kontaketa lekugune zabaletan zehar mogitzen
da, Europa eta Ameriketako *J*-ren kasuan, Filipinak be gogora-
tzen dirala. Europan, Frantzia, Ingalaterra, Espainia eta Euska-
lerria. Ameriketako, Uruguay, Argentina, Mexiko, Kuba eta Ka-
ribeko islak. Euskalerrriaren barruan, Bizkaiaz ganera, Nafa-
rroako lurraldea be hurreratzen deusku, Josetxoren guraso
odolekoen euskal lurra legez. Tokigune zehatzagoetara jo ezke-
ro, Cabo de Hornos itsasmuturra, Montevideo, London, Borde-
aux eta Buenos Aires legezko uri nagusiak ditugu garrantzi-
tsuen legez. Atzerriko lurraldeen irudi egiantzekoak emoten
badaki, errealismo-kostunbrismoari ondo joakozanak. Monte-
video uriburuen lanbide eta etxegintzaren zertzelada labur
hau, adibidez:

«Erasti atan, Montebideon, ain ugari egozan abelgorriak,
zein bost ogerlekoaz erosten zan idi baktxa: idiburuaren azu-
rrakaz eginda egozan ormak kanpoetan, da ontzi asko joaten
zirean andik Ameriketako alde guztietara, okela legortu, azur
da adarrakaz zamaturik.» (137)

Bizkai barruan, Bilbo, Bizkaiko uriburua eta merkatal por-
tu nagusia, Josetxoren itsasaldi guztien abiapuntu izango da
—jakina, Etxeitak Bilboko Larrinaga merkatalontzi-etxearen-

tzat lan egin izan eban luzaroko urteetan—. Gernika, euskal eskubideen ikur dan Haritxaren uria, euskaldun guztien erro-mesleku bihurtuko deusku Etxeitak, harako Iparragirreraren antzera bertso-kantuez omentzen dauala Aranak biztutako aber-tzaletasunaren suaren txingar balitz legez. Iparragirreraren oihartzun erromantikoa bizirik dago oraindino Etxeitagan: «Gernikako Aritx ederrak ezkurrik beste lege, ondo neurtuak eta obeto zainduak, bizi-bizirik, bere orripean eukazanean» (I), lehenaren erosta horretan.

Itsastarra dan batentzat portuek beti dabe erakarmen berezia, eta lehor barrukoak baino zehaztasun handiagoz emongo deusku Bermeo, Elantxobe, Lekeitio, Ondarroa, Donostia bezalakoen barri. Arreta gehiago eskeiniko deutso Bermeo, Elantxobe eta Mundaka barruko eremuari, Izaro islea erdian dala. Arrantzale-herri izate hori isladatuko da obran. Bermeo da, Mundakaz ostean, zehatzen emoten jakun euskal uria, gure protagonisten gertaldi batzuk han finkatzen dituala. Mundaka eta Bermeoko biztanleak be, lur-hurkotasun horri esker, hartuemon estuan ikusiko ditugu: Bermeoko zeia edo plazara edo ganadu-feriara sarri joango dira Mundakakoak, eta gazteen joan-etorriak ugariak izango dira guztiz; itsasoko ekatx-galarretan be zoritxarrak bardin joko ditu bateko eta bestekoak. Txomin-txikik onduriko edo izenik barik aterariko bertso-kantuek herri bietako jendeak kantatuko ditu —Etxeitak berak ondutako kantuek bizirik iraun dabe Mundakan gaurregunera arte, Erkiagak aspaldi ohartu euskunez—. Demiku auzoko etxeak «ain urre euken Mundaka zein Bermeo» eta hango neskatilak Bermeon eta Mundakan eukiko ditue neska- eta mutil-lagunak.

Mundakako elaberri-mundutxoa bertako gizarte osoa begipean dala sortua da: baserria, portua, herri barruko lehortarrak. Baserri-giroak Ondartzan dau ardatza —ez dauka Argentinako «Basogane» baserriko ustiakuntza hedatsuaren antz handirik—, baserri-etxe txiki apala, Bizkaiko beste leku askotan legez sasoe hatan, errentadoreak atontzen ebena. Ederto baten batu dau Etxeitak pertsonaia batzuen izenetan euren

jaiotetxe edo auzoaren izena, Bizkaiko nekazal herri askotan oraindino ohi dan erara: *Juana Mari Ondartzako*, *Mari Jesus Demikuko*. *J*-n emoten deuskun baserriaren irudia, *JM*-n emoten deuskuna baino sinesgarriagoa da, ez hain idilikoa. Ekonomia laburreko lanbidea: abelgorriak eta giberriak batetik eta soloa eta ortua bestetik etorritzat dituana. Bertako biztanleek euren beharrizan eta eskari oinarrizkoei erantzuteko behar dabena baserritik aterako dabe, eta ortuari, arrautza edo antzeko janariak plazan salduaz zuzenduko ditue kanpotiko erosgaiak (jantziak, ardaoak e.a.). Baserriko lanaz emoten jakun azalpenak, dana dala, topiko samarra dirudi, hango lana barrutik eza gutzen ez dauanaren begiaz ikusia. Baina baserri-izateaz aparte, Ondartza «Euskalherri txiki bat» izango da, gure lurraldearen paradisu-irudi bat, leku ederrean kokaturik dagoalako, ikuspegi ederra eukiteaz ostean. Beste baserri-etxe batzuk be izendatzen dira: Agirrebekoa, Karlos-geiztoren etxea; Lamiaran («Ondartzatik urre samar egoan Lamiaran eritxon baso-etxe bat»), hango umeakaz olgetan ebalako Josetxok txikitana.

Nekazal giroa, Ondartzako etxeaz ezeze, baserri-auzoetako erromeria edo «jantzarazoen» bidez be erakutsiko jaku. Almika eta Demiku dira izendatuenak, biak Bermeoko udal barrutikoak: «Almikako jantzarazo egunak, Mundaka, Bermeo ta inguruko gazte guztiak batuten zireanak». Demikuren kasuan, pertsonaiaren batzuk (Mari Jesus eta gurasoak) hangoak dira.

Mundakako herri barruan, portua, artza, plazea eta eleizea agertzen jakuz gehien. Portu eta Artzaren inguruan arrantzaleak ditugu, arrantzuntzi-jabeak, patrioiak, arrantzale zeheak, honen emazte eta seme-alabak. Portuko jendearen giroa, jai-ospakizun, ekatxaldi, hileta eta antzeko gertaldietan azalduko da. Eta bestetik lehortarrak ditugu, herri barruan itsasora barik bizi diranak. Hor tartean dira herriko jauntxo eta dirudunak: itsasoetan edo Ameriketara diru egindakoak. Elaberrian, Eladiren gurasoetan isladatzen da gizarte hau: Ermoken eta Masima.

Hor legokez herriko dendariak eta salduerositik bizi diran generakoak.

Diranak dirala aberats eta ezeuki, handiki eta jende zehearen arteko aldeak, Etxeitagan ez da bereizkuntza apartekorik egiten itsastar eta baserritarren artean: arrantzale izan, merkatal ontzietakoa izan, atzerrietan ibilia izan edo baserrikoa izan, gazte eta nagusien arteko hartuemonak guztizkoak izango dira, herriko edo auzoetako jaietan, plazako salduerosietan, eleizkizunetan edo bestelako gizarte-agerraldietan. Nekez idoroten dogu aurrerexirik bata besteaganako —gaurregun oraindino Ondarroa, Lekeitio edo Bermeo lako herrien eta barruragoko uri eta herrien artean jazoten dan moduan—.

Azkenik, garrantzia berezia dabe obran itsasertzeko gune eta bazterrak, euron artean izendatzen dirala honako batzuk: Gaztelugatxe, nongo ermitara erromes joango diran Mundaka-Bermeoetako biztanleak oinutsik, euren eskintsariak santuari egitera; Izaro islea, pasadizu larrien gertaleku bihurtuko dana; Gernikako itsasartea; Murgua, zeinetako hatxetara joango diran gatzetxoak lapa, mosil eta atxarrainak harrapatzen; Ogoño, Potorro-arri eta Potzada, Josetxo uger joaten zan itsasartea.

Mendi eta tontorren aipuak be egiten dira: euren artean, Matzaku, Sollube, Oiz, Atxerre eta Ogoño, Izarotik ikusten diranak.

EKINTZA

Ekintza edo gertaera nagusiaren barruan txertatzen dituan ekintza txiki eta bereziek aparteko apaindura txertatzen deutesie narraketari. Txertakuntza ondo egina gertatuko da ekintza nagusiaren barruan, zentzunezko arrazoi edo zioak lokarri dirala. Eurok dira bestalde, ekintza nagusia arindu eta bizkortzen laguntzen dabenak. Asko eta asko diran arren, bat edo beste aitatzeak erakutsiko deusku zertan datzan teknika hori.

Itsasoko gertaldien artean, Bordeleko itsasuntziak jazorrikoa da deigarriena. Lurbarruko gertaldien artean, piztia kalteginen ehiza zertzelada handiz kontaturik dogu, Mogelen *Peru*

Abarka-n [PA] Joanis baigorritarraren azeri-arrapatzearen antzera. Txomin-txikik burdinazko zepoaz eizatuko dau ardietan kalteak egin deutzazan otsoa (216-217). Buenos Aires-tik urrun barik egoan Basogane eta inguruetan be arazo bardina kontatuko deusku katamotzak abereetan egiten ebezan kalteak zira-la-ta. Lehenengo kronika antzera (310), eta aurrerago gertaera baten bidez (317-318).

3.3. Gai nagusi batzuk

a) *Jaioterria*

Jaioterri hitzak esangura handia dau Etxeitaren pentsabidean. Bere bizi guztian erbestean ibili zan gizon honek jaioterria ez dauka ahazteko, ez alde fisikoan, ez eta gogozkoan. *J*-n ez da gitxitan baino agiri jaioterriaren gaia, protagonistek erbestean egotaldi luze samarra egingo badau be.

Jaioterria konnotazio desbardinez inguraturik agertzen jaku. Behin baino sarriago, hizkuntza-kezkarekin. Atzerrialdia, euskera ahazteko bide izango da. Dari abadiñotarrak adurra dariola entzungo ditu Josetxok kantaturiko euskal kantu zaharrrak, Etxeitak sinistu eragin gura deuskunez, tradiziotik hartuak:

«Dari, agoa zabalik, guztizko gogo argiaz egoten zan entzuten bere jaioterriko koplak eztizkoak, ainbeste urtetan entzun ez ebazanak» (*J*)

Alderdi etiko-moralari loturik be agertuko jaku. «Mari-Pepa'k Semeari» olerkitxoan, amaren ahoz agertuko dauan us-tea, erbestera joanda barik Euskalerrian geldituta zaintzen dirala gizabidea, ekandu onak eta euskera. «Zorijona» deritxon narraziotxoan, Etxeitak erdaratik euskarara bihurtua dan horretan be, atzerri eta aberriaren arteko aldea dala-ta, beraren pentsabideaz bat datorren ideia isurtzen jaku; ipuinaren amaieran aditzera emoten jaku eretxia:

«— Gure ibilte guztijetan, urijetan ez atian [kanpoan],
etxubagu idoro zorijona. Etxakijat zer egin neure burubaz; bafia
uste yubat, onena ixango dala lanian eta bakian neure jayoterrin-
jan bixi-ixatia. Etxagok iñun ekandu oberik eta erri baketzuba-
gorik.

— Ori beti uste ixan dot nik, jauna!»

Jaioterrria, arbasoak datzazan lurra, zahartzaroko atsedent-
lekua eta heriotzeak hartzea guren litzatekean lur sakratua be
bada. Dari, heriotzearen bildurra susmatzen hasten daneko,
Ameriketako lur-ondasunak itxirik, Abadiñora bihurtuko da:
«ilteko bildurra artu eban, da bere jaioterrira nai eban joan
iltera» (326).

b) *Erbestea*

Baina alderdi txar edo ilun guztiak gorabehera, atzerria
halabeharrezko eta saihestu ezineko osagarria izango da Etxei-
taren protagonisten bizitzan, haren sorkuntza-lan guztian na-
barmen agirian dagoana, eta ez elaberri bietan bakarrik, ezpa-
da ipuintxo laburretan. Zoriona norbere sorterrian idoroko
badogu be, erbestealdia ezinbesteko baldintza izango da zo-
rionbide horretan, zorionaren beste alderdia. Erbestea ez da
izango protagonisteak diruak egingo dituan urruneko iturria
bakarrik; hori baino gehiago, mundu zabala ezagutu eta erbes-
teko mila arrisku, laztasun eta arazoren erdian garaile urtetea,
igaro beharreko froga bat izango da; gizona jakituria eta espe-
rientziaz jantziko dan eskola bat.

Itsasoari begira jaio danarentzat, itsasoari atzea emotea
ezinezkoa gertatuko da. Txomin-txikiren esan guztiak eta Cabo
Hornos-eko zoritxar guztiak alperrik izango dira; neurdin Jo-
setxok berak ikasi beharko dau bere begiz zer dan itsasoetako
eta urrunetako bizimodua, eta gero ondorioak atera. Josetxo-
ren erbeste-guneak, itsaso zabala eta Ameriketa (Argentina)
izango dira batez be. Bere aita odolekoarena, Filipinak. Era
berean, JM-ko protagonistak Mexiko aldetik jabilkuz baragarri,
eritasun eta guduen artean.

Baina ipuin laburretariko amodio-istorioetan be etenbako gertaera da protagonistetariko baten erbestealdia. Adibide bi jarriko ditut. «Kontze eta Bittor» izenekoan, «eguzki bageko arratsalde euritsu baten etxeratu zan Bittor; guztiz argal, arpegi zurbilduaz. Etzan lenagoko mutil eder alaitsua; urrundean igaro ebazan nekeak eta mingarriak, guztiz zartu ta indargetu eben», baina Kontze zain euki eban, gero beragaz ezkontzeko. «Errekartean» izenburudunean, Serapinek, Beniteri eginiko amodio-agerpenaz honen ezetza jaso ondoren, erbestera joko dau: «Aldendu zan Serapin, negar malkoak eriozala, ta urte batzuk igazi ziranean agertu zan jaioterrira» eta Benite baietzerara aldaturik idoro eban, «mendiak eta errekarreak zear» haren bila ibili eta gero. Ipuin laburrok goian esan dogun legez zirriborro antzekoak direanez, ez da euretan erbestea konkretatzen, «erbestea» soil-soilik.

c) Ondasunak eta dirua

Diru egitearena jarraiko durundia da Etxeitaren obran. Dirua berez izatea baino meritugarriago dala dirudi ezerezetik edo hutsetik dirutzen danaren kemen eta adorea. Halan gertatuko da Josetxogaz, Dari abadiñotarrak eta beste gehiagogaz. Ondartzako andra-gizonak errentadoreak dira, maizter apalak, gitxi asko ugazabaren borondate onaren pentzuan dagozanak. Azkenean, baserri eta lurren jabe bihurtuko dira.

Dirua, pertsonaien jokabide jatorrak irauten dauan neurrian, zorionbide da Etxeitagan. Diruak ez dauka berezko zer txarrik, baldin gizakia kristau ereduko izaera onaz hornidurik badago. Ez da berez txarbide ez okerbide, eta bai sarritan jarraibide onaren sari. Juana Marirentzat, Josetxo Ondartzara etorri zan ezkeroko urteak, zein baino zein ekarkorragoak gertatuko dira. Etorrera zorioneko hori ondasun-iturri izango da, bere senar Txomini behin eta barrero, diruren bat jasoten daben baktotxean, gogoratuko deusanez.

Ondasunak galbide be izan daitekez; beste guztien gainetik

dagoala ikusteak norbait harrotu eta eritxitzen badau: Eladiren gurasoen kasua.

Martin-zaldi eta Mari Jesus Demikukoren kasuan, mutila ezeukia izana ez da arrazoi izango ezkontzea galerazoteko. Bere lan-gogo eta kemena eskeiniko dau, ondasunak dituan baina eskubehar preminaz dagoan baserrietxe batera, ezkontzearen bitartez. Horrek beste lotura bat sortzen dau aberastasunen eta lanaren artean. Lana izango da diru-iturri.

d) Amodioa eta ezkontza

Amodioaren isladapen bi ditugu *J*-n. Lehenengo, hasikin modura, Martin-zaldi eta Mari Jesus Demikukorena. Josetxoren seinzaro eta mutiko-denborak, irakurleari nekez eskaini leikeon jakinmina sortzera dator pertsonaia bion arteko amodio-gatazka. Istorioko denbora igaroa luze samarra izan arren, naraketan labur gertatzen da denbora hori, batez be Josetxorenaz alderatu ezker. Bigarren mailako osagarri bat da kontaera nagusian, kontakizun nagusiaz txandakatuz doana eta osotasunari barietatea eta bizitasuna emotera zuzendua. Amodio horrek ez dau jaritsiko pertsonaia nagusienaren intensitaterik, ez protagonisten neke eta nahigabeek hareenaren neurririk, baina kidetasun paralelo agiriak ditue istorio biok: mutila pobrea, neskatilea aberatsa; ondasun-desoreka garbia, bietan helburu zoriontsuaz gailenduko dana: pobrearen lanerako kemen eta ahaleginak bardinduko dau hasierako hutsunea, horretara oreka barri bat lortzen dala. Atxakia polita da idazlearentzat istorio hau, Afrikako guduaz (Marroko-koa) eta euskaldunek han euki eben partaidetzaz berbetako. Bitarteko ona izango dau, gainera, Demikuko auzoan ohitura-eskena bat atontzeko: jai-erromerietako giroa, neska-mutilen arteko hartuemon, erronda eta olgetak, neska-laguntzeak, baserri-etxaguntzaren egitura, gurasoen ezkonlaguntzaile-papera, etxe-ikustea eta abar.

Josetxo eta Eladiren amodio-istorioa, ume-denboran erne zanik eta gora, narrazio osoa gidatuko dauan haria izango da, arik-eta ezkontza zoriontsuaz eta ondasun ugarigaz ondo goza-

turik burutuko dan arte. Amodioa, ezkontzea eta ondasunak alkartuta dabilz Etxeitaren gogo eta lanetan, *J*-n zein *JM*-n edota ipuin laburretan. Ondasun hutsak ezkontza zoriotsu bat burutzeko izango ez diran moduan, amodio pobrearentzat be lekurik ez da izango. *JM*-n Tomas eta Amele ezkonbarri ezeukiek lorrak igaro beharko ditue Mexikon bizimodua irabazteko. Edertasuna be ez da izango neurri egokia. Dorote eta Martek Agaton konkorra bazterrean itxiko dabe, irudi ederra eta dirua batera dituan beste norbaiten xuxuan, baina amesak ustel urtengo deutse. Josetxo eta Eladiren amodio-eredua antzeko ezaugarriekin agertuko jaku ostera hurrengo elaberrian, Sabas eta Juleren irudipean. Neska-mutil maiteminduok gurasoen aldetik eragozpen latzak jasan beharko ditue euren gogoaz aurrera egiteko. Senargaia landerra eta jatorri zehekoa izatea dogu sakoneko arrazoia. Gurasoek asmo handiagoak ditue euren alabearentzat eta beste senargai batzuk bilatuko deutsiez ama nortasun lehorreko baten eraginez, aita honen agindura apalik makurtzen dala. Inon diranak asmatuko ditue Josetxogandik urruntzeko (Bilbora erbestetu). Neska-mutilok eta batez be neskatileak jasan eta gainditu behar dituan behaztopo eta nahigabeen kate luzeak narrazioko tentsioa bizitzea dau helburutzat. Tirabira honetan sekula ez da auzitan jarriko seme-alabak gurasoen esaneko izatearen lege zaharra, baina idazleak barrengarri itxiko dau betebehar horren zorroztasuna, gurasoak eta batez be emaztea burubakoaren paperean ipiniaz. Honetan be idazleak bere bizitza salatzen dau: Kortazarrek dinoan moduan, Etxeita bere gurasoen gogoaz kontra ezkondu ei zan. Julek (*JM*) ez dauka ahazteko bere gurasoek Ameriketatik etxera etorri eragiten deusiela ezkontzeko baimena emon orde eta aurretiaz parka eskatu deioen: «Irazki bategaz eskatu leitekian nai zenduben parkamena, ta beste irazki bategaz parkatu». Horren atzean, gurasoakanako kritika garratza dago: gurasoek sarritan euren burua babestera gehiago egiten dabela, seme-alaben ona bilatzera baino. Gurasoek alabeari ezarritako gurutze astun arrazoigabe horrek ez dau erremindurarik itxiko ez-

konbarrien bihotzetan, eta Josetxo eta Eladi honen gurasoakaz biziko dira ezkondu ostean.

Gerotxoago (1912) idatziko dauan «Nikanor eta Julecho» ipuintxoan barrero gogoratuko deusku amodio-eredu bera: seinzaroko laguntxoak ziran neska-mutikoek bihotz barruan gordeko dabe alkarreganako maitasuna hazten doazan urtealdi luzeetan, bizitzako gorabehera ugariak eta munduko ibilte guztiek galerazoko ez dabela: «urrundeak eta atzerriak ezeben aldentzen beraren gogamenetik». Eta alkarren senar eta emazte bihurtzea izango da bizitzak eskaini deutesen adu eta zoriona.

e) *Halabeharra, patua*

Bizitzako zoritxarrak halabeharrez, patuaren eraginez legez datoz ganera. Heriotza bat (itota edo eritasunez hiltea, kasurako), izan daiteke artean izandako bizimodu txarragaz loturik egotea, Jainkoaren borondatea halan dalako. Baina ia beti, zoritxarra patuak beragaz dakarren zerbait da, eta ez dago hari jarkitzerik. Jainkoaganakoa fedeak bakarrik lagundu leikegu, zoritxar arteko bizitza latza eroaten. Behin baino sarriago entzungo deusaguz honako edo antzeko esaldiak: «Olan izan oi dira Lurbira onetan gertaera asko; baña Jaungoikuak jarriko dauz zerura bidian, euren egipide onak egituten il diranak» (*JM* 42).

f) *Ugazaba eta errentadoreak*

Juana Mari arduraturik azalduko da, Txomin-txikik Ermokeni astinaldia emon ostean, baserri-errentadoreen egoeran dagozako; euren ugazabak mendeku hartuko ete leikean bildur dira, orain aberats-barri diran Ermoken eta Masimak zirikatuta.

Bildur hori ez zan txantxetakoa, eta Neira Vilas galegoaren *Memorias dun neno labrego* narrazioan adibidez, errentadoreen semeak gurasoen etetik urira alde egin beharra dauka, herriko ugazaba nagusiaren semeari harrikada bat emon eutsala-ta. Etxeitarenean holako egoera larririk ez da jazoko, baina garbi nabari da gizarteko maila apaletan dagoan bildur eta kezkea. Gaurregun

be, errentadoreen munduan apur bat sakondu ezkerro, ezagun dan etzabakanako bildurrak eraginiko itzal-lotsa hori, Etxeitaren sasioan askoz ardura handiagokoa izango zan; legeak ez zituan beharbada gaur adina babesten errentadoreok.

g) *Itsas hondamendiak*

Itsasoko galdu-gordeko bizimodu arriskuz betearen izatea etenbako gaia da elaberri bietan. *J*-n hainbeste ekatx, galarrena eta hondamendi gertatuko dira, batzuk protagonistea tartean dala, beste asko inguruko edo urrunagoko giroetan. Honeetari-ko gehienetan, irakurleak errepika-jardurio baten aurrean da-goala asmatzen dau, gogaikarritasunean jausteko arriskuaz. Baina itsas larrialdi guztien artean badira guztiz adigarri gerta-tzen jakuzanak be, edo jazoeren harrigarriagaitik, edo beneta-ko jazoera trajikoaren antza hartzen dabelako. Itsasoko honda-mendiak gordintasunez kontatzen deuskuz batzutan, zenbat txalupa eta zenbat gizon galdu diran modurik garratzenean azalduz. Halan Josetxo gaztetxo Izaro inguruan arrantzale da-bilenekoa (90-91 orr.), Agirreren *Kitolis*-enaren antz handia daukana. Itxaslapurren munduaren aipuak be toki jagia dabe, Barojarenean jazoten dan antzera, eta jazoera benetakoetan oinarrituak dirudie, nahiz-eta itxaslapurrok umoreari asazkaldi bat emoteko be inoiz erabilten dituan («Ichaslapurrak», 1911). Mundakar gazteen Izarora osterako jazoera latzek, elaberriko protagonista biak osorik urtengo daben pozgarriaz batera, hainbeste neska-mutil gazteren heriotzea ekarriko dabe, ira-kurleari samindura isten deutsana, nahiz eta idazleak gertaera horren dramatizazio on bat eihoten jakin ez dauan. Josetxoren Argentinatik etxerako hondamendiak eginkizun narratibo bat betetzen dau kontaktetan, amaiera zoriontsuari jagitasuna emo-tea, hain zuzen.

h) *Tradizino barri baten gogoa*

Etxeitak elaberrian tartekatu dituan hitzneurtuak, berak burutik jalgiak jakina, harako bertso-paperen mailako egin gu-

ra ditu. Aurreko mendetik etorren bertso-paperen zabalkundea eta tradizinoko bihurtzeko joera darabil gogoan (harako Xenpelarren-eta antzera), eta holan, Txomin-txikiren bertsoak be luzaroan kantetan zirealakoa sinestu eragin gura:

«Au Txomin-txikiren abesti au ikasi eben Mundakan da Bermeon, da urte askotan abesauten zan, umeari lo eragiteko, nai edozein ordutan da lekutan.» (29).

i) Badira elaberrian beste gai batzuk guztiz garrantzidunak, autorearen balore eta sentiera sakonak isladatzen dituenak, baina hurrengo baterako itxi behar ditugunak: euskereaganako eraspina, abertzaletasuna, giza jokaera makurren ondorio txarrak, ezkontza behartuen ondorioak, ezkontza galtezen arrazoiak, herri txikietako gizarte-presioa eta beste ha maika, azterketa zehatza merezi leukienak Etxeita lako autore bategan.

4. ESTILOAZ OHAR BATZUK

4.1. Errefrau edo esakuneak

Obra honetan ez dira beste idazlan batzutan baizen ugarriak herri-hizkeratik baturiko errefrau eta esakune euskal sene koak. Honetan ez dator alperrik atzera gogoratzea idazleak bere lehenengoetariko lan argitaratua dauala. Dana dala, herri-esakuneetarako zaletasuna barruan ekarren Etxeitak. Mogelean irakurriak izango zituan, seguruenik. Baina Azkuek be ordurako bere aldizkari, liburu, hiztegi eta enparaduetan erakutsi eban herri-literatura altxorren balioa. Etxeitak esakune berbe az izendatzen dau beti errefraua, *esakerea* ateraldi, berbeta-modu edo 'dicho' adierazoteko gorderik. Hitzaurrean bertan egoz ten deusku lehenengoa: *esan oi dan lez, esanaz: Lenengoan parkatu, Urrengoan urkatu* (5), baina textuan zehar, zaletasunaz aparte, etorri handirik ez dau erakutsiko esaera kontuan, eta ia beti, aurrez iragarten deusku harira jatorkunean: *eta arek, esakunea dan lez, eukiko jozak lengo ekanduak eta betiko men duak* (55), *baina esakunea dan lez, sasiak be begiak eta bela-*

rriak daukezala (70), *esakunea dan lez, bearrianak bear eragiten eutsan Karlosi* (107). Beharbada, esaeretarik ugariena Etxeitagan, *J-n* behin baino etorri ez arren, ondoko hau dogu: *esakunea dan lez, agoa bete azurregaz lotu zan* (236).

Esapide edo esakeren artean, berebiziko garrantzia dabe herri-hizkeran zabaldurik dagozan konparantza eta irudi batzuk. Jitanoen deskripzioa egiterakoan adib.: *ikatza baino bal-tzagoak, azurra ta azala baino ez eukenak* (14) zirala dinosku. Txotxo-arro, Eladiren bigarren senargaiaren harrotasuna puzteko: *beti ebilen [...] zuzen da lerden, garriko azurra austeko bildur baga* (206). Metafora-irudiak be baditu: *ikusirik bere gamera joazala beti egur igarrak* (75). Honetarikoak guztiz ugariak izanik, ezin gara eurok lerrotatzen luzatu. Beste obra batzutan *J-n* baino ugariago darabilz. Adibide gisa: *oñak otz eta buruba bero erabili ebazan* («Zorijona»).

4.2. Adierazkortasun-baliapideak

Darabilzan baliapide desbardinaren artean, bat edo beste izendatu daikegu. Partitiboa + *asko* zenbatzaileaz eregia, adibidez: *Da orduan artorik asko jaten zenduan zeuk be!* (72). Ezeztapena: *etzagoz bestelakoa, uste izan bozu, etzaituguzala ezagututen nor zarean!* (73).

Ziurtasuna markatzeko esapideak: *ta esan da egin, alantxe egitu eban bere berbea* (135), *Jakina zan onek morrosko biok, noizbait egingo ebena burruka gogorren bat* (45), *uger egiten jakin ezpaleu, ziur-ziur itoko zan* (79).

Onomatopeia edo hotsitzek ere euren tokitxoak dabe espre-sabidearen barruan: *uste-uste baga, dart-dart, atxarte baten sartu zan* (83), *karkar barre egingo leuke* (131), *joan zirean, txaka-txaka, Gaztelugatxera* (134-5), *zeuen kontra, marmar diarduanean* (155).

4.3. Deskripzioa

Paisajearen deskripzioak ugariak dira, bai *J-n* eta bardin idatzi laburretan: itsasoak, ibai-errekak, mendi eta basoak,

urriak. Ardura berezia agertzen dau metereologia eta eguraldiaz, eta urtearoen ezaugarriez (negua). Baserriko bizimodua Ondartzaren bidez erakutsiko deusku, baina paisajearen begirada hutsean gelditu barik, hango bizimoduari arreta jarririk:

«Gau atan guztiak egieben lo ederto, goizean eguzkiak mendi bizkarrak gora igoarte, ta kortan egozan abereak, urru-maka egozan jan barik belurarte.» (43)

Itsasoarenak be ugariak dira elaberrian zehar, berariaz ekatxaldiei buruzkoak. Horretan Agirrerren *Kresala*-ri deusan zorra (beste arlo askotan be nabarmena dana) agirrian dago. Etxeitak itsasoa eta honen haserrealdiak ondo ezagutzeko arrazoiak zituan, baina halanda be, bere deskripzioak bardintsu samarrak begitantzen jakuz behin eta barriro. Adib. 90-91 orr.

Janzkerea lako alderdi xumeak be jardungai ditu: *Amak zuzendu eutsazan jantzi barri bi, sarri aldatu ta beti garbi erabiltako* (47).

4.4. Alkarrizketak

Tx. Agirrerren *Kresala*-n Tramana eta Brixen arteko zirrikada zorrotz errimeak dagozan moduan, Etxeitak be noizedonoiz badaki bizitasunez beteriko berba-jardunak eihoten, emakumeen arteko berbeta gordinak hain zuzen. Halangotzat daukat Masimari bere gaztetako lagun batek kaletik leihora botaten deusazanak: —*Bai, gu artoaz da zu ogiaz* (72) hasten dana.

4.5. Kronika eta erreportaia.

Batzutan, elaberrian kronika edo erreportaia-txatalen anztara txertatzen ditu albista, datu eta egoerak.

Etxeitak, Agirrerren aldean, malgutasun apartekoa erakutsiko dau bere sasoiako aurrerapenak elaberrian integratzeko. Nahiz baserri-giroko mundu amesetakoan kokatu jazoeren erdigunea (*Ondartza* baserri-etxean), mundu asko ikusia zan gizona izanik, gure itsasgizon mundakarrak begi argia egiten deutse bere aldiko aurrerakuntzei. Bilboko albistaria (egunka-

riak, nonbait be) aitatzen jaku eta hantxe ipiniko da Josetxo mutiko aldundua agertu dalako iragarpena. Ondasun, diru eta abereei buruzko zehaztasunak, lurraldeak, hondamendien ondorenak, eta beste honelako jazoerak kontatzean, nobelagile baino gehiago dirudi batzutan kazetaria: kanpotik begiratuta, gertaeren deskripzio hutsa egiten dauana.

4.6. Umorearen tokia

Etxeitaren umoreaz berba asko egiterik ez dago, batez be elaberri bien inguruan: asmo eta helburu handietako obrak direanez, umoreari tarte txikia eskeintzen deuto eurotan. Baina genero txikian diharduanean ostera, era hobea aurkituko dau irakurlea barrez edo gogaldi onez isteko. Adibide gisa, «Mari-Bachi, Aterpe ta Jose-Anton» ipuintxoia, «Aterpe ta Zabaleta» edo «Eztabadak» dalakoa ditugu. Azken honetan senar-emazteen tema itsuan aurkituko dau bidea, alperreko eztabaidak astintzeko eta, azpi-azpian, jokaera zuzenerako artezbidetako emoteko.

*Herri-pentsaeraren lorratz bizi batzuk ere antzeman ditugu, Etxeitaren zolitasunaren adierazgarri diranak. Arrantzale eta baserritarren berbakera eta estiloa, ez bakarrik igarten da lexiko edo esapideen alderdian, baita eretxi eta esankizunenetan be. Itsastarren buruaz mintzo da esaldi batzutan: *baina beti oi dan lez, itsastarrak, eguraldi txarrean, egoten dira onaren begira, ta onean txarraren bildurrez* (90).*

5. JOSETXO ELABERRIKO HIZKERA

5.1. Hizkera-erregistroak

Ezin esan hizkera-maila desbardinak erabilteko ahalegin gehiegizkorik dagoanik textuan, eta beharbada Etxeitari bere hizkuntza-gaitasunak be ez eikion horretan gehiegi lagundu. Ez da Kirikiñoren kasu bera, zeinek gura ebana adierazteko zenbatgura modu erraz topa eikezan, euskaldunen arteko pentsae-

ra, esakera eta buruaz bat eginda egoalako. Etxeitak bizimodurik gehiena itsasoetan eta erbestean egin eban, nahiz familiaz, ezkontzaz eta herrigiroz guztiz euskalduna izan, eta erdara erabiliko eban urte luzeotako hartuemonik gehienetan. Itsasoan edo atzerrian luzaroan egon danak ondo daki hizkera-urritze horren barri.

Erregistro berezien erabilera dala-ta, hitanoarena dogu interesgarrietarikoa, *J*-n baino *JM*-n aberatsagoa gertatuko dana. Gurasoak seme-alabakaz, ugazabak morroiakaz, jende heldu eta betiko ezaguna danak euren artean, hitanoz egingo dau berba, andrazko zein gizonezko izan. Bizkai mendebaldeko idazle batzuen antzean, adizki alokutiboak mende-perpausetan be erabilten ditu. Joera hori *J*-n baino hobeto ikusten da *JM*-n.

Hitz-ebakera eta laburdura batzuen bidez ahozko hizkera isladatzen be badaki. Alkarrizketan berariaz, narraketako eredu lau horretatik urtenda, berbaz ezagunak diran aldaerak bilatuko ditu. Aditzean adibidez: *Enotzun nik esaten* (23), *Zeinbat nai doztak* (24).

5.2. Sinonimo deskriptiboak

Hizkuntza bera lantzeko ahalegina ez dago urrun Etxeitarren literaturgintzatik. Horregaz ez dogu esan gura, literatura atxakia hutsa dala hizkuntza lantzeko —nahiz hori be sarri gertetan dan euskal literaturan—, ezpada ze hizkuntza bera lantzeko borondate agiri eta ezagutua dagoala bere idazkuntzan. Urrunera jota, Axularren obran edo Mogelenetan ondo nabaria da, sintagma bat epiteto kate luze bategaz hornitzeko joera, batez ere deskriptiboak diran pasarteetan. Txomin Agirre bera be ez dabil urrun joera horretatik, esangura hurbileko izen edo adjetiboak kateatzen deuskuzanean. Eta zer esanik be ez Etxeita, nahiz honen hiztegi-jarioa beste batzuren baino urriagoa gertatu askotan. Oihaleko sein itxura ederreko bat zelan deskribatzen deuskun, hara!:

«Astaganean etorren, umetxo urte bi inguruko, matralla-gorri, begi-uridin, galant, gaztaiña margoko ule ederdun bat» (39).

5.3. Adierazkortasuna

Ahokotasunaren ikutu nabaria dau Etxeitaren hizkerak, batez be alkarrizketan. *J*-n baino be *JM*-n ahozko euskera bi-ziaren islada aberatsagoa dala esan leiteke. Idazlea hobeto hornidurik ikusten da bigarren obran, herriko hiztunen esakera eta ateraldiak bilatzeko orduan; *J*-n baino berezkotasun-kutsu handiagoa dario hizkerari. Adibide gisa:

«—Nik oztasuna? Esatia be! Zugaz nai edozeñegaz naz ola-koxe otza.» (46)

«—Batera zatoze bijok?

Marte.— Bai, bat-batera.

Agaton.— Olakorik!

Marte.— Emoguzuz gaztaiok erdibana, ta Jaungoikua lagun.» (62)

«Bauko zer ikusi!

—Bai zera! Goierritar orrek, berba asko bai, baña ganora gitxi.» (*JM* 65)

5.4. Oralitatea

Ahokotasunaren lorratz ugari idoro daiteke textuan. Bat edo beste aitatzeko, forma batu edo kontraktuen kasua dogu: *ogerordu*an. Gaur banan idazten diran hitz-bikote ugari emoten deuskuz bat balira legez, marraz alkaturik: *batak-beste*a (*bata-beste*agaz) izenorde erreziproko edo alkarkari legez; *achik-ach*, *adarrik-adar*, *bosterik-lau* nondik norako adizlagunen balioaz; *dana-dala*, *negar-baten*, *bingo-baten*, e.a.

Hitz enklitikoan erabilera, ugarienetarikoa *be* (*bere*) dala: *bat-be*.

Esapide eta expresio lexikalizatuak: *Ori ondo!*, *Alagala*, azken hau gaur be Gernikaldean bizi-bizirik dagoana.

Dialogoari jagokozan atalak narraketan txertatzeko joera,

berbaz arruntak diran esamoduak isladatuz: *etorren negar baten*, ama, ama ta ama *deadarrez* (16).

5.5. Morfosintaxia

Determinazioa

Etxeitagan alderdirik aipagarrienetariko bat, determinante bikotxaren erabilera da. Horretan da ezagun, adibidez, gure idazlearen ahozkotasanagazko lokarria, Bizkai erdialdeko hizkerarena batez be. Horreetarikoa dogu tradizio zaharrea nekez dokumentatuko dan sintagma-egitura hau: [Erak + IM + Art]. Erakuslea izen multzoaren ezkerrean daukagu, eta gradu bereko artikulua eskuman. Singularrean, lehenengo graduan: *au ume ederrau geuretzat izango dala* (22); eta bardin bigarren graduan: *ori arpegiko narruori zauritu barik enazala egongo luzaro* (44), *arainegun baizen leun eztaukak ori surrori* (48), edo hirugarrenean: *nor izan zan a neskato begi-baltz ederra* (81), *tamal eritxiten jaken a arraintzu ona istea* (90). Pluraleko hiru graduetan: *Onek diru guztiok emon da gero* (25), *Orrekaz ardura ta neke guztiokaz-be* (37), *Nundik nora ibilli az orrekaz gitanuokaz?* (40), *arek arpegi baltzak ikusi ebazanean* (III).

Artikulu hurbila, hutsik be sarri darabil singular zein pluralean, eta ez bakarrik pluraleko *-ok* forma, ezpada beste kasu batzutan, dat., gen., soziaz. e.a.: *Ze gogamen etorri jake gaur umeori Murguara joateko?* (35), *eta guztioren batzarrean erabagiko dogu auzi ori* (130), *eta beingoan adituko gara geure maki-lokaz* (321). Det. hurbila hain ugaria dan autore bategan, harri-garri egin jaku, ostera, leku-denborako kasuetan nekez darabilela ikustea. Pluralean ez dogu *etxeotan*, *egunotan*, *gizonokan*, *umeokandik* ereduko adibiderik jaso, eta singularrean noiz edo behin: *Emen inguru guztion dinoe* (109). Singularrean be *-au*, *-ori* erakoak ditugu ugarietak: *bakit mutikoau guztizko ona dana* (52), *Olan uste izangok ik astuorrek* (44).

Etxeitak asko maite ditu artikulua bako izen-koordinazioak be. Halan: *zeru ta itsaso alkarregaz batuten direala* (27).

Deklinabidea

Campion eta Azkueren lanak ziurrenik irakurriak bazituan be —aitatu egiten ditu gramatikariok—, deklinabidean kateatu jaku Etxeita beste inon baino gehiago, eta berariaz *Josetxo obran*, beste idazlanetan baino gehiago. Tradizino klasikoari edo bere sasoiko idazleen erabilerari jaramon gitxi eginez, sing. eta pluralaren arteko bereizkuntza ez daki ordura arte usu dan eran egiten, eta herri-hizkerako ebakerak berekasa interpreta-tuz, halamoduzko formulazio literarioa emon gura deuse. Genitibo sing. *-en* idaztea (adib. *etxien*, *etxearen* esateko), halako forma-neutralizazio moduko bat gertatzen dala, ez da harritze-koa bizkaitar hiztunen joerak ezagutu ezker. Genitibo eta da-tibo pluraletan finkatu dauan forma-banaketa da harrigarriena. Horretara, gen. pl. *-aren* formapean daukagu ia beti, eta *-en* aldaera singularrari dagokio batzutan, gainera: *albistarien jau-beari* (21), *emastientzat* (13). Eta dat. pl. *-ari*, tradizinoko *-ai* edo honen aldaera kolokiala (*-ei*) erabili beharrean.

Instrumentalean be baditu bitxitasun batzuk: *-az* darabil, Bizkaiko tradizinoan *-gaz* sozietiboa erabili ohi dan kontextu argietan. Halan *bateaz* (146 *batelcho bateaz*), *askoaz* (58 *diru askotxoaz etxeratu zana*), *gitxi(ago)az* (145 *aize gitxiaz*, 96 *iru gizon gitxiagoaz*), *ainbeste* legezko beste zehaztugabe batzukaz (323 *ainbeste agerraldiaz*). Bardin erakusleetan be, *oneaz* (185 *Ezkontza oneaz*). Erabilera hau ez da, dana dala, sistematikoa; joera bat da. Horrezaz aparte, *-z* mugagabearen gainera, *-az* singularra be sarriro darabil instrumentalaren eremuan. Holan: *itanduten eutsan gogo argiaz bere emazteari*, edota *Eguraldi ederraz egozan kala baten* idatziko dau⁴. Behin be ez deutzagu

⁴ Gernikaldean sozietiboko atzikia erabilten da gehiago holako kontextuan (*gogo argijegaz*), baina Durango aldeko hizkeretan neutralizazinoa beste era ba-tera egiten da (*gogo argijaz*), eta Garaikoa eban aita gure Etxeitak.

irakurri, ostera, -zaz klasikotasun-kutsuko aldaera, *nizaz*, *guzaz*, *onezaz* legezkoetan erabili izan dana, ez eta -*tzaz*, Arana eta jarraitzaileek izen arruntekin erabilteko gomendatu ebena. Beranduagoko testu batzutan erabiliko dau -*tzaz*/*-etzaz*, haien eraginez, nahiz eta Seber Altubek 1913an bertan honen erabilera okerrekoa zorrotz astindu⁵.

Sintagma adlatiboa *izan* aditzaren flexioaz lagundurik eragiten dan egitura klasiko dotorea, nonbaiterako mogiera edo joera adierazoteko erabilten dana, Etxeitagan be lekukotu dogu: *Arrantzaleak itsasora badira, ikusten dira aldra askotan aintanaturik* (248).

Aditza

Tradizinoaren bidetik dabil Etxeita aditzaren jokoaren alderdi batzutan. Esaterako, *eroan* aditzaren laguntzaile-erabilean: *erantzun eroian* (II). Tradizinoan joeratik urrunago dabil, ostera, aditz trinko batzuen jokoan. *Irudin* edo *jardun* aditzen iraganeko 3. pertsonako flexio-aldaera nagusiak *zirudian* eta *ziarduan* diran bitartean, *irudian* eta *iarduan* irakurriko dogu textuan, bizkaieraz jatorragotzat zitualako erabiliak, antza: *ez irudian bestien endakoa* (16), *txillioka iarduala* (16)⁶. Ahozko hizkeraren edo erabilera arruntaren ezaugarri dira, aldiz, aditz-eredu batzuk. Halan *egin* laguntzailearen datiboko jokoan darabilen *emon daizkuzan* (22), *daigun*, -*zan* (edo *deigun*, -*zan*) zer-nork egiturakoakandik bereizteko. Aditz trinkoen jokoan aitagarri da *erebillen* aldaera be, *erabilen* orokorragoaren lekuan.

Egitura konposatu edo perifrastikoetan laburpen edo kontrakzioa joko dau batzutan, ez modu arautuaz; narrazioan ez

⁵ Altube'tar Seber (1913): «Los sufijos “-z”, “-zaz” y sus variantes», *Euskal-Esnalea*, 172.

⁶ Beranduagoko lanetan *ziarduan* eta *ziñoan* erako adizkiak idatziko ditu. Horretan be eboluzio txiki bat bada Etxeitagan, dudatzeke hoberuntz.

asko (*erantzueban, egieban*), baina alkarrizketan sarriago (*artukozue, egieutsazan, emoeutsazan, egin biot*); eta bertso-neurriaren eskakizunez be bai noiz edo behin: *jaurti bioguz*.

Aditz modalak dirala-ta, *bear* dalakoak Etxeitagan eta Gernikaldeko hizkeran dauan erabilera berezi bat nabarmendu gura dot: subjekto inpersonala dagokion aditzak (*Part + bear*) laguntzaile transitiboa hartzen dauanekoa. Halan: *kakaoak jaurti bear eban* beste aldera ontzia zuzentzeko (96), *onek gauzok olantxe erabagi bear izaten dabe* (133). Beste idazle gehiagotan be lekukotzen dira halakoak.

Aditz eta sintagmen arteko komunztaduraz be badago aipagarririk. Datibo-sintagma agirian egona gorabehera, badaki batzutan komunztadura bete barik isten. Halan: *eta noizik noizera eskini oi eben* Meza bat Jaungoikoari (14), eskualde desbardinetako hizkeretan eta kontextu jakin batzutan jazoten dan fenomenoa.

Osagaien ordena

Euskal-Esnalea-ko ohargileak, *Josetxo*-ren alde ahulentzat hau joko dau: «Liburu onen itz-joskera guzian orbañik gabea ez da, baña geyentsuban bai», baina barkagarritzat joko dau: «Euskera (lengoen ta gure ogenez) galdubaz eldu zaigu, eta erdel kutsu guztiya batetan kendu ezin diyogu». Artean argitaratutako *Kresala*-k gaurregungo estilotik hurragoko eredu bat eskeintzen eban, gramatikarien kanonetara hobeto ekantzen zana, eta zer esanik ez, Azkuek *Euskalzale*-n edo bere liburuetan finkatutakoa.

Etxeitak berak be asko onduko eban bere idaztankera osteko urteetan, eta *JM* edo bere ipuintxo laburrak irakurriaz batera ohartzen gara, *J*-n baino eginagoa dala; ez bakarrik sintaxiari jagokonez, ezpada hizkuntzaren erabilera osoan: kontaketan, alkarrizketetan zein esamoldeetan, heldutasun handiagoa agiri dau.

Baina gatozan syntaxira eta zertzelatu daiguzan zehaztasun gitxi batzuk:

—Hitzen ordena dala-ta:

Ordena trinkoa edo mendeko-nagusi erakoa erabilteko joera agertzen dau batzutan: *ta gitxi garrenean idoro eban nes-kametzat Pauliña eritxon amalau urteko neskatilla ulegorri sendo bat* (48), nahiz gehienetan, egitura kateatuez jokatu behar dauanean, bestetara jokatu, ondoren ikusiko dogunez.

Esaldiko sintagmen ordenakuntzan ez da agertuko Azkue bere *Euskal Izkindea*-n baizen garbizalea, eta hainbat gitxiago, urte batzuk garrenera Altubek bere «*De sintaxis euskérica*» (1919) eta *Erderismos*-en (1929) finkatuko dauan bidekoa. Beste berba batzukaz esanda, Etxeitak jaramon gitxi egingo deutse bere sasoiko gramatikagileei, eta bere idazkuntzan gehiago lagunduko da aurretiko idazleekin, batez be Añibarro, Mogel eta honeen ondoko klasikoekin.

Subjektoa-Aditza-Objektoa /SAO/ ordena-eredua guztiz ugaria da obran, ondoko adibidean legez: *Txomin, zuk dozuz ogetamabost urte, ta nik ogetamar* (38).

Bide horretatik, ez da mira egitekoa esaldi enuntziatibo bat aditz trinko markatugabe batekin abiaerazotea, Mogelek hain sarriro egin ohi dauan legez, /SAO/ egituraren bidetik: *Eukezan idi bi, bei bat, chalcho bat, egazti asko ta ogetamar ardi* (36), *Gitanuok zirean, iru gizon, iru emakuma, lau ume, lau asto ta txakurtxo bi* (39), *etorren negar baten, ama, ama ta ama deadarrez* (39), *Mutiko au Ondartzara agertu ta urrengo urtea izan zan guztiz ekarkorra* (47). Bardin beste idazlan batzutan: *Ebillen aberatz bat legez, berera ta baketzu* («Zorijona»). Orduko eta gaurregungo gramatikagile batzuk kalkotzat zigortu gura leukien ordena sintaktiko bat izan arren, ondo jakina da herri-hizkeran guztiz ezaguna dana eta sustrai sendoak dituana. Bizkai euskeran be, besteetan legetxe, ezagunak eta berez-berezkoak dira horretarikoak. Horregaitik bada, errazegi salatzzen dira erdalkeriatzat ordena-ereduok, ohartu barik idazleek hiltzen erregistro arruntetik hartu izan dituela, batez be aurrereti barik beregandu edo isladatu gura izan dabenean herri-hizkera. Eta *J*-n ezeze, *JM* eta beste idazlan laburragoetan be nabarmen agiri dau idazkera malgu toleskor hori. Zentzun han-

diko gizona legez, neugan nago, bere barrenean fede handiagoa ebala gure klasikoen idazkeran, bere aldiko barriztatzaileetan baino. Edozein modutan be, Etxeitaren aranatarzaletasuna azaleko eta formakoa da gehiago, sakonekoa baino.

Koordinazioa

Zein disyuntiboaren erabilera dala-ta, Etxeitaren jokaera ondoko hau da: Ø A + *zein* B + *zein* C.... Lehenengo osagai koordinatuaren aurrean ez dau ipinten, tradizioan eta mintzairan ohitura nagusia *zein... zein...* izan arren. Adib.: *jausten zan txalupan zein edonon* (78), *an zein emen da edonon* (97), *bardin zan itsasorako zein leorrerako* (113).

Menpeko eta nagusiaren lotura

Etxeitak, galdegaia aditz aurrean ipintearen arau bera egokitzen deutso batzutan mende-perpauari be, aditz nagusiaren aurrekaldean finkatuaz: *eta geure poztasanak eztsuak izan daitezan orain da gero, jatorku Josetxo* (23). Baina joera nagusia, bestea izango da.

Mende-perpau marka batzuk

— Zehar itaunetan *-nez* atzizkia agiri da textuan. Otxolua herrikideak, gerotxoago, *-nentz* aldaera erabiliko dau, Bermeo aldean gaur egunean ahoskatzen dan legetxe. Etxeitak, ostera, Añibarro eta Zabalaren Bizkai mendebaldeko joera klasikoari helduko deutso: *jakin nai neuke, aregaz bazagoz berbatuta ezkontzeko, edo a maite dozunez* (51), *orain jakin gura neuke, nigaz nai dozunez ezkondu* (128), *Mari Jesusi, itandu deusat gaur nai dabenez ezkondu nigaz* (129), *aitak itandu eutsanean minez egoanez, ezetz erantzun eutsan gogo ilunaz* (159), *baina zoaz jakitera nai dabenez nigaz ezkondu* (229). Baina baldintzetako aurrizkia be sarritan irakurriko deusagu zehar galderaren balioaz, goian aitaturiko idazleei jazoten jaken legez:

jakin daidan Demikura etorriko banaz edo ez (51), *zaindu eiela alabea jakiteko mutil aregaz ibiltzen bada* (63)

— Erlatiboko perpausen eraikuntzan ez da hain bakana Etxeitagan, izenaren ondoko adjektibo tankerako erlatiboak aurkitzea, gehienetan ezkerreko tokian txertatzen badau be. Horretan be klasikoen jarraitzaile dala agiri dau. Adibidez: *arto edo talo bear zireanak* (25), *potin da batel arrantzuan dabiltzan guztiak* (28).

Autore klasikoek ohi daben erara, badaki inoiz *zein... -n* egiturako erlatiboak eregiten be, euskal klasikoen sundea harturik. Halan da be, noiz edo noizkoa baino ez da joera hau: *itandu eutsan Juana Mariri, zer igaroten zan Josetxogaz, zein ez etorren ikastetxera be* (61).

— Ondoriozko edo konsekituboen mende-egituratik iges egiteko joera darakus Etxeitak, eta horretan, tradizionoko erabilera erromantzekoen kalkoa zala salatzen ebenekin bat datorrela dirudi. Geroago Orixek, Lizardik, Azkuek, Altubek eta beste askok egingo daben modura egiten daki: ondorioa aurretik ipini esaldi nagusi modura eta kausa graduatua atzetik, *ain* gradu-bardintzaileaz. Hori dogu Etxeitagan egitura-eredu nagusia: *Juana Marik ez ekian zer gertaten jakan ordu atan, ain* erruki gogorra artu eutsan ume zoribako ari (16), *eta gero besteak erebilen besoan mosuka jan bearrik, ain* polit eta barrekari egoan Josetxo goiz atan (20), *Txominek eta emazteak, esaeukean asunak jan ebezala, ain* artega ta ibilkor egozan ilundu zanean (35), *urertza baino berago egin jakan zulo bat, eta ondatu bear eben, ain* ur asko sartuten zan zulo atatik (82).

Beste formula batez be adierazoten ditu noizedonoiz ondoriozkoak, *ain... zein...* dalakoaz, nahiz eta kontextu horretan bizkai tradizionoan *ain... (e)ze...* egitura izan ezagunena, *ain... zeinda... -n* egiturak erabilgune berezi eta murriztuagoa izan dauan bitartean. Adib.: *Ain* bare ta geldi egoan itsasoa, *zein* atxetan bere ez eban zaratarik egiten (83), *bera ta txalupako lagunak, ain* nekatu rik egozan, *zein* guztiz astiro joan bear izan eben Bermeotik Mundakara ordu erdiko bidean (93), *Erasti*

atan, Montevideon, **ain** ugari egozan abelgorriak, **zein** bost ogerlekoaz erosten zan idi bakoxta (137).

— Moduzko-baldintzazkoak inoiz *bai-l- + -n lez* aditz-egituraren bidez eregiten ditu, flexio hipotetikoaz. Guk *bailitzan* transkribatu badogu be, *baillitzan* idatziko dau beti, albokari bustiaren grafemaz. Adizki hau da gehien erabilia, inoiz *baileben* edo *bailegoan* erabili arren. Halan: *neba-arrebak bailitzan lez* ibilten zirean leku guztietan (58), *zuk nekaltzeko txakur bat bailitzan lez* (68), *artu eben Ondartzan euren etxean, seme bat bailitzan legez* (112), *artega ta aserre ebilen etxean, ama erruduna bailitzan lez* (219), *inpernutik urtena irudian bere amorruaz; amak eta arrebek baileben lez gertaera guztien errua* (229), *ikusten dira aldra askotan ainbanaturik, [...] itsaso guztia zetakaz beterik bailegoan lez* (248). Behin gitxienez, posposizio modalaz lagundu barik irakurri dogu: *Josetxoren amak, bere alaba bat bailitzan, egin ebazan negar gogorak* (293).

5.6. Lexikoa

Lehenengo esan behar dana da, bere elaberriak atontzeko orduan Etxeitak Azkueren Hiztegi Nagusia eskura izateko zorte ona izan ebalu, urte batzuk lehenago (1905) argitaratua. Bardin Tx. Agirrek *Kresala* eta *Garoa* idazteko. Iturri haren bidez ezagutu eikezan gehienbat textu zaharretako arkaismoak, zein idazle zahar eta klasikoaren lexiko-harrobi aberatsa, zuzeneko irakurketez ostean.

Lexikoari jagokazan iturri eta joera bat edo beste zertzelatuko dogu hurrengo, nahiz aurreko argitaraldia atondu genduanean be aipuren batzuk honezaz egin genduzan (1982, 119-20).

Arkaismoak begiko zituan Etxeitak, ez gerotxoago bere herrikide Otxoluak izango zituan ginoan baina. Honek emendio handia aterako eutsan *Refranes y Sentencias* bilduma zaharri, baina Etxeitak be *zeia* berbea (merkatua) iturri beretik jasoko eban kontuizu: 48, *goizean goizetik zeia*.

Klasikotasuna edo *literatura-tradizinoaren* oinatzak ugarriak dira obra honetan, zein autorearen beste batzutan. Atzene-

ko hiztegitxoari begiratu bat emotea nahikoa da horrezaz ohar-
tzeko. Adibide gisa, *idoro* 'topatu'.

Herri-hizkera dago zuzen-zuzen Etxeitarren beste hitz eta esapide askoren oinarrian. Gernikaldean guztiz ezaguna da adib. *alagala* (*bizi*) edo *alagalakoa* (*izan*). Denbora-adberbio batzuk *-aro* amaieraz egitea (*egunaro*), tradizinoz *egunoro* egin dan inguruneetan.

Barrikuntza lexikoan ahalegin nabaria igarten da Etxeitagan, batzutan beste batzutan baino hobeto asmatzen dauala. Barrikuntza hori ez da, gainera, era batekoa. Batetik, teknika eta kulturaren aurrerakuntzak beragaz dakazan konzeptuak euskeraz emoteko ahalegina dago. Bestetik, erdal hizkuntzetan ezagunak diran konzeptu batzuk euskaldundu gurea. Kultura-hitz legez jo geinkezan batzuk euskeraz emoten lehiatzen da: euskal oin-hitzen inguruan eratorketa edo konposaketak erasoaz. Honen adigarri onena, berak hain ondo ezagutzen eban itsasgintzaren eremuan dogu, gorago aitatu dogun legez. Halan darabil *itxasketa* eratorria, 'navegación' ordezkatur. *J-tik* kanpo, «Aterpe ta Zabaleta» tituludun kontaeratxoan, hegazkin-pilotu biren kontu zelebreak dakarkuz gogora; izan ere, idazleak dinoskunez, «oraintsuko aurrerapideak» ziran orduan hegazkinenak. Ara zelango hitz-sorta dakarkun gai horren inguruan: *egazkari* 'aviador', *egazki* 'aeronave', *burtariña* 'auto', *egazketa* 'vuelo', *egazkaldi* 'viaje aereo', *lurreratu* 'aterrizar', *egazkera* 'vuelo, modo de volar', *egazpen*. Beste eremu semantiko batzutan be jokaera bardina darakus: tradiziozko lexikoan konzepturen baterako hitz ajutua aurkitzen ez dauanean, barri bat sortzen ahaleginduko da. Halan darabilz honako batzuk: *aizetegi* 'kanpoa', *egitu* 'kunplitu', *egipidea* 'obligazioa', edo elaberriaren oin-oharretan irakurri daikeguzan beste asko. *Atsedendu* egitura barriko aditza darabil 'atseden hartu' adierazoteko, aditz zaharra *atseden* soila, *-tu* barik, dan bitartean.

Tradiziotik ateko lexikoa. Ezin da ukatu bestalde, Etxeitak, beste euskal idazle batzuk legez, batzutan arinegi jotzen dauala hitz-forma barri bat finkatzera, ondo ezagutu barik aurretiko tradizinoak forma finkaturik daukan konzeptu horretan.

rako. Hori izan da gure literaturak mendez mende izan dauan akatsetariko bat. Horren ondorenez, eratorketan zein konposaketan, behin baino sarriago aldenduko da tradizinoko bidetik, ezagun edo arrunt egiten ez jakuzan formak sorrerazoz. Darabilzan hitz batzuk ondo landu bako hizkera baten ezaugarri dirala esango neuke. Idazleak askatasun nasaiaz jokutzen dau batzutan, idatzizko edo ahozko usadioak on egin bako hitzmodu eratorri edo konposatuak eihóaz. Halan darabilz *besartetu* (besarkatu), *ibilkor* (ibilte bizkorrekoa) (*Gutziz zan ibilkorra* 47) eta antzeko berbak, gure belarriari bitxi samar egiten jakozanak. *Berbalari* darabil ('locuaz') ahoz entzunagoak diran *berbaldun*, *berbatsu* edo *berbatiren* lekuan. Sortze-ahalegin horrek batzutan, hizkera-estiloa bera itsusten deusala begitانتzen jaku. Halan: *aldana egiñaz egituten-da egipidea* (31). Hitzoin berberaz eratorri desbardinak sortu gurearen ondorena.

Lexiko errepikatua. Hitzegi-jarioa dala-ta, Etxeitaren akats agrieneratariko bat, hitz berbera behin eta barriro eta kontextu beretsuan agertzean datzala ikusten da. Horrek astundu eta geldotu egiten dau batzutan textuaren irakurketa. Emoten dau hitz-errepertorio mugatuegiar diharduala. Lehenengo kapituluak irakurri ezkeru, ezagututa daukagu handik aurrerako hizkera, hitz-errepikatze horrek estiloa sor eta lor bihurtzen daua-la.

6. OBRAREN ERETXIAK

Harritzekoa da izan, baina ez deusagu arraro eretxi, Arantarrak Bilbon ateraten eben *Euzkadi* aldizkariak *Josexo* elaberriaren, ez eta hurrengo urtean Aranak bultzaturiko idazkera-antzekoaz idatziriko *JM* elaberriaren aipu txikienik ez idoroteari. Etxeitaren gogo zabal, malgu eta alkarzaleak ez dirudi oihartzunik aurkitu ebanik aranatar garbizaleen norabide estuetan. Abertzaletasun zorrotz eta bereizleagoaren aldekoak ziratekean *Euzkadi* girokoak, mundu zabalean gauza asko ikusi eta ikasia zan Etxeitaren euskalzaletasunaren ondoan.

Kirikiño dogu salbuespena. *Bizkaitarra* aldizkarian iragarriko deusku Etxeitaren elaberrien agerrera. Lehenengo, *Josetxorena* (1909-VI-26) eta gero *Jayoterra Maitia*-rena (1911-IV-29). Eta ez hori bakarrik: erosi eta irakurtea gomendatu bere irakurleei. Euskerarentzat besoak zabalik zituan beti gure Bustintzak.

Ez da harritzekoa beraz, *Euskal-Esnalea*-ko kiputzekin gogaide hurbilagoa sentitzea, Bilbokoena baino. Bestalde, donostiarrek jera hobea egin eutsen Etxeitaren lanari, eta irakurgarritzat gomendatu, «euskel-usai aundiya baitakar». Halandabe, joskera-ordenan nasaiegi ibili zalako erreparoa agertzen eutsen, erdal kutsua agiri ebala, hain zuzen. Baina, garbizale ertzkoiei abisu modura, ondorio hau ateraten eban: «Alkarren bear gera, eta Etseita'k lez, euskera maite degunok lan egin dezagun. Eta... eta... egin nai duanari bideak zabaldu, leundu, idiki. Egiñalean bera lagundu. Gutsi gera! Asmo onez datozen guziyak betoz!» (*Euskal-Esnalea* 1909, 152). Ohar horrek argi salatzen dau kontrako eretxi eta susmoak sortu zituala inguruan Etxeitaren elaberriak.

7. ARGITARALDI HONEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Obrako grafia ondo argi azaldurik dakar idazleak berak aurreneko «Advertencia» dalakoan. 1908an, lana idatzi eban sasoian, bizi-bizi ebilen euskalzaleen artean ortografia-barrikuntzaren auzia. Sabino Arana batetik, Azkue bestetik, Campion eta *Euskal-Esnalea* girokoak Gipuzkoa-Nafarroatik, jokabide desbardinak ebilzan gizaratean. Nork bere eretxia eban eta bakotxak bere ebazpideekin jokatzen eban. Bizkaiko kasura mugatzen bagara urrunago joan barik, gaztelaniaz bestelakoak ziran ortografia-eredu nagusi bi gizarteraturik egozan orduko: Azkueren eredia, bere liburuez ganera, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarien bidez indarrak harturik egoan; eta zer esanik ez Aranarena: abertzaletasun sorbarriaren garras eta haren berotasunean, gero eta kementsuago etorrena, bizkai euskeran ba-

tez be. Hizkuntzazko jokabideok ez ziran ortografiara mugatzen: morfosintaxia eta lexikora be hedatzen ziran.

Etxeitak, guztien ederrarren, morfologia aldetik zabaldurik egozan eredu bitzuei amore emon guraz, *Josetxo* idatzi eban Bizkai mendebal taiuan —Azkueren eredutik hurrago—, eta hurrengo urtean, *Jaioterri maitia*, Bizkai ekialdeko erara —Aranatarren joereari men eginez—. Plan bakarraren emaitza bi dira elaberriok: egozan eskari biei eskeini gura eutsen eske egozana: irakurgai bana.

Baina ortografian ez batzuei ez besteei jaramon eutsen guztiz, jokabide euskorrago eta lehenzaleagoa hautaturik. Barrikuntzei, arik-eta guztiz nagusitzen zirala ikusi arte, ez eutsen onarpiderik emon, eta gaztelaniako grafemez baliatu zan hein baten.

Gure argitaraldi honetan, Etxeitaren jatorrizkoari eragin deusguzan aldakuntzak, adibide eta guzti ezarriko ditugu.

1. Grafia

Gaurko euskeran ohi darabilguzan grafemak eta digramak eragin deusguz Etxeitaren jatorrizkoari, aldaketak modu sistematikoan eginez. Hona eurok, hurrengorik hurrengora:

Letra jagi eta txikiak. Etxeitak jagiaz dakazan batzuk txikiz ipini ditugu. Halan *Done*, *Lurbira*,.... Bardin toki-izen bat arrunt bihurtzen dogunean *-tar* edo beste atzizkiren bategaz, txiki bihurtu ohi da gaur, Etxeitak jagia erabili arren. Halan *Aprika-tar*, *Demiku-tar*, *Bermeo-tar*, *Mundakar*.

Konsonanteetan eginiko aldaketak ondorengoak dira:

<ch> -> <tx>. Halan: *chachar*, *Echeita*, *echean*, *Josecho*.

<ñ> -> <in>. Gaurregungo edizino gaurkotu batzutan ñ gordetzera egiten da, baina ez dogu ezelako eragozpenik gaurko eredura aldatzeko ikusten, baldin irakurlea jakinaren gainean ipinten badogu erdi eta mendebal hizkeretan <in> eta bardin <il> digrafoaz sudurkari eta albokari bustiak adierazoten dirala. Halan aldatu ditugu: *añen*, *arañegun*, *arraña*, *artzaña*,

baña, baña, destaña, gaztaña, laño, mandazañen; beñean, otseña, zeñek; oñ-ortozik, oñastu, soñeko, soñuan.

<ts> -> <tz>. Gitxi-gitxitan, adib.: *atsenean*.

<tz> -> <ts>. Sarritan darabil tz digrama, gaur *ts* usu dogun lekuan. Ingurunerik garrantzitsuena auxiliare transitiboaren *nork-nori* jokoia dogu. Sarriro darabil *eutsi* auxiliarearen jokoia tz digramaz: Halan: *eutzan, deutza, eztotzuez*. Guztiak aldatu ditugu. Inoiz beste aditz-jokoren baten be bai: *dirautzut*. Baita *-tsu* atzizki eratorlea be: *alatzuak, atsegintzua, artegatzuaz, dedutzua, edatsu, neketzuak, oraintzu*. Beste batzutan, osteangoak: *aberatz, arratzalde, atzedendu, atzekabez, atzoa, erakutzi, eskintzari, irakatsi, itzurik, jatzi, satzak, utzune*. Bar-ku-izen legez darabilen *Ama Dontzo* be aldatu dogu, *dontsu* berbearen aldaerea denezkeru.

<y> -> <i>. Bokale artean darabilen *i* grekoa, latinora erakarri dogu: *bayetz, beyan, dayoela, eroyan, eyen, irakurgeya, geyago, goyanengo, jayo, leyo, mayan, nasayak, oyala, sabaya*. Adizki batzutan ikusten da arazorik gehien aldaketa egiteko, *egin* laguntzailearenetan. Idazlearen *deyoela* bokalaz ordezkatu dogunean, *deioela* lau bokaleko multzoa gelditu da, *degioela* (edo bustiduraz *deijoela*) baino astunagoa dana.

Beste kontextu batzutan, oster, <y> -> <j> transkribatu dogu, adizkiaren hasieran hain zuzen: *Bayakiat, bayator, euki-ko yozak, yaukat*.

<s> -> <z>. Etxeita noraezean dabil grafema bien artean sarritan. Guk gaurko ekandura ekarri ditugu: *adieraso, astu, aurkestu, baster, egastiak, emastientzat, eskakisuna, eskondu, eskurrik, gastaña, gastetan, lastana, moskortuten, nekasalea, sokondoak*.

Eta itzulitara: <z> -> <s>: *aurrezku, ezne, gozaria, gurazo, mozu, nagozi, nazaiago, puzka, trazkil, zaldu, zazkel*. Adizki batzutan bardin: *emon daizkuzan, nai doztak*.

Sibilante bustiak, Etxeitak <š> idazten dituanak, <x> transkribatu dogu, eta inoiz <s> be bai: *gešoa* (gexoa), *išildu* (isildu).

Puntuazinoa

Marraren erabilera. Konposaketa-marra batzuk erantsi ditugu eta beste batzuk kendu.

Erantsi honakoetan: *sorbaldazabal*.

Kendu beste batzutan, hutsunea itxiaz: *ordu-lauren, jazoko ete-zan, oi-eben, eche-aurrean, apal-aurrean, zaldi-ganetik, agertu-orduko, urreratu-orduko, burutik-bera, goikoz-bera, emen-beste, ichasoan-zear, urre-samar, Josecho-be, bat-be, noizean-bein, noizik-noizera, batak-besteari, bata-besteagaz, berbea-berba, mendirik-mendi, nundik-nora, etxeratu bear-dala, ito-bearrik, ezkondu-bearra, ibilli-da, ondo-da, nai-dabena, artu-eragin*.

Marra kendu eta osagaiak batu, beste batzutan: *noiz-bait, lo-gela, bazkal-orduan, Bizkai-ko, Bizkai-rarte, Bizkai-tarrak, Mundaka-tik, Bermeo-rutz, Ondartza-tik, Josecho-k, Josecho-gaz, Chomñ-ek, Jaungoikoa-ri, jakin-da, Mundaka-n*.

Harridura-ikurra. Gaztelaniaz legez, hasiera eta amaiera-ikurrak darabilz. Aurrekoa kendu dogu. Adib. *jai!*

Jatorrizkoan banan etozan berbak batera be ipini ditugu inoiz, lexikalizazio garbia ikusi dogunean. Halan: *bide ziorrak*.

Itaun-ikurra. Itaunaren hasiera-akabuetan ipinteko joera dauka Etxeitak (¿?). Gaurko ekandura makurtu ditugu honetarikoa: *¿zelan dok eure izena?*

Hitzen alkartze eta banatzea

Banatzera jo dogu gaurko erabilera nagusiaren bidetik, honakoetan: *bear bada, jaisiarte, etegozan (> ete egozan), umebako* eta beste batzutan.

Morfologia

Bokaletan ez dogu aldaketarik egin. Bokal-batzeetan badira eredu literario nagusitik urruntzen diran eta herri-ahoskeraren oihartzun diran forma batzuk, esaterako: *bidietan, etxietan, kalietan, nekezalien, egingurien egingureaz, egipidietan, barre-zantzuok, gizajuori, asmuok*. Lehengoan itxi ditugu.

Deklinazioan egin dogun aldaketa bakarretarikoak, datibo pluralekoa dogu. Etxeitak *-ari* erabili ohi dau pluralean obra honetan, Bizkaiko inguru askotako gaurregungo berbetan *-ari/-eri* aldaerekin erabilten dana. Irakurlearentzat anbiguitate nabaria sortzen daualako egin dogu, irakurle zeheari bidea errazteko. Horretara bada, *-ari* > *-ai* bihurketa egin dogu hainbat kasutan⁷ Modu berean, erakusleetan be *oneri, orreri, areri* pluralak *onei, orrei, arei* formetara makurtu ditugu.

Genitibo pluralean be arazo bera daukagu. Batzutan *-en* idatzi arren, gehienetan *-aren* darabil obra honetan (ez bestee-tan, hainbeste). Holakoetan be datiboaren jokabide berbera hartu dogu: *-aren* > *-en*, adibideak ugariak izanik⁸. Benefakti-boko kasu banaketan be jokabide berbera: *aitamarentzat* (327), *gizalabarentzat* (278).

Posposizino batzukaz emon diran kontrakzinoak atzera banandu ditugu, fonetika-aldaketarik erakarri ez dauanean. Berariaz: *zuelako* > *zuek lako* (66).

⁷ Honeek dira kasu nagusiak: *adiskideari* (165, 263), *aitamari* (130, 169, 171...), *alabari* (240), *ama-arrebari* (212, 230), *ardiari* (216), *arrañari* (116), *Arrantzaleari* (90), *asmoari* (195), *baserritarrari* (260), *berbari* (292, 293), *besteari* (252, 307), *biari* (165, 177, 201...), *buruari* (73, 182), *danari* (24, 207...), *destañari* (125), *deungeari* (141), *direanari* (115, 257), *diruchoari* (13), *Doneari* (14, 22, 54...), *ebezanari* (74), *echecoari* (37), *egozanari* (268), *England-arrari* (146), *eskariari* (23), *eurari* (56, 189...), *euskaldunari* (145), *gastaña zugatzari* (9), *gudulariari* (187), *gurazoari* (164, 170), *guztiari* (140, 141, 297...), *irabasicñari* (281), *itaunari* (269), *lagunari* (251), *lapurrari* (138), *menpekoari* (268, 309), *Mexiko-tarrari* (189), *neskatillari* (199, 315), *olloari* (25, 298), *Ondarroa-rrari* (116, 117), *onziari* (138, 145), *senar-emazteari* (24), *beste chaluari* (83), *umeari* (29), *umeori* (35), *utzuneari* (5), *zireanari* (120).

⁸ Hona adibide nagusiak: *acharen* (201), *aitamaren* (92, 172, 173, 176, 178...), *alabaren* (323), *ama-arrebaren* (235), *Aprika-rraren* (114), *arazoaren* (277), *arrantzalearen* (118), *aziaren* (112), *basoaren* (39), *begiaren* (201), *biaren* (39, 70, 89...), *chaluparen* (118), *aren mutil biaren* (54), *danaren* (56), *ederraren* (148, 314), *egipidearen* (222), *erabagillaren* (120), *euskaldunaren* (260), *ezaugarriaren* (265), *gauzaren* (332), *gexoaren* (258), *gizasemearen* (25), *gurasoaren* (37, 50, 78, 130...), *guztiaren* (12, 18, 98,...), *adiskide guztiaren* (81), *ichaslapurraren* (139, 142), *ichaschoriaren* (250), *ichastarraren* (201), *irabasiaren* (328), *Gitanoaren* (370), *lagunaren* (301), *naibagearen* (171), *nebarrebaren* (220, 329), *nekezale onaren* (191), *neskaren* (317), *neskatillaren* (252, 318...), *neskatilla lagunaren* (285), *olakoaren* (278), *olatuaren* (275, 339, 339, 340), *olloaren* (298), *Ondarroa-rraren* (119), *osagillearen* (329), *seme-alabaren* (282), *lau zaldiaren* (314).

Aditza

Ez dogu aldaketa-modurik egin. Behingo baten horraitino: (*joten*) *deuzula* (153) > *dozula*.

Lexikoa

Ez dogu aldaketarik egin hitzen formaren aldetik, nahiz batzutan Etxeitaren jokabidea guztiz bitxia izan, tradizionotik zein ahozko erabilera nagusietatik urruntzen dala. Halan *Don-tzo* legezkoetan.

Eskerrak emonez

Argitaraldi honen prestakuntzan izan dodan Labayru Ikastegiko laguntzaile handi biren lana aitatu behar dot. Maribi Egia andereñoak ordu luzeak emon ditu, erizpide batzuen araber, konputagailuan textuaren gaurkotze-lana egiten eta textu mekanografiatuaren oinarrizko zuzenketa egiten. Arantza Leon idazkariari zor deusat lehen argitaraldiko textu osoa konputagailuan sartu izana, neure lana erraztuz. Era berean eskertu nahi ditut Ikastegiko beste kide bi, Igone Etxebarria eta Asier Astigarraga, azken orduko hobekuntzak egiten saiatu diranak.

Adolfo Arejita
Bilbon, 1995. Azaroa.

Etxeitaren inguruko bibliografia

- AREJITA, Adolfo (1982): «Etxeitaren euskera», *Josetxo*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 19-30.
- ETXEBARRIA, Aitor (1982): «Etxeita eta bere nobelagintza», *Josetxo*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 7-18.
- ERKIAGA, Eusebio (1962): «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga», *Oleri sorta* (Esku-azalak) III-IV, 107-123.
- JAUNGOIKO ZALE (1915): «Izpar baltzak», 32 znb., 3-4.
- KORTAZAR, Jon (1979): «Notas sobre la novela de José Manuel Etxeita (1842-1915)», FLV n.º 33, 551-557.
- (1982): «Etxeita eta nobelagintza», *Idatz & Mintz*, 3/4, 32-34.
- (1990): *Literatura Vasca. Siglo XX*. Etor, Donostia: 44-48.
- MUJIKA, Gregorio (1915): «Don José Manuel de Echeita», *Euskal-Esnalea*, 50-56.
- OMAETXEBARRIA, I. (1959), «Echeita», *Euskera (Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco)*, Ed. Icharopena, Zarauz, 304-308.
- ONAINDIA, Santi (1974): *Euskal Literatura III*, Etor, Bilbao 1974, 35-40.
- SARRIUGARTE, Iñaki (1988): *Sarrera*, in *Jaioterri maitia*, Sutondoan, Labayru Ikastegia, Bilbao.
- VILLASANTE, Luis (1979): *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao. 2. argit. berrikusi eta osotua, Ed. Aranzazu, Oñati.
- ZARATE, Mikel (1970): *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Derioko Seminario-Ikastetxea, Bilbao.

Etxeitaren idazlanak

- ETXEITA, Jose Manuel (1909): *Josecho*. Echeita-tar Jose Manuel-ek Bizkai-ko euskeraz iratziriko irakurgeta. Durango-n. Florentino Elosu-ren etsean.

- (1910): *Jayotterri Maitia*. Echeita'tar Joseba Imanol'ek Bizkai-ko euskeraz iratziriko Irakurgeya. Durango, Florentino Elosu.
- (1911): «Mari-Pepa'k Semeari», *Euskal-Esnalea*, 40.
- (1911): «Mari-Bachi, Aterpe ta Jose-Anton», *Euskal-Esnalea*, 72-73.
- (1911): «Nikanor'en lanak», *Euskal-Esnalea*, 93-94.
- (1911): «Lastargi'ren Pipea», *Euskal-Esnalea*, 100-101.
- (1911): «Ichaslapurrak», *Euskal-Esnalea*, 161-162.
- (1911): «Luki'ren Sagarrak», *Euskal-Esnalea*, 202-203.
- (1911): «Aterpe ta Zabaleta», *Euskal-Esnalea*, 221-222.
- (1911): «Amacho maitte-maittea», *Euskal-Esnalea*, 254.
- (1912): «Negar Atsegintzuak Sortaldean», *Euskal-Esnalea*, 25-26.
- (1912): «Nikanor eta Julecho», *Euskal-Esnalea*, 65-66.
- (1912): «Neguaren biotza», *Euskal-Esnalea*, 75-76.
- (1912): «Alaitasuna», *Euskal-Esnalea*, 101-102.
- (1912): «Pepe-Anton Kiputza», *Euskal-Esnalea*, 136-138.
- (1912): «Eztabadak», *Euskal-Esnalea*, 173-174.
- (1912): «Eche-osteko erreka», *Euskal-Esnalea*, 195.
- (1912): «¿Nun idorokogu zorion iraunkorra?», *Euskal-Esnalea*, 290.
- (1913): «Lan onak dakar zoriona», *Euskal-Esnalea*, 138.
- (1913): «Errekartean», *Euskal-Esnalea*, 173-174.
- (1913): «Bartolo'ren gogapenak zartzaruan», *Euskal-Esnalea*, 284.
- (1913): «Kontze ta Bittor», *Euskal-Esnalea*, 348.
- (1914): «Maittetasuna», *Euskal-Esnalea*, 14-15.
- (1914): «Aittona», *Euskal-Esnalea*, 25-26.
- (1914): «Anatole», *Euskal-Esnalea*, 76-77.
- (1914): «Galde-erantzupenak [S,Z]», *Euskal-Esnalea*, 116-117.
- (1914): «Ane», *Euskal-Esnalea*, 162-163.
- (1914): «Guzur ongillea», *Euskal-Esnalea*, 183-184.
- (1914): «Biotz errukorra nai dot», *Euskal-Esnalea*, 254-255.
- (1915): «Agur lastana», *Euskal-Esnalea*, 1915.

- (1915): «Zorijona». Itzulpena. *Revista Euzkadi*, 227-230. Bagila.
- & Larrea, Nikasi (1915): «Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan. Urikoa. Jon-Uso» J.A. Truebaren ipuin eta antzerkiak euskaraturik: *Creo en Dios* eta *El Expósito* Etxeitak itzuliak. Donostia, Marin, Mena y Cía.
- (1988): *Jaioterri Maitia*. Bizkaiko euskeraz iratziriko Irakurgetia. Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte. Labayru Ikastegia & Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao.



Josecho



ECHEITA-TAR JOSE MANUEL-EK

Bizkai-ko euskeraz iratziriko

IRAKURGEYA



DURANGO-N

Florentino Elosu-ren echean

MCMIX-GARREN URTEAN

JOSETXO

Itzaurrea

Banator ni bere landu bako arri txatxar onegaz euskerearen alde eregiten (1) dagoan jauregira (2), neure alegina egite-
ra: nator guztiz indarga¹, egingo dodana baino egin gura neu-
keana geiago dala; al dana eginaz egituten da (3) egipidea (4).

Utsune asko topako dozuz, irakurlea, irakurgeti onetan,
baina ez jaramon utsuneai²; jarraitu beti aurrera, esan oi dan
lez, esanaz:

Lenengoan parkatu,
Urrengoan urkatu.

Irakurgeti au iratzi³ dodanean, gomuta izan dodaz, Astar-
loa, Campion, Azkue, Arana Goiri ta beste jaun jakitun batzuk,
eta eurak euskerearen alde egin dabezan lan gogoangarriak.
Gogo beroz (5) egiten deutset jaun orreri, biotzaren barru-ba-

(1) *Eregi* = Construir.

(2) *Jauregi* = Palacio.

(3) *Egitu* = Cumplir.

(4) *Egipide* = Obligación.

(5) *Gogo-beroz* = Con entusiasmo.

¹ Marka hau dauken berbak Glosarioan azalduko dira.

² Etxeitak datibo pluralean *-ari* darabil gehienetan (*ez* beti), *-ai* aldaera orokorraren ondoan: *utsuneari*, Bizkaiko leku askotan berbaz ohi dogun modura, baina mendebaldeko tradizino literarioak, aspaldirik gaurdainokoak, *-ai* finkatu dauan lekuan. Holan dala, Etxeitaren *utsuneari*, irakurriko dogu: *utsuneai*.

³ Etxeitak *iratzi* darabil, *ez idatzi*, 'escribir' adierazoteko. Mogelek be *iraatsi* erabilten eban: *Ausiabar asco artu gura dozu buruban artutiaz, ta lumiaz iraa-
tiaz eusquera icenac* (PA 33).

rrutik jatortan agur zintzoa: ilak begoz Jaungoikoagaz, da bizi
doreanentzat betoz beragandik, lan eder orretan luzaro jarrait-
zeko bear dabezan indarrak.

Mundakan, 1908garren urteko Zezeilaren 24an.

Advertencia

Ante la divergencia que existen en las opiniones de sabios tratadistas respecto al uso de algunas letras del alfabeto euskérico, y mientras una Academia de la Lengua Vascongada, o bien un acuerdo unánime de los tratadistas, no disponga el uso de unos únicos caracteres y reglas de escritura, hago uso de todas las letras del alfabeto castellano que tienen sonidos euskéricos, incluso de las **ch, r, rr** y **ll**; y en aquellas reglas de escritura, en que divergen las opiniones de los tratadistas, consulto la práctica con mi escaso saber y entender, y hago uso de aquello que me dicta mi conciencia.

ge, gi, se pronunciarán como **gue, gui** en castellano

đ como en las palabras, *biđur, indar*

š como en las, *išildu, išetu*

ť como en las, *aíta, gogaitu*

ts como en las, *atsegin, eutsi*

tz como en las, *arritza, biotza*.

Las letras **c, f, h, q, v, x**, del alfabeto castellano, no aparecen en las palabras euskéricas de esta novela: las **c** y **h** aparecen solamente para formar el conjunto **ch**, cuyo sonido es conocido y habitual para todos los que saben leer en las cuatro Provincias hermanas.

Al pié de cada página, van las significaciones de las palabras euskéricas que he usado para eliminar las castellanas euskerizadas, las cuales palabras euskéricas son de uso corriente en unos pueblos, y no aún en otros, donde se halle muy arraigado el uso de las que llamamos **erderakadas**.

Esta novela está escrita en vascuence vizcaíno que dice, **bidea, soloa, mendia, zirean, direan...** &, con las conjunciones **da, ta** y **eta**. La subsiguiente, Dios mediante, estará escrita en el que dice, **bidia, solua, mendija, ziran, diran...** &, sin la conjunción **da**. Así serán atendidos los que hablan en una y otra forma.

EL AUTOR

I

Ondartza

Antxina, erri batetik bestera joateko, bideziorrak eta burpide bedarrak^{*} edo estuak egozanean; aberats edo dirudunak zaldi ganeko kartoletan berera jezarrita, txaka-txaka, oinbideak zear, mendirik mendi joaten zireanean; gartzaina-zugatzaiz ge-xoa agertu orduko, ta oiloak euren txitatxoak egopean beroberotan eukiten dabezan lez, Gernikako Aritx ederrak ezkurrik beste lege, ondo neurtuak eta obeto zainduak, bizi-bizirik, bere orripean eukazanean, burdinbide, tximistargi ta oraintsuko asmo^{*} ta aurrerapide asko agertu orduko; Mundakatik Bermeorutz, ordu-laurengo bidean egoan Ondartza izena eban baso-etxe zar, orma sendoakaz egina. Etxe onek eukazan eskaratz edo sukalde ona, iru logela nasaiak, berbaleku txikitxo bat, sabai ta goianengo zabalak eta korta eder bi, abelgorri ta ardiენტzat; baita etxe aurrean egozan laba-gela ta oilatoki onak euren teilatuakaz. Ganera etxaguntza onek eukazan sei solo lurlantzarako, ta basotxo bat, bedar, orbel, ota, ira, egur da beste baso-etxean bear zirean gauzak zuzentzeko.

Ondartzatik urre samar egoan itsasertza, atxak, atxarteko arritzak, lapa, mosila, mangolino, lanperna, karramarro ta abar; baita Murgua eritxon atx andi biribil bat be, eguraldi onetan atxarrain^{*} onak arrapatzen zirean lekua.

II

Txomin-Txiki ta Juana Mari

Onek biok zirean Ondartzan euren bizitzea eroen senar-emazteak.

Txomin-txiki zan gizon laburkote, sorbalda-zabal, arpegieder, oso sendoa lanerako, ta guztiz gogo-argikoa berez; irakurten ondo ekiana, ta koplari ona ardao apurtxo bat lagun ebanean; beti baketsua etxean, da egunaroko¹ lanetan, ondo zuzenduta gauza guztiak eukiten ebazana: etzan inoiz mozkortuten, da emazteagaz aserrerik bere ez eban eguno izaten. Guayaquilera egieban ostera bat gaztetan, da ezagututen ebazan itsasketako (1) arazoak.

Juana Mari, bere emaztea, zan gizalaba polit, begi-andi, argaltxo, errukior da elizalea²: ondo garbi eukiko ebazan beti etxeko zokondoak.

Eukezan idi bi, bei bat, txaltxo bat, egazti asko ta ogetamar ardi. Biak bakarrik ezin ebezan egin baso, solo ta etxeko lan guztiak, eta eurakaz euken ogei urte ebazan otsein edo ogipeko (2) bat, lan guztietan laguntzeko; Martin eban izena mutil onek, baina bein zaldi ganetik jausi zalako, esaten eutsen Martin-zaldi ezizena.

Juana Mari, egunaroko goizetan joaten zan, Mundakan barreritarrak batuten zirean plaza edo enparantzara, esne, arrau-

(1) *Itsasketa* = Navegación.

(2) *Ogipeko* = Criado.

¹ Gernikaldean gaurregun be *egunaro* esaten da.

² *elizale*: *eleiza-zale* konposatuaren forma laburtua.

tza, egazti, sagar edo beste etxean egozan gauzak saldutera, ta goizetik etxeraturen zan bere diru, orio, okela, ogi ta egun atan bear zirean gauzakaz. Noizbait eroaten eban ardao puska bat apalorduan edateko. Soloetan edo basoan lan gogorrik ezpegoan, eskaratz da zokondo guztietako garbitasunak egiten ebazan; gauza guztien ardurea artuten eban, da guztiari arpegi emoten eutsan: bere senarragaz lanean egoanean be, lapikoko ta beste janari guztiak berak zuzenduten ebazan, noizik noizera eldualdi bat etxera eginaz.

Txomin-txikik, noizean bein, iluntzean lanetik etxera nekaturik etorreanean, itanduten eutsan gogo argiaz bere emazteari:

—Juana Mari, baukagu gaur ezertxo?

Emazteak ardaoa ekarri beban goizean Mundakatik, erantzuten eutsan:

—Bai Txomin, gaur baukagu zerbeit.

Txominek orduan, pozarren, koplaren bat abesauaz³, aurresku jantzan iarduten eban guztiai barre eragiten, da erantzun eroian⁴:

—Alagala egongo gara apalorduan!

Mundakan etxe gauda gauzak salduta artuten zan dirutxoa, etzan beti naiko izaten ardaoa erosteko, baina olan zala, nai alan zala, Txominek beti eukan gogo argia bere emaztientzat.

Mundakako gizon aberats batena zan Ondartza etxaguntzea, ta senar-emazteak, batak legez besteak, begiraturten eutsen ondo dirutxoai, etxe-saria^{*} ordaindu (3) bear zanean, ainbarik^{*} aurkitu ez eitezan.

Orrekaz ardura ta neke guztiokaz be, Txomin da emaztea, Martin-zaldiren laguntasunagaz, ondo bizi zirean.

(3) *Ordaindu* = Pagar.

³ Aranatarren neologismoa dogu *abes* (< abo + eres). Aditz-formaz *abestu* erabili da ia beti. *Abesau* aldaera honek, aditz erromanikoak mailebatzeko bizkai-euskerak darabilen *-au/-adu* amaiera bera dau. Etxeitak aditz mailebatu erromanikoen tankera bera emon deutso.

⁴ erantzuten eban, jardetsi ohi eban.

Baina, ail, beti gagoz lurbira (4) onetan zerbait bear dogula, nai dala aberatsa zein nekazalea; ta Txomin da Juana Marik be, zerbait bear eben zorionean biziteko. Zortzi urte igaro zirean ezkondu zireanik arrezkero, ta oraindino ez euken umerik: ume bako bakartasunak eukazan sarri zerura begira Jaungoikoari eskatuten umetxo bat emon deioela, pozgarriztat euren bizitzea oso atsegintsua (5) izan eitean. Ezin zeitekean ezagutu, bietatik zeinek eukan gogo geiago umetxo bat eukiteko.

Txomin-txiki zoraturik jarriten zan, bere emazteak esaten eutsanean:

—Txomin, zuk dozuz ogetamabost urte, ta nik ogetamar: gazteak gara oraindino; Jaungoikoak entzungo ditu gure eskariak (6) eta emongo deusku gura doguna, merezi badogu. Niri biotzak diraust, Txomin, emongo deuskula goiz edo belu, bearbada, uste dogun baino lenago. Egin daiguzan sarri geure eskintsariak (7) Jaungoikoari, bere Ama Dontsoari ta beste geure biotzeko doneai (8).

Ekin onetan, biotz ondo samurtuakaz, egoten zirean sarri, ta noizik beinean egiten ebezan neke andiko eskintsariak. Bein joan zirean oin-ortotzik Gaztelugatxera; beste bein Atxerren bizkarrera ta askotan egiten ebezan olako eskintsari neketsuak. Mundakako elizan bazan, jaiegun guztietan egiten ebezan euren eskariak, eta noizik noizera eskini oi eben Meza bat Jaungoikoari, done bat edo besteren bitartez. Baita egiten ebezan euren eskariak ogerorduan, ogetik jagiten zireanean, jatordu guztietan da lanak asieran; beti eskatuten eben osasuna ta umetxo bat.

(4) *Lurbira* = Tierra (Planeta).

[*Mundu* ez erabiltearren darabil *lurbira*. Textuan lau-bost aldiz idazten dau 'mundu' hitza, baina kursibaz bereizirik.]

(5) *Atsegin* = Placer.

(6) *Eskari* = Ruego.

(7) *Eskintsari* = Promesa.

(8) *Done* = Santo.

[Ez dago txarto erabilita *done*, *santu* esateko. Santu-izenen aurretik sarri erabili izan dira tradizio zaharreen: *Done Eztebe*, *Donibane*, *Done Jakue*, *Done Peri*, eta bardin *dona* emaztekiekin: *Dona Maria*.]

III

Gitanoak etxe aurrean

Txomin-txikik eta emazteak oin-ortotzik eskintsariak egin ebezanik irugarren urtean, iluntzeko ilunabarrean, agertu zirean etxe aurrean *gitano* batzuk, eta oles egieban*. Txomin da Martinek urten eben atera: *gitanoak* eskatu eben aterpe bat gau atan etzateko. Juana Mari be jatsi zan bera, arrituta bildurrez, arek arpegi baltzak ikusi ebazanean; etxeukuok bildur zirean joan eitezala esaten, da eskini eutsen galtzoa* zabaldua egoan korta bat, guztiak antxe etzateko. Pozik egozan *gitanoak*, korta zabal ederra, bero-berotan egoteko lortu (1) ebenean.

Gitanuok zirean, iru gizon, iru emakuma, lau ume, lau asto ta txakurtxo bi; ezainak (2), saskel*, erropazar, traskil, ikatza baino baltzagoak, azurra ta azala baino ez eukenak. Astaganean etorren, umetxo urte bi inguruko, matraila-gorri, begi-urdirin, galant, gaztaina margoko ule ederdun bat: ez irudian bestien endakoa (3); etorren negar baten, *ama, ama ta ama* deadarrez, da astotik jatsi ebenean, joan zan arin-arinka Juana Marigana, ta eldu eutsan sendo gonatik, *ama, ama ta ama* txilioka iardua-la. Juana Marik ez ekian zer gertaten jakan ordu atan, ain erruki gogorra artu eutsan ume zoribako ari: uste eban nunbait ostua izango zala, ta artu eban bere besoan.

Pozik egoan mutikotxoa, Juana Marik besoan artu ebanean: *gitanoak* urreratuten jakazanean besartetzen (4) eban sen-

(1) *Lortu* = conseguir.

(2) *Ezain* = Feo.

(3) *Enda* = Raza, casta.

(4) *Besartetu* = Abrazar.

[Etxeitak darabilen *besartetu* berbeak ez dirudi tradizioan ez berbaz sustrai sakonik dauanik. Ezagunagoak dira: *besarkatu* edo *besartean hartu*. Ezaguna dana, *besarte* da: *besartean euki, egon, hartu* edo antzeko egikuntzetan.]

do Juana Mari deadar gogorrakaz; ez eban nai joan *gitanoakana*.

Mutikoak bekian oinez ibiltzen, baina oraindino ez ekian berbetan: esaten ebazan berba bakar batzuk euskera. *Gitanoak* ez ekien euskerarik eta ezagun zan mutikoa etzana euren, ez-pabere, nonbait ostuta ekarrena.

Gau atan mutiko onek egieban lo, Txomin da emazteagaz, poz-pozik, guztizko gogo argiaz; onek biok, ezin loak arturik egon zirean gau guztian, bildurrez, zer jazoko ete zan kortan egozan arpegi-baltzakaz. Goizean ogetik jagi zireanean, mutikoak ez eban nai urten etxetik aizetegira*, bildurrez ostera* *gitanoak* eroan eien.

Juana Marik eta senarrak artu eutsen erruki gogorra ta ganera maitetasun andia: *gitano* gizaseme bati egieutsen eskakizuna, a umetxoa eurakaz isteko, baina arpegi ilunaz erantzun eban ezetz. Ostera iru emakumak nai eben etxe atan istea, zerbait umearen ordezt emoten beutsen: itxi nai eben beti egoten zalako negarrez da deadarrez isildu baga.

Egun atan, *gitanoak*, joan zirean Mundakara eskean, as-toak eta txakurrak kortan itxita, ta iluntzera arte etzirean agertu Ondartzara. Beste egunean, urberen (5) zanean, joan zirean atxik atx arrapatera lapa, lanperna, mangolino, muxila ta arripeko karramarroak: zuzendu ebezan iru egunerako naiko ebezan beste.

Biaramonean goizetik ebiltzen joateko asmoaz; gizasemeok, eurakaz nai eben eroan Juana Marik besoan eukan mutikoa; *gitanak* nai eben itxi umea zerbait bere ordezt artuta. Txomin da emazteak, errukigarrizko eskariak egiten ebezan mutikoa eurakaz isteko, baina arek gizonak aserre zirean euren emakuma lagunuen kaltez. Auzi onetan egon zirean luzaro, ta atzenean, Txomini eskatu eutsezan amar ogerleko ta amar egazti mutikoaren ordezt.

Juana Mari joan zan arin Mundakara mutikoa besoan eba-la; zuzendu ebazan amar ogerlekoak; oilatokian arrapau eba-

(5) *Urberen* = Bajamar.

zan Martin-zaldik amar oilo, ta emon jakezan. Artu ebezan euren ume, asto, txakur, karramarro, lapa ta enparauak*, eta joan zirean Ondartzatik mutikoa bertan itxita. *Gitanoak* esaeben Pedro eritxola, baina Pedro deituaz, ez eban erantzuten.

Juana Marik, arratsalde atan, altzoan esne-sopak emoten eukala itandu eutsan:

—Txotxo, zelan dok eure izena?

Barrero, ainbeste bidar itandu eutsanean, gomuta izan eban bere izena, ta poz-pozik erantzun eban:

—*Jose txo*.

—Jose txo dok eure izena? —itandu eutsan barrero Juana Marik, eta buruagaz adierazo eban, baietz.

—Jose txo az? —oraindino be itandu eutsan; da orduan irribarreka erantzueban:

—Bai.

Orra jakin zan mutikoaren izena etxeko guztien pozgarri, ta orduan zoratuta pozarren esaten eutsan Juana Marik bere besartean estuturik:

—Neure biotzeko Jose txo! Nundik nora ibili az orrekaz *gitano ukaz*? Nundik etorri az orrekaz baltzokaz, neure laztana? Zegaitik egin dozak arrigarrizko negarrak eta deadarrak? Zegaitik izan az ain bildur arekaz joateko? Zer egin doe arek?¹ Orain ementxe biziko az geugaz; ezta alan?

—Bai.

—Beti-betiko geugaz?

—Bai.

—Bai neure biotzeko semetxoa!

Onetan ekin eutsan luzaro Juana Marik, eta emoeutsazan mosu asko.

Jose txok esaten ebazan berba bakarrak zirean, *bai, ez, es-nea, ogia, erdu* ta *Jose txo*: ez ekian beste barbarik. *Gitano ukaz* ibili zan artean, aztu bear izan ebazan berba asko, ta orain, euskera entzunaz, gomuta izaten ebazan len ekizenak².

¹ *egin doe*: egin deue (haek hiri).

² Adizki singularra. Eredulanduan: (*hak*) *ekizanak*.

Txominek poz-pozik arratsalde atan esan eutsan bere emazteari:

—Juana Mari, gaur ondo apaldu bear dogu, ta ekarrizuz Mundakatik ardaotxo ta beste gauzak.

—Bai Txomin —erantzun eutsan emazteak—; neu bere gaur poz-pozik nago, ta ondo apaldu bear dogu Josetxo geugaz geratu dalako.

Esan da egin; Juana Marik ekarri ebazan bear zirean gauzak, eta Txomin apal aurrean asi zan jantzan da zorakerietan Josetxogaz, batean sorbaldan da bestean besoan erebilela³. Juana Marik, apalduteko, zuzendu ebazan, lukainka, arrautza, egaztiak eta arraina: ganera esne-sopa ta ardaoa zeinbatnai. Jazarri zirean maian irribarreka ta guztiz berbalari⁴, Josetxo Juana Mariren altzoan zala: jaterdian⁵ Txominek, artu eban Josetxo bere altzoan, da asi zan koplata batzuk abesauten (6). da asmoetan⁶. Juana Mari zoratuta egoan bere mutikoagaz; berak sortua izan balitz be, ez eban izango laztanago; kendu eutsan Txomini eskuetatik, eta jan bear eban mosuka. Apalostean, guztiak egozan berbalari ta koplari; Martin-zaldik bere, egiten ebazan biorkadak ardao pitxarra eskuetan ebala. Txomin jagi zan maitik Josetxo besoan ebala, ta jantzan iarduan zoli ta lerdin^{*}: Josetxo be pozik ebilen, euskera berba bat edo beste esaten ebazala. Martinek be luzaro euki eban mutikoa bere besoetan, da bakotxak berbaldi luzeak eginaz, egon zirean ogeratu baga gaberdira arte.

(6) *Abesau* = Cantar.

³ Halantxe darabil Etxeitak. Eredulanduan: *erabilen*.

⁴ *Berbaldun egon* edo *berbalduna izan* esaten da Gernikaldean. Bizkaiko beste paraje batzutan *berbatsu* edo *berbatia izan*, baina nekez oster, *berbalari*. Hitz eratorri honek ez dirudi tradizionokoa.

⁵ *jaterdian*: jatekoaren erdian. *Jatordu* berbearen antzera idazleak berak moldatua dirudi.

⁶ *asmoetan*. Gernikaldean honetara esaten dau: *Aur! Hasi zara oin be asmuke-rietan?* Zentzua: 'invenciones' (?), 'travesuras' (?).

Gau atan guztiak egieben lo ederto, goizean eguzkiak mendi bizkarrak gora igo arte⁷, ta kortan egozan abereak, urru-maka egozan jan barik belura arte.

Juana Marik, jagi zireanean, emoeutsen gosaria bere senarrari ta Martini; Josetxok eta berak jan ebezan esne-sopak, eta gero joan zan Mundakara egunaroko gauzak saldutera mutikoa besoan ebala. Enparantzan egozan emakuma ta ume gazte guztiak, joan zirean *gitanoak* Ondartzan itxi eben mutikoa ikustera; batak emoten eutsan sagar bat, besteak madari edo intxaurrak, urrengoak gaztainak, eta ganera, orain batek eta gero besteak erebilen besoan mosuka jan bearrrik, ain polit eta barrerari⁸ egoan Josetxo goiz atan.

Txomin-txikik, bazkalorduan esan eutsan emazteari:

—Juana Mari, orain egin bear doguna da, Mundakako agintaritzea daukanai esan Josetxogaz igaro (7) direan jazoera (8) guztiak, argitu deien⁹ berak nai daben lez, nun dagozan Josetxoren gurasoak. Onetarako, Bilbon dago albistari (9) bat Bizkaiko erri guztietara joaten dana, ta antxe iragarri bearko da Josetxoren albistea. Astebetean iragarri (10) leiteke albistarian, da ikusikogu aitamak agertuten badira mutikoa bilatutera.

—Bildurtu nozu Txomin zeure asmoaz, baina uste dot olan dala Jaungoikoaren agindua ta egizu zeuk nai dozuna.

Txomin joan zan Mundakako nagosiana¹⁰ ta esaeutsan zer igaroten zan Josetxogaz, da bere ustean zer egin bear litzakean. Nagosi jaunak erantzun eutsan biralduko ebazala mutikoaren barriak Bilbora, albistarien jaubeari, esaten eutsala astebetean

(7) *Igaro* = Pasar.

(8) *Jazoera* = Suceso.

(9) *Albistari* = Periódico.

(10) *Iragarri* = Anunciar, comunicar.

⁷ *eguzkiak mendi bizkarrean gora igon* esamolde arruntagoa litzateke.

⁸ *barrets* erabilten da. *Barrekari*, sorkuntza barrikoa dogu.

⁹ *argitu deien*: dagian (hak argitu zeozer). Berbazko erabileraren eragina.

¹⁰ Osorik *nagosiagana* litzateke. Ahoz, Gernikaldean, *nagusijeñe* esan ohi da, besteak beste. Beraz: *nagusiana* = *nagusiajana*.

iragarri daizala albistarian, Bizkaiko erri guztietan jakin deitezan barri orrek¹¹.

Txominek, etxeratu zanean esautsan emazteari:

—Mundakako nagosiak esan deust aginduko dabela albistarian ipinteko Josetxoren barriak. Uste dot ugutzauta (11) egongo dala, baina gurasorik agertuten ezpada ugutzau bearko da, daben izenagaz, elizako garbitasunak zuzentzeko al dan lez.

Onetan geratu zirean senar da emazte, itxaroten astebete igaro arte.

(11) *Ugutzau* = Bautizar.

⁹ Ohar bedi, iraganeko aditz-flexio baten azpian, subjunktiboko orainaldiko flexioan idazten dituala sarritan, denbora-komunztadura dalakoa jagon barik. Herri-euskeran guztiz zabaldurik dagoana, bestalde.

IV

Miraria ete zan?

Zoratuten jakan Juana Mariri¹, gomuta izaten ebazanean gertatu zirean gauzak, eta sarri esaten eutsan Txomini:

—Etzara Txomin arrituten igaro jakuzan jazoerakaz? Eztozuz gomuta gure eskintsari eta eskariak, apaltasun (1) andiagaz, Jaungoikoari ta geure biotzeko doneai, osasuna ta umetxo bat emon daiskuzan? Ezteritxazu miraria ume orren etorrerea etxe onetara? Eztozu uste, zelan zerutik biralduriko bat legez, agertu dan gure etxean? Ai Txomin! Nik ziur-ziur uste dot Jaungoikoa bitartean dabilela gure Josetxogaz, urte askotako eskari apalari errukiturik. Len biotzak esaten eustan, bearbada, uste dogun baino lenago eukiko ginduala umetxo bat: orain diraust Jaungoikoa bitartean dabilela, ta onak bagara, au ume ederrau geuretzat izango dala. Ikusikozu, Txomin; ezta agertuko gurasorik ez jauberik, eta geure poztasunak eztitsuak izan daitezan orain da gero, jatorku Josetxo.

Txomin-txiki arrituta egoan emazteari begira, bere artean esaten ebala: «Miraria dirudi izan be Josetxoren etorrereak!»

Zelan obeto sinistu Jaungoikoagandik etozala arek mirarizko jazoerak, alan sendatuten^{*} zan euren Josetxogazko maite-tasuna ta bizitzako atsegina. Alkarri begiratuta, negar malkoak jausten jakezan senar-emazteai, poz-pozagaz², Jaungoikoak euren eskariak jaramon eutsalako.

(1) *Apaltasun* = Humildad.

¹ Gaur lekurik gehienetan galdu samar egon arren, zaharra eta jatorra da *zoratu* aditzaren datibozko jokoak: *zoratu jako*, *zoratu jatzu*, *zoratu behar jat*. Mendebaldeko idazle klasikoetan erabilera ugaria dau. Gaur be bizi-bizi Deba-Leniz aldean.

² Esamodu arrunta: *pozaren pozaz*.

Baina ai! Batetik eukezan pozgarri orrek eta bestetik euren biotzak bildurrez, astebete edo bi igaro arte, gogoratuten etorriko ete dan norbait Josetxo bilatutera, albistarian jakinda nun egoan. Batetik pozez, da bestetik naibagez*, eukezan euren biotzak taupadaka, zer jazoko ete zan jakin arte.

Igaro zan egun bat, baita bi bere, baita lau ta sei bere, ta etzan inor agertu: igaro zan zazpigarrena, baita ilebete ta urtebete be³, ta etzan inor agertu Ondartzara Josetxo bilatutera. Orduan Juana Marik esaten eutsan bere senarrari:

—Enotsun nik esaten Txomin, etzala inor agertuko?

—Alan da, Juana Mari; onezkero eztot uste inor etorriko danik.

Txomineri joan jakan eukan artegatasuna (2), ta batean kanta edo abesau, ta bestean jantzan Josetxogaz, ibilten zan zorakerietan danai barre eragiten lanetik etxeratuten zanean. Urtebete igaro zanean ugutzau eben Josetxo, ta ezarri eutsezan Joseba Ondartzako, izena ta abizena: iru urte inguru bere adina. Txomin-txikiren arreba Kontzesik eta Juana Mariren neba Austinek artu eben besoetan⁴.

Josetxok ikasi ebanean senar-emazteai aita ta ama deituten, adurra jausten jaken oneri, pozen pozez, deiera* ori entzunaz: uste eben, Josetxo bertan jaiotako azia zala, ta txotxo, seme edo Josetxo zirean mutikoaren izenak⁵.

—Txotxo.... nor dok gure txikiena⁶?

—Neu.

—Nor gure kutuntxo?

—Neu.

(2) *Artega* = Inquieto.

³ Etxeitak *illebete* darabil eta ez *illabete*.

⁴ Besoetan hartzeak esan gura dau *aitabitxi* eta *amabitxi* izatea onartu ebela.

⁵ Gaur be oraindino bizirik dago adin heldukoaren artean umetxoei *txotxo* izen afektiboaz deitzea, artikulatu barik. Baita *txotxotxu* be, batzutan artikulatu-ta guzti: *Non dago gure txotxotxu, ba? Txotxotxue non dago, ba?*

⁶ Etxeitaren erabilera gorabehera, ez da arrunta ume txikiei *hika* egitea. Mutikotan hasi ohi dira guraso eta adinekoak umeari *hika* egiten.

—Zeinbat nai dostak, semetxo?

—Asko.

—Ta aitari zeinbat?

—Asko.

Onetan inarduten eben aitamok, Josetxok erantzuten ikasi ebanean.

Amak zuzendu eutsazan jantzi barri bi, sarri aldatu ta beti garbi erabilteko: ondo apainduta ibiltzen zan egunaro. Guztiz zan ibilkorra* ta, iru urte oso bage, joaten zan soloetara ta basora, aita lanean egoan lekura, or jausi ta emen jagi: Axeri eritxon txakur txiki polit batek jarraituten eutsan alde guztietara. Txominek artuten eban besoan da aupadaka, gora ta bera, mosu ta laztan, erabilten eban apurtxo baten, da gero jazarri eragiten eutsan bere ondoan jolastuten txakurtxoagaz edo beste edozer gauzagaz. Noizik bein joaten zan Martinegana be, ta onek eukan beti sagar, gaztaina edo zerbait Josetxorentzat.

Mutiko au Ondartzara agertu ta urrengo urtea izan zan guztiz ekarkorra (3), alan gari, arto, baba, gaztaina, zein sagar, madari, intxaur da ortuari edo baratzari guztiakaz: Txominek eta emazteak ez eben ezagutu urte ugariagorik; etxean ez egoan lekurik gauza guztiak ondo jarriteko, ta zelan batu alan saldu ebezan gauza asko. Urte atan senar-emazteok artu eben dirutxo ona: ordaindu ebezan eukezan zor apurtxoak, eta ganera erosi eben bei eder bat, bere txaltxoagaz, esnea ugariago eukiteko. Onek diru guztiok emon da gero, oraindino beterik eukezan sabaia ta goianengoa*, astiro-astiro salduteko, leku aretan egozan gauzak: urte atan Juana Mariren otzarea ondo beterik joaten zan zeira (4), ta sarri eroaten eban etxera ardaotxoa apalordurako.

Neke andiak igaroten ebazan Juana Marik, bere ardura guztiak jaso ezinik: goizean goizetik zeira, gero, gizasemeen

(3) *Ekarkor* = Productivo.

(4) *Zeia* = Mercado.

[*Refranes y Sentencias* errefrau-bilduman dator lehenengoz berba zahar hau, Etxeitak bizi barria emon gura deusana.]

da Josetxoren gosariak, urrengo labako arazoak, arto edo talo bear zireanak; eskaratzean lapikoko ta jatorduetarako janariak, oiloai jaten emon, ogeak zuzendu, etxeko zokondoak garbitu, soloetako lan gogorretan senarrari lagundu, urak iragon⁶ etxera, ta ganera Josetxo apaindu, jantzi ta zaindu: onek bear guztiok egiten ebazan Juana Marik.

Txominek askotan oartuten (5) eutsan, bear larregi erebi-lela, ta artu eiela⁷ amalau urte inguruko neskame (6) bat, lagundu eion Josetxoren da beste etxeko arazoetan, osasuna galdu nai ezpeban. Juana Mari zan guztiz begiratu, ta neskamea elikatu (7) ta jantzi bearrak atzeratuten eban ekarteko: entzuten ebazan Txominen oarpenak, eta ganera bekian zelan orain euken esnea len baino geiago, ta alan beste gauzak be, izan zan urte ekarkorraz: onekaz begiramen guztiokaz, artu eban atzenez burubidea, neskame bat bilatzeko, ta egun gitxigarrenean idoro eban neskametzat Paulina eritxon amalau urteko neskati-la ulegorri sendo bat; Mundakako arrain-saltzaile baten alabea, lanean da neketasunetan ekanduta⁸ egoana. Laguntasun one-gaz geratu zan Juana Mari, len baino asko nasaiago, bere lanari⁸ arpegi emoteko.

Eziban bere burutik aldendu, eurakana etozan ondasun da zorion guztiak, zireala Josetxo agertu zanik aurrerantzean, ta ume orren etorrerea, miraria izan zala.

(5) *Oartu* = Advertir.

[Bizkaiko tradizino idatzian *oartu* auxiliare transitiboaz agiri da. Añibarrok be halan darabil.]

(6) *Neskame* = Criada.

(7) *Elikatu* = Mantener.

⁷ *artu eiela*: hartu egiala.

⁸ Plurala be izan daiteke: *lanai*.

V

Josetxo gaztetan

Ondartzatik begiratuezkero sortalde edo eguzkiak igoten daben alderantz, ikusten da, begien aurrean aurkeztu leitekean laurkarik* ederrena. Itsasoa ta leorra, itsasoak urrunean eratu-ten daben marboila (1), zeru ta itsaso alkarregaz batuten direa- la iruditen dan ustaia: onatxoago, Izaro deritxon itsasleorra (2), itsasertzak, itsasbazterrak (3), atxak, ondartzak, itsasertzetik gora jasoten dan Ogoño deritxon ikusgarriko atx-mendia edo itsasmunea¹, Mundaka aldetik, serreaz ebagiriko atxa dirudie- na: beste aldera begiratuezkero, ikusten dira Oiz mendia, ta an- da-emen, beste andiera ezbardinak daukezan asko: baita Ger- nikara arteko itsasarte (4) luzea be, urgorenean urez beterik eta urberenean ondartza edatsuakaz (5). Ganera, eguraldi one- tan ikusten dira Bermeo, Mundaka ta Elantxobeko txalupa, po- tin da batel arrantzuan dabiltzan guztiak, eta sarri ontzi andiak be euren belak edo aize-oialak zabalduta, itsasoa zear doaza- nak. Onetak ikusbide (6) eder guztiokaz, ondo jolastu oi dira Ondartzan bizi direanen begiak eta ikusmenak.

-
- (1) *Marboil* = Horizonte.
 - (2) *Itxasleor* = Isla.
 - (3) *Itxasbazter* = Costa, litoral.
 - (4) *Itxasarte* = Ensenada.
 - (5) *Edatsu* = Extenso.
 - (6) *Ikusbide* = Vista, perspectiva.

¹ Darabilenetan, *ikusgarriko* darabil eta ez *ikusgarrizko*.

Jose txok orain, eztau zetan besoan erabili, ta eskutxotik elduta eroaten eban Juana Marik Mundakako zeia: ez eban nai izaten etxean geratu, eguraldi ona begoan. Paulinak oster, arratsaldean, ondo apaingurik eroaten eban Mundakara bere urte inguruko umeakaz jolastutera (7).

Berak nai ebanean joan da etorri, ta berak nai ebana emon da egin: alagala ebilen Jose txo; dana parkatuten jakan, da ibilten zan poz-pozik alde guztietan. Txominek, bere betiko gogogiaz (8), kanta edo abesauten eutsan sarri:

Zerutik jatsiriko
Angerua zara,
Jaunak biraldu zaitu,
Euskaldun artera,
Eurakaz biziteko,
Munduan batera,
Eta maitetasunak,
Autortzen euskera.
Pozgarri izan bedi,
Zeure etorrera,
Zorionagaz txotxo,
Bizkaiko lurrera.

Au Txomin-txikiren abesti au (9) ikasi eben Mundakan da Bermeen, da urte askotan abesauten zan, umeai lo eragiteko, nai edozein ordutan da lekutan.

Ondartzatik urte samar egoan Lamiaran eritxon baso-etxe bat, eta etxe onetan egozan Jose txoren adin inguruko mutikotxo bat eta onen arreba zerbait zarragoa: onek joaten zirean sarri Ondartzara, Jose txogaz olgetara edo jolastutera. Mutiko biak kaltzak jantzi ebezanean, joaten zirean urruntxo, bide, so-lo ta basoetatik, euren jolasaldietan, Axeri txakurtxo lagun ebela: askotan, jatorduetan, etzirean agertuten etxera, ta bilatu

(7) *Jolastu* = Divertir.

(8) *Gogo-argi* = Alegría.

(9) *Abesti* = Canto.

bear izaten zirean etxeratzeko. Bost urte igaro jakezanean, asi zirean joaten itsasertzeko atxetara ta batuten ebezan itsas-maraskilo politak eta karramarroak: sarritxo joan oi zirean etxera itsasertzean da atxarteko osinetan (10) soineko guztiak bustirik: jaten ebezan zugatzetatik jausten zirean sagar gordin gogorrak, gaztainak edo intxaurrak eta edozer janari osasuna galtze-koak, eta alperrik zirean Txominek eta emazteak egiten eutsezan agirakak*.

Josetxo egoan ekanduta (11) berak nai eban guztia egiten, da aserrealdi gogorrak izaten ebazan bere gogamenak egin ezik²; baina agiraka egiten jakan, osasuna galduteko arazoetan da arriskueta ebilenean. Txominek maite eban, baina noizik beinean berotuten eutsazan eperdialdeak eta zuzenduten eban zerbait egun batzuetarako, baina umeak beti ume, ta Josetxo laster joaten zan ostera lengo arazoetara.

Okerkerien urrengo, Txominek nekaldu (12) nai ebanean, lenengo besoan artuta abesauten eutsan:

Zeu zara laztanena,
Josetxo gurea,
Negarti eta geizto,
Zatozan umea.
Eztotsut parkatuko,
Olan izatea,
Sarri berotukotsut,
Eperdialdea,
Alper izango dozu,
Negar egitea,
Ederrak artukozuz,
Bai, neure maitea.

(10) *Osin* = Pozo.

(11) *Ekandua* = Costumbre.

(12) *Nekaldu* = Castigar, mortificar.

² *Gogamen*, *Etxeitak*, *gogo*, *burutazino*, *ames* adieraz darabil, sarri gainera.

Abesti onen urrengo astinduten eutsan eperdia zigorrada-txo bategaz, zerbait zuzendu eitean.

Bekian Josetxok, aitak abesti ori abesaeuzkero, zigorra ebana ganean, da erabatera asten zirean biak; bata abes egiten da bestea negarrez; baina geiztokeri andiren bat egin ezik, aitak ez eban inoiz joten. Ikasbideaz (13) biurtuko zan goiz edo belu apaltasunera.

Juana Mari be, senarrak Josetxori abesti ori abesauten eutsanean, biotza taupadaka ebala jarriten zan bildurrez larregi nekalduko ete eban, da esaten eutsan:

—Txomin, Jaungoikoagaitik ez eiozu minik egin: orrek egiten dituan gauza guztiak umekeriak dira, ta umeak ezin leike egin besterik: bakizu mutiko ori guztiz ona dana, ta erruki dot* zigortuten dozun baktotxean: neu joko baninduzu be, elitzakit min geiago egingo. Bakit, Txomin, berorren onerako direana orrek nekaltasunok (14) eta ikasbideak gaztetan irakatsi bear direana, baina biguntxoago erabili bear dozu Txomin zigor ori.

—Juana Mari, berbalari zagoz goizeon, mutikoari eperdia berotu deutsalako: ondo dakizu zelan zugatzak gaztetan zuzendu bear izaten direana³; gero ezin leitekez zuzendu ausi barga. Nire zigorradak ezteutse minik egiten, ezpabere okerkeriak egiteko bildurra artu eragin. Artuizu eroapena (15), ta egon zaitte ardura barik Juana Mari; nire burubideak eztabe inoiz naibagerik ekarriko: bakit mutikoau guztizko ona dana, baina, olan da guzti be, gaztetan artu bear jako ardurea ekandu onetatik aldendu ezteitean, da egunen baten atxetatik edo zugatzen batetik jausita il ezteitean. Zelanbait kendu bear jakaz ekandu txarrak, etxera naibagerik ekarri eztaien beretzat eta geuretzat:

(13) *Ikasbide* = Ejemplo.

(14) *Nekaltasun* = Castigo.

(15) *Eroapena* = Paciencia.

³ Berez *zelan... direan* da egitura jatorra, edo bestela *zelan* barik, *direana* soilik, balio konpletiboa hartzeko.

beste jolasetan, berari ez inori atsekaberik ekarri ezin leitekeanetan, ibili deiteala berak nai daben legez.

Arin da polito ikasi eban Josetxok euskera berbetan, da bost urtegarrenean, egiten ebazan Mundakara ta ostera joan-
etorriak, edozer gauza eroaten edo ekarten.

Egun baten joan zan basora bere Lamiarango lagunakaz, Martin-zaldi lanean egoan lekura; gogoratu jakan zugatz (16) txikitxo batera igotea, Lamiarango lagunak beste batera igo ebelako: danak, bata baino bestea arroago ta lerdenago ebiltzan adarrik adar zugatzetan, da atzenean, Josetxo ta beste bat jausi zirean lurrera ta zauritu ebezan euren esku, arpegi ta bu-
ruak. Asi zirean negarrez da deadarrez odola ikusi ebenean, andik, ortik eta emendik: Lamiarangoak joan zirean arin euren etxera, ta Josetxo eroan eban Martinek etxera negar baten ama ta ama deadarrez.

Juana Marik entzun ebazanean Josetxoren deadarrak eta negarrak, urten eban etxetik arrituta zer jazo ete zan mutikoa-
gaz: ikusi ebanean Martinek eroala arpegia odoldurik, bildurtu zan, da gogoratu* jakan onek ebalala etrua mutikoaren ardurarik artu ez ebalako, ta esan eutsan:

—Nun ego'az, Martin, umeari zugatzera igoten galarazo barik, ganorabakuori? Itsurik ego'az umea ez ikusteko?

—Nik neure lanean jarraitu dot, eta eztoz ikusi muti-
kuok zugatz ganean: jausi direanik be eztoz jakin deadarrak eta negarrak entzun arte.

Txominek ez eban jakin ezer bazkalorduan etxeratu arte, ta jakiebanean asi zan «*zeu zara laztanena*» abesauteko as-
moaz, baina Juana Marik ez eutsan itxi mutikoa nekalduten mingorturik* egoalako. Txominek be erruki eban, arpegi ta es-
kuak zaurituta eukazala ikusi ebanean, baina alan bere egie-
tsan agirakatxo bat zugatzera igo ebalako: gero, besoan artuta, maitetasun andiagaz, emoeutsazan mosu batzuk. Pozik egozan senar-emazteak, il etzanean zugatzetik jausi zanean.

(16) *Zugatz* = Arbol.

Astebetean sendatu zan Josetxo⁴, ta bizkor da lerdin ebilen, bear bazan, beste zugatz andiago batera igoteko be, txoriabiak ikustera. Paulinagaz Mundakara joan baino, naiago eban jolastu edo olga⁵ Lamiarango laguntxoakaz, atxik atx, solorik solo edo basorik baso, batean arin-arinka, bestean astiro-astiro, urrengoan egotaldi luzarokoakaz atsedendu (17): urberen zan orduan, sarri joaten zirean atxetara ta atxik atx Mundakara arte edo beste alderantz Lamiaranpera arte, atxartietan egozan mangolino (18) ta karramarro guztiak batuaz; baita atxartietako osinetan arrapaten ebezan noizbait, *abrusko*, karraspio, lula ta beste arrain txikitxoak; baita inoiz amarratzak be: onek ibilketok zirean euren jolasgarri onenak eta kutunenak.

Egun baten, bazkalostean, joan zirean gazteok Murguako atxetara, ta atx onen itsasaldean jarri zirean arrainetan: arrapau ebezan arrain txikitxo batzuk eta pozagaz etzirean aspertu euren arrantzuan arratsaldeko bostak arte: egozan bertanbera⁶, arrantzua baino beste gomuta бага. Ez eben gogoratu itsasgoorea zala, ta Murguaren inguru guztia urez betezkero, ezin izango zireala leorreratu urrengo urberenera arte. Bostetan zan egun atan urgoren (19): ordu orretan asi zirean gazteok etxerantz joaten, baina Murguaren leorraldera igaro zireanean, ikusi eben urez beterik egoala guztia, ta arriturik lotu zirean, etxeratuteko bide бага.

Iluntzeko ilunabarrenean, etzan Josetxo etxera agertu, ta Juana Mari asi zan etxekoai itanduten (20) nun dan mutikoa:

(17) *Atsendendu* = Descansar.

(18) *Mangolino* = Caracolillo de mar.

(19) *Urgoren* = Pleamar.

(20) *Itandu* = Preguntar.

⁴ *Sendatu* aditzak ez dauka hemen, eta bizkai-euskeran orohar, *osatu* 'curarse' esangurea, eta bai, sendo edo gogor parau norbera, edo gogor lotu zerbait.

⁵ *Olgau*. Etxeitak *olga* eta *olgaten* darabil, kostaldekoen erara, barrualdeko *olgau* eta *olgetan* barik. Halanda be, sarrien darabilen berbea, *jolastu* tankera barrikoa da.

⁶ Esangura berezia dauka Etxeitagan adberbio honek: bere kasa, beste ezeren akortu barik. Zentzu arrunta beste bat da: berehala, dagoan moduan (itxi, laga zeozer).

inok ez eban ikusi arratsalde atan: asi zirean bilatuten, soloetan, basoetan da alde askotan; onetan, Juana Marik, etxeko leiotik ikusi ebazan Murguaren bizkarrean, Josetxo, Lamiarango lagunak eta Axeri txakurtxoa, itsasleorturik (21) itxaroten ura berantz jatsi arte, leorrera igaroteko. Lamiarango neska-mutilen aita be joan zan Ondartzara itandutera an ete egozan bere umeak, eta arriturik jarri zan, Juana Marik esan eutsanean Murguan egozala urak inguratuta (22), arik eta urberen izango zan ordura arte. Batzuk orain da besteak gero, Ondartza ta Lamiarango gizadia⁷, joaten zirean itsasertzera gazteak zaindutera, ta gautu orduko adierazo eutsen, egon eitezala geldi bertan, bitarteko atxak agertu arte.

Txominek eta emazteak, esaeukean⁸ asunak jan ebezala, ain artega ta ibilkor egozan ilundu zanean: joan ara, etorri ona, igo goiko leioetara Murguan egozanak ikusi gurarik, jatsi bera euren arazoak zuzentzera, joan itsasertzera ikusten zeinbat jatsi zan ura; etorri etxera apaltzeko ardurak artuten: olan ebiltzan Txomin-txiki ta emaztea iluntze atan. Martin-zaldi ta Lamiarango gizona egozan itsasertzean neska-mutilok zainduten, atxak ondo agertu orduko asi ez eitezaz igaro gurarik. Juana Marik naibagez beterik esaten eban:

—Ze gogamen etorri jake gaur umeori Murguara joateko? Nun egon dira, ura gorantz etorrela ez ikusteko? Ai Txomin, onek dira atsekabeak!

—Juana Mari..., gaur Jaungoikoak nai badau, zigorrak be-arrak egingo ditu: orrek ume zitalok eztira Murguara joango beste baten.

(21) *Itxasleortu* = Aislarse.

(22) *Inguratu* = Cercar, rodear.

⁷ Etxeitak *jentea* esateko darabil *gizadi* hitza; erdaratikoa baino jatorragoa erabili nahirik. Dana dala, *gizadi* berbeak beste adiera bat dauka tradizino modernoan.

⁸ Balio inperzsonala hemen: *esan zeitekean*.

—Jaungoikoagaitik, Txomin, ez eiozu minik egin mutikoari: orrek umeok eztakiez oraindino itsasoaren gora-berak, eta eurak ezta kiela artu deutse urak inguru guztia.

—Bai, Juana Mari, baina uste dot, gaur artuko dabena zigorradiaz, ez tala joango Murguara datozen iru urtetan: ikusiko zu, zein polito ikasiko dabena itsasbetearen ardurea artuten.

Gabeko bederatzietan asi zirean agertuten gazteok igaro bear eben bideko atx-tontorrek, eta arinegi asi zirean atxak zear⁹ ilunetan. Txominek eta Lamiarango gizonak urten eutsen bidera ta eldu zirean leorrera, baina Lamiarango mutikoak, larrapastada bategaz egieban sartu-urten bat uretan, soinekoak aldean ebazala.

Txominek, agirak txo bat be ez eutsan egin nai Josetxori etxera eldu arte, baina Lamiarangoak, emoeutsezan zaplada ederrak bere seme-alabai, ta arin eroan ebazan etxera bere aurretik, bigarren nekaltasuna etxean emoteko.

Josetxo ta aita etxeratu zireanean, asi zan Txomin irribarreka ta gogo argiaz da zoli abesauten «*zeu zara laztanena*». Mutikoak negarrez esaten eutsan:

—Aitatxo... enaz geiago joango!

Juana Mari egoan gogo ilunaz¹⁰, guztiz motel, autuen da auzien adi: Txominek abestia amaitu ebanean, nekaldu eban gogortxo ta ganera emoeutsazan mosu batzuk, eskini (23) ebako etzala geiago joango Murguara.

Aurrerantzean, neska-mutilok ibiltzen zirean goialdetik, etxerako orduak ondo jagoten ebezala.

(23) *Eskini* = Ofreker.

[Etxeitaren erabilera gorabehera, *agindu* edo *berbea emon* erosoago letorke kontextuan.]

⁹ Mendebal euskeran ez da ohizkoa *nor* + *zear* egitura. Inesiboaz edo ablatiboaz beti: *atxetan zear*, edo *atxetatik zear*.

¹⁰ Gorago ikusi dogu Etxeitak *gogo-argi* berbeaz *alaitasun*, *umore ona* adierazoz gura dauala. Modu beretsuan lexikalizatu dau *gogo-ilun* be, kontrako zentzua adierazoteko.

Urteak joan, urteak etorri, Josetxok zazpi urte ebazanean, bere aitamak artu eben ikastetxera (24) biraltzeko burubidea. Eroan eben Mundakako irakasleagana (25), ta egun atatik aurrerantzean joaten zan ikastetxera egunaro, goiz da arratsalde. Egin ebazan adiskidetasunak ikastetxeko lagunakaz, da askotan etzan agertuten etxera goizetan eguerdira arte ta arratsaldietan eguzkia mendi ostean sartu arte.

Ikastetxera joaten zanik aurrerantzean, Josetxo egunaro etorren edertuten, da gogo onagaz lagunduten eutsen etxekoai edozein lanetan, ikastetxera joaterik ez eukanean. Amar urtegarrenean polito ekian irakurten (26), ta guztiz maitagure ta gogo-argia etorren berez gurasoen pozgarri.

Itxi daigun orain Josetxo bere ikastetxeko arazoetan, da goazan Martin-zaldigaz zer gertaten dan jakitera. Antxinatxo il jakazan gurasoak, eta arreatxo bategaz, esaten dan lez, geratu zan gizajoa, goian zerua ta beian lurra baino beste barik: urte asko eroazan Ondartzan otsein, da Txomin da emazteak, etxekoa balitzan lez, euken pozik eurakaz.

(24) *Ikastetxe* = Escuela.

(25) *Irakasle* = Maestro.

(26) *Irakurri* = Leer.

VI

Martin-Zaldi, Karlos-Geizto ta Mari Jesus Demikuko

Juana Marik eta senarrak, usmau^{*} eben, Martin noizik-beinean, goizean goizetik ardiak basora eroan da gero, belutxo etorten zala etxera, kortan egozan abelgorriai (1) jaten emotera: ez eutsen agirakarik egin ordu erdiko gorabereagaitik, baina aurrerantzean, geroago sarriago etxeratuten zan belutxo. Gainera, jaiegunetan etzan etxera agertuten iluntzean oso ilundu arte: len etzan olako ibilkorra ta zerbait jazoten zan Martinegaz.

Juana Marik nai eban jakin nundik nora ebilen mutil ori, baina, ordu lauren gorabera, beti etxeratuten zan, lanera joan bear zan ordurako; ta Txominek esaeutsan emazteari, ez eiola agirakarik egin, bere egipideak zuzenduten ebazan arte¹.

Martinek, orduan ebazan ogetamar urte, ta jarraituten eban bere joan-etorrietan: berak ekian, nora, zelan, zegaitik eta zetarako joaten zan.

Ondartzatik ordu laurengo bidean, mendigane baten, egoan Demiku eritxon etxebiko baserri bat: batean bizi zirean senar-emazteak lau seme-alabagaz, ogei, ta amasei urteko mutil bi ta amazortzi ta amalauko neskatilak. Beste etxean bizi zirean senar-emazteak, ogei urteko alaba polit, Mari Jesus eritxona, ta amalauko mutiko bategaz: etxe biak egozan alkarren urrean, da ain urre euken Mundaka zein Bermeo.

(1) *Abelgorri* = Ganado vacuno.

¹ Bere zereginak beteten ebazan bitartean.

Mundakatik urre egoan, Agirrebekoa eritxon beste baso-
etxe bat: etxe onetan bizi zirean senar-emazteak, eukezan Kar-
los eritxon ogetazazpi urteko seme bat, eta ogeiko alabea: zirean
etxagunak, etxe, solo ta basoen jaubeak. Karlos zan guztizko
*irritua** ta aserrekorra; edozergaitik aserraturten zana, ta orre-
gaitik ezarri eutsen Karlos-geizto ezizena.

Mari Jesusen gurasoak be etxagunak zirean Karlostenak le-
gez.

Demikuko neska-mutilok, bertako zelaitxo baten jolastuten
zirean *pandero* soinoan, kantaten edo abesauten da jantzan jai-
gun arratsaldietan. Martin-zaldik, Mundakan sarri ikusi ebalako,
artu eban adiskidetasuna Mari Jesus Demikukogaz, ta Martinek
lez, Karlos-geiztok be. Orra morrosko bien begikoa (2) zan nes-
katila ori, ta bata lenengo ta bestea geroago, biak asi zirean
Demikura joaten jai-egun arratsaldietan, jakiebenean *pandero*
soinoan da jantzan jolastuten zireala ango gazteak.

Martin-zaldi zan orduan morrosko sendo galant bat, guztiz
ona berez; Karlos-geizto bere, mutil sendo samarra zan, baina
arpegi itzalekoa ta guztiz aserrekorra.

Mari Jesusegazko adiskidetasunak zirean, Martin, aspal-
dian, lengo bidietatik alhenduta erebilenak, goizean goizetik
urten da iluntzean belutxo etxeratu eragiten eutsenak; baina
Txomin-txikik eta emazteak ez ekien zer gertaten zan Martine-
gaz.

Txominek sarri esaten eutsan emazteari:

—Nora joaten ete da Martin barrabana?

—Jesus, Txomin, esaizu Martin Jangoikoarena!

—Zer ba, barrabana berba txarra ete da?

—Eztot uste ona danik.

Egun baten, beti legez, goizean goizetik joan zan Juana
Mari Mundakako zeia, bere ortuariak eta beste gauzak saldu-
tera, ta Demikuko Kanuta eritxon bere antxinako lagunak
esaeutsan:

(2) *Begikoa* = Simpático.

—Entzuizu, Juana Mari. Jakingozu zelan, zuen Martin-zaldik, aspaldion egiten dituan joan-etorri asko Demikura, eztakizu?

—Zer diraustazu, Kanuta?

—Orretan zagoz?

—Eztakit ezer: esaidazu zer jazoten dan.

—Bai, zuen Martin da Agirrebekoko Karlos-geizto, etorten dira Demikura jaiegun arratsaldietan, da etxe bietako neska-mutilakaz, alboko zelaian jolastuten dira jantzan, *pandero* soinuan.

—Ori da izatekoa, Kanuta! Eztauke, ba, Mundakan tanbolin soinoa jaiegun guztietan, nai daben beste jantza egiteko, mendiak gora Demikura joan barik? Zein zoroak diran mutilok!

—Bai, Juana Mari, baina Mundakan eztauke Mari Jesus, da neskatila onegaz apurtxo baten egotearren etorten ei dira: biak ei dabe maite.

—Sinistuten deusut, Kanuta, diraustazun guztia, zegaitik, aspaldion Martin gurea, kanpozale biurtu da jaiegunetan, da eztogu jakin nundik ibiltan dan.

—Da mutil bioetarik batek be eztau maite zure alaba Donata?

—Ez, biak doaz Mari Jesusegana: ondo dakie gure Donatak Bermeon daukana bere kutuna.

—Ori ondo, Kanuta, zorionekoak izan deitezala.

—Eskerrik asko. Jakizu, Juana Mari, zelan Karlos-geizto, ezizena daben lez, dan guztiz okerra ta uste dot, egunen baten Martinegaz egingo dabela burruka gogorren bat.

—Nik eztakit, Kanuta, gure Martinek zelan artu daben burutasuna, etxaguntzako alaba bat ezkondu leitekeala beragaz. Bakit Mari Jesus, neskatila on-ona, esangina ta beargina dana; errirako zein baserrirako onbidetsua dana, baina Martin giza-joak eztauko ezer be, ta uste dot eztala izango neskatila orren begikoa.

—Mari Jesus aspaldian Bermeoko zeiarda joaten da goize-

tan, arrautza, esne ta ortuariak saldutera, ta Martinek askotan urteten ei deutso Bermeoganera, antxe berbalditxo bat egitera.

—Bai zera!... orain bakit zer jazoten dan: orreixek izango dira, ene alabea, bere goizetako joan-etorriak. Karlosi urrun egiten jako Bermeogane, ta antxe dauko Martinek eretia¹ zein-batnai berba egiteko. Bakizu zein bizkor dabilen Martin gurea?

Luzaroan joaten zirean mutilok Demikura jai arratsaldietan, da noizik beinean, jantzan da *olgetan* ebiltzala, aserratuten jaken Karlos-geizto edozergaitik, eta ezagutu eutsen guztiak Martini gorrotua² eutsana. Baita Martinek berak be, igarri eban, bera ez ebana ikusten begi onakaz, da biak erebilen barrua txil-txil irakiten.

Mari Jesusek ikusten eban zelan morrosko biak eraien burrukarako bidea, ta ebilen guztiz bildurrez: ardura andia eukan beti bere egitasunakaz³; batari ez besteari ez eutsan inoiz autortuten maitetasunik; etzan inoiz joaten batagana ez besteagana; jantzan ibiltzen zan batagaz lez besteagaz be, ta eurakaz legez auzoko mutilagaz be³: beste lekuetakako jantzarazoetara (3), joaten zan auzoko neska lagunakaz, da etzan eurakandik aldenduten: arrigarritzko bildurra artu eban, burruka egingo ebela bururatu jakanik aurrerantzean: bildur izaten zan jantzarazoetara joaten be.

Etorri zirean Almika eritxon baserri bateko jantzarazo egunak. Iru egunean, inguruetakoko erri ta baserritar guztiak batuten zirean Almikara. Lenengo elizan eskariak egin, da gero jolastuten zan gizadia (4), jantzan da itsu edo tanbolin soinuak entzuten⁴.

(3) *Jantzarazo* = Romeria.

[Adiera horretan ez dauka sustrai zaharririk: *erromeria* esan ohi dau jentek. Edo ta *jantzaldi* edo *jantzak* (pluralean).]

(4) *Gizaldi* = Gente.

² Etxeitak hitz soila *gorrotu* balitz legez jokutzen dau, eta ez *gorroto*.

³ Balio plurala dauka: *auzoko mutilakaz*.

⁴ 1909: *itzu edo tambolin soñuak*. Aurrerago (195) barrero: *itzu ta tanbolin soñuetan*.

Martin da Karlosek be, Almikan topau eben alkar, da baserrietako iru lagunegaz ebiltzan biak, begira beti, batean batera ta bestean beste aldera, noiz ikusiko ete eben Mari Jesus. Orduak joan, orduak etorri, neskabila ori etzan inundik agertuten, da motel da betilun ebiltzan Martin da Karlos. Zerbait belutu zanean, joan zirean okela, ogi, ardao ta abarregaz zugatz baten azpira, lauretakoa artutera, ta ekin eutsen jan-edanean. Ardaotxoak bearrak egin ebazanean, da bero-bero egozanean, iru mutil lagunak asi zirean Karlos zirikatuten, esaten eutsela:

—Karlos, Mari Jesus eztok agertu Almikara: or ibili az begira batera ta bestera, baina Jaungoikoak daki nun dagoan eure maite ori: jakin bear eban i etorriko intzana ona, ta etorri eztanean, ezagun dok beste leku baten maitetasun zintzoagoak (5) dituana.

Kar.— Edozer gauza! Zer dakik ik Mari Jesusi zer jazoten jakan ona ez etorteko? Ziur-ziur jakiat, auxe Martin-zaldi ez ikustearren eztala etorri!

Mar.— Ni ez ikustiarren dinok Karlos? Orrek eure burutasunak dozak; bearbada eu ez ikustiarren izango zolan.

Kar.— Ni ez ikustiarren? Olan uste izangok ik astuorrek, baina arpegi zabalote ori, urratukoat nik egunen baten! Lotsa gitxi daukak, otsein gaiso bat, ezetariko ondasun bakoa, etxaguntzako alaba baten bila ibilteaz. Eztaukak itxaropen (6) makala, tentel ganorabakurrek! Bajakiat nik, goizetan joaten azana Bermeoganera Mari Jesusi bidera urteten, zeiera doanean, da orrek ibilketa guztiok egiten dozak, neskabila orren maitetasuna euganatzeko usteaz: ni zokondora jaurtiteko usteaz; baina len legez dirauat barriro, ori arpegiko narruori zauritu barik enazala egongo luzaro.

Mar.— Karlos, ezin esan leiteke berba txar geiago, aldi laburragoan: nik ezteutsat txarrik egin Mari Jesusi, ta iri bez: geldi-geldi bada orrekaz berbokaz da egitadeokaz: bakean da goanari, bakean itxi.

(5) *Zintzo* = Fiel, fino.

(6) *Itxaropen* = Esperanza.

Martinek au erantzun eutsanean, Karlos ebilen artega, ta esan eutsazan Martini, alper, zital, ganorabako ta aora etorri jakazan berba txar guztiak: ganera, berba txarren urrengo, jaurti eutsan arpegira eskuan eukan ogi atala, baina Martinek aldendu eban burua, ta ez eutsan ikutu ogiak. Martin zutundu zan orduan: Karlos bere bai, ta onek jaurti eutsan Martini ukabilkada bat: onek, zolitasun andiaz aldendu eban Karlosen be-soa, ta asi zan benetan burruka gogorra. Euren iru lagunak, ezin zituen aldendu alkarregandik: jantzarazoko gizaldra (7) guztia urreratu zan burrukariak ikustera, baina gizaldra guztia urreratu orduko, Martinek azpiratu eban Karlos, da samatik elduta eukan lurrian itoten: gizon askoren artean, aldendu ebe-zan alkarregandik morrosko biak.

Martin egoan surretatik odol apurtxo bat eriola, ta Karlosek eukazan odoletan ezpanak eta betondoa, ta ganera begi bat zabaldu ezin eba. Eroan eutsen ura, ta garbitu ebezan arpegia: arin baltzitu ta anditu zan Karlosen betondoa; ta begia eukan guztiz txarto.

Ilunabarrean, Karlos etxeratu zan lagun batzukaz, da Martin beste batzukaz.

Ona Karlos-geizto, bere arrokeria guztiakaz azpiratuta: Martin-zaldik, oilar garaitsuak (8) lez, kukurruku abesau eban egun atan. Ondo adierazo eutsan Karlosi, ondasunik ezpeukan be, beukazala gorputz azkarra (9) ta beso indartsuak bearrera-ko zein burrukarako. Bearbada, ikasbide onegaz zerbait otzanduko zan Karlos aurrerantzean.

Jakina zan onek morrosko biok, noizbait egingo ebena burruka gogorren bat, eta eldu zan jazoera ori. Mari Jesusek ondo egieban, egun atan etxean egotea Almikara joan baga; ondo usmau eban zer jazoko zan: laster jakieban igaro zan guztia:

(7) *Gizaldra* = Gente.

(8) *Garaitsua* = Vencedor.

(9) *Azkar* = Vigoroso.

bere nebea egon zan Almikan, da ageri eutsan⁵ edesti (10) guztia.

Mari Jesus arriturik, biotza taupadaka ebala jarri zan albista orregaz: uste eban etzala izango atzenengo burrukea, ta alkar galduko ebela arek mutil biak, Karlos beti ebilelako Martin zirikatuten, onegaitik, aregaitik edo besteagaitik. Gau atan ez eban lorik egin Mari Jesusek, igaro zirean gertaerak gomuta izan ebazala⁶: sarri uste eban, ezagutu ezpalitu, obeto izango zala beretzat, zegaitik, bildurren bildurraz, ezin joan zan eurakaz batuko zan tokietara.

Motel da makal ebilen Mari Jesus luzaro, baina Martin, len legez joaten jakan, noizbait goizetan Bermeoganera berbalditxo bat egitera, ta pozgarri esaten eutsan, ez eiela euren bildurrik artu; baina Mari Jesus etzan poztuten, da goiz baten esan eutsan Martini:

—Martin, etzaite geiago etorri ona Bermeoganera nigaz berba egitearren: orixe izan da Karlosi amorru geien emon deutsan gauzea zugaz aserratzeko: bakea bear dogu ta etzaite etorri geiago bide onetara: mesedez eskatuten deusut.

—Mari Jesus, zeuk olan nai badozu, ez naz geiago etorriko ona, baina uste dot etzareala aserratuko jai arratsaldietan Demikura len legez joaten banaz, zeugaz da auzoko neska-mutilakaz jolastutera *pandero* soinuan.

—Demikun lagun asko daukadaz, da etorri zaite nai dozu-nean jai arratsaldietan.

Joaten zan Martin, da olgaten eban lagunakaz, bakean da pozik inogaz aserrekuntza barik: bere otzantasan (11) da gizabidea (12) beti zirean onak, eta Demikuko gizadi guztiak begi-

(10) *Edesti* = Historia.

(11) *Otzan* = Manso.

(12) *Gizabide* = Conducta.

⁵ Ekialdeko erara darabil Etxeitak *ageri*, aditz legez, mendebaldean *agertu* formaz emoten dan zentzua adierazoteko.

⁶ Egokiago egokean aditza *izan* barik; hau da: *gomuta ebazala*.

ratuten eutsan gogo argiaz da maitegureaz. Guztiak ekien, Karlosegaz egieban burrukan ez eukala errurik, eta zala guztizko mutil indartsoa ta esangina.

Juana Mari Ondartzakok, egieutsazan Martini agiraka gorrrak, esaten eutsala:

—Aldendu adi, Martin, Karlosegandik, egunen baten nai ezpok txarto ikusi eure burua.

—Ugazabandrea... ni enabil inoiz Karlosen bila, ez beragaz auziak bilatuten: gizadi guztiak daki ondo nire errueza: ni beti nago geldi ta bakean, baina txarto esaten da jotera bajatort, neure gorputza jagon bear dot, eta urrengo jo gura nabenean, beste betondoa zauritukotsat.

—Jaungoikoagaitik, Martin, ez eik egin olakorik!

—Zer ba, itxi jo neien?

—Ez bada, ori bez; ez batu inoiz beragaz.

—Orduan nik, Mari Jesus Demikuko ikusi barik egon bear dot.

—Mari Jesus neskabila ona dok, Martin, baina etxaguntzako alabea dan legez, etxoat uste igaz ezkontzeko asmorik erabilgo dabenik.

—Ori Jaungoikoak daki, Juana Mari: gaur gauza bat uste izan arren, biar artu leike beste gogamen bat.

—Bai, ori olan dok, baina autortu doa inoiz ezkontza gorrik edo geroagorako ustantzarik?⁷

—Ez, ezebez: orain arte eztago adiskidetasuna baino besterik.

—Ba, onena izangok, bein betiko jakitea zetan agoan, zegaitik, etxaguntzakoak, etxaguntzara joaten dituk bosterik lau, ta Karlosegaz ezkontzeko ustea badauko, esan deiela, ik bere eure burubideak (13) artuteko.

(13) *Burubide* = Resolución.

⁷ *Ustantza* berbea, *konfidantza* edo *esperantza* esangureaz darabil. Lapurteratik hartua.

—Ondo deritxat, Juana Mari, oarpen (14) ori⁸, ta esango tsat urrengo Demikura noanean.

Txomin-txikik bere, burruka egin da biaramonean, itandu utsan Martini:

—Ee... Martin! Zein barri dakak Almikatik?

—Nik ezebez.

—Ezebez? Emoten direanean artu be egiten dituk: arainegun baizen leun eztaukak ori surrori.

—Bai ba; ezarri eustan eskua surrean, baina nik, ezpan, sur da betondoa zauritu neutsazan: eztakit zelan eukiko daben bere begia; txarto eroian etxeratu zanean.

—Mutil aregandik aldendu bear dok ainbat arinen; egin aleginak beragaz ez batuteko inun bere.

—Egingo dodaz ba aleginok, gauzak ondo badatoz.

Astebetegarrenean, oraindio Karlos-geizto minez egoan, bere begia txarto ebala, etxetik inora joan ezin zala, ta bera ta aitamak egozan bildurrez begia galduko ete jakan.

Burrukea jazo ta astebete igaro orduko, Mundaka ta Bermeoko kalietan, neska-mutil gazteak abesauten ebezan urrengo doazan koplak:

Karlos-geizto zitalak
Beti amorruka
Martin-zaldigaz nonbait
Egin dau burruka.

Beti ibili oi da
Arrokerietan
Azpiratu dau orain
Martinek benetan.

Ezpanak zaurituta
Baita betondoa

(14) *Oarpen* = Advertencia.

⁸ Berez datiboaz behar eukean: *oarpen orri*.

Apal etxeratu da
Karlos morroskoa.

Mari Jesus gaisoak
Jakín dabenean
Orratzak sartu jakaz
Bere biotzean.

Biotzikara (15) asko
Lorik ez gabeán
Mari Jesustxo dago
Ain zoritxarrean.

Zerura eiten ditu
Bere eskariak
Bakez bizi daitezán
Arek mutil biak.

Karlosek jakín ebanean koplá onek kantaten ebezala kalean, naibage andia artu eban, baina zer egingo eban? Artu, al eban eroapen andiena edo samurrena: bekian bera zana bere zorigatx guztien errua eukana: bera zan obenduna (16) jazoera guztietan; bera zan Martini gorrotua eutsana, ta bera burrukarako eskua lenengo jaurti ebana. Atseginak zirean Karlosenzat, Martini eutsazan gorrotuak, baina olako atsegin geiztoak beti dakarrez naibageak. Karlosen aitamak be, jakín eben euren semea zala obenduna, ta egozan naibagez beterik.

Gurasoen oarpen da ikasbide guztiakaz bere, ezin zan inoiz otzandu (17) Karlos-geizto, ain zan okerra, aserrekor da ibilkorra: bere begiko minak eukan oraindino geldi ta bakean.

Martin-zaldirentzat, osterá, pozgarriak izan zirean abesauten ebezan koplak.

Urrengo jai arratsaldean joan zan Martin Demikura, ta an bere kanta ebezan koplá barriak: Martinek entzun ebazan irri-

(15) *Biotzikara* = Emoción.

(16) *Obendun* = Culpable.

(17) *Otzandu* = Amansar.

barreka atsegin andiagaz. Beste lagunak jantzan iarduen artean, Martinek itandu eutsan Mari Jesusi:

—Mari Jesus, dotsudan maitetasuna autortu gurarik egon naz beti: Karlosegazko auziakaz aurreratuten dira gauzak, eta dirautsut zelan maite zaitudan, da zeuk nai badozu, gurozunean ezkonduko gara.

—Zer diraustazu, Martin? Nik eztot oraindino ezkontzeko gogorik, eta ez eidazu ekarri olako asmorik.

—Ni, Mari Jesus, ezer eztaukadan nekazale bat naz, da Karlos etxaguntzako semea: onegaitik, jakin nai neuke, aregaz bazagoz berbatuta* ezkontzeko, edo a maite dozunez.

—Nik aregaz, zugaz beste; adiskidetasuna biokaz: ezkontzeko gogoia jatoranean, enaz ibiliko ondasunen bila, senarraren bila baino: nigana etorri leitezan ondasunak eztira asko izango, ta gurago dot senar ona ezer barik, txarra ondasunakaz baino.

—Ondo da, baina bakizu Mari Jesus, zelan Karlosek eta nik egin dogun burruka gogorra: gorrotua deust niri mutil orrek, eta aurrerantzean be, sarri ipiniko nau burrukarako bidean. Nik eztot nai burrukarik, ez mutil orren lagun izan, da barrero eskatuten deusut, esan deistazula mesedez, mutil orregaz badozu ezkontzeko asmorik; jakin daidan Demikura etorriko banaz edo ez.

—Ona da Martin zeure buruerea (18), baina nik ezin esan neizu len esan deusudana baino besterik: nik eztaukadala artu-emonik Karlosegaz ez inogaz, da inoiz ezkonduen banaz, izan-go dala senar onagaz, nekazale ezerbakoa bada be.

—Olan bada, atsegin andia izango da nireztat len legez Demikura etortea.

—Zeuk gurozuna egingozu Martin.

Mari Jesusen erantzupenakaz (19), Martin geratu zan len

(18) *Buruera* = Idea.

(19) *Erantzupen* = Contestación.

[Tradizino idatzi zein ahozkoan sustrairik ez daukan hitza. Hedatuago dabilta *erantzun*, *erantzuer*a edota *ihardespen* ekialdekoetan. Gaurregun *erantzupen* hitza beste adiera bategaz irakurten da inoiz: erantzukizun, 'responsabilidad'].

legez; ez eban argitu neskatila orrek maite beban edo ez; baina bestetik, poztu zan, autortu eutsalako, naiago ebalá senar ona, nekezalea bazan be, mendu (20) txarretakoa ondasunakaz baino. Berba onekaz, uste eban Martinek, adierazoten eutsala, beragaz ezkonduko leitekeala, gogo obeaz, Karlosegaz baino, ta orra Martin pozik barriro, jaiegunetan Demikura joateko.

Gau atan, apalostean, iragarri eutsezan Martinek, bere ugazaba ta emazteari, Mari Jesusegaz egin ebazan berba guztiak, eta zinoan:

—Otu jat (21) neskatila orrek, begi argiakaz begiratzen deustala, ta ezin egon izango naz Demikura joan barik jai arratsaldietan.

—Euk nai doana egingok, Martin, baina biar edo etzi, Karlos sendatuten danean, eztok a aspertuko iri egitasun txarren bat egin arte, ta ibili adi ardura andiagaz, aregaz batera azanean.

—Ondo daki Karlosek zer jazo jakan Almikan, da eztot uste barri azartuko* dala nigaz burruka egiten: neure aldetik, egingo dodaz aleginak, bakean beti ibilteko.

Burruka egin da ile bigarreanean asi zan Karlos etxetik urteten, da jaiegunetan joaten zan mezatara, oraíndio, zapi bategaz begia estalduta ebalá: nekez da astiro etorren begia sendatutera. Iru ilebetegarreanean joan zan Demikura, oso sendaturik, eta an batu zan osterá Martinegaz: apurtxo bat otzandurik joan zan egun atan: Martini be egiten eutsan berba eguno ezer igaro ebazan naibageak eta autortu eutsan zelan berak eukan errua Almikako burrukeaz. Ardaotxoak —zinoan— igo eutsala burura, ta ez ekiela zer egiten eban Martini esetsi* eutsanean; orregaitik ez eutsala ezetariko gorroturik.

(20) *Mendu* = Carácter, índole.

(21) *Otu* = Ocurrir.

(22) *Ageri* = Manifestar.

Urtebete igaro zan, Karlos da Martin Demikun batuten zireala aserrekuntza бага, baina Karlosi sarri ezagututen jakan Martini eutsan gorrotua.

Egun baten, Demikun jantzan iarduela Martinek, uste bari, bere oin bategaz joeban Karlosen oina, ta au jausi zan lurrera luze-luze. Jagi zan arin, da esetsi eutsan Martini ukabilka errurik ez eukala: onek Almikan lez, azpiratu eban da zauritu eutsan betondo bat: Mari Jesusek eta auzokoak ezin ebezan baketu, ta egunoko zigorradarik galantena artu eban Karlosek.

Mari Jesus gaisua, guztiz zurbildurik (23) egoan gogoratu-ten, zer igaroten jakan ez ekiela, ta bere aitamak eta auzokoak ibitu (24) eban bere artegatasuna: Karlosi garbitu eutsen betondo zauritua, ta ezarri eutsen zapi bat. Ilunabarrean Karlosi la-
gundu eutsan etxera auzoko mutilak eta Martin joan zan bakarrik.

Karlosek, beste begia eukan orain makalik luzaroko.

Txomin-txikik eta emazteak jakin ebenean bigarren burru-
kea, esaten eutsen Martini:

—Ez adi batu geiago inun ez inoiz Karlosegaz, ostean zo-
ritzarrean aurkituko az goiz edo belu.

Karlosi be, aitamak esaten eutsen:

—Ez adi batu Martinegaz, naibage geiago ekarri nai ezpok
gurasoentzat eta euren buruentzat⁹.

Baina biak eben maite Mari Jesus, da zelan egongo zirean
alkarregaz batu бага, biak joanezkero jai arratsaldietan Demi-
kura, euren maiteagana agerraldi* bat egitera? Batak maite ta
besteak maiteago baeben, zelan ibitu alkarri eutsen gorrotua?
Ezelan bez!

Mari Jesusek, egiten eutsazan Jaungoikoari eskari gogo-
tsuak, Martin da Karlos baketu eitezan bein betiko, ta berari

(23) *Zurbil* = Páldo.

(24) *Ibitu* = Calmar.

⁹ Honetan eta beste gehiagotan be *-en / -entzat* balio singularraz. Beraz: *eure buruarentzat*.

emon eiola eroapenagaz biziteko zoriona, aren mutil bien auzietan. Ogeratuten zanean, zein edozein ordutan da lekutan, egiten eutsazan eskariak Jaungoikoari biotz-biotzetik, arek mutil biak aldendu eitezan alkarregandik, batak besteari gorrotua eutsen artean. Baita egin ebazan eskintsari neketsuak, bere biotzeko doneai, oneraspen gogotsuaz, eskatuten eutsela mutil bien bakea ta bere zoriona. Sarri jarri oi zan zerura begira, bere eskariakaz arazoturik.

Gauzak geratu zirean, urtebete aurrerago egozan legez. Karlos makalik bere begi mingortuaz, etxetik urten ezin ebala, ta Martin joaten zan Demikura jai arratsaldietan: aztuta egozan abestiak, barriro agertu zirean bigarren burrukaldian: Karlosentzat, asunak zirean arek kantak, eta gozo-gozoak Martinentzat.

Mari Jesusek ez eban inoiz autortu zein zan bere begikoa, baina bere arpegian da begietan ikusten zan zerbait; erakusten ebana, Martini eutsan maitegurea.

Juana Mari Ondartzakok zirikatuten eban bere senarra, Martini zerbait esateko Demikura joateko asmoaz ebilenean, da Txominek, jai arratsalde baten, ikusirik ondo apainduta, itandu eutsan:

—Martin, orain be Demikura joango az?

—Bai, zer ba?

—Ezer ez, eztok nai aldendu Karlosegandik, eta arek, esakunea dan lez, eukiko jozak lengo ekanduak eta betiko menduak*.

—Karlosek oraindino ezin dau etxetik urten begia osatu arte.

—Ik uste eztoanean joangok a Demikura, amorrugaz beste burrukaldi bat igaz egitera. Esaik egia, ezin egon azala Mari Jesusen begi ederrak ikusi barik.

—Orra zeuk esanda zegaitik noan.

Ile bigarreanean, Karlosi begia oso sendatu orduko, etorri zan albistea, moroak sartu zireala Españan, da ogeitik berrogei urtera bitarteko mutil guztiak, joan bear ebela gudura (25),

(25) *Gudu* = Guerra.

Aprikarrok Españatik kanpora biraldutera: Bizkaira arte etorri leitekezala, ta bizkaitarrak be joan bear ebela euren asaberria¹⁰ jagotera. Etorri zirean Bizkaiko gudulariak (26) mutilak batu-tera, ta eurakaz eroan ebezan Martin da Karlos be. Joan orduko, batak eta besteak agur egin eutsen Mari Jesusi.

Txomin-txikik esan eutsan gudularien nagosiari, zelan arek mutil biak eutsen gorrotua alkarri, ta aldendu bearko zireala alkarregandik gudu arazoetan.

Joan zirean mutilok; amaitu zirean Demikuko burrukak eta Mari Jesus geratu zan bildur barik. Esan leikean, Jaungoikoak entzun ebazala Mari Jesusek biotz samurraz egin ebazan eskariak, eta arautu* ebazala gauza guztiak, danen onerako.

Txomin-txikik eta emazteak, beste ogikutu (27) gazte bat artu eben eurai laguntzeko lan guztietan: Bitor eban bere izena ta ondo ikasita eukazan baserriko arazoak.

Karlos da Martinen albista barriak artu arte, eztago zere-sanik eurakaitik ez Mari Jesusegaitik, eta joan gaitezan orain, Josetxo ikastetxean zelan dabilen jakitera.

(26) *Gudulari* = Guerrero.

(27) *Ogikutu* = Criado.

[Literatura-tradizinoan *ogituko* aldaera dogu askoz ezagunagoa.]

¹⁰ *Asaberri* darabil, Sabino Aranak *aberri* finkaturik eukana adierazoteko: 'patria'.

VII

Josetxoren ikasmenak (1)

Lendik daki irakurleak (2) zelan Josetxok, amar urtegarrean ikasi eban irakurten Mundakako ikastetxean: urte bi igaro dira arrezkero, ta gaur daki ganera, irazten, meza-erasoten da elizkizunetan polito kantaten. Irakasleak esaten dau zelan Josetxo dan guztizko adimen (3) argikoa, ta olan jarraituten badau, gizon jakituna izango dala.

Ikasmen-orduak zirean, goizean zortziretatik amaikak arte, ta arratsaldean, ordubietatik bostetara arte. Udan, ikastetxetik urtetan ebanean, Josetxo joaten zan uger egitera, portura edo Potzada eritxon itsasarte batera, bere lagunakaz; baita txori-abiak bilatutera be. Udagoien da neguan, olga edo jolastu oi eban, bere lagunakaz, pelotan, da beste asmo askotan, etxeratu bear eban arte.

Orduan ez egoan ikastetxe bat baino, ta bertara joaten zirean neska-mutilak; baina barruan jarriten zirean, mutilak alde batean da neskatilak bestean. Josetxo jarriten zan lekutik urre, egoten zan Eladi eritxon neskatotxo polit bat, eta sarri egiten eben berba biak alkarregaz: artu eben biak adiskidetasun zintzoa, ta alkarri jarraitzen eutsen euren jolasetan: nebarrebak bailitzan lez ibiltzen zirean leku guztietan. Josetxo, pelotan edo beste jolasetan, bere lagunakaz ebilenean, Eladitxo etzan urrun egongo.

(1) *Ikasmen* = Estudio.

(2) *Irakurle* = Lector.

(3) *Adimen* = Entendimiento.

Eladi zan alaba bakarra, Josetxo baino urte bi gazteagoa, begi ta ule baltz ederrak eta bekoki zabal galanta eukazana. Bere aita zan ontziko agintaritzea, urte askotan euki ebana Ameriketara joan-etorrietan, da diru askotxoaz etxeratu zana: ama zan andrazko mardo galant bat, eta biak andigurako, ondasunakaz arrotuta egozanak: bizi zirean Mundakako euren etxe eder baten, da ganera, eukezan solo ta ortu edo baratz onak.

Josetxo joaten zan noizbait Eladi bizi zan etxien atarira (4), euria zanean, aterpean jolastutera, baina ez eban inoiz igoten gora, Eladik igoteko esan arren.

Egun baten ebiltzan biak eliz osteko artzan, arri asko egoan itsasertzean, arripietako karramarroak arrapaten: itsasoa aserre zan, da *erresaka* apurtxo ebilen gora ta bera: Eladi etzan joan urak igoten eban lekua baino berago, baina Josetxo, itsasoaren beraldietan joaten zan berutz, arriak jaso ta arripeak ikustera. Uste ez eban baten, arrapau eban gorazko *erresaka* aserre batek, eta goikoz bera ta azpikoz ganera erabili ta gero, berantzean sartu eban atxarte baten. Eladik ikusirik berantzal-di andia zala, joan zan arin Josetxori laguntzera arriartetik urteten, da bere indarrakaz da Eladiren laguntasunaz, urten eban zokondo atatik, eta arin-arinka joan zirean leorrerutz, baina atzetik etorren *erresaka* goraldiak, arrapau ebezan apurtxo bat eta Eladiri busti jakazan bere gona-barrenak.

Au atzenengo jazoera au, ikusi eban goiko zelaian egoan atso zar batek, eta asi zan deadarrez itanduten:

—Nungoak zarie ume lotsageiztokuok? Arin ona gora! Zitalok, eztaukazue artza orretan dabilen *erresakien* bildurrik? Zu neskaxo politori bakit nungoa zarean, da oraintxe noa zuzen-zuzen zeure amari esatera, nun da zelan zabiltzan: zentzumbako ume okerrok; gaur ederrak artukozuez zeuen etxietan!

Berba onek esan ebazanean, joan zan atsoa.

Josetxok, uretan barruan ibilita egoan lez, erantzi ebazan soinekoak; ipini ebazan zabal-zabal atxetan, eguzki berotan, le-

(4) *Atari* = Portal.

[Etxeitaren *etxien*, *etxearen* singularrari dagokio.]

gortu eitezan, da bera geratu zan bilozik, eguzkitan, arriak jaurtiten ara ta ona, otzitu ez eitean. Eladitxo joan zan andik non-baitara bildurragaz, amak edo aitak arrapau ez eien leku atan, gona-barrenak bustita ebazala: eguzkitan ara ta ona ebilela legortu jakazan gona-barrenak eguerdian etxeratu orduko. Jose-txoren soinekoak etzirean ondo legortu, baina jantzi ebazan egozan lez, da joan zan etxera bazkalordurako.

Atsoa, esan da egin, joan zan Eladitxoren amagana, ta esaeutsan:

—Zure alabea, eliz-osteko artzan ibili da mutiko bategaz, gaur dagoan ikaragarrizko *erresakeaz*, da bildurgarrizko estualdi bat igaro dabe, gorantzaldi aserre batek arrapau dituanean.

—Zer diraustazu, ene andrea?

—Bai, lotsea emon bear deutzazu zeure alabeari, etxeratu-tan danean.

—Bai, Jaungoikoak nai badau: eskerrik asko ene andrea, albista ori iragarri deustazulako.

—Ezta ezegaitik.

Artuteko be, ederrak artu ebazan Eladik etxeratu zanean: amak itanduten eutsanean nungoa zan mutiko laguna, erantzuten eutsan ez ekiela zein etxetan bizi zan: atzenean amak esaeutsan:

—Entzuten bot beste bein itsasertzean abilela, birrinduko* aut etxeratuten azanean!

Jose txori ez eutsan ondo egin, soineko bustiakaz etxeratu-teak; zurbil, larri ta makal eldu zan etxera. Ogeratu eban bere ama Juana Marik eta itandu eutsanean zer igaro jakan, erantzun ebazan mutikoak eliz-osteko jazoerak, eta amak esaten eutsan:

—Ez az, txotxo, bildurtuten itsasertzera joaten itsasoa ase-rrre danean? Eztakik itsasertzean itsasoaren goraberak aserreak izaten direana, ta eroango baendu itoko intzatekeana? Jaungoi-koagaitik, itsasoa aserre danean, ibili adi itsasertzetik urrun, zoritxarrean jausi baga.

—Ez egoan ba, ama, olako erresaka andirik, eta karrama-rrroak arrapatera joan ginean Eladitxo ta neu, baina gorutzaldi batek arrapau ginduzan.

—Nungoa dok Eladitxo ori?

—*Don* Ermoken da *Doña* Masimaren alabea.

—Orregaitik gaur zeian esan dabe, neskato ori nekaldu dabela amak itsasertzean ibili zalako atzo egon zan erresakeaz.

—Ni ama, berantzaldi batek, arriarte estu baten sartu nindoan, da Eladik, etorri arin neugana ta lagundu eustan arribartetik urteten.

—Orduan txarto ibili intzan!

—Bai, ta orduantxe, urrengo itsasoaren gorantzaldiak arrapau ginduzan biok, eta Eladiri gona-barrenak busti jakazan: atso batek goiko zelaitik deadar andiak egieuskuzan.

Eladitxok, iru egunean, ez eban ikusi Josetxo inun be; ikastetxean bez, da zer igaro ete jakan nai eban jakin: «joango nintzake Ondartzara, baina nagoan geldi» esaten eban berak bere artean; «bere amari, goizean zeiera datorrenean itanduko deutsat zer jazoten dan Josetxogaz».

Esan da egin; biaramon goizean goizetik, jagi ogetik eta joan zan Eladi zeiera, ta itandu eutsan Juana Mariri, zer igaroten zan Josetxogaz, zein ez etorren ikastetxera be.

«Zeu zara galantori?» erantzun eutsan Juana Marik: «zuek, batorrek eta besteorrek bear dozuez zigorrada batzuk, itsasertzera bidea ikasi dozuelako, zentzunbako biok. Bakit amak apurtxo bat astindu zaituana, ta ondo egina izan da: azartasun (5) andia zan izan be, eliz osteko artzara joatea, itsasoa ain aserre egonezkerok; ez eizue beste bein olakorik egin! Josetxo ogean dago iru egunean berotasun andiaz: obero doa ta uste dot, biar arratsaldean, joango dala ikastetxera». Irribarreka, *ondo da*, esanik, aldendu zan Eladi.

Onek jazoerok igaro zireanean, Josetxok ebazan amabi urte, ta Eladik amar.

Juana Marik esan eban lez, biaramon arratsaldean joan zan Josetxo ikastetxera: sartu orduko topau eben alkar neska-mutilok, eta ageri eutsezan alkarri igaro zirean jazoerak: len le-

(5) *Azartasun* = Atrevimiento.

gez sarri batuten zirean bata besteagaz, da eguraldi euritsuetan, jolastuten eben Eladiren etxeko *kolar* edo atarian; baita Eladitxo be, noizbait, eguraldi onetan, joaten zan Josetxogaz Ondartzara.

Olan jarraituten eben luzaroan gazte biok, euren adiskidetasun zintzoaz, baina toki guztietan egoten dira, angoak eta emekoak txarto ipini nai izaten dabezan gizadiak, euren guzurraz, inarduten beti, aregaitik, onegaitik eta besteagaitik, etxeko arazoak baino auzokoak ardura geiago emoten deutesen asko: Pelis joaten dala ara edo ona; Lontzek alako edo olako soinekoak darabiltzala; Balerek ibilkera barregarria daukala; Nemesiren ezkontzea iragarriten dabiltzala; tanbolina gora, jantzea bera; egiak andik eta guzurak emetik; eragin beti batarri ta besteari. Olako inarkuntza* asko oi dira aserrekuntzak eta gorrotuak birbiztuteko, ta bakean dagozanak aserratu daitezkan. Arazo onetan ibilten zalea zanen bat, joan zan Masima, Eladiren amagana, esatera zelan bere alabea ibilten dan Ondartzako mutiko *gitanoak* ekarririko, nundik norakoa dan inok eztakienaz, da eztala dedutsua (6) eurentzat, mutiko aregaz batutea.

«Ori be bai?» —erantzun eutsan Masimak amorruez arpegia zurbildurik—: «Ezteutsat ezer esango Eladiri, neuk neure begiakaz ikusi arte alkarregaz dabiltzala neska-mutilok: baina ikusten bot Eladi mutil aregaz, ilgot bertan!»

Bere senar Ermokeni esaeutsan zer igaroten zan, da agindu eutsan, zaindu eiela alabea jakiteko mutil aregaz ibilten bada.

Egia zan Josetxo *gitanoak* ekarri ebena, urtebiko umetxoa zala, ta inok ez ekiena nungoa zan, baina gauza ori aztu zan Ondartzako senar-emazteak, gurari andiaz da pozik, eurentzat artu ebenean. Ganera Mundakako gizadi guztiak eutsan maitagure zintzoa, mutiko eder orri, ekandu onetakoa ta ikastuna zalako.

(6) *Dedu* = Honra, decoro.

Gertaera onetatik astebete igaro orduko, euri landurra^{*} jausten egoala, joan zirean *olgetan* Eladiren etxeko atarira, aterpean ibilteko, iru mutiko ta neskatotxo bi; euren artean egozan Josetxo ta Eladitxo. Ermokenek etxeratuten joala, ikusi ebanean Josetxo, jo eban lenengo ostikuagaz, da gero, eldu garririk eta jaurti eban kalera, txakur bat izan balitz lez: beste neska-mutilak iges egieben.

Josetxori zauritu jakazan anka bat eta beso bat, eta negarrez egon zan kalean zutuntzeko gogo barik: kale atatik, batera ta bestera ebilen gizadia, geratuten zan Josetxoren negarren adi, ta zer igaro zan jakin gurarik; erruki gogorra artu eutsan gizadi guztiak. Etxe aurretik igaro zirean emakuma bik, ikusi eben, zelan Ermokenek, jo ta jaurti eban kalera, bere etxeko atarian egon zalako, beste erru barik: zutundu eben emakumak, eta joan zan etxera astiro-astiro.

Etxean autortu eban zer gertau (7) jakan Ermokenegaz, da Txominek artu eban naibageaz gizon aren egitasun geiztoagaitik, orduantxe, ezeri be itxaron бага, nai eban joan Mundakara gizon a bilatutera. Juana Marik alegin andiakaz artu eragin eutsan eroapena, baina esan eban Txominek, egunen baten Ermokeni artuko utsazala bear zirean ardurak.

Egun atan, Mundaka guztian egoan inarkuntzea, etzan besterik, ezpabere, Ermokenek Josetxogaz egieban astokeria: gizadi guztia zan guztiz aserre Ermokenegaitik txarto esaten.

Eladi errukigarria aldendu zan bere aitak Josetxo jo ebanean, da bildurrez ebilen erri barruan, bein batera ta bein bestera, bere buruan argitu eziebala, zegaitik ete zan bere aitaren amorrua Josetxogana: otuten jakan izango zala, aitak uste ebalako, arek mutikoak eroango ebala eliz osteko artzara; baina alan da guzti be, bere ustez Josetxok ez eutsala inori txarrik egin, da errueza nekaldu^{*} zala.

Eladi joan zan etxera bazkalorduan, bildurrez da naitasun andiaz, jakiteko zetan egozan bere aitamak beragaz; onerako

(7) *Gertau* = Suceder.

ala txarrerako. Amak ez eutsan jaramon bere ondora urreratu arte, ta ondoan egoanean, emoeutsazan zaplada bi, txinpartak ikusi eragitekoak, eta esan eutsan:

—Etxe onetara ator lotsabaga andiori? Joan adi Ondartzako mutiko zakar nundik norakoa dan inok eztakienaz *olgetara!*

Eladik zaplada biak artu ebazanean, iges egieban *kanpora*, ta kalean egoan negarrez. Amak, bere amorruaz, leio batetik esaten eutsan deadar gogorraz:

—Ez az geiago, gure etxera sartuko! Joan adi nai doan lekura zital-zitalori! Nok ikasi deutso berorri baserriko mutil zatarrokaz ibilten? Ai, ene alabatxoa, etxeratuten azanean birinduko aut!

Masimak, onek berbok eta beste asko esaten iarduenean, kale atatik, batera ta bestera ebilen gizadi guztia geratuten zan Eladiri begira ta entzuten bere amaren berba gogorak. Gomuta izan eben, lentxoago Ermokenek Josetxo jo ebana ezetariko erru бага, ta egozan gurari andiaz, zerbait erantzuteko, Masimaren berba zentzunbakoai. Onetan, Eladitxo ta Josetxori erruki andia artu eutsan emakuma batek erantzun eutsan:

—Entzuizu, *Doña Masima*, obeto egingozu leio orretatik barrura joaten bazara: eztaukazu zentzunik ez berbabide onik, diarduzun autuetan: au zure alaba gaisoau errukigarria da: zuk eta zure senarrak baino geiago *balio* dau onen biotz onak, nekezaleaz zein aberatsaz bardin jolastuten dan onek. Zuk eta zure senarrak arrokeria andia daukazue zeuen ondasunakaz, da ezin ikusi dozue nekazalerik begien aurrean. Au zuen alaba maitagarriau ezta zuek lako andigurakoa; onek eta Josetxo Ondartzakok, zuek baino gizabide ohea dauke edozetan, umeak izan arren.

—Andra lotsageiztokoa, zugaz eztot nik auzirik, eta zoaz zeure bidean.

—Beste inor ez lako lotsabakoak, zu ta zure senarra zarie: ondasun asko bai, baina bestetik arro, zakar da tentel batzuk, erriko gizadi guztia zeuen kaltez inarduten daukazuenok.

—Esan deiela nai dabena; orrek ezteust ardurarik emoten.

—Ez Masima, lotsagalduek eztauko ezeren ardurarik.

—Joan ortik zantar guztiok! Artoaren artoak mozkortuta zagoze zuek!

Berba au esan, itxi leioa ta barrura sartu zanean, kalean egoan gizadi guztiak egin eban batera deadar:

—Aa.....! Oo.....! Uu.....!

Olan amaitu zan auzi au: Ermoken etzan egon etxean.

Arik irugarren egunean, ilunabar baten, batu zirean Jose-txo ta Eladi: onek autortu eutsan Josetxori gurasoakaz igaro jakana, ta ganera esaeutsan:

—Nire aitamak eztabe nai, Josetxo, nik zugaz jolastu dai-tan; baina zugandik aldentuta ibili arren, beti izango naz len-goa.

—Eladitxo, ez eizu nigaitik artu naibagerik; aldentu zaite: zure gurasoak eztabe nai ni lako nekazale bategaz ibili zaitezan: zeure onerako dira euren burubideak eta zoaz aberatsakaz jo-lastutera. Ondo dakit, zuk eztaukazuna errurik gauza orretan, da ni beti lezko adiskidea izango naz.

—Ez aserratu ba Josetxo.

—Zugaz aserratu inoiz bez.

Berba onekaz esan leikean, neska-mutilok aldentu zireala betiko alkarregandik, baina arek atzeneko berbatxoak, ai! on-do adierazo eben, arek biotz samur biak, etzireala aldentu bata besteagandik.

Orra umetxo bi, oso zintzoak eta adimen bakoak zerua goian da lurra da itsasoa beian baino besterik ikusten ez ebe-nak; ume erruezak, ikastetxeko ta elizako arazoak eta beste egipideak* amaituezkero, jolastutea baino beste gogamenik (8) ez eukenak, orain aldentuta alkarregandik, inun ez inori gauza txarrik egin baga: orra banatuta gazte orren adiskidetasuna, an-digurako arroak bitartean sartu direanean: ona ume orren zo-rionak, jolasgarriak eta bizkortasunak, nai ta nai ez, naibagera biurtuta. Baina Jaungoikoa dago beti *munduko* zitalkeri guz-tien ganetik, eta aren bioztxo samur-samurretan, orain edo ge-

(8) *Gogamen* = Pensamiento.

ro, goiz edo belu, bearrak egingo dabez, erruezazko nekaltasunak eta naibageak. Olako gertaerak geituten dabe biotzeko sua ta azkartasuna, maitegurea obeto sendatzeko.

Ondartzatik urre egoan Ermokenen *ortu* edo baratz eder bat, ormakaz inguratuta: sarri joaten zan orra ortuariak zelan egozan ikustera, ta marraskilo ta bareak iltera. Joan zan egun baten; ikusi eban Txomin-txikik bere solo batetik, eta zaindu eban noiz etxeratuten zan. Etxerutz joanean urten eutsan biderra ta esan eutsan:

—Egun on *Don* Ermoken.

—Baita zeuk be, zer nai dozu?

—Nik nai dot autortu daidazun zein kalte edo okerkeri egin eutsun gure Josetxok lengo egunean, zuk nekaltzeko txakur bat bailitzan lez. Kalterik egin badeutsu, ondo da okerra zuzendutea, baina ostarantzean¹, a jo ebanak, neu jo ninduan, da esan bear deustazu zetan zan errudun, zeure etxeko atarian, jo-joalak eta kalera jaurti zinduan.

—Neure atarian egoan, da jo ta kalera jaurti neban, gogoalantxe neukalako, ta barriketa gitxi egizu, ostarantzean esku-makila au ausikot zeure buruan.

—Geldi-geldi, Ermoken, orrekaz berbokaz! Ni enago lo, itzarrik baino, ta nik eztaukat esku-makila orren, ez zure arrokerien, ez zure bildurrik gagozan lekuan, ta erantzupen oberik ezpozu, edo Josetxoren txar eginik erazagututen (9) ezpostazu, ementxe ikusi bear dogu nok daroan katua uretara².

Txomin, au esaebanean, aurreratu zan apurtxo bat Ermokenegana, arpegia zurbildurik, eta bestea atzeratu zan bere makila ta guzti. Ermokenek, lenngoan arro ta zoli erantzun eutsan Txomini, baina bildur andia artu eban gero, ta esaetsan:

—Gizona, itxidazu etxeratuten!

(9) *Erazagutu* = Hacer saber.

¹ Etxeitak beti *ostarantzean*, ez *osterantzean*.

² Nor dan gehiago.

—Bai, oraintxe joango zara.

Au esanaz batera, esetsi eutsan Txominek Ermokeni azartasun guztiaz; kendu ta jaurti eutsan urrunera esku-makilea; eroan eutsan aizeak bidean zear buruko kapelea; emon eutsazan bultzada batzuk eta ostikada sendo bat, esaten eutsala:

—Zoaz orain etxera, Masimari esatera zer gertau dan biokaz. Josetxori ezarri zeuntsan ostikada bat: nik aren orde zezarri deusut beste bat, eta kitu: orain eztotsagu alkarri zorrik ez arturenik*.

Txomin zan, lau urte inguru Ermoken baino gazteagoa, ta lanean ekanduta egoan gizona: ganera, mutil ona zan bera gaztainak batuten! Azpiratu ebazan Ermokenen arrokeriak eta kendu eutsan gogoa beste baten Josetxo joteko.

Ermoken pozik joan zan Txominek kalte geiago egin ez eutsalako: ez eban astirik euki esku-makilea artuteko; an geratu zan bide zokondoan.

Ermokenek ez eban uste inok ikusi ebanik Txominek emoeutsan ostikadea, ta ez eutsan autortu bere emazteari, baina esakunea dan lez, sasiak be begiak eta belarriak daukezala, arin jakin zan Mundakan zer gertau zan gizon biakaz. Emakuma bi, ta gizaseme bat egozan lanean goialdeko solo baten, da ikusi eben bien burrukea: egun atan erazagutu ebezan jazoera guztiak.

Astebetegarrenean Mundaka-Bermeoetako kalietan, gazteak abesauten ebezan urrengo doazan koplak:

Doña Masima andigurako,
Gutziz agirakaria,
Zeuk dabiltzuzan deadarrakaz,
Arritu dozu erria.

Aa....! oo....! uu....!
Andrazko barregarria
Aa....! oo....! uu....!
Guztia arrokeria.

Poztuta zagoz ondasunakaz,
Arro ta gozo bizia,
Nekezalea ezta zuretzat,
Inoiz errukigarria.

Aa....! oo....! uu....!

.....
Zure senarrai emon ei deutse,
Zigorradatxo andia,
Txomin-txikigaz, goiko bidean,
Galdu dozue auzia.

Aa....! oo....! uu....!

.....
Ermokenek ez eutsan ezer esan emazteari ta beste inok bez, ekielakoan. Eladik be jakin eban jazoera guztia, baina bildur zan amari esaten: onetan agertu zirean kantok, eta Masimak entzun da aditu ebazanean, jarri zan artega, joan da etorri ona, ara ta bestera, zer igaroten jakan ez ekiela, *inpernu* edo geztokiko agintariak baizen geizto. Lenengo nekaltasuna Eladik artu eban etxeratu zanean: Masima ezin zan nasaitu etxe barruan, ta koplak kantaten kalean zear joan zan mutiko bati, jaurti eutsan pitxar zar bat, baina ez eban jo. Mutikoak pitxarren zati andienaz, ausi ebazan leio bateko beirak*, eta joan zan iges. Txitean-pitean joaten zan kalean bat edo beste koplak abesauten, da zoratu bearrik ebilen Masima etxe barruan, bein batera ta bein bestera: atzenean jarri zan leio baten, kalera begira, ekinean agiraka. Bere senarra ez egoan etxean.

Bata orain da bestea gero, gizadi asko batu zan kalean, da Masimak berbaldi bakotxa amaituten ebanean, kalean egozan guztiak erantzuten eutsen batera:

Aa....! oo....! uu....!

Andrazko barregarria

Aa....! oo....! uu....!

Guztia arrokeria.

Bere amorruez, esaeutsen kalekoai:

—Zuek, zeuen soineko zarrokaz, artoak mozkortuta zagoze: zoaze ortik!

Orduan, bere gaztetako lagun batek, zoli ta bizkor erantzun eutsan:

—Bai, gu artoaz da zu ogiaz. Entzuizu, *erregina* Masima; guk jan dogun artoa, zuk labanerrerikoa izango zan: len Masima labako esaten eutsuen, da orain, senarraren diruakaitik, esaten deusue *Doña* Masima. Amaika arto erre zenduan ezkondu orduko, goiko kaleko laban! Da orduan artorik asko jaten zenduan zeuk be! Orren zentzunbagak gareala uste dozu, ez jakiteko nundik norakoa zarean andrazko arruori? Gomuta dogu emen gagozan askok, labako lanak amaituta, zelan ibilten zinean otzara zar bategaz, kale ta bidietan, idi, zaldi, asto ta mandazainen mandoak jaurtiten ebezan bekorotzak batuten, solorako bear zenduzala-ta: etzagoz bestelakoa, uste izan bozu, etzaituguzala ezagututen nor zarean! Orain burkada satsak erosteko dirua naikoa daukazue, ta orregaitik zagoz arrokeriaz puztuta: zuri lenengo egunetatik *kanta* bear eutsuen, bart *kantaten* eben koplea.

Egunabarraz joaten zinean
Artoak labara sartzen,
Arratsaldean andik-emetik
Egozan korotzak batzen.

Aa....! oo....! uu....!

.....

—Zuek, bakean gagozanok aserre ipinten zatoze, ta joan zaitzeze kale onetatik.

Egunabarraz joaten zinean

.....

Aa....! oo....! uu....!

—Bakean zagozala dinozu lotsabagorrek, eta lentxoago, kalean zear joan dan mutiko bati, jaurti deusazu pitxar bat:

zorionean eztau jo, ostarantzean ilgo eban. Zuk eta senarrak zeuen andikeri ta astokeriakaz, emon deutzazuez orrek naiba-geok zeuen buruai: ori jazo oi jake sarri, nekezalien erruki ba-ga, arrotuta bizi direanai.

—Zoaze ortik zakar guztiok; ni zirikatuten beste asmo ba-rik zatoze ona lotsageiztokuok.

Aa....! oo....! uu....!

Masima sartu zan barrura, ta kalean egoan gizadi guztia be, joan zan arutz, onutz da besterutz.

Ermoken etxeratu zanean, geizto ta zoli egoan bere emaz-tea, ta itandu eutsan senarrari:

—Nun egon zara gizona, niri berba bat be esan barik, Txo-min-txikigaz izan dozun auziaren ganean? (10)

—Zuk eztozu zetan sartu olako gauzetan, da obeto egingo zindoan, lengo egunetan da gaur isil-isilik egon izan bazinean etxe barruan, loroen antzera berbaldi zentzunbakoak egiten leiora agertu barik: jakin dot, zelan izan dan lotsagarria zure ekinen ekina, kaleko gizadi guztien *kontra*.

—Zer egingo neban ba, arek *kanta* amorrugarriak entzu-nezkero?

—Ez jaramon, da etxe barruan egon egun batzuetan, eurak aspertu arte.

—Bai, Ermoken, zuk batzuetan olakoxe gibela daukazu, baina nik ezin artu izan dot eroapena, ta joan naz leiora agira-kaldiak egitera, kopla orrek abesauten ebezanai. Zer bada? Inoren irrigarriak (11) gara gu ala? Nire biotza sutan dago, Er-moken, jazoera onekaz! Zuk eztaukazu ezeren naibagerik ez *errenkurarik*.

—Nik, zuk baino naibage geiago daukat igaro direan au-ziakaz; da zer egin? Artu eroapena.

Aserre gogorrek izan ebezan biak, argitu gurarik zeinek eukan gertaera guztien errua: atzenean erabagi eben Eladitxo

(10) *Ganean* = Encima, acerca de.

(11) *Irigarri* = Burlesco.

zala jazoera txar guztien erruduna, ta onek ume errukigarri-
nek ordaindu ebazan, apurturiko *tresna* guztiak.

Eladitxo, bildurren bildurraz *kanpoan* ebilen beti: jator-
duetan da lo egiten bakarrik joaten zan etxera. Errubako ume
gaisoak, ikusirik bere ganera joazala beti egur igarrak³, zar ba-
ten gisan, artu eban burubidea, aurrerantzean, apaltasun an-
diaz, geldi egongo zala aitamak joten ebenean, da baita egitu
be egieban esaebana. Negar sendo egiten eban nekalduten ebe-
nean, geldi-geldi egoala, zirkin^{*} egin baga, batera ez bestera.

Ume zoribakoa! Jaungoikoak ikusten ditu zure naibageak,
eta berak erakutsiko deutsu *munduan* jarraitu bear dozun bi-
dea!

Txomin-txiki, Ermokenegaz burruka egin ebanean, joan
zan etxera, ta esaeutsan bere emazteari, gizon aregaz igaro zan
guztia. Juana Mari arriturik lotu zan, jakin ebazanean arek ger-
taldiak (12), eta bildur gogorra artu eban, otu jakanean Ermok-
en da emaztea, zelan edo alan mendekatuko^{*} zireala eurakaz,
da senarrari esan eutsan:

—Txomin, Jaungoikoaren gizona, eztozu uste, orrek senar-
emazteok, nai badabe, naibage asko emon leiskuezala?

—Naibageak zegaitik?

—Ara ba, bakizu inoren etxean bizi gareana, ta...

—Ta zer?

—Orrek aberatsok, alkar bilatuten dabe, inori kalte egin
gurotsenean.

—Eztaukat, Juana Mari gauza orren bildurrik. Ermokenek
baki, olakorik egingo baleu, laster ostikopetuko neukeana: ga-
nera, gure ugazaba ezta olako zitalkerietan sartuten dan gizona.

Masimaren *kantak*, Josetxok eroan ebazan Ondartzara pa-
per edo ingi baten iratzita (13), ta laster ikasi ebezan Txominek

(12) *Gertaldi* = Suceso.

(13) *Iratz* = Escribir.

³ Guztiaren errudun bera egiten ebela.

eta otseinak. Juana Mari etzitan ikasi: bildur izan zan koplarek abesauten, ta besteai esaten eutsen:

—Ez eizuez *kanta* orrek koplak!

Orduan Txominek erantzuten eban:

—*Kanta; kanta* koplok, *kantateko* egin dabez-da! Mundakan ez eizuez *kanta* baina emen *kanta* ardura barik.

Txominek barre asko egiten eban koplak kantaten ebazanean, baina Juana Mari bildur zan, da esaeutsan:

—Txomin, Josetxo etxe onetara agertu zanik arrezkero, amar urte onetan, baso, solo ta abere guztiak izan dira ekarkorrak: esan leiteke, Jaungoikoak mutiko orregaz biraldu deuskula zoriona. Nasai ta ondo bizi gara, geure lanak egunaro zuzendurik, baina ugazabak jaurtiko baginduz etxe onetatik, ai Txomin!, atsekabez beterik ondatuko gintzakez. Bildur onegaz nago ezetarako gogo' бага, jakin arte zetan amaituko direan auzi onek.

—Juana Mari, jaurtizuz alde batera orrek buruera ta biotziltasunok (14), eta egon zaite bildur бага: guk ezteutsagu inori txarto egin, da inor eztabil gure bila. Nik Ermokeni jaurti neutsan ostikadeaz, eneban egin besterik, ezpada, bardindu Josetxori berak jaurti eutsana, ta kitu; alkarri zorrik ez arturenik ezteutsagu orain.

—Jaungoikoak jagon gaizala ba olantxe aurrerantzean!

Josetxok eta Eladik, ikastetxean ikusten eben alkar egunaro, ta noizbait, berba be egiten eben, baina kalerezkero, etzirean batuten alkarregaz: eroapena artuten eben.

(14) *Biotzil* = Tristeza.

VIII

Jose txo arraintzale¹

Jose txok amalau urte ebazanean, irakasleak esan eutsen bere aitamai, zelan mutiko orrek ikasi ebazan, ikastetxe atan irakasten zirean ikasmen^{*} guztiak eta orain bear ebala bilatu bere langintzea (1). Gurasoak nai eben bizi eitean beti eurakaz, etxealdeko lanetan; baina Jose txok artu eban burutasuna, gurasoen baimenez (2) bazan, itsasoko bizibidea nai ebala. Aitamok, bestetik, ez eben nai mutikoari galarazo bere guramena², ta itsasoak zelan artuten eban ikusteko sartu eben arraintzuko *txalupa* batera. Goizean goizetik jagi bear izaten eban txaluparako, baina pozik ebilen lanean arlo atan: arrain askotxo arrapaten zanean, emoten eutsen zerbait etxerako, ta orduan ainbat pozago.

Zoli ta bizkor ebilen Jose txo, ta sarri egingurien egingureaz, jausten zan txalupan zein edonon, da zauriakaz joaten zan etxera. Egun baten txalupan, etxerutz etozala, *belea* edo aizeoiala bera jasten egozanean, jausi zan itsasora, txalupea oraindino arin joala: txalupako gizadiak artu ebazan arraunak edo *erramuak*, eta arrapau eben mutikoa guttiz nekatu rik, izurdeak^{*} baino putz zoliagoak egiten ebazala. Soinekoak aldean ebazala jausi zan, da arrain bat legez uger egiten jakin ezpaleu,

(1) *Langintza* = Oficio.

(2) *Baimen* = Consentimiento.

¹ Forma arruntak, *arrantzale* eta *arrantzu* dira. Etimologia-kutsua darie *arrantzale* eta *arrantzu* berbai.

² *Borondate* erdal usainekoa baztertzearren darabil Etxeitak *guramen* hitza.

ziur-ziur itoko zan. Jantzi eben soineko leorraz al eben lez, ta portuan, txalupako arazoak amaitu ebazanean, etxeratu zan, soineko bustiak besapean ebazala.

Juana Marik egieutsazan agiraka gogorak, beti arinegi, arazo guztietan ebilelako, baina berez zan alakoxe gogotsua lan guztietan, da ezin aldatu leikean bere izakunea. Txalupako gizadiak be esaten eutsan ardura geiagoaz ibili eiteala, baina aren zolitasunaz da egipideak egitureko gurariaz³, ezin zan egon gel-dirik, zereginik begoan; biziegia zan gizajoa, bere egipidietan.

Mundakan begoan inor, Eladitxo ikusten ebanik, nun ebi-len, txalupak porturatuten zireanean? Portu ingurura begir-tuezkero, aratxoago edo onatxoago, an ikusiko zan, bere lagun bat edo bestegaz, txalupak ondoen ikusten zirean lekuan. Bere begi baltz ederrak, zerbait bilatuten eben txaluparen baten: Jo-setxo ikusiezkerok, joaten zan andik beste jolasetara. (3)

Egun baten, txalupak *kalan* egozala, asi zan zerua ilundu-ten sartaldetik (4), eguzkia sartuten zan aldetik: arraintzaliok batun ebezan *kordelak*, egin ebezan arin abiamenak*, eta belak zabaldurik etozan etxerutz. Biderdi ibili orduko, arrapau ebe-zan ekatx gogor batek, eta Mundaka ta Bermeoko txalupak nai ta nai ez, joan zirean, batzuk Elantxobera ta beste batzuk Le-keitiora. Oraindio, itsasoa ez egoan guztiz aserre txalupak por-turatu zireanean, baina zerbait geroago, arrigarrizkoak zirean aizearen indarra ta itsasoaren aserrea. Euri landurraz estaldu-rik egoan itsasalde guztia, ta Mundakatik ez Bermeotik etzire-an ikusi txalupak inora joaten.

Erri orretako gizadia asi zan, joan ara ta etorri ona: elizea bete zan Jaungoikoari eskariak (5) egiten, da noizik beinean, euria zan jausialean. «Nun dira erri guttiko txalupak?» itandu-

(3) *Jolasak* = Diversiones.

(4) *Sartalde* = Oeste.

(5) *Eskariak* = Súplicas.

³ Garbizaletasunaren kezka, *egipideak egitu* esamoldea eiho dau, 'cumplir con las obligaciones' adierazoteko.

ten eben emakuma, euren aita, senarra edo semea txalupan ebezanak, guztiak biotzildurik*, negarrez da deadarrez. Gizaseme ta emakuma batzuk, joan zirean Mundakatik Bermeora zerbait jakin gurarik, baina erri atan bere, ez eben besterik ikusi negarra ta deadarra baino.

Aize ta euri guztiakaz, ondo ordaindurik, biraldu ebezan iru gizon Elantxobera, jakitera portu atara agertu ete zirean txalupak: Bermeotik bere biraldu ebezan gizon bi. Biaramoneko egunabarrean etxeratu zirean gizonok, albisteagaz, zelan portu atan egozan Mundaka ta Bermeoko txalupa asko, ta aretako gizadiak esan ebalá, enparauak Lekeition egongo zireala.

Albista orregaz, jarri zan gizadia gogo argiaz, ta oneraspenaz* Jaungoikoari eskariak egiten, baketu eitezan aize ta itsasoaren indarrak, txalupak ainbat arinen etxeratu eitezan.

Urrengo egunean, agertu zirean txalupak euren portueta-
ra, guraso, emazte, seme-alaba, neba ta arreba, aide ta adiskide guztien pozgarrirako. Etzan bat be ondatu.

—Nor ete zan a neskatotxo begi baltz ederrakaz, elizan, ainbeste negar egiebana, txalupen barririk ez egoan egunean? —itandu eutsan gizon batek beste bati; ta onek erantzun eutsan:

—Eztakit nor izan zan, baina zana zala, bere aide urkuen bat egoan txaluparen baten.

Irakurleak usmauko dau nor izan zan a neskatotxo begi-baltz ederra ta biotz-samurra, ainbeste negar egiebana.

Josetxori, orrek arriskuok eta naibageok igaro ta urrengo egunean, bere amak esaten eutsan:

—Txotxo, ez az oraindino aspertu arraintzan?

—Ez ni amatxo; zer da ba noizbait eguraldi txar bat artutea? Zeinbat olako artu bearko dodaz urrunera noanean!

—Ai txotxo, ire gogoá sendoa dok, baina nire ustean, geugaz ementxe, geure lanetan, obeto biziko intzan!

—Ama, urrunetara joan-etorrietan irabazten dodazan dirutxoak, ekarriko deutsudaz.

—Bai Josetxo, ori dinok orain, baina urrunean aztuko az gugaz. Alan igaroten da doazan geienakaz.

—Nigaz ez ama; nik urrunago ta maiteago izango zaituet, eta dirutxoa ekarriko deutsuet.

—Egin ba olantxe, Josetxo; zuk beti daukazuz itxaropen onak, eta Jaungoikoak emon daizula gurozun guztia.

Josetxo ebilen txalupa-jaubeak, eban Txotxo-tontor ezizena, tontor bat bekokian ebalako; zan baltzeran, zabalote, bizartsu, berrogetamar urte inguruko gizon sendo bat.

Len esan dogun eguraldi gogorra igaro zanean, geienean gertau oi dan lez, etorri zirean on-onak, zeru garbi ta eguzki argikoak luzaroan, da arraina ugari jaso zan egun orretan; baina egun baten, kalan egozala, eguerdi ostean, estaldu ebazan, laino ta lauso ilun batek. Txalupak ez eben alkar ikusten, da iluntasunaz bildurturik, zabaldu ebezan belak, eta jarraitu eben etxerutz. Zantzoak[•] eta deadarrak zirean euren igargarriak[•] alkarren urre edo urrun egozan ezagututeko: aize apurtxoa, itsasoa bare-bare qsin[•] baten antzera, ta txalupok joazan ur ganean arin samar, euren bela nagosiakaz.

Josetxo ebilen txalupakoak joazan zoli aurrerutz begira, Iزارo itsasleorra[•] joko ete eben bildurraz, da onetan joazala, jo eban txalupeak atx txikitxo bat, eta alboagaz josten-joten, jarraitu eban aurrera, baina urertza baino berago egin jakan zulo bat, eta ondatu bear eben, ain ur asko sartuten zan zulo atatik. Batzuk ebiltzan oial zarrak zuloan sartu ezinik, besteak, sartuten zan ura bota ezinik: arazo onetan, arrigarrizko bildurraz, beste gogamenik ez ebela ebiltzan artean, txalupea aurrera joan, da uste-uste baga, dart-dart, atxarte baten sartu zan.

—Ee...? gizonak, nun gagoz gu? —esaeben batzuk, eta arpegiak zurbildurik (6) jarri zirean guztiak alkarri begira. Orduan Txotxo-tontorrek esaiban:

—Gizonak, uste dot, txalupeak len jo daben atxa, Potorroarri izan dala, ta orain gagozala Izaroko atxetan.

—Bai, bai izan be —erantzun eutsen batzuk—; lengo atxak Potorroarriren antza euki dau, ta Izaroko atxetan egon bear dogu orain.

(6) *Zurbildu* = Palidecer.

Batu belak, eroan leorrera, ta gizon bi joan zirean Izaro ganera, deadar egitera beste txalupai, adierazo gurarik laguntasuna bear ebela, baina ez eutsen inok erantzun ez jaramon.

Ain bare ta geldi egoan itsasoa, zein atxetan bere ez eban zaratarik egiten. Urberantza (7) zan; ura berutz joan, da ordu bigarrean, leorrean egoan txalupea, ta ainbat ondoen arautu eutsen zuloa: gero etorri zan urgorantza (8) ta iru ordugarrenean urganetu zan txalupea; eroan eben Izaroko portua esaten eutsen atxarte batera; txalupan lotu zirean gizon bi, aldizka ura kenduteko, ta enparauak igo eben Izaro-bizkarrera, iluntzean oso ilundu orduko.

Gaubean egieban lo, belakaz estaldurik, eta binan, aldizka, joaten zirean txalupara an egozanak aldatutera. Gaberdian asi zan lausoa gitxituten da egunabarrean, argi ta garbi egozan inguruak. Etziran azartuten (9) euren txalupeaz etxeratuten, zuloan eukan oial zarrak urtenezkero, ondatuko zalako: txupil* zar bat euken arraun bategaz gora jasota Izaro ganean igargarritzat, txalupai goizean kalara joazanean erazagututeko nun egozan.

Lauso (10) aregaz, beste txalupa batzuk be jo ebezan atxak, an, or da emen, baina kalte бага eldu zirean portura iluntzean. Joan orduak, etorri gaba, ta etzan agertuten portura Txotxo-tontorren txalupea: arrantzaleak esan arren ez egoala arriskurik eguraldi aregaz, bildurrez ebiltzan txalupa atan, aitak, senarrak eta semeak eukezan emakumak: gau itzala ta neketsua igaro eben guztiak, zer jazo ete zan gogoan ebela: etxetik portura ta portutik etxera, loa gomuta izan бага ibili zirean Ondartzakoak eta beste enparauak.

Gaba zan oraindino goizaldean txalupak kalarako urten ebenean, baina argitu jaken Izaro itsasleorra igaro orduko: ikusi eben Izaro ganeko ezaugarria ta baita an egozan gizonak be,

(7) *Urberantz* = Reflujo, marea vaciante.

(8) *Urgorantz* = Flujo, marea entrante.

(9) *Azartu* = atreverse.

(10) *Lauso* = Niebla.

ta txalupa bat joan zan zuzen Izaroko portura. Laguntasun one-gaz, zabaldu ebezan euren bela nagosiak, eta aize onaz, ordu erdian eldu zirean Mundakara, ta ondartu⁷ eben Txotxo-tontorren txalupea urez bete ez eitean.

Orduan dana zan barrea ta zantzoa portu bazterretan. Ankoker tanbolin-soinulariak bere, urten eban portura, bere txistu ta tanbolinaz, gizadiari jolastu eragitera; ta lengo naibage guztiak, gogo argira biurtu zirean. Txotxo-tontorrek eta beste batzuk emoeutsen eskupekoa Ankokerri, ta txistuak eta tanbolinak bearrak egin ebezan egun atan. Anka zerbait okerrak eukazalako, esaten eutsen Ankoker: gizajoak, ume ta emazteari jaten emoteko, edozein lanetan edonora joateko egoten zan beti gogo onaz⁴. Amugilea zan bere langintzea, baina amugintzeak eta tanbolinak ez eutsan emoten bear eban beste, ta edozein gertaera gogo argikoa igaroten zanean, etzan ibiltzen erriko nagosiaren baimena bilatuten tanbolinaz kalera urteteko: beingoan urtetzen eban, errealtxo batzuk batuko ebazala uste ebanean. Zan guztiz bizkorra ta gogaldi onekoa: esakerea zan zelan gudian, iges egin bear eban baten, emoeutsen estualdiaz, zazpi zaldiren azpitik igaro zala bere anka okerrakaz: berak be, esaten eban, egia zala au gertaerau. Beti egoan pipea agoan ebala, ta txistuen zuloetatik urtetzen eban keaz, irudien, su ta gar, geztokitar (11) bat. Entzute andikoa ta maitetua zan inguru guztian, bere egitasun da gogaldi onakaitik.

Txotxo-tontorren txalupea portuan ondartu zanean, txalupako gizon-mutilak etxeratu zirean atsedendutera euren neketasunak. Txalupa ingurua legortu zanean, gizadi asko joan zan ikustera Potorroarrrik egieutsan zuloa, ta esaten eben miraria zala zulo aregaz ondatu baga porturatutea.

Gizon batek itandu eban portuan:

(11) *Geztoki* = Infierno.

⁴ Komunztadura hutsa: *gizajoak* ergatiboari *egoten zan* aditza jagoko.

—Nor izan da neskatilatxo begi baltz ederrakaz txalupearen zuloa ikusten egon dana?

Beste batek erantzun eutsan:

—Masima arroaren alabea.

Egun atantxe arautu eben txalupearen zuloa, biaramonean arraintzura joateko.

Astebetegarrenean Mundaka ta Bermeoko kalietan, abesauten ebezan urrengo doazan koplak:

Arrantzaleak egozan kalan,
Arraina sendo jasoten,
Lauso iluna inguruetan;
Etzan leorra ikusten.

Etorri zan lausoagaz,
Estaldu zan eguna,
Motel-motel, itzal-itzal,
A zan iluntasuna...!
Lainopean arrain бага,
Eguraldi astuna,
Arrantzale gaisoentzat,
Beti neketasuna.

Lauso ilunak bildurtu eta,
Betozan danak etxerantz,
Aize apurra, bela zabalak,
Begira beti aurrerantz.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Lausoagaitik Txotxo-tontorrek,
Gomuta txarrik ez eban,
Uste-uste бага, txalupa ederrak,
Potorroarri jo eban.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Nundik gabiltzaz, lagun maiteak?

Zelan joan atx atara?
Zulatu jaku txalupea-ta,
Laster ondatuko gara!

Etorri zan lausoagaz,
.....

Leber mutilak, tapa zuloa!
Bota urori kanpora!
Ostarantzean ordu erdian,
Goaz guztiok ondora!

Etorri zan lausoagaz,
.....

Bear onetan ebiltzazala,
Txalupau joan aurrera,
Uste bagarik, gero sartu zan,
Izaroko atxartera.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Arritu ziran gizon guztiak,
Neketu euren lanetan,
Izaroganen belan barruan,
Lo egin eben gau atan.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Gaberdian be, etzan ondino,
Txalupau sartu portuan,
Deadarra ta negarrik asko,
Bazan Mundakan orduan.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Zorionean pozgarrirako
Biaramon goiz-goizean,

Txalupa ederraz arrantzaliok
Portura sartu zirean.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Ankoker an zan, gogotsu joten,
Zoragarrizko soinuak,
Negar ostean, etorri ziran,
Barre ta zantzo gozoak.

Etorri zan lausoagaz,
.....

Pozik ebilen portuan, Polen, Txotxo-tontorren ama, bere semea agertu zanean, larogetazazpi udabarri ikusita egon arren. Bere gaztetako mutil laguna izan zan batek, esan eutsan:

—Pozik zabiltz, Polen, semea agertu danean.

—Bai, Gorden, pozik egoteko da egun au.

—Jantzaldi bat be egingo zeunke orain.

—Zuk baino zoliago bai.

Au esanaz batera asi zan jantzan, Ankokerren tanbolin soinuak, da Gordeni, larogetamar urteren astuntasuna aldean ebala, nai ta nai ez, jantzan eragin eutsan. Gizadi guztia batun zan bertara: Ankoker be, urreratu zan, da jo ebazan ekinaleko soinuak, eta barre asko egiteko ereti ona egon zan atso-agura bien jantzakaz. Orra, gaztetako adiskide bi, birbizturik, batak larogetamar ta besteak larogetazazpi urte ebezanean. Zein laurka atsegintsua!

Gero luzaroan, eguraldi onak egon zirean, da arrain asko jaso eben arrantzaleak, baina beti oi dan lez, itsastarrak, eguraldi txarrean, egoten dira onaren begira, ta onean txarraren bil-durrez.

Egun baten, goizean goizetik, urten eben txalupak portutik kalarako, zeru garbi ta izarratu* ederraz. Eldu zirean kalara; jaurti ebezan *kordelak* eta ugaritxo etorren arraina txalupara: eguerdian arrain asko egoan txalupetan. Pozik egozan arrantzaleok euren zorionaz, baina arratsaldeko ordu bietan, zeru-ba-

rreanean (12) asi zirean gora igoten edoi* txiki baltzeran batzuk, eta etozan geroago andiagoak, eta abiada arinagoaz: itsasoa bere, asi zan igituten olatutxoakaz, da ezagun zan aize gogorra urre samar egoana. Arrantzaleai tamal (13) eritxiten jaken a arraintzu ona istea, ta bildurrez bai, baina geldi egozan kalan arrain asko jasoten. Arratsaldeko iruretarako, zerua bete zan edoiakaz; olatuak andiagoak zirean, da kanpoaldetik itsas ganean agiri zan lauso antzeko iluntasun bat.

Arrantzaleok oso bildurdu zirean; egin ebezan arin euren abiamenak, eta artu eben etxera bidea: igarri eben aize gogorra etorrena, ta bela txikienak zabaldu ebezan. Laster ikusi eben aizearen indarrak, itsasoko urak gora jasoten ebazala, ta olatuak eratuten (14) ebezala gangar* zuri ikaragarritzkoak. Biderdi inguruan arrapau ebazan txalupak ekatx (15) onek, eta esan leitekean danak ondatu bear ebela, ain arrigarrizkoak zirean itsasoaren olatuak eta aizearen indarrak.

Arratsaldeko lauretan, Bermeoko txalupa bat ondatu zan, olatu batek urez beteta; bere urrean joan Mundakako txalupa batek arrapau ebazan gizonak ito bearrean. Gerotxoago, beste Bermeoko txalupa batek egieban *tira-bira*, ta guztien atzetik urruntxo etorrelako, txalupa ta gizon guztiak galdu zirean.

Urrengo ondatu zan Txotxo-tontorren txalupea, olatu arrigarrizko batek urez beteta, ta gaikera (16) andiaz, ia mutilak! esanaz, Bermeoko txalupa batek arrapau ebazan gizonak, ito bearrik ebiltzanak.

Ilundu orduko etxeratu zirean txalupa guztiak: iru ondatu, ta bederatzi bermeotar ito zirean zorigeiztoko ekatx atan.

Bermeoko gizadi asko joan zan Mundakara, euren aitak, semeak eta senarrak bilatutera, ta Mundakako Txotxo-tontorren txalupako gizadiaren amak, emazteak, alaba ta arrebak joan zirean Bermeora, euren etxetar maiteak bilatutera.

(12) *Zeru-barren* = Horizonte.

(13) *Tamal* = Lástima.

(14) *Eratu* = Formar.

(15) *Ekatx* = Temporal.

(16) *Gaikera* = Habilidad.

Bermeoko portuan, bertako gizon batek, beste askoren artean itandu eban:

—Nor da a neskatilatxo ondo apaindua, bere begi baltz ederrakaz da arpegi itzalaz, Txotxo-tontorren txalupako giza-diari begira dagoana?

Ez eutsan inok erantzun, baina irakurleak usmauko dau nor izan zan.

Josetxo etorren, bekokian zapi bat odolduta ebala, ta beste batzuk be, aren antzera eukezan zauriak or edo emen, da, alan da guzti be, Jaungoikoari eskerrak bizirik urten ebelako.

Eladitxo, bere arpegi itzalaz, etzan azartu Josetxori berba egiten, aitamena bildurraz, baina Josetxo joan zan beragana, ta itandu eutsan:

—Zek ekarri zaitu Eladitxo Bermeoragino?

—Zeu zelan zagozan ikusten, Josetxo; zer jazoten jatzu arpegi-an?

—Bekokian daukat zauri bat, baina ezta ezer:

—Agur ba Josetxo.

—Agur Eladitxo.

Ezin leitekez iratzi ondo, Txotxo-tontorrek eta bere lagunak artu ebezan neketasun da naibageak, euren gorputzak zauriturik eta guztiz mingortuta ito bearrean ebiltzanean; bein itsaspean, bein itsasganean, mendielako⁵ olatuakaz txalupeari sendo eldurik, itxaroten aida⁶ batetik bestera, eriotzako ordua. A zan jazoera ikaragarria! Ordu lauren beranduago eldu izan bazan Bermeoko txalupea, danak itoko zirean. Zeinbat eta zein azkarrak (17) zirean txalupearen zabunak (18)! Zeinbat eta zein neketsuak itsaspean sartu-urtenak! Zeinbat eta zein gogor-rrak txalupara sartuteko egin zirean indarrak eta igaro zirean *arriskuak!* Ikusi baga, sinisgatxak dira onek jazoerok.

(17) *Azkarrak* = Vigorosos.

(18) *Zabun* = Balanceo.

⁵ Sarritan idatzirik dakar *mendielako*: mendiak lako / legezko.

Bermeo ta Mundaka etzirean bakarrik zoritxarreko portuak: Santandertik Donostiara bitartean, txalupa asko ondatu zirean ekatx aregaz: negarra ta atsekabea ugari zan itsasalde guztian.

Josetxok zauri andi bat eukan bekokian, da bera ta txalupako lagunak, ain nekaturik egozan, zein guztiz astiro joan bear izan eben Bermeotik Mundakara ordu erdiko bidean.

Zarrak esaten eben, urte asko igaro zireala ekatx aren indarrak eukazanik agertu baga.

Josetxori, etxeratu zanean, garbitu ta arautu (19) eutsen bere bekokiko zauria, ta ogeratu eben atsedendu eitean.

Egun batzuk geroago, artu zan Mundakan albistea, zelan Txotxo-tontorren txalupea agertu zan Lekeitiotik urte, ta ango arrantzaleak porturatu ebela. Joan zirean bilatutera, ta etxeratu eben kalte andirik ez eukala.

Bermeoko txalupa biak eta ito zirean gizonak etzirean agertu.

Txomin-txikik, bere seme Josetxori, ogean egoala itandu utsan:

—Josetxo, eztok oraindino gogaitu^{*} itsasoko ibilketakaz?

—Ez, aita; txalupako gizonak ikusi ebenean edoiak arin etozala gorutz, da itsastxori asko etorrela kanpotik kalara, esan eutsen Txotxo-tontorri, zelan, euren ustez, eguraldi txarra etorren ganera, baina onek erantzun eban, zelan, ezaugarriak⁶, etzituen oraindino erakutsi etxeratuteko ezaugarriak: alan zan izan be; arraina etorren ugari txalupetara, ta agintariak ez eben jaramoten. Gerotxoago, ekatxak belarriak erakutsi ebazanean, izan zirean estutasunak, arin-arinak, artegak eta bildurrak, ainbat arinen etxeratzeko.

—Bai seme, orrek gertaerok olan izan oi dituk, baina, ez az aspertu oraindino orrekaz arriskuokaz? Sei ilebete dozak

(19) *Arautu* = Arreglar.

⁶ Portu-herrietan *seinerua* esaten dana adierazoteko darabil *ezaugarri*le. Honen oinaz, *ezaugarri*, erdarazko 'señal' adierazoten dau.

itsasora oala, ta iru bidar ibili az itoteko arriskueta. Zelakoak direala uste dok itsas zabaletako ekatxak? Sarritan ibili bear-kok astebetean soinekoak legortu baga, txitean-pitean uretan barruan sartuta. Eztok ikusi zer dan *Cabo de Hornos* esaten deutesen lekua! An dozak aizeak eta itsasoak! Edurmendiak irudi izaten dabez ango olatuak, aizeak indar andiak daukazanean: nik eta nire lagunak, Guayaquiltik Santanderrera kakaos zamaturik etorri gineanean, artu genduzan ekatxak eta edurrak, ezin sinistu leitekez ikusi baga. Gomuta dot zireana garagarrilean.

Juana Marik, ebagi eutsan berbaldia, ta itandu eutsan:

—Garagarrilean, Txomin, orrek edurrok?

—Bai, garagarrilean: neuk be eneban sinistuten ori, baina neure begiakaz ikusi, ta neure gorputzagaz nekeak artu nebazanean, ondo sinistu neban. Juana Mari, an izaten da negua emen udea danean, da udea emen negua danean. Bien bitartean dago leku bat, betiko eguraldi onakaz, bero-bero egoten dana.

—Orrek dira mirariak!

—Bai Juana Mari, len esaten ninoana, berrogetabi egunetan ezkendoan jantzi soineko legorturik. Lenengo alkarren ostean etorri zirean ekatxak, erabili ginduezan guztiz txarto, ontziaren zabun errimeakaz: kakaoa joan zan alde batera upategian²⁰; etzan zan ontzia alde aren ganera; olatuak garbitu ta eroan ebezan ontzi ganeko gauza guztiak, eta arrigarrizkoak izan zirean guk igaro genduzan zortzi egunak. Gero, egun biko eguraldi on samarraz, kakaoa jaurti genduan beste aldera ta zuzendu zan ontzia, baina arin jo ginduzan ostera lengoaren gisako ekatx gogor batek. Aizearen indarraz jasoten zan urak eratuten eban bitsaz, zuri-zuri egoan itsasgane guztia: izugarrizko (20) olatuak, euren gangar zuriakaz, jo ta estalduten eben ontzia, ta lengo ekatxean kakaoa, alde batera joan zan lez, orain joan zan beste aldera, ta ontzia etzan zan alde onen ganera. Bost egun zorigeiztokoak igaro genduzan gisa onetan, erio-tzea begien aurrean zala: iru gizon da oilatokia oilokaz eroan

(20) *Izugarri* = Espantoso.

ebazan gau atan olatu mendielako batek, eta etzirean geiago ikusi. Ezin zan egin besterik, ezpazan, eldu sendo *txikotari* atzealdean, da egon antxe geldi, edur, euri, aize ta itsaso zaparradak artuten, Jaungoikoari eskatuaz bere laguntasuna. Ekatz au aldendu zanean, etorri zan egun bi iraun eban eguraldi ona: kakaoak jaurti bear eban beste aldera ontzia zuzentzeko, baina gure gorputzak oso makaldurik, eta ganera iru gizon gitxiagoaz, nekez da geldiro egin zirean lanak: aleginen aleginaz, egun bietan zuzendu zan ontzia. Gero etorri zirean, inoiz amaituten etzirean edurrak eta otzak, itsaso ta aize baketsuakaz, da luzaro jarraitu genduan eguzki ez izarrik ikusi baga ta nun gengoan ezkenkiala. Egunaro geunkazan eginalako lanak, olatuak apurtu ebezan gauzak zelan edo alan araututen; egunaz lanean berotuten ginean, baina gauak zirean guztiz neketsuak, geratuten etzan edur jaustez da otzaz. Ekatzetan, ura joan zan ugari ontzi barruko zokondo guztietara: ogeak, jantzigarriak, janariak edo elikaturak eta beste gauzak, ibili zirean goikoz bera ta azpikoz ganera, uretan. Zerua argituten asi zanean, gengoan Montevideotik urre, ta ontziko agintariak artu eben burubidea portu atara joateko, olatuak eta aizeak egin ebezan kalteak araututera ta elikatura (21) onak artutera. Astebetean egon ginean Montevideon abiamenak egiten, da gero urten genduan barrero itsasora Santanderrerako. Ez az arrituten, Josetxo, gertaera onekaz? Amaika olako neketasun artu bearkok!

—Bai aita, sinistuten dodaz nik orrek jazoerok, baina neke orren urrengo etorri leitekez zorionak. Itsasoko bizibidea (22) da nik gogo geien dotsadana, ta araxe joango naz zeuen baime-naz bada. Zeinbat ikusten dira zorionean atseginakaz, neke alatsuak* igaro ta gero?

—Josetxo, euk nai doana egingok.

Juana Mari be sartu zan autu onetan, da esan eutsan Jose-txori:

—Ene semetxoa, aitak erazagutu doan edesti arrigarritz-koaz be, ez az bildurtuten itsas urrunetara joaten?

(21) *Elikaturak* = Alimentos.

(22) *Bizibidea* = Empleo.

—Ez amatxo, enaz bildurtuten; esan neutsun lengo egunean, urrunago ta laztanago izango zaituetazala, ta irabazi al dodan dirutxoa ekarriko deutsuetala.

—Baina nik, txotxo, diruak baino eu naiago aut, eta bildurra jaukat urrunetan gexotuta ilgo ete azan.

—Ama, ori, urrunetan lez gertau leiteke ementxe be. Iltea edo bizitea, an zein emen da edonon, Jaungoikoak aginduten dabena izaten da.

—Ai, txotxo! Iri ondo sartu jak eure gogoan, itsasoetan bilatutea eure bizibidea. Jaungoikoak nai dabena izan dedila!

Txotxo-tontorren txalupan, Josetxogaz batera ebulan, irurogetamalau urte, neke asko *mundu* onetan igaro ebazan aguratz bat, eta gizajo onek esaten eban, zelan Josetxori eutsan zor bere bizia, txalupea ondatu zanean. Txalupako gizon guztiak esaten eben, zelan Josetxok egin ebazan gaitasun (23) erri-meak*, a aguratzkoa ito ez eitean, da lortu ebala bere guraria.

Arriturik mutiko aren azkartasun da egitasun onakaz, arrisku andiko ordu atan, Mundakako gizateri guztia, bein batzuk eta bein besteak joan zirean Ondartzara, Josetxo ikustera gexorik egoan arte, da mutiko onek artu eban entzute andia, ta aurrerantzean izan zan guztien maitagarria.

Zer igaroten ete zan, Masima ta bere senarraren zentzune-tan, jakin ebezanean Josetxoren gizabide ta oneginak?

Euren andikeri guztiaz be, ezagutuko eben, zelan baserri-tarra izan arren, zan biotz zintzokoa, ikastuna ta ongilea.

Itsasalde onetan, len esan dan lez, jazoera neketsu edo atsegintsuetan, agertuten zirean koplak, eta gazteak kantaten ebezan kalean da edonon. Txotxo-tontorren txalupea agertu, ta egun batzuk igaro zireanean, nundik ez zelan inok ez ekiela, azaldu zirean urrengo doazan koplak, eta abesauten ebezan itsasondoko erri guztietan.

Egunabarrak kalara joan,
Bota amuak ondora;

(23) *Gaitasun* = Habilidad.

Itsaso bare, izarrak zoli,
Arraina betorren gora.
Arrantzaleak pozik egozan,
Begira euren arlorra,
Goiz eguraldi, ezin ohea,
Kala guztiz emonkorra,
Zantzo ta barre ia mutilak!
Jaurti nekeak albora.

Egunabarrak
Ekarri arren,
Zeru ta itsaso
Ederrak;
Sarri-sarritan
Egiten dira,
Arratsaldean
Negarrak.

Atxerren (24) goitik, agertuten zan,
Oiz (25) mendien bizkarra,
Eguzki bero, edoirik baga,
Gutzizko zeru ederra.
Tira ta tira, beti etorren,
Arraina amuetara,
Itsastxoriak kanpoaldetik
Etozan arin kalara,
Albista txarrik ezpaekarren
Ziur zan arrain-sundara*.

Egunabarrak
.....

Arratsaldeko ordu bietan,
Lainoa euken mendiak,
Sartaldean (26) gora iluntasunaz,

(24) *Atxerre* = Nombre de un monte.

(25) *Oiz* = Nombre de un monte.

(26) *Sartalde* = Occidente.

Etozan arin edoiak.
Gerotxoago ikusi ziran
Aize ta itsaso zuriak,
Burriketakaz (27), bela emoeben,
Arrantzaleak guztiak
Albista txarra, eroan eben,
Kalara itsastxoriak.

Egunabarrak

.....

Biderdi oso egin orduko,
Ilundu ziran bazterrak,
Burriketak be, urratu bear,
Aize gogorren indarrak.
Mendielako olatu andi,
Ausita euren gangarrak
Joten ebezan txalupak eta,
Baita gizonen bizkarrak,
Itsasaldeko erri askotan,
Baziran zoli negarrak.

Egunabarrak

.....

Olatu batek ondatu eban,
Txalupa Bermeokoa,
Mundakar batek egieban jaso
Ango gizeri (28) gaisoa.
Urrun etorren Bermeotar bat,
Izan zan urrengokoa,
Danak ito ta, guztia galdu,
A zan zoritzarrekoa,
Arrigarrizko gertaerakaz,
Egun negargarrizkoa.

(27) *Burriketa* = Vela muy pequeña.

(28) *Gizeri* = Gente.

Egunabarrak

.....

Irugarrena zan Txotxo-tontor,
Ikusi zan ondaturik,
Olatupean azpiratuta,
Gizonak ito bearrik.
Bermeotarrak txalupa baten,
Arin mutilak! esanik,
Joan zirean gizonakana,
Nekez, arriskuz beterik,
Eginalako eginalakaz,
Jaso ebezan bizirik.

Egunabarrak

.....

Ekatx onegaz ikaraturik,
Itsasaldean ebiltzan,
Estutasunaz guztiz artega,
Zer gertatuten ete zan,
Euri-landurrak, Txalupa danak
Oso estaldu ebazan,
Arrigarrizko bildurtasunaz,
Negar da negar egozan,
Eskari asko Jaungoikoari
Egiten euren elizan.

Egunabarrak

.....

Arrantzalien bizibidea,
Olan da beti, gizonak,
Neke askogaz artzen dituez,
Arriskualdi gogorrak.
Itsaso ta aize aserreakaz,
Errukigarrizko lanak,
Sarri-sarritan gertaten jakez,

Sinismen (29) guztiz okerrak,
Egualdi onaz goizean pozik,
Arratsaldean negarrak.

Egunabarrak

.....

Josetxok, sendatu zanean, jarraitu eban len legez Txotxotontorren txalupan: goizean goizetik joaten zan egunaro txalupara, ta itsasora joan-etorria egin; txalupa-garbitasunak eta beste arazoak amaituten ebazanean, etxeratuten zan: ikasi ebazan arrantzuko bizibidean egiten zirean arazo guztiak, eta ekandu zan itsasoan ibiltzen, eguraldi onakaz zein txarrakaz.

Eladitxo portura agerralditxoa (30) egin barik etzan egoten, txalupak etxeratuten zireanean: arek begi baltz ederrak ezin egon zirean Josetxo ikusi baga itsasotik etorrenean. Neskatotxo aberats, ondo jantzia ta obeto apaindua, joaten zan, a mutiko nekezale, itsasora eroan oi diran lez, *erropa* zar adobatuakaz* ebilena ikustera. Zein biotz ederra Eladitxorena! Ez ebazan ikusten mutiko aren erropa zarrak, ezpada mutikoa bera baino!

Zortzi ilebete arrantzoan igaro ebazanean, agertu jakan Josetxori eretia joateko Bilbon egoan ontzi batera, agintariaren ogipeko. Aitamak, ikusirik mutikoaren burubide sendoa itsasketarako, erabagi eben joan eiteala gura beban, zegaitik zalako gizon ona ontzi atako agintaria.

Josetxo pozik egoan ereti onegaz itsasketara joateko, ta urrengo egunean asi zirean gurasoak abiamenak egiten, mutikoaren soineko ta enparauakaz. Joan orduko ibili zan Josetxo, Mundakako lagun da adiskide guztiak agur egiten, da idoro* eban a neskatotxo begi baltz ederduna be, ta esan eutsan:

—Agur orain Eladitxo; biar noa Bilbon dagoan ontzi batera, agintariaren ogipeko, ta urrengo ikusi arte.

—Urrun zoaz Josetxo?

—Uste dot baietz.

(29) *Sinismen* = Creencia.

(30) *Agerraldi* = Visita.

—Jaungoikoagaz joan da beragaz etorri zaitetzala. Noiz arte uste dozu?

—Eztakit ba Eladitxo, ori Jaungoikoak daki.

—Ez altzara joango betiko!

—Eneuke nai joan betiko.

—Ez aztu emeko laguntxoak, eta etorri ainbat arinen.

—Zu etzaitut aztuko, Eladitxo.

—Nik bez zu, Josetxo.

Negar-malkoak agertu zirean euren begietara; agur egin alkarri, ta aldendu zirean.

Josetxok orain, ebazan amabost urte, ta Eladitxok amairu.

Biaramonean joan zirean Bilbora, Josetxo ta bere aita, ta arik irugarren egunean itsasoratu zan ontzia Montevideorako: alan esan eban Txomin-txikik etxeratu zanean.

Orain, ezin jakin geinke luzaroan Josetxoren barririk, eta goazan Martin-zaldi ta Karlos-geiztogaz zer igaroten dan jakitera. Irakurleak ezagututen ditu onek mutil biok, eta gomuta izango dau zelan Aprikarren gudura joan zirean, orain urte bi.

IX

Gudutik etxera

Lengo egun baten etxeratu zirean gudutik, Karlos-geizto Agirreko, ta beste bere lagun baserritar bat; biak etorri zirean guztiz makalik eta dagoz etxean kanpora urteteko indar baga.

Martin-zaldi etzan etxeratu oraindino: orain ilebete bera-gaz guduan ibili zan mutil bat etxeratu zan; au be makalik: onek esan eban zelan Martinek izaeban burruka errime bat aprikarrakaz: erakutsi ebala bestek ez eukalako gaitasuna¹, ta orduan ipini ebela larogei zaldi-ganekoren agintari, ta aginpide onetan ebilela zaldi zuri eder baten ganean. Ganera, etxeratu zirean guztiak zinoen, aprikarrak aldendu zireala Españatik: ilak il, da bizirik lotu zireanak iges egin ebela euren errira. Orregaitik laster etxeratuko zireala Bizkaiko mutil guztiak.

Karlos-geiztogaz etorri zan bere lagunak, autortu ebazan areri igaro jakazan gertaerak. Karlosek lenagoko menduak ebazan aldean, da bere izaera aserrekorrak, toki guztietan ikusten zan oker.

Gudura joan da ile bigarreanean, agintari bati arro ta gogor erantzun eutsalako, lotu eben zugatz bati, ta emoeutsezan amar zigorrada zoliak. Au zan lenengo ikasbidea bere ekandu okerrak zuzentzeko.

Aurrerantzean, luzaro ibili zan burua makurtuta apaltasun onagaz, asmorik ez auzirik baga, baina, egunak joan da asteak etorri, aztu ebazan igaro zirean zigorradak, eta jarri zan ostera lengo menduakaz. Iru ilebete oso igaro baga, aztu jakazan len-

¹ ez eukalako gaitasuna: ez eukan legezkoa edo bestekoa.

go nekaltasunak, eta amorruez erantzun eutsan agintari bati agindu ebazan arazoakaitik: orregaitik lengoan lez, lotu eben zugatz bati, ta artu ebazan ogei zigorrada errimeak, azala zauritu, ta egitasun txarraren damutasuna artutekoak. Baina Karlosten zentzunean, betiko apaltasuna ta bake-gurea sortu bearrean, gorrotu zoliagoa ixetuten zan, da makal da artega ebilen luzaroan. Atzenean bere mendu artegatsuz, artu eban iges egiteko burutasuna, ta joan zan toki atatik, dirurik ez ezer baga, zoratuta dagoanen antzera.

Ardurea eukenak, laster usmau eben Karlos ez egoala bere lagunakaz, da arin biraldu ebezan alde guztietara zaldi-ganekoak bera bilatutera. Bigarren egunean idoro (1) eben, da ondo loturik eroan eben agintariakana.

Lotu eben sendo zugatz bati ta emoeutsezan ogetamar zigorrada, bere bizian gomuta izango ebazanak, eta ganera, ipini eben katigu* gela ilun baten. Antxe egon zan ilebetean, ogia, makailao erre ta ura baino beste janaririk ez edaririk emoten ez eutsela, ta garririk oinetara burdinkateak ebazala.

Gela ilun atan egozan beste deunge* bi, arek bere, euren burdinakaz, da irurak, euren autuetako aserrekuntzakaz, egiten ebezan burruka gogorak. Noizbait, gelan bertan nekalduten ebezan, burruka egiten ebelako.

Agaitik, onegaitik eta besteagaitik, nekaltasun (2) galantak artu ebazan Karlosek, ta askatu ebenean egoan oso erkindurik*, azala ta azurra baino ez eukala: errime makaldu eben ainbeste nekaltasunek.

Karlosek ez eban inoiz esaten ainen* edo biraorik: orretan Bizkaiko ekanduak ebazan, baina bere izaera aserrekorrekalduten eban ebilen leku guztietan. Orain, makaltasunak ibitu* eutsazan bere zolitasunak, eta oso apaldirik egiten ebazan lanak. An, toki atan, gudularien artean, ez egoan beste sendagarririk, ezpazan, biurtu oso esangin, edo artu nekaltasun gogo-

(1) *Idoro* = Hallar.

(2) *Nekaltasun* = Castigo.

rrak; orregaitik, esakunea dan lez, bearrizanak bear eragiten eutsan Karlosi.

Atzenean gexotu zan alboreangoaz*, da egon zan guztiz txarto: zerbait sendatu zanean biraldu eben etxera.

Urte biko ibilketetan, Karlos-geiztok ez bere lagun gudulariak, urretan be, ez eben ikusi Aprikatarrik ez beste areriorik.

Etixeratu zan Karlos makal-makalik, ezetarako gogo baga: noizbait gomuta izaten ebazan, Mari Jesus Demikuko, ta jai-arratsaldietan baserri atan egiten direan jantzak eta *olgetak*.

Etixeratu zanik ilebetegarrenean joan zan lenengo, astiro-astiro mezatarra, ta laster jakin eban, zelan Demikun, lenago lez, batuten zirean gazteak jai arratsaldietan, pandero soinuan jantzan egitera, ta zelan orain joaten zan ara, Errekarte abizena eban Bermeo aldeko baserri baten bizi zan mutil eder bat.

Karlosek ez eban ezagututen Errekarte, ta eukan ezagutzeko gogo andia, baina oraindio ez eukan indarririk Demikura egozan mendi-bideak zear joateko. Ilebete geroago joan zan Demikura, jai arratsalde baten, da txera ona egieutsen Demikutarrak: esan eragin eutsezan, gudulari izan zan urte bietako jazoerak, baina Karlosek, guzur da egi, erazagutu ebazan berak nai ebazan gauzak, ondoen eritxon lez, da ez ebazan aitatu artu zituan zigorradak ez beste nekaltasunak.

Ezagutu eban Errekarte, ta ez jakan ederretsi* a mutil ederra Demikura joatea.

Urrengo jaiegunean be, geldiro ta nekez, joan zan Karlos Demikura, ta destaina* antzera, olgetan iarduala, Mari Jesusen auzoko neskatila batek esan eutsan:

—Entzuizu, Karlos, lengo egunean erazagutu geuskuzuzan gudulari izan zineaneko jazoera batzuk, baina ez euskuzun esan zeinbat zigorrada emoeutsuezan.

—Zigorradak niri? Guzur andia da ori: an ez egoan inor niri zigorradak emoten azartuko zanik. Nun jakin dozan orrek guzurrok?

—Emen inguru guztion dinoe ori, ta atan be, zugatz bati lotuta emoten eutsuezala.

—Orrek dira, emeko gizadiaren esakerak. Neu zugatz bati lotu! Nok? Ez egoan ori egingo ebanik!

—Baita dinoe iges egin zenduala, ta zaldi-ganekoak arrapau zinduezala.

—Nor da orrek guzurrok esaten dituan minarina*?

—Esan deutsudan lez, inguru guztian dinoez.

—Zoraturik ipiniko nau oraindino emeko gizadiak: arpegia kenduko neuskio, nor dan baneki, orrek guzurrok esan dituanari.

—Baita barriz, katigu (3) gela ilun baten luzarotxo egon zineala be.

—Ni katigutegian*? Orrek dozan asmoak*!

—Ganera, garririk oinetara burdinakaz lotuta zengozala.

—Isilik ezpaago, eskuetan daukadan makilau jaurtikonat.

Au esaebanean, gazte guztiak jarri zirean barreka, ta Errekartek egin ebazan barre-zantzo zoliak.

Aserratu zan Karlos-geizto ta esaetsan:

—Zu, Errekarte, makalik nagoalako egiten dozuz orrek barre-zantzuok, baina nik makila onegaz arpegia zauritukotsut.

—Ja.... ja...., gizajuori, putz eginaz jausiko zinate lurrera, ta zer egin biozu zuk? Nik egin dot barre, eretia euki dodalako: zeu izan zara barre eragin deustazuna zeure esakerakaz. Ukatu gura izan dozuz zeure guduko gertaera barregarriak, baina jakin dituguz ango auzi guztiak. Orain egin bear dozuna da, egon etxean ondo sendatu arte, ta gero etorri ni jotera makila orregaz.

Karlosen odola irakiten egoan: ez eban geiago berbarik egin; jaso zan jezarrita egoan lekutik, eta geldigeldika joan zan etxera. Arratsalde atan Demikun artu eban artegatasunaz oso gexotu zan, ta ogeratu eben etxeratu zaneko.

Arik amabostagarrenean*, jakin zan, zelan Errekartek esaetsan Mari Jesusi:

—Mari Jesus! Bermeoko zeian lenengo ikusi zendudazanean, sartu zinean nire begi bietatik biotzera arte, ta aurrerantze-

(3) *Katigu* = Preso, cautivo.

an ezin egon izan naz noizbait zeu ikusi baga: orregaitik jaiegutetan etorten izan naz Demikura. Maitetasun zintzoa daukat zeugana; egun da gau gomuta izaten zaitut, eta autortuten deutsut, zeugaz ezkondu gura neukeala.

—Eskerrik asko Errekarte, zeure guramen onagaitik, baina nire gogoan eztago oraindino ezkontzeko asmorik.

—Orrek atxakiak izango dira: bearbada, berba emonda egongo zara beste bategaz ezkontzeko.

—Ez, eztaukat inogaz berba-emonik, baina zuk esan deustazuna, beste batek be esan eustan antxinatxo, ta areri bere, zuri legez erantzun neutsan.

—Ezin jakin leiteke nor dan ori besteori?

—Ez, uste dot, ori eztala esan bear.

—Da ezkontzeko gogoa jatortzunean, nogaz egingo zara?

—Eztaikit ezkonduko banaz, baina inoz olako asmorik artuko baneu, bakizu Errekarte, Jaungoikoaren legez, lenengoa dala beti lenengo, jazoera txarrik bitartean ezpadago.

Onek berbok entzun ebazanean, zurbildu zan Errekarteren arpegia, ta erantzun eban:

—Uts emon deuste neure itxaropenak; alperrik izan dira nire Demikura joan-etorriak, eta orain agur Mari Jesus, ondo bizi.

—Baita zeu be Errekarte.

Karlosek ondo usmau eban zetarako izango zirean Errekarteren Demikura joateak: agaitik ez jakan ederretsi (4) mutil ori an ikustea. Errekartek, Demikun nai eban jarri bere abiea, ta ikusi ebanean ez egoala abia tokirik, txoriaren antzera, joan zan egaz beste lurralde batera.

Mari Jesusen biotzeko ateak itxita egozan, da oraindino, inor ezin sartu zeitekean an barruan. Karlos-geiztok jakin ebazanean Mari Jesus eta Errekartek izan ebezan autuak, eta txori au joan zala egaz Demikutik beste toki bat bilatutera, arnasa errezagoa ta gozoagoo artuten eban, da laster oberantz egieban bere makaltasunean.

(4) *Ederretxi* = Gustar.

Onek jazoerok igaro ta aste bigarreanean, etxeratu zirean, gudura joan zirean Bizkaiko mutil guztiak, eta eurakaz etorri zan Martin-zaldi bere. Txomin-txikik eta emazteak artu eben Ondartzan euren etxean, seme bat bailitzan legez.

Egia izan zan, guduan Martin maite izan ebena bere agintariak, eta emoeutsena larogei zaldi-ganekoren aginpidea. Ez eban ezer galdu guduko arazoetan: joan zanean baino ederragoa ta obeto apaindua etorri zan.

Urrengo jai arratsaldean joan zan Demikura, bere lenago-ko adiskideak ikustera, ta guztiak egin eutsen guztizko txera ona: baita Mari Jesusek eta bere aitamak bere.

Mari Jesusen auzoko neskatilak esaeutsen zer igaro zan Errekartegaz: baita erazagutu eutsezan Karlos-geiztogaz igaro zirean auziak be, ta Martinek barre asko egin eban jazoera guztiakaz. Jakiebanean, Karlos ogeratuta gexorik egoala, joan zan agerraldi bat egitera, ta bide batez, guduko jazoerakaz berbaldi bat egitera: onetarako itxi ebazan alde batera, lenago alkarregaz izan ebezan burruka ta auzien gogoetak (5). Autortu eutsezan alkarri guduko gertaerak, baina Karlosek etzituan azaldu artu ebazan zigorradak, ez katigu gela ilunean egin ebazan egunak, baina esaeban, berak eta bere lagunak ez ebela ikusi urrundi be Aprikatarrik.

Martin-zaldi arriturik lotu zan, Karlosen erkin, argal da itzaltasuna ikusi ebazanean.

Txomin-txikik eta emazteak, euren otseinakaz, egiten ebezan etxe ta kanpoko lan guztiak, eta Martin ibiltan zan alogerean^{*} egunaro, gaur ara ta biar bestera. Gaztetan egon zan ogipeko Txotxo-tontorren etxean, da ondo ekanduta egoan arrantzuko arazoetan: orregaitik otu jakan, alogerean baino arrantzoan zerbait geiago irabaziko ebala, ta Txomin da emaztearen baimenaz, sartu zan arrantzale Txotxo-tontorren txalupan. Onek pozik artu eban, *erramari*^{*} ona ta indartsua zalako.

Asteko irabazien generata, noizbait emoten eutsen arrain bat edo beste etxerako, arraintzu ugaria izaten zanean: itsasora-

(5) *Gogoeta* = Pensamiento.

terik etzanean, joaten zan alogerean: bardin zan itsasorako zein leorrerako.

Pozturik ebilen Martin erasti (6) atan, Mari Jesus Demikukok begi argiakaz begiratuten eutsalako.

Karlos-geizto gizajoa barriz, geroago makalago, ez eban aurrerapiderik egiten: ekarri eutsezan inguruetakoko osagileak (7) eta artu ebazan osagarri (8) asko, baina danak alperrik. Egunerik egunera ezagututen jakan atzeneko arnasakaz ebilena, ta alantxe zan izan bere: egun baten uste-uste barik il zan.

Bere izate irrituagaitik* igaro ebazan ainbeste neketasun, da beraganatu eban eriotzea, oraindino gaztea zala.

Gudu ostean beti agertu oi doaz lapurrak eta deungeak, leorrean zein itsasoan, da Aprikarren gudua amaitu zanean, Bizkaiko itsasalde guztian zabaldu zan albistea, zelan, batzuetan itsasontzi andiai, ta bestean arrantzuko txalupai, agertuten jaken, ontzi luze bedar bat, ogetabost gizon barruan ebazana: txalupa nagosiak baino, bi bidar luzeagoa, ta kanaterdi inguru, uretatik karel edo egalera eukana.

Aizea egoanean, eukan aize-oial edo bela ederra, ta aizerik ez egoanean, jarriten ebazan ogetalau arraun edo erramu, beste orrenbeste gizonentzat, eta ganera eukan atzekoa edo lemazaina*. Zein aizeaz belea zabaldurik, zein aize baga, arraunketa edo erramuetan, ei zan guztiz ibilkorra.

Ogetabostekoa esaten eutsen.

Gaur jakiten zan, Santarderera eldu zan ontzi bati kendu eutsazala eukazan janari ta edari guztiak; biar esaten zan Kastroko arrantzale bati kendu eutsala eukan arrain guztia, bela bat eta arraun batzuk: urrengo, Santoñako txalupa baten il ebela gizon bat. Aprikarrak zireala euren arpegi baltzeranakaz, da eukezala gudurako iskilo (9) onak.

(6) *Erazti* = Epoca.

(7) *Osagile* = Médico.

(8) *Osagarri* = Remedio.

(9) *Iskilo* = Arma.

Albista onekaz, arrituta egozan arrantzaleak eta etzirean azartuten gabeko arrantzueta joaten, da egunaz be, Ogetabostekoaren bildurrez ibiltzen zirean.

Albista onekaitik, Txomin-txikik eta emazteak, oartu* eutsen Martin-zaldiri:

—Martin, obeto egingo eunke, ori Ogetabostekuori itsasalde onetan dabilen arte, itxi itsasora joateari, ta ibili alogerean: beti dok ona arriskuetaik aldentutea.

—Nik eztakit, Txomin, emeko gizateriaren bildurraz zegaitik direan: ezin aditu dot, zer egin leikean itsaslapur (10) orrek ainbeste txalupa kalan egoten direanai, guztiak alkarri lagunduezkero. Emen, txalupetako agintariak dira guztiz bildurkorak, ostarantzean orrek Aprikarrok laster azpiratu leitezekin ainbeste txalupaz.

—Zelan azpiratukoazak ogetabost gizon iskiloakaz ekanduta dagozanak? Ez eik esan be olakorik!

—Baita laster gero azpiratu be! Txalupetan arri asko eukiezkerok, arrika guztien artean galdu leitezekin arin orrek baltzok.

—Zelan egingo deutzak arrika arek eroaten daben abiadea daroanari?

—Aizerik eztagonean, uste dot, txalupak arraunketan, Ogetabostekoa baino arinago ibilko direala.

—Olan balitz, inguratu leitezekin txalupakaz, baina arrisku andiak igaro bear dira orrek asmuok egituteko.

—Nik eskerrak ageriten deutzuek zeuen oarpenakaitik, baina txalupak alkartuten badira, eztot uste arriskurik dagoanik.

—Euk nai doana egingok, Martin.

Itsaslapur ori agertu zan egun baten, Mundaka ta Bermeoko arrantzale artera, belan, abiada arinaz. Batu eben belea, ta arraunketan joan zirean lenengo Bermeoko txalupa bategana, ta arpegi itzalakaz erakutsirik iskiloak, eskatu eutsezan euketzan arrainak. Gitxi eritxi eutsen bermeotarren arrainai, ta ja-

(10) *Itxaslapur* = Pirata.

rraitu eben urrengo egoan mundakar txalupa bategana, ta ari kendu eutsazan eukazan arrainak eta ura. Gero zabaldu eban bere aize-oiala (11), ta aldendu zan itsas zabalera. Gizon asko zirean lez, janari ta edari asko bear ebezan, da egunaro joaten zirean bateko edo besteko arrantzaleakana.

Arik egun batzuk igaro zireanean, esaten zan, Donostiara-ko zan ontzi bati, kendu eutsazala diruak eta beste gauza asko. Geroago egon zan albistea, zelan joan zan Ondarroako txalupa batera, ta gizon bi il eutsezala euren iskiloakaz ondarroarrai.

Biraldu zan itsasalde onetara gudu-ontzi (12) bat, Ogetabostekoa katigutzeko usteaz, baina aizeaz zein aize baga, au arinago ebilen gudu-ontzia baino, ta ezin izaeban arrapau.

Gisa onetan, beti bildurrez ezin ibili leitekezan itsasalde guztiko arrantzaleak, eta artu eben burubidea, zelan edo alan, il nai bizi, esetsi ta azpiratzeko aleginak egitea.

Arrantzaleok batzartu zirean kalan, da artu eben burubidea, txalupa bakotzak erabilteko barruan arri asko ta bost ezpata-makila zorrotzak eta luzeak: urrengo eurakana etorreanean, da euren artera sartuten zanean, aize gitxi-az, txalupa guztiak inguratu *estropadan* da azpiratutea arriakaz da ezpata-makilakaz.

Batzarra izan zan, Bermeo, Mundaka ta Elantxobeko arrantzali-ena, ta Lekeitio ta Ondarroarrai, erazagutu jaken, iru portu aretakoak artu eben burubidea.

Gero, luzaroan etzan agertu Ogetabostekoa, ta uste eben, ekatx gogorren batek ondatuko ebal-ena, edo Aprikara joango zala. Au sinismenau luzaroan egoala, Bermeoko portura sartu zan ontzi txatxar bateko gizonak, iragarri eben zelan eurai esetsi (13) eutsan itsasoan da kendu eutsezala janariak eta euketan diru apurrak. Au albistau birald-ena zan itsasondoko errietara, jakin eien, oraindino emendik ebilela.

(11) *Aize-oial* = Bela.

(12) *Gudu-ontzi* = Buque de guerra.

(13) *Esetsi* = Acometer.

Beste egunean jakin zan, Santoñako arrantzaleen artera sartu zala, ta onek bildurrez, arin etxeratu zireala.

Aprikarrok ezagutu eben itsasalde onetako arrantzaleak, bildur andia eutsela Ogetabostekoari, ta joaten zirean txalupa artera euren etxera lez, gauza txarrik gomuta izaten ez ebela.

Ontzi txikiak porturik portu, itsasbazter onetan, euren saldu-erosietan ebiltzanak, arrituta egozan Aprikarrakaz, portuetatik urteten bildur zireala.

Eguraldi ederraz egozan kala baten Bermeo, Mundaka ta Elantxobeko txalupak: kalan ez egoan aizearen putzik, baina urruntxo, kanpoaldetik, egoan itsas ganean aize apurtxo baten antza. Agertu zan ontzi bat belan: ezagutu zan itsaslapurra zala ta urratuten* etorrela. Txalupetara eldu orduko ibitu jakan oso aizea; batu eben belea, ta arraunketan, astiro-astiro, sartu zan txalupa artera ta jarri zan arrantzooan txalupen antzera.

Txalupa baten erakutsi zanean eurak adituten eben ezau-garria, danak batera *estropadan* sendo ta zoli inguratu eben Ogetabostekoa. Aprikarrak, ikusi ebenean txalupen asmoa, arin-arinka asi zirean arraunak jarriten euren tokietan, iges egiteko gurariaz, baina euren ganera jausten zan arri-euriak, ez eutsen itxi arraunak (14) jarten euren tokietan, da arrikadakaz zauriturik eta neketurik egozala, ganera ikusi ebezanean txalupetako ezpata-makilak, sartu zirean guztiak ontziaren upategian (15), da erosta* gogorrek egiten ebezan an barruan.

Alperrik erakutsi ebezan euren iskiloak; txalupak, zerbait aldenduta jaurti ebezan arriak: Ogetabostekoan lotuten zirean arri batzukaz, lenengoan, zauritu ebezan txalupetako zazpi gizon, baina gero azpiratu zirean itsaslapurrok.

Zazpi gizon zaurituetatik, zauri andiena anka baten eukana, zan Martin-zaldi; beste seirenak, zauri txikiak zirean.

Aprikarrok upategian sartu zireanean, txalupetako ogei gizon sendo, euen ezpata-makilakaz, ontziratu zirean Ogetabostekoan, zaindutera Aprikarrak urten ez eien upategitik kanpo-

(14) *Arraunak* = Remos.

(15) *Upategi* = Bodega.

ra, eta beste ogeik arraunketan (16), eroan eben Bermeora, bertako amar txalupa lagun zireala.

Bermeon, pozen pozaz, gizadiak, egin eban barre-zantzo asko Aprikarrokatigu ikusi ebezanean. Gizateriak, leorreratu nai ebazan, nekaltasun gogorrek emoteko, baina auzi onetan adituten ebenak, esaeben Ondarroara eroan bear zireala, ango arrantzale bi il ebezalako, ta an erabagiko ebela, bear eben zeatzea*. Biaramonean, ipini ebezan eskuak loturik, eta iru txalupak eroan ebezan Ondarroara.

Ondarroarren atseginak, zantzoak eta jantzak, ikusgarriak izan zirean itsaslapurrok katigu ikusi ebezanean, da amorru gogorraz esaten eben:

—Or dira orrek aprikar lotsageiztokuok! Il ebezan gizon biren zorra dauke ordaindu бага erri onetan, da ondo ordaindu bearko dituez euren negargarrizko okerkeriak! Il ainbat arinen, orrek iltzale (17) geztokikuok, geiago okerkeriarik egin ez-teien!

Egun atan sartu ebezan katigutegian (18), da biaramonean erabagi (19) zan, banan-banan urkatu eitezala arrantzale biak il zirean txalupan bertan: alan egitu zan erabagilen erabagia.

Bermeoko aberats batek erosi eban Ogetabostekoa, ta ar-tu zan dirua, Bermeo, Mundaka ta Elantxobeko arrantzalien artean ainbanatu* zan, Ondarroara joan zireanai euren saria emonda.

Egun batzuk igaro zireanean, Ondarroan kantatzen zirean:

Itsaslapurrak agertu dira,
Gure itsasbazterretan,
Ortik-emetik egiten dabe,
Gutziz zoli lapurretan.

(16) *Arraunketan* = Remando.

(17) *Iltzale* = Asesino.

(18) *Katigutegi* = Cárcel.

(19) *Erabagi* = Sentenciar, decidir.

Ontzi luze bat ei darabile,
Belan zein *erramuetan*,
Arrantzaleak bildurrez dabiltz,
Itsasaldeko lanetan.

Txarto eginak
Ekarten ditu
Nekaltasunak
Munduan
Itsaslapurrok
Nastako² dira
Arrantzalien
Amuan.

Ontzi batzuri kendu ei deutsez,
Janaria ta diruak,
Bai arrantzale askori bere,
Txalupako arrantzuak,
Ondarroako txalupeagaz,
Izan ebezan autuak,
Gizon bi il da, arrain guztia,
Eroan *infernukoak*.

Txarto eginak

.....
Arrantzaleok alkartu ziran,
Batu zan euren batzarra,
Erabagiten zer egingo zan,
Betorren Aprikatarra.
Esaten eben neurtuko dogu,
Orren baltzorren² indarra,
Azpiraturik (20) jaurti bioguz
Itsaso ondarretara.

Txarto eginak

.....

(20) *Azpiratu* = Vencer.

² Plurala da *baltzorren*: baltzon.

Orretarako ekarrikoguz,
Txalupetara arriak,
Baita ezpata-makilak bere,
Atarateko begiak.
Datorreneko, inguratuta,
Jarri txalupa guztiak,
Zuzendukoguz orduan orren
Lapur iltzalekeriak.

Txarto eginak
.....

Joan zirean itsaslapurrok
Kalako (21) txalupetara,
Arin da zoli inguraturik,
Estropadako antzera,
Arrikadakaz arri-euria
Jausten zan euren ganera,
Zauriz beterik sartu zirean
Upategitxo batera.

Txarto eginak
.....

Artu ebezan arrantzaleok,
Euren ezpata-makilak,
Aprikatarren ontzi aretan,
Barruraturik mutilak,
Eroan eben Bermeoraino
Itsasaldeko ongilak (22)
Emon eioen nekaltasuna
Auzien erabagilak (23).

(21) *Kalako* = Lugar de pesca.

(22) *Ongila* = Bienhechor.

(23) *Erabagila* = Juez.

Txarto eginak
.....

Ondarroako arrantzale bi,
Il dabez itsaslapurrok,
Antxe berbertan nekaldukoguz,
Zinoen erabagilok.
Ainbat arinen Ondarroara,
Eroan geztokitarrok,
Arin bai arin, ordainduteko,
Emendik daukezan zorrok.

Txarto eginak
.....

Bermeotarrak laster eroan,
Ebezan Ondarroara,
Erri onetan deadar baten,
Zinoen danak batera;
Arin bai arin iltzale^{*} orrek,
Eroan urkatutera;
Banan-banaka urkatu ziran
Orra euren amaiera.

Txarto eginak
.....

Martin-zaldi egoan etxeraturik Aprikarrak egieutsen zauria sendatuten.

Txomin-txikik, etxeratu zanean esan eutsan:

—Ee... Martin? Arrikada galantak emongo euazan euk be, baina zolia ta indartsua izan dok euk artu doana be.

—Bai ba, eztago burrukarik, batetik eta bestetik, gitxi edo asko, zapartadak ainbanatuten eztireanik. Guk jaurtiten genduzan arri batzuk, bertan ontzian lotuten zirean, da arekaz, lenengoan emoeuskuezan arrikada indartsuak, baina laster zauritu, neketu ta azpiratu zirean baltzok.

—Nik esaten neuan Martin, orrek gauzok ezin egin leitezela arriskuak igaro baga.

—Bai ba, ta ni arrikada indartsuenak arrapau ninduan.

—Orain, egun batzuetako eroapena artu bearko dok, zauriori osatu arte.

—Bakit ba: au baino naibage geiago ezpot neure bizian, ondo izango naz.

—Urrengo jai arratsaldean ezin joan izango az Demikura Mari Jesus ikustera: orren naibage apurtxoak eukiko dok. Ez-tok?

—Esatea be; zer deust niri egun batean edo bestean, noiz-bait ez joan arren?

Juana Mari barreka egoan Txominen destainai, ta Martinek bere, barre asko egieban.

—Bakik Errekarteri zer igaro jakan Mari Jesusegaz.

—Bai, baina Errekarte arinegi ibili zan: ni astiroago nabil.

—Ik ezkontzeko adinik ez oraindio, ta orregaitik abil astiro.

—Ja... ja..., zuk esateko ezta ezer, Txomin.

—Esaik egia: i bildurrez abil astiro-astiro, ta bearbada ondo egiten dok, berba onakaz, geldiro-geldiro euganatutea. Bakik neskabila ona dana ta etxaguntza polita daukana.

Txominek esaeutsazan onek berbok, entzuebalako, Mari Jesusek begi argiak erakusten eutsazala.

Martin-zaldi zauriakaz etxeratuta egoan erasti^{*} atan, asi zan Mari Jesus, Mundakako zeiera joaten, bere esne, arrautza ta ortuariak saldutera: len luzaroan joaten zan Bermeora.

Juana Mari Ondartzako poztu zan, Mari Jesus, txera onaz, berbetara joan jakanean zeian: lendik ezagututen eben alkar, da Mari Jesusek esaeutsan Juana Mariri:

—Bermeoko zeiera joaten izan naz aspaldion neure gauzak saldutera, baina orain leku askotako baserritarrak doaz ara, ta aurrerantzean, ona Mundakara etorriko naz.

—Ondo da, Mari Jesus, lenago be etorten zinean ona; orduan sarri alkar ikusten genduan, baina gero artu zenduan Bermeora bidea, ta aztu jat urrengo noiz ikusi zendudazan.

—Enaz ba urrun ibili, baina egia da aspaldion Mundaka aztuta egon nazana: mezarara be, Bermeora joaten izan naz.

—Da zelan dagoz zeure aitamak?

—Goratzu adinean (24), baina oraindino sendo samar da-biltzaz euren lanetan.

—Ori ondo Mari Jesus, eztodaz ikusi aspaldion, da gorantziak erazagutuko deutzazue: zeu aurrerantzean ona bazatoz, egunaro ikusiko gara. An daukagu Martin gurea, zorigeiztoko Aprikarrak emoeutsen arrikadea sendatuten.

—Ori ba! Zelan dago Martin?

—Orain guztiz ondo; egun bi edo iru barru joango da bere lanetara.

—Ori ondo Juana Mari, gomuta izan dot zelan ete doan bere zauria.

—Bakit Mari Jesus, zuek jai arratsaldietan Demikun, pandero soinuan olgetan dozuena. Zer egingozue ba gazteak zarien artean? Olan izan ginean gu bere gaztetan, da olan izaten dira gazte guztiak, beti daukelako olgetako gogoa.

—Bai ba, ara etorten da Martin be, ta auzoko neska-mutilak lagun direala, ondo jolastuten gara.

—Agur orain, Mari Jesus.

—Agur ba, Juana Mari.

Eztago jakitea baino, zein gurarik eroan Mari Jesus Mundakako zeira Bermeokoa itxita. Juana Marigaz sarri berba egitearren? Martin sarriago ikustearren? Bearbada berak Juana Mariri esaeutsana izango zan ziurrena; Bermeora baserritar asko joaten zalako.

Baina Juana Marik, laster usmau eban zerbait Martinegaitik esatea gurako ebala, ta agaitik aitatu eutsan Martin; orduan Mari Jesusi ezagutu jakan bere poztasuntxo Martinen izena entzuebanean.

Juana Marik iragarri eban etxean albista barri au, ta guztien pozzarria izan zan Mari Jesus Mundakako zeira joatea. Zeinbat gogoeta joan ete zirean Martinen burura jakiebanean albista barri au, ta ganera, Mari Jesusek, Juana Mariri egieutsa-

(24) *Adin* = Edad.

la gutzizko txera ona! Onekaz gertaerokaz, Martinen bildurta-
sunak, atsegin biurtu zirean, da egunerik egunera eukan Mari
Jesus ikusteko gogo geiago.

Arik laugarren egunean joan zan Martin itsasora bere zau-
ria osatuta.

Zeia, portutik urre-urre egoan, da goizetan, eguraldi itza-
laz luzamena* egoanean itsasoratea erabagiteko, Martin joaten
zan zeiera Mari Jesusegaz egotalditxo baten, berbalditxo bat
egitera; ganera len legez, jai arratsaldietan joaten zan Demiku-
ra, ta olan, len baino sarriago ikusten eban Mari Jesus.

Gisa onetan igaroten zirean egunak eta asteak.

Martinek, aitamarik ez aide urkurik³ бага, ezkondu bearra
eukan: Txominek eta emazteak maite eben, baina inoren etxe-
an bizi zan; urteak aurrera joazan, da bere aurrerantzerako bi-
zitzea bilatu bear eban. Mari Jesusek erakutsi ebazan argimen*
guztiakaz be, Martin etzan azartuten ezkontza berbarik egiten:
Txominek esaeutsana jazoten jakan; bildurra eukan, bigarren
Errekarte izango ete zan. Baina ezin egon leitekean beti ez-
bain*, da egun baten esaeutsan Mari Jesusi:

—Mari Jesus, bakizu zeintzuk berba egin genduzan ezkon-
tza asmoan ni gudura joan orduko? Gomuta dot zelan esan
zeustan, ezkontzeko gogoa jatortzunean, naiago izango zendua-
la nekezale on bat, alan-olango ondasunak daukazana baino:
orain jakin gura neuke, nigaz nai dozunez ezkondu. Nik eztau-
kat ondasunik, diru apurtxo bat, ezebez; baina dotsudan maite-
tasuna bitarte dala, uste dot ondo biziko gintzakezala.

—Ara Martin, urteak aurrera doaz; aitamak egunaro ma-
kalduten lanetarako, ta baukat ezkontzeko gogamena. Nik gura
zaitut senartzat, baina, ezarri eutsuen ezizen orrek nauko nai-
bagetuta: jakingo zu zelan gizadi guztiak esaten deutsun Martin-
zaldi, ta mingarria da niretzat ezizen ori entzutea.

—Zaldi ganetik jausi nintzanean ezarri eusten ezizen ori,
baina zein ardura edo kalte ekarri leike ezizen orrek?

³ *Urko* barik *urku* hitzoina darabil, *gorrotu* darabilen legez.

—Ori olan da, baina Martin-zaldi esatea, da Martin-asto esatea legez, da bene-benetan dirautsut Martin, lotsatu egingo nintzakeala ezizen ori daukan senarragaz biziten. Zer egin leiteke ezizen ori aztu eragiteko? Nik beti izan zaitut gogoan Martin, baina ezizen orrek *daukast* neure burua arazotuta.

Errekarteri ezetza ageri eutsanean, uste zan Mari Jesusen biotzeko ateak ondo itxita egozala, baina orain azaldu dau, zelan eukan Martin ondo ezkutata an barru-barruan.

Martinek erantzun eutsan:

—Mari Jesus, nik uste dot zure gurari ori zorakeria dala. Zer kalte egin leike ezizen orrek, guri ez inori? Zeinbat dagoz inguru onetan da lurbira guztian olako ezizenak daukezanak? Belu da ta banoa etxera; urrengoan berba egingogu gauza orren ganean.

—Agur ba, Martin.

—Agur, Mari Jesus.

Eztitsiak izan zirean Martinentzat, Mari Jesusen berba batzuk, baina uste eban ezin aztu eragin leitekeala bere ezizena. Gogoeta onegaz, buru-austen joan zan etxera.

Apalostean autortu eutsen gertaera au Txomin da Juana Mariri, esaten eutsela:

Mart. —Mari Jesusi, itandu deusat gaur nai dabenez ezkondu nigaz, da erantzun deust, gura nabela senartzat, baina lotsatu egingo litzakeala Martin-zaldi ezizena daben senarragaz biziten, da zelan edo alan, gizadiari, aztu eragin bear jakala ezizen ori esatea.

Txom. —Ja... ja... ja... zelan otu jako asmo ori?

Mart. —Zuk barre egiten dozu, baina ni enaz barre gura.

Txom. —Nor egongok barre egin baga, zentzunbako gurari ori jakinezkeru? Mari Jesusen adimena eztok oso argi egon, ori otu jakanean.

J. M. —Mari Jesusi gurari onaz otuko jakan ori, baina eztau gogoratu (25) ezin izan leitekean gauzea dala.

(25) *Gogoratu* = Pensar.

Txom. —Mari Jesusi burutik aldendu bear jako zorakeri ori: niri be, Txomin-txiki esaten deuste, ta zer deust niri orregaitik?

Mart. —Esan deusat nik inguruetan ezizenik asko dagoa-la, ta erantzun deust, Martin-zaldi esatea, Martin-asto esatea lez dala, ta beretzat mingarria izango litzatekeala.

Txom. —Ja... ja...ja... gizadiari esaten bagoaz, ezteiela esan ezizen ori, barre-zantzoak egingo dabez guztiak: ori zuzendu ezin leitekean gauzea da. Ondoan izango da, Juana Marik berba egitea Mari Jesusi ta bere aitamai auzi orren ganean, da uste dot biurtuko dala neskabila ori.

J. M. —Nun egingotsat berba? Zeian ainbeste gizadiren artean, ezin geintek ez asi autu orretan: Demikura, bere gurasoen etxera egingot agerraldi bat, eta guztioren batzarrean erabagiko dogu auzi ori.

Mart. —Orixe izango da onena.

Juana Mari, bazkaloste baten joan zan Demikura, Mari Jesusen etxera, ta guztiak egieutsen guztizko abegi (26) gogo argikoa: jezarri zirean guztiak eta asi zirean autuetan. Pelis eritxon Mari Jesusen aitari ta Nikasi amari; onek biok, beti erakutsi eutsen Martini euren maiteguraxoa.

Jezarri zanean, Juana Marik esaeban:

J. M. —Mari Jesus, Martinek ezkontza asmoan berba egin deutsunean, erantzun ei deutsazu, gura dozula senartzat, baina naibage andia daukazula Martin-zaldi ezizena dabelako, ta ezizen ori aztu eragin bear jakola gizadi guztiari, lotsatu etzaitzean Martin-zaldi esaten deusten senarragaz.

M. J. —Egia da, ori esan deutsadana.

Pel. —Ezizen orren ganean, Juana Mari, izan doguz geuk bere autuak: nik esan deusat, bein baino sarriago Mari Jesusi, ezizen ori eztabela aitatu be egin bear, kalterik etxera ezin ekarri leikealako, baina oneri buruan sartu jako Martin-zaldi esatean, dala, Martin-asto esatea legez, da lotsatu egiten dala, ezizen ori dabenez ezkontuten.

(26) *Abegi* = Acogida.

Nik. —Aurra ba, Mari Jesusek onerako daukaz gurari orrek, baina neuk be uste dot, ori zuzendu ezin leitekean auzia dala.

M. J. —Nik barriz uste dot errez izango dala ezizen ori aztu eragitea: esan gizadi guztiari aztu deiela Martin-zaldi esatea, ta aztuko dabe.

J. M. —Ai ene alabatxoa! Ori esango balitzakio gizadiari, karkar barre egingo leuke, ta ganera, orduan gogo geiagoaz esango leukie ezizen ori: Martini berari, inok ezteutso deituten ezizen orregaz, da aspaldion barriz, geienak Martin Ondartzako esaten deutse, zuri Mari Jesus Demikuko esaten deutsuen lez.

Pel. —Bai, egia da Juana Mari, dirazun guztia⁴; lengo egunean, Mundakako eliz aurrean, gizon batzuk ebezan autue-tan, neuk entzun neban Martin Ondartzako esaten: nire alabearen gangartasunak* dira onek asmuok.

Nik. —Neuk be, bein baino sarriago entzun dot esaten Martin Ondartzako.

M. J. —Baita neuk be, noizbait entzun dot esaten Martin Ondartzako, baina sarriago Martin-zaldi.

J. M. —Ara, Mari Jesus, biar edo etzi, ezkontuten zarienean, ziur-ziur esango deutse Martin Demikuko; ezkontzeak aztu eragingo dau oso lenagoko ezizen ori.

Pel. —Neuk be orixe uste dot.

Nik. —Baita neuk bere.

M. J. —Olan izango balitz!

J. M. —Bai, olantxe izango da Mari Jesus, eukizu itxaropen osoa. Ai! eztozu ondo ezagututen, Martin gurea zelako mutila dan; guk, geure semea bailitzan lez daukagu geugaz ainbeste urtetan, da naibage andia eukikogu etxetik doanean: aginduten jakan guztia, egun zein gabe, eguraldi onean zein txarrean, kanpoan zein etxean, egiten dau beti gogo onaz. Gudura joan zanean bere, jakingo zendoan guztiz maite izan ebe-na, bere gizabide onagaitik, eta emoeutsen, larogei zaldi-gane-

⁴ Aditz badaezpadakoa *dirazun* hori, *dinozun* idatzi beharrean. Erro horretako formak datiboaz erabili ohi dira: *dirautsut*, *diraustazu*, *zirautsan*,...

koren agintaritzea. Txalupan bada, Txotxotontorrek dinoenez, eztago beste bat Martinen azkartasuna daukanik, arraunketan zein edozetan: guztizko esangina (27) berez, da edozein lanetan gitxi nekalduten dana; ganera morrosko galanta, ta gogo argi-koa. Zeruan biziko zara aregaz, Mari Jesus!

Pel. —Bai, Juana Mari, olakoxea da izan be.

Nik. —Bai, guri ederretsi jakuz beti bere egiteak; guk ezto-
gu bear besterik, Mari Jesusentzat senar ona, sendoa ta beargi-
na baino.

M. J. —Orrexek gauza guztiokaitik euki dot nik Martin
antxinarik neure biotzean.

J. M. —Baita, ondo isilik euki dozu zeure maitetasunori.
Eztotsagu jaramongo ezizen gorabereorri, ta ezkonduko zarie
zeuek nai dozuenean.

—Bai, Juana Mari —erantzun eben guztiak.

J. M. —Tira ba, onek gauzok olantxe erabagi bear izaten
dabe; belutxo egin jat geure autuetan, da banoa arin-arin etxe-
ra: agur guztiori, urrengora arte.

—Agur ba, Juana Mari, ta eskerrak zeure agerraldiagaitik.

—Eskerrak neuk, auziok arautu doguzalako, guztioeren go-
gamen onagaz.

Juana Marik, erazagutu eutsezan etxean Txomin da Marti-
ni, Demikun Mari Jesusegaz da bere aitamakaz egin ebazan
autuak, eta agerraldi atan jarri zireala bide guztiak leun da gar-
bi, Martin da Mari Jesus ezkondu eitezan nai ebenean.

Txomin-txikik, bere betiko gogo argiaz, esaeutsan Martini:

—Ee... Martin! Alagala ago orain: entzun dok, Juana Ma-
rik Demikuko bideok garbitu dituala, lotsa ez bildurrik baga
joateko aurrerantzean.

—Bai ba, Jaungoikoak emongo deutsuez egisariak*, zeuri
ta emazteari, niri egin deustazuezan mesedeakaitik. Ni ezkon-
duta zuekandik aldendu arren, beti izango naz zeuen otseina,
mesede egin al dotsuedan guztian.

(27) *Esangin* = Obediente.

—Eskerrik asko, Martin; orain ezkonduko az Mari Jesusek nai dabenean, da gurasoak oneri emongo deutesen lez etxaguntzea, ezkonduen azanean izango az gu baino aberatsago, oso etxaguna. Abia ona topa dok Demikun, eure bizitzea, naibage бага, atseginakaz eroateko. Dana merezi izan dok: ona izan az toki guztietan, da laster artukok eure gizabide onaren saria. Eu baizen poz gaituk gu, Martin, eure zorionaz⁵.

Martini negar-malkoak jausten jakazan, Txominen berba onak entzuten egoanean.

Urrengo jai arratsaldean joan zan Martin Demikura, da Mari Jesusegaz da onen aitamakaz, guztien artean erabagi eben, ainbat lasterren ezkonduetea. Mari Jesusek oartu eban zelan eukan eskintsari bat Gaztelugatxera, bere gurasoakaz da Martinegaz batera joan da eskariak egiteko, ta eskintsari^{*} au egituezkero, ezkonduko zireala.

Arik astebetegarrenean joan zirean, txaka-txaka, Gaztelugatxera, ta oneraspen (28) zintzoaz egitu eben eskintsaria. Urrengo egunetan egin ebezan elizako abiamenak, eta ezkondu zirean Mundakako elizan, euren da senide guztien guramen onaz.

Mari Jesusek, antxinatxo esaeutsan Martini, etzala ibiliko aberastasunen bila, gizon onaren bila baino, ta esan da egin, alantxe egitu eban bere berbea: etxaguntzakoa ta polita izan arren, otsein (29) bategaz, baina gizon onaz, ezkondu zan.

Karlos-geizto ta Martin-zaldik, burrukaldiak egin ebezanean, entzute andikoak zirean eurak eta Mari Jesus, Mundaka-Bermeoetan; da gero, neskatila ori ta Martin ezkondu zireanean, kalietan kantaten ebezan errietako neska-mutilak, urrengo doazan koplak (30).

(28) *Oneraspen* = Devoción.

(29) *Otsein* = Criado.

(30) *Koplak* = Versos.

⁵ Nekez entzuten dan esareea da: *poz izan, poz gara*.

Neskatila galanta,
Lanean sendoa,
Demiku baserriko,
Etxaguntzako.
Beti zan Mari Jesus,
Gutzizko zintzoa,
Ondo beteten eban
Mutilen gogo.

Berba eginezkero,
Ezkontza ganean,
Mari Jesus egoan,
Beti ezetzean.
Kutuna izan arren,
Mutilen artean,
Etzan inor sartuten
Bere biotzean.

Baina, urteak joan,
Urteak etorri,
Zerbait jazoten jakan,
Mari Jesuseri.
Bere biotz samurra
Argi zan agiri
Biotzetik gurotsan
Gogoz Martineri.

Ezkondu ziran biak,
Maite izateko,
Zerura eskariak,
Sarri egiteko.
Atsegin, zorionak
Eurakanduteko,
Alkarri lagunduta
Pozik biziteko.

Begoz orain Martin da Mari Jesus, gozoz da pozez beterik,
euren bizitzea zuzenduten.

X

Jose txoren osterako gertaerak

Orain urte bi joan zan Jose txo itsasketara «Ama Dontsoa» eritxon ontzian: eldu zirean Montevideora, ta portu atan egon zirean iru ilebetean, ontzia zamatzeko bear zan okelea ondo legortu arte. *Tasajo* eritxon bertan okela zezin gisan legortuari.

Erasti atan, Montevideon, ain ugari egozan abelgorriak, zein bost ogerlekoaz erosten zan idi bakotxa: idiburuaren azurraz eginda egozan ormak kanpoetan, da ontzi asko joaten zirean andik Ameriketako alde guztietara, okela legortu, azur da adarrakaz zamatutik.

«Ama Dontsoak» urten eban andik Habanarako *tasajoaz* zamatuta, ta joan zirean itsasketan luzaro, guztiz zorionean, Habanatik urre samar egon arte: Antillas izena eban itsasleor batzuk ikusi arte.

Erasti atan, itsasleor orretako zokondo askotan egoten zirean itsaslapurrak*, aretatik ebilzan ontziai kalte andiak egiten eutsezanak.

«Ama Dontsoak» igaro ebazanean lenengo egozan itsasleor txikiak, aurkeztu jakan ontzi itsaslapur bat gizon askogaz. Bota eban batel bat uretara, ta aize baga egozala, joan jakezan batelean amar gizon euren iskiloakaz. Igo eban «Ama Dontsora», ta Palbi, agintari nagosiari, eskatu eutsezan, ontzian egozan diruak, ta janari ta edari batzuk. Palbik erantzun eutsen berak eukala diru apurtxo bat, baina uste ebalan enparauak ez ebela eukiko lauziri be.

Itsaslapurrok aurki* uste eban, ontzi atan diru asko etorrela Montevideotik, Habanarako biralduak, eta guzurra zalakoan

Palbik esaten eutsena, aserratu zirean, da gogor, iskiloak gorutz jasota, erantzun eutsen atarateko arin ontzian egoan diru guztia.

Palbik orduan, batun ebazan, berak eta barruko guztiak eukezan diruak, eta eskuratu eutsezan lapurrei, baina oneri, gitxi eritxi jakezan berreun ogerleko, ta bultzadaka, gogor artu eben Palbi gizajoa. Esaeutsen idigi eizela beko gelako ate guztiak, eta bost lapurrek jarraitu eutsen arazo onetara.

Josetxo ebilen Palbiri arazo guztietan lagunduten, da noizik beinean artuten ebazan zaplada batzuk lapurrakandik.

Palbik ate guztiak idigi ebazanean, lapurrek biraldu ebazan gora, bera ta Josetxo, eurak nai eben lez, bealdeko zokondoak ikusteko. Arazo onetan ebiltzan arte, leorraldetik etorren gorutz iluntasun bat, oinaztu ta trugoi (1) zoliakaz.

«Ama Dontsoko» gizadi guztia egoan arriturik, gogoratuten zer gertauko ete zan atzanean lapur arekaz, ikaragarritzko baltzeran arpegi itzaldunakaz; da ganera, zer igaroko ete zan, aize gogorra bekarren leorraldeko iluntasunak, lapurrek alden-du orduko.

Trumonadak (2), leku atan, batzuetan ordubetea amaituten zirean, baina noizbait, ogei ordu ta luzarago iraun oi eben, oinaztu, trugoi, aize euri ta abar, ekatx gogor baten antzera.

Lapurrok ez eben uste trumonada gogorra ta iraunkorra (3) izango zanik, eta ebiltzazan beian ondo zokondoak aztertzen (4), eurakaz eroateko al eben guztia. Geroago sartu zirean ontziaren upategira be, ta an, tasajoaren ganean ebiltzan arte, estaldu eban trumonadeak «Ama Dontsoa». Oinaztu zoli, abarrots andiko trugoi ta aize indartsuaz eldu zan: olatuak geroago andiagoak zirean, da ontziko gizonak bela txikienak jarriten ebiltzan arte, ondatu zan itsaslapurren batela. Lapurrek eta ontziko guztiak, egin ebezan aleginak, batela ontzira jasoteko, baina alperrik izan zirean lan guztiak: karelak zatitu ontzia-

(1) *Trugoi* = Trueno.

(2) *Trumonada* = Tronada.

(3) *Iraunkor* = Duradero.

(4) *Aztertu* = Escudriñar.

ren aldemenean, *txikotak* urratu, ta galdu zan oso batela. Lapurrak orduan euken gorrotuaz ez ekien zer egin, da oraindino euririk etzan lez, danak egozan batera alkarregaz, euren iskiloak gora begira eskuetan ebezala.

Onetan egozala, izugarritzko oinaztu ta trugoi baterakoak, beia jo eragin eutsen guztiai, ta luze geratu zirean ilak legez. Joan zan ara ontziko gizadi guztia ta ikusi eben zelan zazpi lapur egozan ilda guztiz baltziturik, eta iru oraindio bizirik, euren anak eta besoak zerbait zirkin egiten ebela: oinaztarriak^{*} egin ebazan onek lanok, iskilo zorrotzak gora begira euki ebezalako. Iskiloak gorde zirean gela baten.

Oinaztarriak, ganera, egieban zulo andi bat lapurrak egozan lekuan, da jarraitu eban upategira; tasajoa jarri eban azpiko ganera toki batzuetan, da etzan jakin atenez nora joan zan, ez zelan amaitu zan. Palbi agintaria ta beste guztiak egozan bildurrez, oinaztarriak zulatu ete eban ontziaren azpia, baina udendatu (5) zanean upategipea, ikusi zan urik ez egoala. Ol batzuk josita arautu zan goiko zuloa, upategira ura joan ez eitean.

Gerotxoago asi zan euria jausten da esan zeitekean, zeruko erreka guztiak etozala lurrera.

Itsasoan ekanduten dan lez, jaurti zirean uretara zazpi lapur ilak, eta upategian, bela zar baten ganean, ipini zirean bizirik egozan irurak. Iluntzean, asko ibitu zan aizearen indarra, baina, oinaztu ta trugoiak jarraitu eben gau guztian.

Argitu zanean egunabarraz, etzan inun agiri ontzi itsaslapurra; ekatzak aldendu eban ikusbidetik, baina uste eben, etzala urrun egongo. Upategian egozan iru lapurrak, baltziturik eta guztiz makalik aurkituten zirean.

Urre samar agiri zan Martinika izena eban itsasleor bat, eta Palbik artu eban burubidea Martinikako portura joatea arek iru lapurrak eroatera ango nagosiari. Zabaldu ebezan «Ama Dontsoaren» bela guztiak, eta eguerdian porturatu zirean. Portu atan buru egiten ebanak, sartu ebazan katigutegian

(5) *Udendatu* = Sondar.

iru lapurrak, eta Palbiri esaeutsan zelan aspaldian, noizean bein, eukazan itsaslapur orren barriak, eta ontzi guztiari oartuten eutsala¹ ardura andiagaz ibilteko aretan itsasoetan.

Mirariak irudien «Ama Dontsoari» igaro jakazan gertae-rak: arratsaldeko bostetan, Palbi ta bere menpekoak (6), ego-zan larri ta bildurrez, lapurrok atzenean zer egingo ete eutsen gomuta ebela: geienak uste eben, aren gogamena izango zala, danak il, da «Ama Dontsoaren» jaube egitea. Sinismen onegaz egozan artega ta naibagez beterik, taupadaka biotzak ebezala: ordubete geroago, oinaztarriak (7) bere lanak egin ebazanean, alendu zirean bildurtasunak, eta guztiak esaten eben: Au da miraria! Au da Jaungoikoak deungeai biraldu deuten nekaltasuna!

Palbik, gogo beroz, esaeutsen bere menpekoai:

—Gizonak! Ikusi dozue inoz olako miraririk?

—Inoz bez, jauna! Guk ziur-ziur uste izan dogu, ilgo ginduezala, ta ontzi onen jaube egingo zireala: gogo au euki ezpa-lebe, joango zirean euren ontzira *trumonadea* ganera etorri orduko, eukezan diru ta beste gauzakaz.

—Eztot uste orrenbeste: asmo ori euki beben, barrura sartu zireanean, edo beko atek idigi zireanean, ilgo ginduezan.

—Ez, jauna, arek egon zirean itxaroten ilundu arte gu ilteko, baina Jaungoikoak beste gauza bat erabagi eban auzi orretan.

—Jaungoikoaren lanak dirudie, izan be, gertaera orrek.

—Bai jauna; iltzaleak eta lapur deungeak, olakoxe atzena dabe geienean.

—Martinikako agintariak esan deust niri, orrek itsaslapur-rok, gauza txar asko egin dabela aspaldion: ontzi batzuetan ostu al eben guztia, ta beste batzuetan il gizadi guztia, eurak dakien lekuetan salduteko ontzia ta ontziko gauzak.

(6) *Menpeko* = Subordinado.

(7) *Oinaztarri* = Rayo.

¹ 1909: *ontzi guztiari oartuten eutsala*. Pluralari dagokio *guztiari*. Beraz, *eutsela* behar leuke.

—Ori, olan izango da jauna; emetik urteten dogunean be, arduraz joan bearko dogu, onek itsasuok igaro arte; gu bilatu-ten ibilko da² atzoko itsaslapurra, atzo gengoan lekuan, bere amar gizonak artuteko, ta ondo egingogu beste bide batetik joatea.

—Guk, gaur iluntzean urtengogu itsasora, ta bakit nik zein bidetarik joan bear dogun, atzoko itsaslapurren bildur baga. Ta baletor be, zer? Batetik eztauko batelik, eta ganera, orain, amar gizonen iskiloak daukaguz arpegi emoteko, lapur asmoaz datorrenari.

—Ori olan da, jauna.

Martinikan egozan arte, zuzendu ebezan andik-emetik, goietan da beietan, azpikoz-gora ta goikoz-azpira, nastaurik, lapurak ipini ebezan gauza guztiak; baita arautu zan, erriko arotz bategaz, oinaztarriak egieban zuloa be.

Ilunabarrean jaso zan *ankilea*, zabaldu ebezan «Ama Don-tsoaren» belak edo aize-oialak, eta itsasoratu zirean, euren osterea jarraitzeko. Trumonadadun eguraldiak artu ebezan lenengo egunetan, da ekatx gogor bat Habanara eldu baino egun bi lenago: estualditxo bat artu eben ekatx aregaz, itsasbazerretik urre egozalako. Martinikatik urten, da amargarren egunean, eldu zirean Habanara.

Kartegatu (8) eben *tasajoa* edo okela legortua, ta ilebete-garrenean zamatu (9) zan ontzia *azukreaz*, Kork izena eban Irlandako portu batera eroateko. Abiamenak egin zirean, da urten eban itsasora «Ama Dontsoak».

Aize ta eguraldi onakaz joan zirean itsasketan Terranova-
ra urratu arte³: toki atan, ekatx gogor bategaz, artu eben estuta-
sun bat gau ilunean: euripean ezer ikusten etzala, entzun eben

(8) *Kartegatu* = Descargar.

(9) *Zamatu* = Cargar.

² *ibilko-da*. Gernikaldeko euskeran guztiz arrunta laburkera hori.

³ Interesgarria da *urratu* aldaera, *urreratu* zabalagoaren lekuan noiz edo behin darabilena. Adlatibo zaharraren gainean egina da. Adberbio legez be, *urrian* eta *urran* aldaerak ditu.

abarrots bategaz, ikaratu zirean guztiak eta esaten eben, batak gauza zuri bat ikusi ebala, besteak argi zuria izan zala, au zala ta ori zala. Goizaldean «Ama Dontsoak» jo eban zerbait, eta izuturik (10) ebiltzan guztiak jakin gurarik zer izan ete zan: ogean egozanak bere entzueben zaratea, ta igo eben gora, baina egoan iluntasunaz, etzan ezer agiri. Egunabarraz, argitu ebanean, ikusi zirean alde guztietan itsasganeko edurmendi, azpia leituta^{*} eukenak, batzuk urre, besteak urrun; onek txikiak, arek andiak, ontziaren inguru guztian. A zan arrigarrizko itsasoal Arratsaldera arte joan zan «Ama Dontsoa» bide okerrak jarraituten; orain arantz, gero onantz da urrengoan besterantz, edurmendietatik aldenduten: arratsalde erdian estaldu zirean danak atzealdetik.

Gau ilunean ontziak jo eban gauzea, ziur-ziur izan zan edurmendi txikien bat. Ontzia zerbait aurrerago egon balitz, ilunetan aurkituko zan aren edurmendien artean, da Jaungoikoak bakarrik ekian zer jazoko zan ontziaz da ontzikoakaz. Amaika olako arrisku, ikara ta estualdi, igaroten dabez itsastarrak!

Olako gertaera neketsu ta arrisku andikoetan, ezta naiko izaten, ontziko burua, jakituna, adimen argikoa, ta ikusmen (11) onekoa izatea. Zorionaz etorten da garaitasuna (12), ta zorigeiztoaz ondamera (13).

Bein andik eta bein emetik putz egiten eben aize ibituakaz; eguzki argia egunaz, da guztizko gau izarratuakaz, joan zirean Irlandako itsasertzera urreratu arte. An idoro ebezan laino ta lausoak arriskurik geien egoan lekuan.

Egun baten, lauso ilunaz da aize gitxiaz joazala, entzueben zerbaiten durundia^{*}; au zala, ori zala, bestea izango zala autue-

(10) *Izutu* = Espantarse.

(11) *Ikusmen* = Vista.

(12) *Garaitasun* = Victoria.

(13) *Ondamera* = Ruina.

tan egozan arte, urreratu zan asko durundia, ta entzuten zan gizonen berbetea.

Orduan «Ama Dontsoko» batek egieban deadar.

—Au...p!

—Eloo....!— erantzun eben besteak.

—Norutz zoaze?

—U-ar-yu! —erantzun eben ostera.

«Orrek Englandarrak (14) dira» —esaeban «Ama Dontsoko» gizon batek; eta onetan egozala, dart-dart, ontzi biak nas-tau zirean, alkarren belak eta *txikotak* urratuaz. Aize gitxi ta itsas bareaz ezin zeitekean egin kalte andirik, baina Englandarrok aserre ebiltzan nasteak jaregiten (15), ontziak alkarregandik aldendu eitezan. Euskaldunak, isil-isilik ebiltzan besteakaz batera ontziai aldendu eragiteko lanetan.

Englandarrak, gorrotuaz, burutik bietzetara begiratuten eutsen euskaldunai, ta egiten ebezan deadar da birao gogorrikaz, esan leikean euskaldunak eukela gertaera aren errua. Uka-bilak be erakusten ebezan euren amorruagaz, da Englandar batek jo eban euskaldun bat: orduan azkartasun zoliaz, esetsi eutsen euskaldun guztiak Englandarrai ta ukabilkada galantak ainbanatu zirean alde batera ta bestera. Burruka onetan Englandar bi jausi zirean, lanean ebiltzan lekutik «Ama Dontsora» ta guztiz txarto egozan luze-luze, zirkin egiteko adore baga, ontziak aize apurtxoaz, alkarregandik aldendu zireanean. Jose-txok be gaitasun errimeak egin ebazan burruka onetan.

Englandarrak gero, joan zirean bateltxo bateaz «Ama Dontsora», jausi zirean gizon biak bilatutera; ta eroan ebezan euren ontzira.

Txarto urten eutsezan euren aserre, deadar da biraoak: obeto izango zan eurentzat, besteak lez isi-isilik egon izan bazi-rean euren lanetan.

Englandar ontzia estaldu zan laino artean.

(14) *Englandar* = Inglés.

(15) *Jaregin* = Librar, soltar.

Geroago entzuten zan zarata bat, atxetan olatuak egiten daben lakoa: au zala, bestea zala, badezpada, artu eben leorraldetik urrunduteko bidea. Alan da guzti be, atxetatik urre egoan ontzia, lausoa garbitu zanean. Biaramonean porturatu zan Kork-en.

Ain zuzen be, egun atantxe sartu zan bertan portuan, auzietako Englandar ontzia.

Kork-en, jaiegun baten, joan zirean errira, kaleak eta etxeak ikustera, «Ama Dontsoko» lau gizon; kalerik kale ebiltzala aurkeztu jakezan lau Englandar auzietako ontzikoak: aida baten, lau berba esan orduko, jaurti eutsezan ukabilkadak. Euskaldunak ez eben nai burrukarik leku atan, da aldenduten asi zirean, baina besteak orduan, gogotsuago jarraitu eutsen burrukarako. Laster ezagutu eben euskotarrok, euren arerioak erdi mozkorturik egozana: esetsi eutsen bakoxtak bati, ta arin osti-kopetu ebezan laurak.

Errizain (16) bik, eroan ebezan guztiak Erabagileagana*, ta katigu ipini ebezan dan-danak. Errizainak autortu eben jazoera guztia, ta batzuk errurik ez eukelako, ta besteak erdi mozkorturik egozalako, lau ordugarrenean, jaregin ebezan danak.

Englandarrak uste eben arek gizonak makal batzuk izango zireala, baina ikusi eben eurak baino indartsuagoak zireala, ta galendu (17) zirean bigarren burrukaldian: ziur kendu jaken, arekaz burruka egiteko gogoa.

Zortzi egunean kartegatu eben «Ama Dontsoa», ta gero, joan zan Englandako Liverpool eritxon portu batera, burdina ta oialak zamatutera barriro Habanara eroateko. Zamatu zireanean urten eben itsasora, ta bein eguraldi onak, bestean txarrak, orain aizetsuak, gero euritsuak, emen argiak, an ilunak arturik, «Ama Dontsoa» eldu zan Habanara, berrogetazazpi egunetan.

(16) *Errizain* = Policía.

(17) *Galendu* = Escarmentar.

Geixo txar, gizadi asko ilten ebana, egoan Habanan erasti atan: «Ama Dontsoko» guztiak, bein bat eta bein beste bat, arrapau ebazan geixo arek, baina adu* onaz danak sendatu zirean. Luzamen andiaz kartegatu zan ontzia.

Berrogetabigarren egunean, azukrez zamaturik, urten eban Santanderrerako, ta eguraldi onakaz, ogetamazortzi egunean eldu zan portu orretara. Sei egunean kartegatu zan, da Josetxo, beste Mundakako lagun bigaz, etxeratu zan.

Josetxo joaten zan Mundakara lenengo egunetan, bere lenagoko lagunakana agerraldiak egitera. Amerikar bat irudian, bere Habanan erosi eban *jipijapaz*-ko kapela ta soineko zuriakaz, aretan udako egun beroetan. Urte bitan ibili zan urrunetan, da amazapi urtegarrenean etxeratu zan mutil morrosko galanta.

Irakurleak ezagututen dau Eladitxo begi baltz ederren jautsua. Josetxok ikusi eban jaiegun baten neskak au, bere lagun batez egurastuten ebilela: joan zan beragana berbaldi bat egitera ta neskak biak egin eutsen, guztiz gogo argiaz, txera ona, ta Eladitxok, arpegia gorri-gorri ebala, itandu eutsan:

—Gomuta dozu, Josetxo, joan zineanean eskini zindoana?

—Zein eskeintza?

—Eztenduzala aztuko zeure laguntxoak.

—Eztodaz aztu inoiz be.

—Ori ondo, Josetxo, sinistuten deusut.

—Luze eritxi jataz arrezkero igaro direan urte biak.

—Tira ba, Josetxo, esaiguzuz orain zeure joan-etorrietako gertaerak.

—Bai pozik.

Josetxo asi zan urte bietako gertaerak esaten; Montevideon zer ikusi eban, zelako elizak, etxeak eta kaleak dagozan; itsasoetan zer igaro jaken, da itsaslapurren auziak ageriten egoala, agertu zan atso bat Eladiri deiez, zinoala:

—Eladi, amak dino etxera joan zaitezala!

—Zetarako?

—Nik eztakit, berak esangotsu.

Eladitxo etxeratu zan, zer jazoten zan jakitera.

Josetxo, bere urrinetako gertaerak ageri ebazanean, ikusirik Eladi ez etorrela leku atara, aldendu zan andik, Eladiren lagunagana beste adiskide batzuk batun zireanean.

Eladitxok artu ebazan zaplada zoli bi, amagana aurkeztu zanean, zegaitik zan ez ekiela, ta ganera, amak zematu (18) eban esaten eutsala:

—Antxina ago entzunda, aregaz mutilagaz ez batuteko, ta ederrak artukoan batuten azan bakotxean. Zainduko aut nundik eta nogaz abilen!

—Ori da ama, nik egin dodan okerkeria guztia, zapladak merezi izateko? Zer egin biot ba urte bian kanpoetatik ibilita, etxeratu dan adiskide bat, berbetara bajatort? 'Zoaz ortik' erantzun?

—Bai, zoaz ortik erantzun! I ez azalako aregaz batun bear doana.

—Ai ama, ori da arrigarrizko gogortasuna! Nik ezin neike ori egin!

—Ez orretarako? Eutsozan ba beste zaplada bi, erantzupen orren nekalgarri (19)!

—Zeurea naz da jo naizu ama nai dozun guztian, baina bakizu Mundakako gizadi guztien artean entzute andikoa dana Josetxo, bere betiko egitasun onakaitik, eta ganera ikastuna ta esangina dalako. Ni baino neskatila aberatsagoak egiten deutse abegi ona, ta ibilten dira beragaz, jantzan da olgetan tanbolin soinu. Zegaitik da ba deungekeria, nigana datorrenean, nigaz berbetan egotea?

—Ez eidan aitatu geiago mutil ori, ostarantzean ilgo aut.

—Il ama, il nai banozu, baina nik ezin neio egin zitalkeria-rik on-ona dan mutilari. Zeure guramena (20) egitearren, enaz inoiz joango berbetara Josetxogana, baina bera badator neugana, ezin esan izangotsat, aldendu deiteala nigandik.

(18) *Zematu* = Amenazar.

(19) *Nekalgarri* = Para castigo.

(20) *Guramen* = Voluntad.

—Auturik asko da gaurko, ta isildu gaitzean, beste zaplada batzuk artu nai ezpozan.

Eladitxok lenago artu eban burubidea isil-isilik egoteko, aitamak nekalduten ebenean, baina orain, auzi onetan, ezin egon izan zan egiak esan baga. Onekaz jazoerokaz usmau eban, zelan arek, Josetxogaz egoala deitu eutsan atso sorginak zainduten eban nundik eta nogaz ebilen, amari salatuteko (21).

Josetxoren etorrereak, naibageak ekarri eutsazan Eladitxori, baina bere begi baltz ederrak, lenago baino ederragoak, guztizko gogo argiaz ikusten eben a mutil errueza*.

Josetxok be, zerbait usmau eban, Eladi etxera eroan ebenean, da gurari andia eukan jakiteko, zer igaro ete zan etxean beragaz.

Arik bigarren egunean, ilunabarrean, idoro eban kalean etxera joala, ta itandu eutsan:

—Zer jazo zan etxean, lengo egunean amak deitu eutsunean?

—Ezebez, Josetxo; eneuke esan bear, baina egia esan biot: zeugaz nenbilelako eroan nindoan.

—Diraustazuna berbera uste izan dot, eta guztiz artega egon naz jakin arte: nekerik asko daukazu nigaitik, eta alkarregandik aldentuta ibili bear dogu, zeure aitamakaz bakea euki daizun, baina erruki zaitut, eta berbatxo bi esan bear deutzudaz. Daukazuzan naibageak erruki gogorra sartu dabe nire biotzean, da zeugandik aldentuta ibili arren, beti izango zara nire maitagarria; beti gomuta izango zaitut, eta beti egongo zara nire biotzean. Badakit ondo, Eladitxo, zu aberatsa ta ni nekezalea gareana, ta alkarregaz ezin ezkondu gintzatekezana, zegaitik, zure aitamak, eztabe nai entzun be nire izena, baina nekezaleak inoz aberastuten dira: ganera euren biotzak daukez, sarritan, aberatsak baino samurragoak, eta olan dala, zein alan dala, len esan dodan lez, beti egongo zara Eladitxo, nire biotzean. Agur orain, zeure gurasoak beste burubide bat artuten da-

(21) *Salatu* = Acusar.

ben arte, urrundik ikusikogu alkar aurrerantzean, da urrundik egingotsagu agur alkarri.

Eladitxok ez eban ezer erantzun, baina bere begi baltz ederrak erantzun eutsen negar malkoakaz, Josetxoren berba samurrai: negarrez aldendu zirean biak alkarregandik.

Amazazpi urte ebazan Josetxok, eta amabost Eladitxok.

Eladik eban, Eustaki eritxon izeko bat, bere aitaren arre-bea, ondo maite ebana: oneri autortu eutsazan amagaz igaro jakazan jazoera guztiak, eta izekoak arriturik erantzun eutsan:

—Zer diraustan, Eladi? Josetxo gizajoagaz berbetan egointzalako zapladak emon?

—Bai izeko, ta ganera zemai (22) gogorrek eskini, au ta bestea egingostala, mutil aregaz batuten banaz.

—Nik a morrosko gazte ederra edozeinegaz ikusten dot; bein nekezalien alabakaz, da bestean erriko neskatila apainduenakaz; danakaz gogo argia erakusten dabela.

—Bai ba, ori esan neutsan nik amari, baina zaplada gogor bategaz erantzun eustan. Baita esan neutsan, berari naibagerik ez emotearren, enintzala ni joango mutil aregana, baina bera betorren neugana, ezin esan neiola, zoaz ortik! eta eneiela zeatu (23) olako gertaeretan.

—Neuk arrapaukot bakarrean zure ama, ta egingogu berba auzi orren ganean.

Eladi poztu zan izekoak artu eban burubideaz, da bere bitartez ama bestera biurtuko zan usteaz.

Eustakik topau eban Masima bakarrik egun baten, da esaeutsan:

—Masima, ene alabea, zelako auziak darabiltzuz orain be, Eladigaz? Neke askogaz bizitekoa da beintzat, zeure alabeori!

—Zer entzun dozu, Eustaki? Neu nago naibagez beterik, eta zeresanak dakastazuz ganera?

—Zerenak dira, andrazko andiorrek daukazuzan naibageak? Atxurren ala arrikatza iragoten ibili zara goizean alogera

(22) *Zemai* = Amenaza.

(23) *Zeatu* = Castigar.

irabazteko? Aitatu be egitea nekeak, zereginik eztaukan andre-
ak!

—Eustaki, nekeak lanakaz da lan barik eukiten dira: des-
tainatsu zatoz goizeon, enaz destaina gura, ta esaizu esangozu-
na.

—Esan gurotsut, Eladik amabost urte dituala; eztala ume
gona laburduna, ta adin orretara elduezkero etzeunkeala zeatu
bear zapladakaz, zegaitik, arek bauko orain adimena ezagutu-
teko, erru baga joten dozula.

—Nor izan da, albista orrek eroan deutzuzana? Ziur-ziur
Eladi izango zan, da nik, ara, zatitu egingot etxera datorrenean.
Ikusten dozu a zitala, bere izekori esaten etxeko gertaerak?
Aa... gaur artukoitu ederrak!

—Ez Masima, eztozu joko; berezkoa da izeko kutun bati
orrek gauzok autortutea, ta nire egipidea da, auzi orretan bitar-
teko jarritea, zeure ta bere onerako. Eladik dino, bera eztala
joango inoz mutil aregana, baina mutila badoa beragana, ezin
esan leiola aldenduteko. Zentzun obeagaz, ezin berba egin lei-
ke gazte batek.

—Bai Eustaki, zentzun ohea erakutsiko dau, urreratuten
jakanean, aldendu deiteala esaten badeutso.

—Masima, ori ezin egin leike gizabide ona erakutsi nai
daben gizalabeak (24). Ori okerreriori egin erazoten badeutsa-
zu zeure alabeari, lenago lez, Mundakako gizadi guztia ipiniko-
zu zeugaiti txarto esaten.

—Jesus, au da bakean bizi ezina!

—Zeuk nai dozulako: a mutil ederra ta ekandu onetakoa,
bere adineko neskatila guztiakaz ibilten da egurastuten, neke-
zaleakaz zein aberats ondo apainduakaz; eurak neskatilak bila-
tu oi dabe beragaz olgetako, guztizko ona ta gogo argiduna
dalako. Zegaitik ba, galarazoten deutzazu Eladiri egiten beste
guztiak egiten dabena, olgetako orduetan da lekuetan?

—Eustaki, orrek asmuok onak izan leitekez, baina nik ez-

(24) *Gizalaba* = Mujer.

tot nai Eladi ibili deitean mutil aregaz, da ez eidazu geiago berbarik egin auzi orren ganean.

—Egizu Masima, zeuk nai dozuna, baina olan bada, menpekoak baino errukarriagoa da zure alaba zintzoa.

Berbeta onetan egozala, eldu zan Ermoken, Masimaren senarra ta Eustakiren nebea. Jakiebanean zein asmo ekarren bere arrebeak, esan eutsan:

—Eustaki, etzaite etorri ona barriketetan; ezteutsagu itxi-ko Eladiri, Ondartzako mutilagaz ibilten.

—Zuk esan dozu *aida*, ta *aida* izan bearke da; baina biar edo etzi, erriko gizadi guztiak zeuen kontra, marmar diarduanen, naibageak eukikozuez.

—Inardu deiela, nai daben guztia esaten.

Biaramonean, joan zan Eladi izekoagana jakitera zer igaro zan, bere amagaz egieban ikustaldian, da izekok esaeutsan gogor egozala bere aitamak; ez ebela nai, mutil aregaz batun deitean.

XI

Jose txo Pilotukuntzea (1) ikasten

Jose txoren aitamak, ikusirik mutil au ikastuna zala, artu eben burubidea, itsasorako pilotukuntzea ikasi eragitea; beti menpean ibili ez eitean, da noizbait agintari be izan eitean. Mundakan egoan pilotukuntzea ikasteko ikastolea; erosi ebezan bear zirean iraztiak (2), eta bertatik asi zan ikasolara (3) joaten: urte bi bear zirean ikasmenak amaitzeko.

Masima ta bere senarrentzat, naibage andia izan zan, Jose txo, pilotukuntzako ikasolara sartu zala jakitea; bildur zirean, Eladi ta mutil aren adiskidetasuna, maitetasun biurtuko ete zan, urte bian. Artega ta betilun (4) ebiltzan Ermoken da emaztea, ta euren gorrotuaz, bertatik artu eben burubidea, Eladi biraltzeko Bilboko neskatilen ikastetxe batera, emakumen arazoak ikastera, arik-eta Jose txo, ikasmenak amaituta, itsasketara joan arte.

Eladi, len egon zan urtebete ta erdian olako ikastetxe baten, emakuma arazoak ikasten: orain, errukarria eztoa len ikasi ebazanak barrero ikastera, ezpabere, urte bi gitxienean Jose txo-gandik aldendutera.

Eladiren aitamak esaten eben:

—Diruaz egin al bada, aldendukogu geure alabea, mutil orregandik!

(1) *Pilotukuntza* = Pilotaje.

(2) *Irazti* = Libro.

(3) *Ikasola* = Academia.

(4) *Betilun* = Triste.

Baina, ai *koitauak!*, ez eben gogoratuten, euren gorrotuaren da aberastasunen ganetik, egoala Jaungoikoaren erabagia erruezak zainduten!

Aitamak Eladiri esaeutsenean artu eben burubidea, guztiz ikaratu zan neskatilea au, ta biotzikara errimeaz, erantzun eutsen:

—Josetxok esaeustan bein, etzala nigana urreratuko zeuek nai eztozen arte, da orregaitik uste dot, eztagoala ni Bilboko ikastetxera biraldu bearrik.

Amak, zaplada bat emonaz, erantzun eutsan:

—Ik, ori jakiteko ikusi don Josetxo, ta esan be bai, emen zer igaroten dan.

—Bai, ikusi neban lengo baten, kalean aurrez-aur topa gineanean, da orduan esaeustan usmaten dabela, nire gurasoak eztabela nai nigaz batun eitean, da aurrerantzean etzala batu-ko, gurasoak eta neuk naibagerik artu eztaigun.

—Zegaitik daukaz orrek sinismenok?

—Nik eztakit.

—Zeure izeko Eustakik esan ete dau ezer?

—Eztot uste.

—Zoratu eragin bear deustazue. Olan dala zein alan dala, Bilbora joan bear don.

Eladi joan zan gero izekogana, autortutera zer igaroten zan, da Eustakik arrituta erantzun eutsan:

—Zer diraustan, Eladi?

—Bai izeko, Josetxok pilotukuntzea ikasten diardu: urte bian egon bear dau ikasmenak amaituten, da urte bi orretan adiskidetasun larregi artu eztaidan beragaz, biralduten nabe Bilbora. Ni joango naz, izeko, baina au gurasoen burubideau, artuten dot nekaltasuntzat, eta orregaitik uste dot katigutegi batera noala. Nire gogo iluna ta biotzikarea, uste dot geroago galgarriagoak izango direala, ta Jaungoikoak lagundu deistala neure naibageak ibituten.

Berba onek esan ebazanean, negarrez jarri zan Eladitxo.

Biamamonean, izeko Eustaki joan zanean Eladiren etxera, topa ebazan senar-emazte biak, eta esaeutsen:

—Zuek eztakizue zer egiten dozuen Eladi Bilbora biraldu-teaz, Josetxogandik alhendutearren: eztakizue gisa orretan alkarren erruki izango direana, ta egunaro geituko dana euren adiskidetasuna, alkar ikusita baino indar geiagoaz: egur igarrak batuten zabiltze zeuen asmoak kiskilduteko*, ta oker urtengotsuez burubide guztiok Eladiri isten ezpotsazue ibilten, beste erriko neskatilak dabiltzan lez.

Er.— Bilbora biralduetea erabagi dogu, ta Bilbora joango da.

Eust.— Bai Ermoken, *aida* esan dozu ta *aida* izango da, baina egunen baten, gomuta izangozue nire oarpenak.

Arik irugarren egunean eroan eban aitak Bilbora, ta sartu eban ikastetxean: an geratu zan biotzilaz da negarrez.

Ermoken etxeratu zan biaramonean.

Gero, igaro zirean egunak, asteak eta ilak, Eladiren barri baga: irugarren ilean joan zan aita Bilbora zerbait bilatutera, ta bide batez alabeagana agerraldi bat egitera.

Eladitxo topau eban, ikastetxean sartu zanean baino argalago ta zurbilago, makal dagoan baten antzera; baina aitak itandu eutsanean minez egoanez, ezetz erantzun eutsan gogo ilunaz, itzal da motel, bere begi baltz ederrak lurrera begira ebazala.

Ermoken etxeratu zanean, erazagutu eutsan emazteari, zelan Eladi topau eban argalago ta zurbilago, baina osasunaz; da onek erantzun eutsan:

—Ori argaltasunori errialdatzeak egingo eutsan, da bakizu ikastetxean, eguzki gitxi artuta bizi dirëanak, beti zurbilduten direana.

Arik beste iru ilebetegarrenean, joan zan barriri Ermoken, bere alabea ikustera, ta idoro eban, urrengoan baino itxura txarragoaz. Irakasleak esaeutsan Ermokeni:

—Zure alabea, jan da edan ondo egin arren, egunaro doa argalduten; eztakit zer jazoten dan beragaz.

Ermokenek itandu eutsan Eladiri:

—Zer daukan, olan argalduteko?

—Nik biotzila ta lo egin ezina, etxetik ona katigutegira ekarri ninduenik arrezkero.

—Zer dinon? Katigutegia ikastetxea?

—Bai aita, ni len egon nintzan ikastetxean jakin bear nebana ikasten, da orain sartu nozue katigutegian: ni naz Mundakako neskatila zorigeiztokoena, ezetariko errurik бага; beste guztiak daukez bear dabezan ibilketak, baina niretzat eztago katigutegia baino.

—Arpegia ausikonat, olako barbarik esaten bon!

—Ausi aita arpegia, ta ganera il gura banozu! Olan menpeko zital antzera bizi izateko, obeto da il ainbat arinen, Jaungoikoaren guramenaz!

Eladitxoren negarrak errukarriak izan zirean, orrek berbok, biotz-biotzetik esan ebazanean. *Aida* esaten ebanean, *aida* egitekoa izan arren, aitak erruki gogorra artu eutsan bere naibageak autortu ebazanean, da irakasleari be, negar-antpuloak jausten jakazan bere begietatik. Zein itzal egon zan Eladitxo bere berbaldian, biotzeko naibageak azalduten, argal da zurbil, bere begi baltz ederrakaz!

Ermokenek urten eban kalera, ta ordubetegarrenean biurtu zan osagile bategaz. Onak begiratu eutsan Eladiri burutik bietzetara, ta egieutsazan itaun asko, baina ezieban ezagutu zein geixo eukan. Atzanean esaeban ez eukala biotzila baino beste geixorik, eta bear ebazala egunaroko olgeta ta ibiltaldiak, lagun gogo argikoakaz.

Irakasleak artu eban ardurea osagileak agindu ebana egituteko.

Ermoken etxeratu zan biaramonean, da ageri eutsazan emazteari Eladigaz igaro jakazan gertaerak: Masimak uste eban atxakiak eta asmoak izango zireala aren negarrak eta esate guztiak.

Arrezkero, senarrak nai eban, emaztea joatea Bilbora, ta onek senarra joatea: gisa onetan egon zirean joan бага sei ilebete luze-luzietan, arik-eta Eladiren irakasleak, gizon bat Mundakara biralduta erazagutu eutsen arte, geroago makalago joala alabea, ta ondo izango zala etxeratutea.

Joan zan Ermoken, da etxeratu eban bere alabea, ilaren itxuran, guztiz zurbil, azurra ta azala baino ez eukazala. Ogeratu zan, bere begi baltz ederrak zerbait lausoturik eta zirkin egiteko indar бага. Ai zein ezbardina (5) urtebetean Eladitxoren taiua (6)!

Izeko Eustakik ikusi ebanen taiu aregaz, arriturik negarrez jarri zan, da erruki gogorraz mosu asko emoeutsazan. Eladik esaeutsan:

—Ez negar egin izeko, orain baketsuago dagoz nire burua ta biotza, ta uste dot sendatuko nazala.

—Ai, zein atsegina izango da niretzat!

Eustakik alde egin eban bere neba Ermoken egoan gelara, ta amorruaz esaeutsan:

—Ikusten dok orain, zelan egitu direan nire pekuak*? Orrekaz eure gogorkeriokaz il dok eure alaba ederra! Ezin egin leitekean astokeri andiagorik egin doana baino! Emaztea ta eu, biok alkar artuta, galdu dozue alaba eder ori; andikeri ta arrokeria baino gomuta izan eztozuela, alde eraginik mutil nekezale bategaz batun ezteitean, beste erriko neskatila guztiak batuten direan lez. Jaungoikoak be eztotsuez parkatuko orrek gogorkeriok egitea, ain zintzoa dan alabeari.

—Eustaki, geuk daukagu naibagerik asko jazoera orregaz, da etzaitte etorri naibageau geitutera. Beretzat, ondo gurizanean egin dogu guztia, ta, egia da, oker urten deuskue geure gura-riak. Orain osagileari esan deusagu egunaro etorri deiteala geixoa ikustera, ta guztiok egin bear dogu alegina sendatu deitean.

—Bai, norezekoa* da orain aleginak egitea.

Eustaki, etxe atatik alde egin orduko, joan zan Eladiri agur egitera ta onek esaeutsan egunaro ikustaldi bat egin eiola.

«Bai pozik» erantzun eutsan izekok.

Masima, alabearen taiua ikusi ebanik arrezkero, ebilen

(5) *Ezbardin* = Diferente.

(6) *Taiu* = Aspecto.

gutzizko gogo ilunaz: *errenkura* gogorra sartu jakan bere biotzean. Esaleikean damututa egoala alabeari ainbeste nekaltasun emona.

Laster zabaldu zan Mundaka guztian, Eladi Bilbora biraldu ebela, Josetxogaz adiskidetasun larregi artu ez eien, da naitakeak geixotu ebela. Gizadi guztia ebilen zurrumuru bere aitamakaitik txarto esaten, euren alaba errukarria gisa atan nekalduten ebelako.

Astebetegarrenean igarri jakan Eladitxori zerbait obeto egoala: ilebetegarrenean jagi zan ogetik, etxe barruan ara ta ona ibilteko, indarrak artuten. Jagi ta gero, amabostgarren egunean kanporatu zan, astiro-astiro egurastutera, bere izeko Eustaki lagun ebal.

Lenengo elizara joan zan, Jaungoikoari eskerrak erazagututera osatu zalako, ta orra bertan elizan ikusi eban Josetxo, elizgizonai arazo baten laguntzen ebilela. Josetxok be ikusi eban bera.

Eladiren izeko Eustaki izan zan antxina Juana Mari Ondartzakoren ezagun andia, ta zeian, goiz baten esaeutsan onek:

—Entzuizu Eustaki, egia ete da zure loba Eladi, Bilbora biraldu ebena gure Josetxogaz adiskidetasun larregi artu ez eien?

—Ori dinoe Mundakan, Juana Mari, baina eztakit orregaitik izan bazan.

—Ermokenek eta emazteak, ardura barik eta zaintzaile бага, itxi deioela euren alaba zintzoari ibiltan, beste erriko neskatilak dabilzan legez: Josetxok eta guk, ondo dakigu nekeza-leak gareana, ta eguno etxaku bururatu, Eladi Josetxogaz ezkondu leitekeanik. Ikastetxean batera ibiliezkeroko, arek biak ibili zirean lez, berezkoa da, dauken adiskidetasuna, ta aren bien artean eztago beste asmorik.

—Olako oarpen asko egin deutset nik areri, baina eztot ezer lortu.

—Zoratuta dagozala esan leiteke zure nebea ta bere emaztea: Josetxok esaten deusku eztala inoz joaten Eladigaz berbertara, bildurrez bere aitamak naibagerik artu ezteien.

Alperrik zirean, Eladiren gurasoai egiten jakezan oarpenak: neskatilau sendatu zanean, aztu ebezan len igaro zirean gertaerak, eta barriro galarazo eutsen Josetxogaz batutea ta berba egitea. Urrundik alkar ikusi, ta urrundik agur egiten eutsen alkarri.

Zein zitalkeri egoan Josetxoren ekanduetan Ermoken da emaztea bere arerioak izateko? Zegaitik zan mutil ori, senar-emazte orrentzat, beste erriko mutil guztiak baino txarragoa? Noiz, nun da zetan izan zan erruduna (7)? Inoz bez da inun bez a gizajoa! Beti izan zan esangina, ikastuna ta gizabide onekoa. Ondo ekien a Ermoken da emazteak, baina andikeri ta arrokerien ganera, zerbait ebilen euren artean.

Josetxo ikastun egon zan beti ikastolan. Ikasmenak amaituten ebazanean, iru ostera Amerikara egin bear ebazan, gero pilotu izateko.

Ikasmenak amaitu ta eretia euki ebanean, ontziratu zan Bilbon, da joan zan osterak egitera.

Joango zan aurrean, jaiegun bat izan zan, bere lagun da adiskideai agur egiten ebilenean, ikusi eban Eladitxo be, egurastuten ebilela bere neskabila lagun bategaz: egieutsen agur biai; baina etzituan inok ikusi, begi baltz eder batzuetatik jausi zirean negar-arpuloak.

Josetxok ebazan emeretzi urte, ta Eladitxok amazapi erasti onetan.

Igaro zirean egunak, asteak, ilak, eta urtebete be gertaera barri baga.

(7) *Errudun* = Culpable.

XII

Eladiren senargei bat

Gaztetan Masimaren laguna izan zan Natale eritxon emakuma bat, ezkondu zan Danel izena eban itsastar bategaz: senarrau ibili zan urte askotan itsasontzi bateko buru Amerikatara joan-etorrietan, da etxeratu zan bizitzea eroateko beste diru irabazi ebanean. Onek senar-emazte biok euken Ariston eritxon seme bat, mutil ona, ogetalau urte ebazana; pilotukuntzea ikasi, Amerikatara osterak egin, azterpenetan^{*} ondo urten, da pilotu edo bigarren agintaritzarako eskubidea eukana.

Natale ta senarra, antxinatxotik joaten zirean noizik beinean Masimaren etxera, ikustaldiak (1) egitera, ta Masima ta senarra be joaten zirean Natalenera; emazteok antxinako lagunak zirean lez, inok ez eban uste besterik, ezpada, lenagoko adiskidetasunaz jarraituten ebela, alkarri ikustaldiak egiten, bein etxe batera ta urrengoan bestera. Atzeneko urtietan, onek ikustaldiok egiten ebezan geroago sarriago, arik-eta egunarokoak izan arte. Batzuk eta besteak ebiltzan beti gogo argiaz, da Eladik be txera ona egiten eutsan Nataleri.

Josetxok alde egin da amalau ilebetegarrenean, etxeratu zan Nataleren seme Ariston, etxeraldi bat egitera, ta etxadi (2) biak, len legez, jarraituten eben egunaroko ikustaldiak egiten. Ariston bere joaten zan Masimenera bere aitamakaz, da guztiak ebiltzan gogo argiakaz.

Aristonek, eretia euki eban egun baten, esaetsan Eladiri:

(1) *Ikustaldi* = Visita.

(2) *Etxadi* = Familia.

—Eladi, zeugaz ezkondu nai neuke; asmo orregaz etxeratu naz, da neuk dakit ziur-ziur zure ta nire aitamak gogo-betea daukena asmo orretan.

Eladitxok, biotzikara zolia euki eban Aristonen berbak entzun ebazanean; oso zurbildurik jarri zan, da Aristonek, lotsatu zalakoan, esaeutsan:

—Ez lotsatu, Eladi: ezkontzako adina baukagu, ta gauzak euren erastian zuzendu bear dira.

—Ariston, eskerrak erazagututen deutsudaz zeure guramen onagaitik, baina nik eztaukat oraindino ezkontzeko gogorik.

—Noiz ba? Amazortzi urte igaroezkero zeren begira edo zer itxaroten egongo zara?

—Itxaron gogoia etorri arte.

—Noiz eukikozu ba gogoia?

—Ori Jaungoikoak baino bestek eztaki.

—Itxarongo neuskizu urtebete edo bian.

—Eskerrik asko, Ariston; ez niri itxaron, zegaitik, urte askotan, bearbada, eztot ezkontzeko gogorik eukiko.

—Ezkonduko gineala uste izan dabe ba, bioren gurasoak.

—Olan izango da, baina nik eztaukat gogorik.

Orra orain, estalkia (3) kendu zanean, agertu zirean argitara ilunetan ebiltzan asmoak. Masimak eta senarrak nai eben Eladi Aristonegaz ezkondutea, ta orregaitik egozan bildurrez Josetxogaz maitetasuna artuko ete eban. Eladik laster aditu ebazan onek naste guztiok, eta argi-argi ikusi eban, zegaitik izan zirean emoeutsezan nekaltasunak, eta zegaitik aldendu gura eben beti Josetxogandik.

Aa... zein geiztoak dira andikeriak!

Josetxo, Masimen agoan, zan, baserritar, dirubako ta nundik norakoa zan inok ez ekiena.

Ariston zan erritarra diru apurtxoaz.

Baina erriko gizadi guztiak ekian ondo, Josetxoren gizabidea ta egitasunak Aristonen goitik ebiltzazana: ganera entzute

(3) *Estalki* = Cobertor.

andiko mutila, ta bestetik euskalduna zan lez, jatorri onekoa, Masimaren ezbai (4) guztien ganetik: eta orduan ezpeukan dirurik, geroago izan leitekean askoren jaube.

Onek gauzok olan izan arren, Masimak eta senarrak euken arrokeriaz zelan artuko eben dirubako baserritar bat euren alabearen senartzat? Apalkeri (5) andia izango zan ori euren andikerientzat! Burutasun onekaz, beti andi-irudiak izatearren, emoeutsezan Eladiri ainbeste naibage.

Aristonek etxeratu zanean ageri eutsen aitamai Eladigaz euki ebazan berbak ezkontza asmoan, da mirariturik lotu zirean Eladiren burubideaz; uste eben, euren semeari aida baten erantzungo eutsala baietz, biotz samur-samurraz.

Natale joan zan bertati*, Masimari esatera gaztiak alkarregaz egin ebezan berbak, eta onek jakiebanean bere alabeak ez ebalan nai ezkondu, guztiz aserre jarri zan, da Nataleri esaeutsan:

—Eztabela nai? Bai beintzat!, ezkondu bearko dau lotsabaga orrek: noiz eukiko dau ereti ohea senar on bat artuteko?

—Egia da, Masima; Ariston gurea baino senargei (6) obarik eztau topako, ta nik eztakit zer uste daben neskatila orrek.

—Ermokenek eta neuk estutukogu gaur etxeratuten danean, da uste dot aldatuko (7) doguzala buruan darabiltzan asmoak.

—Agur Masima, zeuek erabagikozue auzi au.

—Bai Natale, etorri zaite biar zer jazo dan jakitera.

Eladi etxeratu zanean, deitu eutsan amak gela batera, ta esaeutsan:

—Entzuin, Eladi; Aristonek egin ei don berba ezkontza asmoan, da eztaukanala ezkontzeko gogorik erantzun ei deutsan. Egia don?

(4) *Ezbai* = Duda.

(5) *Apalkeri* = Bajeza, humillación.

(6) *Senargei* = Novio.

(7) *Aldatu* = Cambiar, mudar.

—Bai, nik erazagutu neutsazan neure eskerrak bere guramen onagaitik, baina esan neutsan oraindino eztaukadala senarra artzeko gogorik.

—Zer uste don ba? Noiz eukikon eretia gisa atako mutil bategaz ezkontzeko?

—Bai ama, mutil ona izango da, baina nik eztaukat oraindino senar bearrik.

—Aldatu bearikon ori zentzunbako burubideori, ezkondu eitean etxadi oneko ta dirudun mutil orregaz: ez ein esan ezetz, zegaitik, nai ezpon, nai ta nai ez ezkondu bearikon Aristonegaz.

—Ni ama, guztiz naibagetuko naz, nai ta nai ez ezkondu gura banozue: nik eztaukat orain arte senar gurarik, eta Jaungoikoagaitik, apaltasun andiagaz, eskatuten deutsuet gurasoai, itxi deistazuela bakean auzi orretan.

—Orain ezpada, esan bear don, noiz nai don ezkondu mutil orregaz.

—Nik eztakit ama, noiz ez nogaz ezkonduko nazan; ori Jaungoikoak daki.

Au erantzun ebanean, amak emoeutsazan zaplada gogorrrak.

Onetan egozala, etxeratu zan Ermoken, da aitamak, bien artean, egin ebezan aletinak, Eladi euren gogamenera biurtuteko, baina dana alperrik.

Onek autuok amaituta, Eladitxo joan zan izeko Eustakigana egun atako auziak autortutera, ta onek, errukiz beterik, entzun eutsazan gertaera guztiak, eta erantzun eutsan:

—Orduan ire aitamak eta Natale alkartuta egon dozan, iri Aristonegaz ezkondu eragiteko.

—Bai, izeko.

—Orra zelan argitu dan aitamakandik artu dozanan nekaltasun da naibageen etorbidea (8).

—Bai izeko; bearbada, naitasun onaz egingo ebezan gauza

(8) *Etorbide* = Origen.

guztiak, baina ni ondo nekaldu nabe, ta uste dot oraindio nekalduko nabela.

—Gerotxoago joango non, eure aitamakaz berba egitera, auzi orretan bakeak egin al botaz ikustera.

Joan zan Eustaki, ta Eladiren aitamai esan eutsen:

Eust.— Zer darabiltzue orain be Eladigaz, nai ta nai ez, Aristonegaz ezkondu eragin gurarik?

Mas.— Zer ba, noiz da nun idoroko dau senargei oberik? Eladi joan da zugana orain be zeure belarriok albista barriakaz betetera. Orrexegaitik artukoitu zaplada galantak; zuk sendatuten dozuz aren naitasun guztiak, eta zugana doa beti laguntasuna bilatutera, baina eztau egingo berak nai dabena.

Eust.— Gogorik ezpadauko senarra artuteko, zegaitik, nai ta nai ez artu eragin bear deutzazue?

Erm.— Senargei oberik artuteko, eretirik eztabelako euki-ko.

Eust.— Ori Jaungoikoak daki, Ermoken: nik eztot adituten, zek estututen zaituezan orrenbeste, nai ta nai ez oraintxe ezkondu eragin gurarik: alaba bakarra dan lez, luzaro bizi bada, zuen ondasun guztiak beretzat izango dira, ta zein ezkondata zein ezkondu бага, eztauko ezer бага geratuteko bildurrik.

Mas.— Bai, baina senar onaz obeto.

Eust.— Larregi estututen bozue alabea, bariro geixotukozue naibagepean. Bera da, ezkondu danean bere senarragaz bizi bear ko dabena, beragaz negar da beragaz barre egin bear ko dabena, ta zegaitik bear dau ezkondu, zuek nai dozuenagaz da zeuek nai dozuenean? Ori ezin izan leiteke Jaungoikoaren agindua; ezkontzeko gogorik ezpadauko, dagoala ezkongei nai daben arte. Gero, ezkondu gura dabenean, artu nai badau senargei deunge edo ekandu txarretakoa, orduan egingo jakaz bear direan oarpenak: bitartean, itxi auzi orretan, bere guramena egiten, naibageakaz il ezteizuen zeuen alaba onbidetsua (9).

Mas.— Alperrik dira Eustaki, zure berbaldi ta akiakuleak (10); laster noa Solozabal abadeagana, autortutera zer jazo-

(9) *Onbidetsu* = Virtuoso.

(10) *Akiakule* = Pretexto.

ten dan Eladigaz, da eskabidea egiten, biurtu deiela aitamen guramenera. Abade orrek, ondo dakiz, olako auziak araututen, da ikusikozu zelán, Eladiren biotza ipiniko dabén samur-samur, esangina izan deitean bere gurasoakaz.

Masimak au esaebanean, Eustakik, agur egin, da aida baten joan zan Solozabal abadeagana, autortutera gertau zirean lez, Eladiri aspaldian igaro jakazan gertaera guztiak, jakitun egon eitean, Masima aurkeztu orduko (11).

Biaramonean joan zan Masima abadeagana, berak nai eban lez erazagututera Eladiren edesti guztia, ta eskabidea (12) egiten, biurtu eiela aitamen guramenera.

Abadeak entzun ebazan Masimaren autu guztiak, eta eran-tzun eutsan:

—Entzuizu Masima, alabea ezin ezkondu zineike bere guramen baga: elizaragino eroangozu lotuta be, baina abadeak itanduten deutsanean Ariston artuten dabén senartzat, ezetz erantzunaz, azpiratuko ditu zuen guramen guztiak, eta lotsagarria izango litzateke senargeientzat eta bere aitementzat. Ganera, biar edo etzi, senar-emazte orren bizitzea, zorigeiztokoa izango balitz, zeuek eta neu izango gintzakez errudunak, eta eukiko genduke errenkura gogorra bizi garean arte. Bera da senarragaz bizi bear ko dabena, ta uste dot, ez jakola ezkondu eragin bear, berak nai ezabela amazortzi urteko neskatileari.

—Naibage alatsuak izangoguz ba etxean, Solozabal jauna, Aristonegaz ezkontzen ezpada.

—Naibagerik ez, zeuek nai ezpozue: zuek aberatsak zarie, ta zuek ez zuen alabeak, eztaukazue ezetariko preminarik, bake-bakean, Jaungoikoa maitetuaz, ondo bizitea baino.

—Bai, baina bildur gara Ondartzako mutilagaz maitetasunik ete daukan: ezkeunke gura senartzat artu deien, nondik norakoa dan eztagigun mutila.

—Urrun daroazu Masima, zeure irudimena (13); Ondar-

(11) *Aurkeztu* = Presentar.

(12) *Eskabide* = Súplica.

(13) *Irudimen* = Imaginación.

tzako Josetxo gaztea da oraindino, da lurbira onetan gauza asko jazoko da, arek ezkontzeko burutasuna artu orduko. Ganera, guztiok dakigu a mutila, ikastuna, esangina ta egikorra (14) dana, dabilen leku guztietan, da zorionean badabil, urte batzuetan izan leiteke diru askoren jaube. Bere jatorri (15) edo etorbidea, ona izan bear dau: umetan, agertu zanean, euskera garbiak zirean bere berbak, eta euskalduna beti da etorbide onekoa. Begiramen onekaz, eztozue zetan euki mutil aren bildurrik, ez mutil ari gorroturik: Jaungoikoak bakarrik daki, nun da nogaz ezkonduko dan Josetxo ta nor izango dan, zure alabearentzat, senarrik onena.

Masima, bere gogamenak lortu ez ebazanean, agur egin abade jaunari, ta joan zan etxera moteldurik: etxakazan ederreksi abadearen oarpenak, gauza guztien ganetik nai ebalako Eladi ezkondu eitean Aristonegaz.

Aitamak, beste estualdi bat emon bear eutsen oraindino Eladiri ikusteko biurtuten bazan euren aldera. Amak eroan eban gela batera, ta esaeutsan:

—Berbea emon bear deustan, Aristonegaz ezkonduko azala, ostarantzean ilgo aut egunen baten.

—Ama, nik eztaukat ezkontzeko gogorik, eta ezin emon neizu berba ori.

Lau zaplada zoliak emoeutsazan amak, eta barriro esaeutsan:

—Bilbo edo beste leku bateko ikastetxe batera biralduko aut, bizi azan arte.

—Ama, zeuk nai dozun lekura, zeuk nai dozunean: edozein tokitan, da edozelan, biziko naz etxe onetan baino naibage gitxiagoaz: nekalak* eta zemaiak baino eztaukazuez niretzat!

Beste zaplada gogor bi emonaz, erantzun eutsan amak:

—Zein deungetasun dauko ba Aristonek, senartzat ez artuteko?

(14) *Egikor* = Activo.

(15) *Jatorri* = Origen.

—Ariston mutil ona da: neuk eztaukat orain arte ezkontzeko gogorik, aregaz ez bestegaz.

—Josetxo Ondartzakogaz eukikozan ik eure maitetasunak, eta orregaitik izango dozan ire akiakule guztiak.

—Nik, Josetxogaz, ikastetxean batera ibili gineaneko adiskidetasuna daukat.

—Bai, ik aregaz, nundik etorri zan ez nungoa dan eztakigun mutilagaz daukan ezkontza berbaren bat emonda, baina noizbait gomuta izangozan eure aitamen oarpenak!

—Nik ezteutsat Josetxori eguno aitatu ezkontza berbarik. Ni, adimenbakoa izan nintzan, aregaz adiskidetasuna artu nebanean.

—Baina orain, adimenaz be maite don.

—Len legez beti: niri ezteust egin inoiz gauza txarrik, eta ganera, eguno beragaitik eztot entzun besterik, guztizko gizabide onekoa dala baino.

Eladik onek berbok esan ebazanean, an urrean egoan izuzkien girtenez*, jo eban amak Eladi burutik bera, ta itandu eutsan amorru gogorraz:

—Ezkonduko az Aristonegaz?

—Ez; gaztea naz oraindino senarra artuteko.

—Egingon gurasoen esana?

—Ez ama, orretan ez; beste edozetan bai.

—Joan adi ba gure etxetik, nai doan tokira!

—Agur ba, ama!

Joan zan Eladitxo izeko Eustakigana, beragaz bizitera, ta egun atan egon zan negar da negar, negar egiteaz aspertu ezinik.

Eladik izekori iragarriten eutsazan gurasoakaz ebazan gertaerak, bakealdi bat emotearren bere biotz nekatuari, ta izekok lagundu eion auzi orretan: baina izekoren oarpenakaz, entzungorrek (16) zirean Eladiren aitamak.

Eladiren etxeko neskamekanik, jakiten zan erri guztian, etxe atan igaroten zirean auziak.

(16) *Entzungor* = Oídos sordos.

Eustaki joan zan bere nebearen etxera, ta senar-emazte biai esaeutsezan agoratu jakazan berba guztia, eta ganera:

—Zuen alaba zintzoak, eztau zuen artean bizi bear, zuen gogorkeriak artuten egunaro; zuek baizen maite dot, maiteago ezpot, eta neugaz biziko da bake-bakean nai daben arte!

Erm.— Bizi beite zeugaz.

Mas.— Bai, ezteiteala etorri gure etxera.

Eust.— Ezta etorriko zeuek bilatu arte.

Onik bigarren egunean, erriko gizadi guztia ebilen zurrumuru, inundik direan berba txarrak esaten, Masima ta senarraren kaltez, igaro zirean jazoerakaitik. Irakurleak lendik ezagututen daben atso sorginak, esaeutsan Masimari, ekinean egoala erri guztia, eurakaitik esaten, arro, andigurako, geizto, errukirik ez tamalik bako, gogorkeriak eta astokeriak baino besterik eztaukenak direala, euren alaba onbidetsuentzat.

Masima, artega ta gorrotu andiaz jarri zan, arek berbak entzun ebazanean.

Baita Ariston da bere aitamak be, naibagez beterik egozan gertaldi onegaz; uste eben, Eladik Aristoni erazagutu eutsanean, bein da birritan, bere guramena, orduantxe, aida baten, amaitu bear ebezala ezkontza asmoak, zurrumurrurik errian egon ez eitean.

Natale, Aristonen ama, joan zan Masimagana, ta esaeutsan:

—Masima, eskerrik asko zeure aleginakaitik, baina alperrik da Eladiri naibage geiago emotea: ondo erakutsi dau bere guramena, ta etxera ekarri bear dozu ainbat arinen, minarinak isildu daitezana.

—Ez etxera, ondo dago bere izekogaz, da egon deiteala bertan luzaro, aitamen esanera biurtuten dan ikusi arte.

—Ez eizu sinistu ori, a ezta biurtuko: Ariston gureak naibage andia dauko Eladiri estutasun larregi emon jakalako: buruan sartu jako Eladik eztaukala ezeren errurik, lenengo egunerik erantzun ebalako ez eukala oraindino ezkontzeko gogorik. Ikusi dogu, Masima, ezin egin leitekeala nai izan doguna,

ta artu daigun oarpena: amaitu dira gure ezkontza asmoak, eta etxeratuizu Eladi, agoak isildu daitezán.

—Ez, eztot etxeratuko luzaroan.

—Egizu ba zeuk nai dozuna. Agur, Masima.

—Agur, Natale, len lez jarraitukogu geure ikustaldiakaz.

—Bai, etorri gura dozuenean.

—Baita zeuek be.

Arik astebetegarrenean, mutil gazteak, gau eder baten, Eladi bizi zan etxe aurrean, kanta ebezan urrengo doazan koplak:

Zerua garbi, izarrak zoli,
Iragi argi-argia,
Nun zagoz neska begi-baltz eder,
Guztiz errukigarria.
Jaurtizu urrun alde batera,
Zeure naibage guztia,
Zarealako, bai Eladitxo,
Danoren maitagarria.

Guramen бага, nai eztozula,
Ezkondu eragitea,
Itsumendiko langilena da,
Olako burubidea.
Zentzunbagako egitasunak,
Beti dakar naibagea,
Naibageakaz biziezkeró,
Urrengo dator lurpea.

Ai Eladitxo! Zeinbat zaplada!
Zeinbat larri ta atsekabe (17)!
Uste izan dabe, etzineala,
Zeure biotzaren jaube.
Baina, nai artu nekaltasunak,
Nai dala beste naibage,

(17) *Atekabe* = Aflicción.

Zure biotza, zeurea dala,
Oingoan ikusi dabe.

Deunge bat legez bota zaitue,
Kanpora zeure etxetik,
Erdu Eladi geure etxera!
Dinoe ortik-emetik.
Erdu geurera entzuten dozu,
Edozein kaleartetik,
Maite zaituguz emen guztiok,
Biotzen barru-barrutik.

Zeruetatik etorri jatzu,
Eladi zuri indarra,
Sendatasunaz amatateko,
Arerioen txingarra (18).
Baita ganera, artu eztaizun,
Nai eztozula, senarra,
Alantxe oso ibitu daizun,
Egunaroko negarra.

Zeure senartzat zeuk artukozu,
Dozuna zeure gogoan,
Alan Eladi esango dozu,
Ezkonduteko orduan,
Auxe gura dot, neure senartzat,
Auxe dot neure buruan,
Negar zein barre, senar onegaz,
Egin gura dot *munduan*.

Onek koplok, laster ikasi ebezan erriko gazte guztiak, eta luzaro ekieutsen kalietan kantaten.

Eladiren aitamai, zoratu bear jaken gorrotuaz, koplara orrek zuzendu ebazanen aurrezka (19). Igaro zan, Eustakik egun batzuk aurrerago oartu eutsen guztia: eurak batu ebezan egur iga-

(18) *Txingar* = Brasa de fuego.

(19) *Aurrezka* = Contra.

rrak, euren buruak erretoko: euren arrokeriak eta nai ebena egin gureak, eukezan itsuturik. Kopla orrekaz biotza taupadaka eukenean, gomuta izaten eben Natalek esaeutsena, ainbat ari-
nen etxeratu eielalabea, minarinak isilduteko. Bestetik, Aris-
ton da bere aitamak, egozan guztiz artega, koplak entzun da
ezagutu ebezanean; damututa mila bidar, Eladigaz ezkontza as-
moak erabili ebezalako ain gogo beroz. Esaten eben Masimak
eukala errua, ziurtuten eutselako lortuko ebala Eladi Aristone-
gaz ezkontutea.

Orrek auziok, eta auzien osteko kantak eta zeresanak, go-
goangarriak izan zirean etxadi bientzat: Eladiren guramena ja-
kiebenean, eroapena artu ez ebelako, izan zirean naibage guz-
tiak.

Ondartzako Txomin-txiki ta emaztea be, arriturik egozan,
Eladigaz bere aitamak egin ebezan gogorkeriakaz: erruki gogo-
rra artu eutsen neskatila orri.

Erriko emakuma guztiak zirean aserre, Eladi gurasoak
etxeratuten ez ebelako: egun baten, Ermoken topau eban kale-
an emakuma zarkote, bere antxinako neskatila laguna izan zan
batek, eta esaeutsan:

—Ermoken, emazteak ala euk daroezak galtzak etxean?
Zentzun geiagokoa azala uste izan dot: iruderra (20) az, baina
etxean oiloa, emaztea izangok nagosi, galtzak daroazana. Zer
egiten dok, kokoluorrek, a alabatxo Jaungoikoarena etxeratu
baga?

—Alabea leku onean dago, Benantzi.

—Bai, toki onean dago, baina ez bere etxean, da emeko
agoetatik sapoak urteten dabe, ire ta emaztearen kaltez. Eroaik
arin etxera, isildu deitean ekinaren ekina!

—Bai, Benantzi, orixe egin bear dogu.

—Agur ba, Ermoken.

—Agur, Benantzi.

Ermokenek ikusirik eurentzat lotsagarriak zireala igaroten

(20) *Iruder* = *Vistoso*.

zirean naste ta gaizbideak (21), etxeratu zanean, esaeutsan bere emazteari:

—Masima, Eladi etxeratu bear dogu, minarinak isildu deitezan: adimen argiaz neurtuezkero gure alabearen egitasuna, ikusiko dogu, ez eukala berak, igaroten gagozan naibagearen errurik. Berezkoa da emakuma batzuetan, amazortzi urtegarrean senargura ez izatea, gaztiegi euren buruai eritxitea, emaztearen egipideak artuteko. Geuk daukagu errua Masima, nai ta nai ez, bere guramenari jaramon baga, ezkondu eragin gura izan deutsagulako.

—Nik enuke ekarriko luzaroan, ikasi deien, aitamen esana egiten.

—Eladik esaeban, gurasoen agindu guztiak egingo ebazala, baina ezkondu ez oraindino.

—Zu bere, aldatu zara, Ermoken, zeure gogamenetan, da joan zara alabearen aldera: zeure arreba Eustakik, egingo ebaizan orrek lanok, baina nik eztot nai Eladi etxeratu deitean oraindino.

—Ez eizu ezetz esan Masima, zegaitik lotsagarria da erri onetan dabilen ekinen ekina gure aurrezka.

—Ekin deiela nai dabena esaten.

—Masima, oraintxe ziurtuten dozu, emakuma batek lenxtoago esan deustana: gurean emazteak darabiltzala galtzak, eta ni oilo bat nazala.

—Nor izan da, ori esan deutsun lotsabagea?

—Ori eztozu zetan jakin, baina egia esan dau.

—Jakin gura neuke orraitino; topauko neukean lekuan, arpegiko narrua urratuko neuskio.

—Bai, leku onera joango zinate: berak eratziko* leuskizu laster arpegiori; mutil ona da bera lexiba joten!¹

—Ezin jakin leiteke nor dan lexibera ori?

(21) *Gaizbide* = Escándalo.

¹ *Lexibea jo*: zartadak emon.

—Ez, ori eztozu zetan jakin: arek egia esan dau, zegaitik, oraintxe be ikusten nago, zelan gauza guztietan nagosi izan gu-rozun, da ori ezin izan leiteke. Esan dot alabea etxeratu bear dala, ta oraintxe noa, zuzen-zuzen, bilatutera.

—Zoaz nai bozu, baina, ona datorrenean, zaplada galantak artuko ditu.

—Ez ori, eztozu alabea joko: geu izan gara, geure gogame-na egin nai izan dogunak, eta geu gara jazoera guztien errudu-nak.

—Or ikusiko da, zer igaroten dan.

Joan zan Ermoken alabea bilatutera, ta etxeratu eban. Or-duan, amak esaeutsan Eladiri:

—Baator politori? Ez az obeto egon eure izekogaz?

—Etxetik bota ninduzuen, da nunbait egon bear neban.

—Egin don, euk nai izan donan guztia, ta pozik egongo az orain.

—Ni ez pozik; naiago neban arek lotsagarrizko zeresanak barik, amaitu izan bazirean ezkontza asmoak.

—Eugaitik izan dozan auzi guztiak.

—Ez ama, nik argi ta garbi erazagutu neban neure gura-mena, ta orduan amaitu bear zirean ezkontza asmoak eta gora-berak. Etzan alan egin, da orregaitik etorri zirean naibageak, Aristonen etxera ta gurera.

—Ikusikogu biar edo etzi agertuten bon, Ariston dan lako mutil bat.

—Ama, orretan, Jaungoikoak nai dabena izango da.

Ariston, ezkontzeko gogoaz joan zan etxera, aginpidea eban ontziak Amerikara ostera bat egin arte, ta urrengo noiz etxeratuko zan ez ekian lez, nai eban ezkondu ontziratu ordu-ko. Aristonen amak iragarri eutsan Masimari, bere semearen gurari au, ta onek aukeratu (22) eutsan Eladiren lagun Antselma, ogetabigarren urtean ebilen neskatila galant egikorra, elizalea, ta mila dukat ezkontsari eukazana, Masimaren lengusina baten alabea.

(22) *Aukeratu* = Elegir.

Aristonek ezagututen eban Antselma, Eladigaz adiskidetasun artu ebanik arrezkero, ta ederretsi jakan neskatila ori. Aristonen da bere gurasoen eskubideaz, Masimak berberak egieutsan berba Antselmari, ta onen aitamai, ezkontza orren ganean, da guztien baimenaz ezkondu zirean, Eladigazko jazoerak igaro ta ile bigarreanean.

Ezkontza oneaz, amaitu zirean zeresanak, eta gogo-argitu zirean Eladi ta bere aitamak.

XIII

Jose txo katigu Mexikon

Jose txo ebilen itsasketan bere itsasgoa egituten, «Tiburtzi» eritxon ontzi eder baten: ontziburua edo aginpidea eukana, zan, Pastor izena eban gizon zimelkote*, sarri makalik egoten zana, ta bigarren agintaria edo pilotua zan mutil eder, ulegorri, indartsu, Ezekel eritxona.

Irugarren Amerikara osteran, joan zan «Tiburtzi» Habana, ta emetik, Matamoros eritxon Mexikoko itsasbazter batera, oialgeiak* zamatutera. Itsasertzetik urre samar geratu zan ontzia, bere ankila-kateakaz lotuta. Batetik Pastor makalik ebilelako, ta bestetik Ezekelek arazo asko eukalako, Jose txo biraldu eben errira, batelean, lau gizonegaz, ontziko argitasunakaz ango nagosiagana aurkeztutera.

Matamoros eritxon uria, egoan urruntxo, ibai (1) luze baten, leor barruan; da itsasertzean, ibaien sarreran, egoan Kortina eritxon erri txikitxo bat: erri onetara joan zirean Jose txo ta bere lagunak.

Orduan, lurralde atan, España ta Mexikotarrak euken gudu gogorra alkarregaz, da Jose txo ta bere lau lagunak, sartu ebezan katigutegian Españarrak zirealakoan, zegaitik, ain zuzen be, Kortina eritxon erri ori, Mexikotar gudulariz beterik egoan egun aretan.

Españar guduontzi bat egoan «Tiburtzitik» urre: an ez egoan beste Españar gudularirik; urrun leor barruan ebilen gudu zoli. Orduak joan, orduak etorri, Jose txo, lagunakaz, etzi-

(1) *Ibai* = Río.

rean agertuten: ilunabarrean agertu etzireanean, bildurtu zirean «Tiburtzikoak» zer jazo ete jaken, da guztiz artega, leorrenantz begira egozala, estaldu ebezan gabeko iluntasunak.

Biaramon goizean, ikusirik batela etzala agiri oraindino, usmau eben jazoera okerren bat igaro jakela: jaurti eben uretara beste batela, ta Ezekel, gizon bi arraunketan ebazala, joan zan Españatar guduontzira, ango nagosiari erazagututera zer jazoten zan errira joan zireanakaz.

Txatxarra zan Españar guduontzia ta ez eukazan berrogetabi gizon baino guztitan; etzan azartuten leorrean egozan Mexikotar gudulariai esetsiten. Mexikotarrok ez euken gudulari antz andirik, soineko zar birrinduakaz, batzuk oinetako бага, besteak urratuakaz, da guztiak iskilu zar ugertuakaz: indar andirik etzan bear arek azpiratuteko, baina gudu-ontziak gizadi gitxi eukan leorrera biralduteko, ta nagosiak esaeutsan Ezekeli:

—Emen gudua daukagu, ta or leorrean dagozan Mexikotarrak, katigutuko (2) ebezan zuen gizonak; gaur arratsaldeon urtengot emendik, eta joango naz, Españarrak geuganatuta daukagun itsaserri^{*} batera, ta andik biraldukot jazoera orren albistea, Matamorosen daukagun nagosienari. Erazagutuko deusat, zelan Kortinan daukezan katigu bost Españar ontzi batekoak, eta alik arinen joan deitezala gudulariak arek bostak jaregitera. Ni aldenduten nazanean, emen bazagoze, katigutuko zaitue orrek leorrean dagozan gudulariok: ostuko dituez ontziko gauza guztiak, eta eztakit zer egingo daben zeuekaz da ontziaz. Bildur onegaitik, ni itsasora noanean, artu ankilea, ta belan jarri bearkozue, berton ibilteko, bein kanpora ta bein barrura, arik-eta neu etorri arte: ta begiratu beti leorrerutz, batela agertuten bada, ikusi daizuen.

Orduan, danak zirean oialdun ontziak, aizeaz osterak egi ten ebezanak.

—Ondo da, jauna —erantzun eutsan Ezekelek.

Guduontzia joan zan kanpora ta estaldu zan zeru-barrenean: aize ona eukan bere osterarako.

(2) *Katigutu* = Apresar.

«Tiburtzik», jaso eban ankilea, zabaldu ebazan belak, eta aize ibitu ta eguraldi onakaz ebilen, bein itsasorantz, da bein leorrerantz, leku atatik asko aldendu бага, begira beti agertute eta zan batela, Josetxo ta lagunakaz.

Habanatik urten ebenean ez egoan oraindino gudu barririk; orregaitik biraldu eben batela leorrera. Pastorrek, bere makaltasunaren ganera, naibage mingarriak eukazan Josetxoren jazoereaz; beti ezbaian, katiguturik ete egozan, ala il ete ebezan bost gizonak. Amaituten joazan ontziko janari ta edariak, Habanan Mexikora arte artu ebezanak, eta laster aurkituko zirean elikaturaren preminan. Zer jazoko zan, luzaroan joan ezin bazirean leorrera? Atsekabe asko igaro bear eben, laster ezpetorren Matamorosen egoan Españar gizateria, Kortinan egozan Mexikotarrai alde eragitera.

Olan igaro zirean bost egun, bost urte luze-luzeak irudi izan ebenak. Seigarren egunean, gudu-ontzia osteratik eldu zanean, alik arinen alde egieban Kortinan egozan Mexikotar gudulariak, albistea euki ebelako, urre etorrela Españar gizateria eurai esetsitera. Alan zan izan be; ilundu orduko sartu zirean Kortinan, da atara ebezan katigutegitik, Josetxo ta bere lagunak: jaurti eben uretara leorrean egoan batela, ta ondo pozik joan zirean euren ontzi «Tiburtzira».

Biamamonean, Españarrak itxi ebezan Kortinan berreun gudulari, ta enparauak, joan zirean osterata Matamorosera.

Josetxok albista onek etxera biraldu ebazanean, egozan itxaroten gudua amaitu arte, ontzia zamatuteko. Irugarren ilebeteen urten eben andik Englandarako, ta gero jarraitu eben Bilbora.

Josetxo etxeratu zan, bere ikasgoa* egitura, joan zanean baino gorputz andiagooz, da guttiz mutil ederra. Urte bitan ibili zan osteretan, da orain ebazan ogetabat urte.

Etxeratu ta amabostgarren egunean, aurkeztu zan Bilboko azterpenetan (3), da artu eban bigarren agintari edo *pillotu* izateko eskubidea.

(3) *Azterpen* = Examen.

Urrengoan, egin bearko ebazan bost ostera Amerikatara, ontziburu izateko azterpenetara aurkeztuteko.

Orra, etxean barriro, Masima ta senarraren arerioa, *pillotu* bihurturik, eta mutil ederra.

Lengo gorrotua ete deutse orain be? *Pillotu* izateak, irabazbidea egiatuteak, eta betiko gizabide onak, ez ete deutsez estaldu Josetxori, Masima ta senarrentzat euki ebazan zetakak (4)?

Aurrerantzeko gertaerak erantzungo dabe!

Josetxori, bere aitamak erazagutu eutsezan, Aristonegaz, Eladigaz da euren aitamakaz jazo zirean lotsagarrizko auzi guztiak, eta zelan gizadia egon zan Masima ta senarraren ala (5), Eladiri erru baga emoeutsezan naibageakaitik: aitak emoeutsazan koplak be, ikasteko.

Josetxo, arriturik lotu zan jakiebazan jazoerakaz, da len baino erruki geiago Eladiri arturik, erantzun eutsan amari:

—Zer egin dot nik ama, beti-beti, andra Masimak eta senarrak izan deisten gorrotua? Zer egin dau Eladitxok, gisa orretan beti naibagepean erabili deien? Nire jatorria, au dala, ori dala ta bestea dala? Ai zein burutasun geiztoak! Nun da nogandik jaio zirean Ermoken da emaztea? Entzutea daukadanez, bata, portuko jausten egoan etxe zar baten jaio zan; bestea labaondoko artoz beterik egoten zan gela zikin baten; biak nekezale onen umeak. Nik eztakit orain arte, guraso entzute andi-koakandik, jauregi eder baten jaioa banaz be; baina dana dala, orrek jatorriok, nire ustez, eztabe ezer esan gura: gizabide ta egitasunak dira neurtu bear direanak gizaseme ta gizalabetan. Alagalako akiakuleak eta nire gizabidea ondatu gurako asmoak darabilez nire arerioak! Baina Jaungoikoa dago beti bitartean, da berak erabagiko dau, zer gertauko dan Eladigaz da nigaz, lurbira onetan igaroteko daukaguzan egunetan: esan deizela nigaitik, nai dabezan zitalkeri guztiak, baina, alan da guzti

(4) *Zetaka* = Mancha.

(5) *Ala* = Quejoso.

be, ezin izango dabe ondatu nire gizabidea: emen, da ibili nazan leku guztietan ezagututen dabez nire egitasunak, eta erruezari gorrotu izatea, Jaungoikoak nekalduko dau goiz edo belu. Gainera, Eladitxo errukigarriari emoten deutsezan naibage mingarriak, nigaz adiskidetasuna daukalako, egunaro geituten dabe nire maitegurea, ta menturaz (6), niri legez jazoko jako berari be. Orregaitik uste dot, Masima ta senarrak, landuten dabezala euren gogoaren kaltez doazan bideak. Niri esan deustazu sarri ama, zelan agertu nintzan umetan ona Ondartzara, baina alan bere, eztot eguno uste izan, ementxe jaiotako ta azi nintzala baino; auxe da nik neure jatorritzat daukadan etxea. Baserritarra nazalako, Masima ta senarrak, euren andikeriakaz, ezin nabela ikusi Eladitxogaz berba egiten? Itsastarra be banaz, Ermoken izan zan legez, da oraindino ogetabat urte baino eztodazala. Eladitxori esan neutsan bein, neure biotzean daukadala, baina eguno eztogu egin ezkontza berbarik. Eguzki, lurbira, irargi ta izarrak euren lanetan da bidietan jarraituten daben lez, nik bere jarraitukot neurietan, al dodan ondoen, da atzenezan nonbaitara elduko naz, ama.

—Josetxo, eztozu zetan artu naibagerik, Masima ta Ermokenen berbakaitik.

—Ez ama eurakaitik, ezpabere, Eladitxori deusadan errukigaitik baino.

—Eladitxo ekanduko da artuten eroapena.

—Ekandu bear ama, osasuna galdu nai ezpadau.

Lenago lez, Josetxo etzan inoz joaten Eladi egoan lekura, bildurrez amak nekaldu ez eien, baina kalean aurrez aur alkar topaten ebenean, aida baten geratuten zirean, berbatxo bat edo beste egitera alkarri. Bata bestearen edestiak, ezin iragarri eutsezan alkarri; ez euken bitarterik ez eroapenik, berbaldi luzerik egiteko; beti bildurrez zainzailereren batek ikusiko ete ebezan. A zan lorra*!

Josetxok, etxeraldi onetan, ez eban uste itsasketara joatea, arik-eta ontzi on baterako eretia agertu arte: zetan edo atan,

(6) *Menturaz* = Quizás.

beti lanean edo arazoetan ekandurik egoan lez, gogait[•] egiten eban geldi egoten, da etxeke zein kanpoko lanetan lagunduten eutsen aitamai, abarkak jantzita, baserritar antzera, lupatzak egozanean: bera zan artzaina, egunabarrean ardiak basora eroaten ebazana, berak etxeratuten ebazan iluntzean, da artuten eban euren ardura guztia.

Itsasoan, itsasoan lez; leorrean, leorrean lez; errian, errian lez, da baserrian, baserrian lez, izan bear ebela gizasemeak esaten eban beti, ta alantxe egituten ebazan bere esateak. Jaiegunetan, Mundakara joaten zanean, mezatara edo bere adiskideak egurastutera, ezin esan leikean baserritarra zala, ain ederto jantzirik eta apaindurik joaten zan: astegunetan, ardiakaz basora joanean, zein soloan atxurren[•] edo mokil-joten[•] iarduenean, baserritarra irudian burutik bietzetara; ta itsasoan bazan, edozein galbidetan zein gertaeratan, Josetxo zan beti aurrerengo joaten zan ongilea.

Amerikatara joan-etorrietatik etxeratu zanean, amari emoeutsan irabazi eban diru guztia, joan zanean eskini eutsan legez, da ondo pozik egozan aitamak. Amak agiraka asko egiten eutsan ainbeste bear egiten ebalako, baina etzan aspertuten arazoetan.

Txomin-txiki, bere aita, zarkotea izan arren, beti zan koplari ta gogo argikoa, ta Josetxok ainbeste lan egiten ebalako, zuzendu ebazan urrengo doazan koplak:

Ekin Josetxo lanean:
Ebagi sendo bedarra;
Bene-benetan,
Bear orretan,
Eztirudik itsastarra (7).
Basoratu artaldea (8),
Egunaroko goizetan,
Artzain (9) bat legez,

(7) *Itxastar* = Marino.

(8) *Artalde* = Rebaño de ovejas.

(9) *Artzain* = Pastor de ovejas.

Eu abil eurez,
Baserritarren lanetan.

Ardiak itxi ta gero,
Mokilak joten solora,
Mokilak jota,
Bazkaldu eta,
Orbelak batzen basora.

Noizik beinean joaten az,
Zugatzen kerizpetara,
Etzanda bean,
Bedar ganean,
Egoten guztiz erara.

Itsasoetan artukok,
Eguzkijaren goibea (10),
Jakin daikean,
Itsas ganean,
Jarraituko dan bidea.

Itsasoetan eztagoz,
Emeko mokil joteak,
Baina bai asko,
Negargarrizko,
Galbide ta naibageak.

Onek koplok, noizik noizera abesauten ebazan Txominek, Josetxok entzungo ebazan lekuan, da onek, karkar, barre asko egiten eban. Juana Marik eta otseinak be ikasi ebezan, da danak jolastuten zirean, kanta ta barre egiten, Txominen asmoai.

Eldu zirean Almikako jantzarazo egunak, Mundaka, Bermeo ta inguruko gazte guztiak batuten zireanak; itsu ta tanbolin soinueta jantzan egin da gero, lauretako ontxo^a artutea ekanduten zan jolasak. Ara joan zirean lenengo egunean Josetxo ta Eladi be, bakotxa euren lagunakaz.

Mundakar mutilak egieben aurreksuan, Josetxo bere sartu zan aurreksua luzetutera, ta neskatilak eroan eutsezanean, ain

(10) *Goibe* = Altura.

zuzen be, Eladitxo izan zan Josetxogaz jantzan egin bear ebana: batak ez besteak ez euken gertaera onen errurik, zegaitik, neskatilak ainbanatuten ebezan mutilak eroan eben Eladi, Josetxogana. Egieben jantzan alkarregaz tanbolin soinua amaitu arte, baina jantzan ebiltzala, esaeutsan Josetxok Eladiri:

—Ai Eladitxo! Ziur-ziur ikusiko gaitu zaintzailereren batek, eta gaur agiraka gogorak egingotsuz zeure amak.

—Izan leiteke, baina zuk ez nik eztaukagu jazoera onen errurik.

—*Txantxetan* batu ete gaitue alkarregana aureskuko mutilok?

—Eztot uste; olantxe gertau bearra izango zan.

Jantzaldia amaitu zanean aldendu zirean alkarregandik.

Geroago, Mundakako neskatilak bizkor ebiltzan, eurak be aureskua egin bear ebela, mutilak eginezkero: zirikatu ortik eta ekin emetik, atzenean urten eben auresku luze-luze bategaz; Eladi be artean zan. Eldu zan mutilak ainbanatuteko aldia, ta orain ostera, Josetxo eroan eben Eladigaz jantzan egiteko; biak alkarri begira irribarreka jarri zirean, gogoratuten zelan gertauten zirean arek alkartuteak.

Josetxok, barre eginaz, esaeutsan Eladiri:

—Alagala gabiltzaz Eladitxo; gu ezkara errudunak jantzarako batu gaituezalako; orain alkarregandik aldenduko bagina, guztien irrigarriak izango gintzakez, da jantzan egin bear dogu soinu au amaitu arte.

—Bai Josetxo, olantxe uste dot.

Jarraitu eben jantzan tanbolin soinua amaitu arte, ta gero aldendu zirean. Noiz arte? Ori zan ezin jakin zeitekeana.

Eladi etxeratu zan, ilundu orduko, bere neskatila lagunakaz, beste erriko gazte geienak baino lenago, baina alan da guzti be, bera etxeratu orduko, jakieban amak Josetxogaz jantzaldi luzeak egin ebazana: zaintzaile bizkorrak eukazan Masi-mak. Arpegian igarri eutsan Eladik putzitu ebela bere burua Almikako gertaerakaz.

Amak, artu eban arnasea, bere amorrua zerbait ausitu^{*} eitean; deitu eutsan Eladiri gela batera, ta esaeutsan:

—Alagala abil, ene alabea; ik polit-politorrek gaur be nai doan jantzea egin don Almikan Ondartzako *gitanoagaz*.

—Ama, ezer esan orduko entzuizu lenengo zer jazo dan. Mundakar mutilak egin dabe aurrekua, ta ni, neuk eztakidala, eroan nabe Josetxogana. Gero egin dogu neskatilak, eta niri, neuk eztakidala ekarri deuste Josetxo: lotsagarria izango zan alkarregandik aldendutea soinu atan, da egin dogu jantzan. Batak ez besteak, eztaukagu gertaera orren errurik.

—Bai Eladi, *gitanoa* beti *gitano*; alkarregaz ondo adituta* egongo zinien biok.

—Ama, Josetxo ezta *gitanoa*; izango da *gitanoak* ostuta ekarria, baina bera ezta *gitanoa*: min egiten jat inogaitik berba txarrak entzuteaz.

Au esanaz batera, zaplada zoliak emoeutsazan amak bere alaba emeretzi urtekoari, ta ganera esaeutsan:

—Aurten ez az joango geiago Almikara; biar eroango aut Gernikan ezkonduta dagoan neure lengusina Atanasigana, ta antxe egongo az, ori Ondartzako mutilori, itsasketara joan arte.

—Zeuk gurozuna egingozu ama, baina ori izango da errueza nekaldutea.

—Erru zein erru baga, olantxe zuzenduko aut nik, lotsageiztokuori.

Esan da egin, Masimak, biaramonean eroan eban Eladi Gernikara, Atanasigaz bizitera.

Josetxok, Almikan egun bitan ikusi ez ebanean, uste eban, amak etxean eukiko ebalak nekaldurik, beragaz jantzan ibili zalako, ta erruki gogorra artu eutsan. Egunak eta asteak igaro arren, Eladitxo etzan inundik agertuten, da gexorik ete egoan zan Josetxoren pekua.

Bein, Eladiren neskatila laguna ikusi eban Josetxok ibilketan beste batzukaz: joan zan eurakaz ibiltaldi bat egitera, ta ainbat berba egin da gero, aitatu eben Eladi, ta esaeben Gernikan egoala bere aideakaz. Josetxok orduan erantzun eban:

—Eztot ikusi aspaldion, da gexorik dagoala uste izan dot.

—Ez, Gernikan dago; zuk naiago zeunke emen balego, ezta Josetxo?

—Ni gorabera, ondo dago an zein nai daben lekuan.
Gerotxoago, Josetxok agur egieutsen neskatilai, ta aldendu zan.

Josetxok ezagututen eban, Gernikan izekoa eukan mutil lagun bat; oneri entzun eutsan inoz, a izekoa Masimaren lengusinea zala, ta uste eban, Eladi arexegaz egongo zala. Topau eban mutil lagunau, ta leunketa (11) gozoaz itandu eutsan:

—Saturnin, egia dok Eladi Gernikan dagoana?

—Bai, atzo jakin neban neure izekogaz bizi zała; zer ba?

—Ezer ez, neuk be orixe entzun dot.

—Ire adiskide ona dok a, Josetxo; ta ikusteko gogoia euki-kok.

—Ez ba, Almikan ikusi neban oraintsu.

—Bai, jantzan alkarregaz egin zendoenean.

—Bai, orduantxe.

—Aspaldion eztot ikusi izeko Atanasi, ta biar joango naz Gernikara; etorri nai bok nigaz, biok joango gozak.

—Bai pozik; zein ordutan?

—Emen, goizeko bederatzietan urtenezkero, bazkalordurako elduko gozak bertara.

—Ondo dago, baina ez eiok inori esan daroagun *zirabirea*.

—Ez, eztau inok jakingo.

—Portuondo ganean batuko gozak bederatzietan.

—Bai, agur orain biar arte.

—Agur, ba.

Biaramonean urten eben bederatzietan, da amaiketan eldu zirean Atanasiren etxera.

Eladiren odolak burura igo eben Josetxo ikusi ebanean bera egoan etxean, baina arin ibitu jakan bere biotzikarea. Berba batzuk egin ebezanean, Atanasi, Eladi ta mutil biak urten eben Gernikako kale, etxe ta zugatz ospetsua (12) ikustera.

Atanasik, Masimak iragarrita ekian, zelan Eladi Gernikaratu eban Mundakako mutil bat itsasketara joan arte: uste

(11) *Leunketa* = Caricia, adulación.

(12) *Ospetsu* = Famoso.

eban, bere lobeagaz joan zan mutila izango zala Eladi maite ebana, baina ez eutsen naibagerik emon gura gazteori, alkarre-gandik alde eragiteaz, da berak lagundu eutsen joan zirean toki guztietara. Eguerdiaren bazkaldu eben batera, ta mutilok etxeratu zirean ilundu orduko.

Eladitxok, aurrerago ageri eutsazan Atanasiri, amagaz ebazan auziak, eta ez egoan bildurrik, onek Masimari esango eutsanik, mutilak egieutsen ikustaldia. Josetxok be esaeutsan bere lagunari, ez eiela inon aitatu Gernikara egin eben ibilke-tea.

Ai, Masimak jakin izan baleu Josetxok Gernikan, Eladigaz batera bazkaldu ebal! Zoratuko jakan!

Josetxoren berbetea ta ikusbidea ederretsi jakazan Atanasiri, ta ezieban aditu Masimaren burubidea, Eladiri galarazoteko mutil aregaz berba egitea. Eladik, zana zan legez, edesti guztia ageri eutsanean, Atanasik errukia artu eutsen biai, ta bere begikoak zirean biak aurrerantzean.

Josetxok jarraituten eban etxean, baserriko lanetan: noizbait joaten zan arrantzuan Murguako atxetara; bein lapatan, bestean mosilatan da urrengoa karramarrotan: noizik bein joaten zan itsasora be, Txotxo-tontorren txalupan, egun bat itsasoan igarotearren, da arazo onetan sarri etxeratuten ebazan, arrain, lapa, karramarro ta beste itsasoko janariak.

Etxeratu zanik ile bigarrean, agertu jakan eretia, Bilbon egoan itsasontzi baten, pilotu edo bigarren agintari joateko. Lau ilebete nai ebazan igaro etxean aldi onetan, gero luzarorako alde egingo eban ustean, baina ikusirik ontzi ta ontziburu oberik etzala agertuko, artu eban joateko burubidea. Aitamak naibage andiaz egozan ain arin joalako itsasketara, Jaungoikoak nai eban arte.

Au da beti itsastarren bizi izatea: noizbait etxean, ekatx, lauso, ontzi ta itsasertzetako atxen bildur бага, ardura barik lo egiten, ta gero itsasketan, txitean-pitean arriskupean, eriotzea begien aurrean dabela.

Josetxo, bere lagun Saturningaz, joan zan Gernikara, Eladiri agur egitera; lengoa lez bazkaldu eben Atanasi ta Eladi-

gaz, da arratsalde erdian agur eginik emakuma biai, artu eben mutilok etxera bidea.

Atanasik bakar-bakarrik ekizan Eladitxok egiebazan negararak, Josetxok agur egieutsanean, da inok ez ebazan ikusi Josetxoren negar-arpuloak.

Josetxori, joan orduko esaeutsan amak:

—Josetxo, Eladigaz ezkontza asmorik badarabilk, àldendu biok burutik. Eladitxo neskatile on-ona dok, baina beragaz ezkonduko, aitamen baimena bearkok, eta ori eztok inoiz lortuko.

—Bai ama, neuk be uste dot ezin izango nazana ezkondu Eladigaz, baina maite izangot, ezkongei dagoan arte.

Abiamenak zuzendu ebazanean, joan zan Josetxo Bilbora, ta ontziratu zan «Ama Karmengo» izena eban *bergantin* eder baten: egun batzuk geroago, itsasoratu zirean, Habanara joateko.

Ona, joan zan urrinetara, Masima ta bere senarraren are-rioa, ta biaramonean etxeratu eben Eladitxo, arpegi itzal da gogaldi motelagaz.

Txomin-txikik artuten ebazan noizik beinean Josetxoren eskutitzak (13), eta bekian nundik eta zelan ebilen, atzerrietan (14) da joan-etorrietan. Aldendu zanik amabostgarren ilebetea, Englandatik Habanara joazala, Puerto Ricoko itsasleorra urre samar egoala, estaldu ebezan *ekinozioa* eritxon ekatxogor batek, izugarrizko indarrak eukazan aizeaz da mendi-lako olatuakaz. Ausi ta jausi zan *masta* (15) nagosia, ta beragaz eroan eban bestearen erdia: onek mastok ontziari lotuta egozan lez, etziran aldenduten; zulatu bear eben ontzia urertzean txikotak arin ebaten ezipazirean. Neke andiko lan onetan ebiltzala, olatuak ganetik igaroten jakazan ontziari, ta gizonak ebiltzan uretan, euren lanak zuzendu ezinik: bitartean, beko

(13) *Eskutitz* = Carta.

(14) *Atzerri* = Pueblo extranjeru.

(15) *Masta* = Mastil.

geletara egozan bide guztietatik, sartuten zan ura upategira, ta ondatu bear eben urez beteta, zelanbait ataraten ezpazan. Mastaren lokarriak edo sokak ebaten iarduen arte, lau gizon eroan ebezan olatuak, eta geroago, mendielako olatu batek eroan eban ontziko nagosia, agintaritzea eukana: enparauak, biotzilakaz, itzal da motel geratu zirean gertaera onekaz, gogoratuten besteak eroan eben bidea jarraituko ete eben guztiak.

Mastak alde egiebenean, ekieutsen uragak (16) joten, upategiko ura joan eitean kanpora. «Jo mutilak uragok, ondatu nai ezpogu!» —esaten eutsen alkarri, ta lan onetan, gorputz neketuakaz, galbide errimeak igaroten, jarraitu eben olatuak ibitu arte.

Josetxo, ozta-oztan ebilen, zauri andiak gorputzean ebazala: danak ebiltzan or jausi ta emen jaso, zauri ta neke mingarriakaz.

A izan zan zorigeiztoko ekatxa!

Amalau gizaseme zirean ontziko gizadia, ta bederatzi geratu zirean bizirik, Josetxo ontziko nagosi zala.

Eguraldia ondu zanean, arautu eben geratu zan masta erdia, bela batzuk zabaldu leikezan gisan: baita zuzendu ebezan beste kalteak be al ebezan lez. Puerto Rico zan urre samar egoan portua, ta Josetxok artu eban burubidea, portu orretara joateko, masta barria jarri, ta beste kalteak araututera. Aize ona egoan, baina guztiz geldiro ebilen ontzia, masta erdian zabaldu al izan zirean belakaz.

Biamamonean topau eben batel bat, bost gizonegaz, *ekinozioak* ondatu eban Noruegako ontzi batekoak: onek esan eben, zelan ekatxa igaro ta gero, egualdi onaz, ondatu jaken ontzia urez beteta, ta amabi gizonetarik zazpi galdu ebezala. Josetxok artu ebazan bere ontzian.

Beste egunean, Puerto Ricoko leorrak agertu orduko, idoro eben, *ekinozioak* mastak eroan eutsazan Englandako ontzi bat: uragak joten iarduen danak aldizka; baina ikusirik upate-

(16) *Uraga* = Bomba.

gian ura geituten joala, ta laster ondatu bear ebela, sartu zirean batel baten, da joan zirean «Ama Karmengora». Josetxok artu ebazan bere ontzian.

Onek Englandarrok esaeben, zelan lau gizon galdu ebezan, mastak jausi zireanean.

Biamamonean porturatu zirean Puerto Ricon, da joan zirean errira, ondatu zirean ontzietako gizonak.

Ontzi bakotxak *ekinoziopéan* igaro ebazan gertaerak irazten baginoaz, orri asko beteko litzakez, arrigarrizkoak zirealako, aize ta itsasoaren indarrak; eriotzak eta kalteak, mingarriak (17) eta atsekabeak.

Saldu eban Josetxok ontziko *karga* edo zama apur bat, beraganatzeko bear eban dirua, masta barria ta beste arazoak ordaintzeko. Ogetabost egunetan egon zirean kalte edo matxura guztiak zuzenduten. Gero jarraitu eben Habanara euren osterea amaitutera, ta zazpigarren egunean porturatu zirean.

(17) *Mingarri* = Mortificante.

XIV

Bigarren senargeia

Josetxo alden du zanik urte bigarrean, etxeratu zan, Mati izena eban ogetabederatzi urte ebazan mutil iruder¹ bat, atzeneko lau urtietan *capitan* edo ontziburu ibili zana: batzuk esaten eban, atsedendutera etxeratu zala, ta beste batzuk ziurtuten eban, ezkontzeko asmoaz etorrela. Gaztetan, zerbait okerra ta arroa izan zalako, ezarri eutsen Txotxo-arro ezizena, ta ezizen onegaz ezagututen eban guztiak; beti ebilen ondo jantzirik eta obeto apaindurik, zuzen da lerden, garriko azurra austeko bildur baga, ta minarinak ziurtuten eban, amar mila dukat gitxienez ekarri ebazala. Mundakarra zan izatez; bizi zan etxe on baten, bere ama ta arreba bategaz; urte askotan ibili zan atzerrietan, da guztizko txera gogo argikoaz agur egiten eutsen erriko neskatilak. Zer egingo eutsen bada, ezkontzeko asmoaz da diru soinu zoliaz etorri zan mutil ederrari?

Ziur-ziur uste eban Txotxo-arrok, ezkontza asmoan, erriko etxe aberatsenean be, atepak zabalik topako ebazala!

Bai, langintzan ontziburu, dirua ugari, iruderra berez, da ondo jantzi ta apaindua, nok ez eban artuko senartzat besoak zabalik? Berezkoa zan uste au, Txotxo-arroren irudimenean.

Luzaroan egin ebazan ibiltaldiak (1) erriko neskatilakaz egurastuten (2) urteten ebenean; joaten zan andik, ortik, emetik, bein batzukaz, urrengoan besteakaz, ikuskatuten (3) nor

(1) *Ibiltaldi* = Paseo.

(2) *Egurastu* = Orearse.

(3) *Ikuskatu* = Reconocer.

¹ *iruder*: irudi-eder, itxura oneko.

izango ete zan onena bere emaztetzat edo nor sartuten jakan bere begi bietatik: danai egiten eutsen berba gogo argiaz da leunketa ezitsuz, da alantxe erantzuten eutsen neskatilak be, ezkontzeko gogo erabilela jakiebenean.

Atzenean, Eladitxo sartu jakan bere begi bietatik, baina gomuta eban beti, Aristoni gertau jakana, ta bildur zan neskatila orri bere guramena autortuten. Txotxo-arrok, eguno bere bizian ez eban ezagutu orduko buruausterik; ezbaian egun da gabe, bildurrez Eladik ezetz erantzungo ete eutsan, ezkontzasmoa ageriten² eutsanean.

«Zein lotsagarria izango da niretzat —esaten eban bere artean—, Aristoni lez erantzuten badeust, eztabela nai ezkondu! *Sekulako* gogaituko neuke orduantxe!»

Itsasoetan, izugarrizko ekatx da galbide askori bildur baga aurkeztuten ekanduta egoan gizasemeak, eukan ikaragarrizko bildurra, Eladiri berbatxo bat esateko.

Ondo neurtu ebazan Matik bere aztertasunak jakiteko zein neskatila izango zan beretzat emaztegei onena. Eladi zan alaba bakarra, ta beretzat izan bear eben gurasoak eukezan ondasun guztiak: Txotxo-arro etzan tentela (4); ondo ekian zer egiten eban, da bildurrak jaurtirik alde batera, arpegi emon bear eutsan bere asmoari.

Eldu zirean Jagoba (5) eguneko jantzarazoak, Mundakatik urre samar egoan aritxarte baten egiten zireanak, eta Munda-ka-Busturietako gazteak, iru egunean, tanbolin soinuan, alkarregaz jolastuten zireanak³. Txotxo-arrok uste eban, egun orretan eukiko ebala eretia, Eladigaz nai eban beste berba egiteko.

Lenengo egunean batu zan Eladi ta onen lagunaz, da etzan aldendu eurakandik, baina ez eban euki, Eladigaz bakarrean berba egiteko eretirik. Ilunabarrean, etxeratuteko, batu zirean

(4) *Tentel* = Tonto.

(5) *Jagoba* = Santiago.

² *Ageri* aditz legez erabilirik, *ageru* aldaera zabalduagoaren zentzu beraz: 'manifestar'.

³ Busturiko Aspe auzoko Santio-jaiak dira, ia ziur, idazleak aitatu gura dituenak.

neska-mutil asko, Eladi ta Txotxo-arrogaz batera, ta bidean, neskatila batzuk, zirikatu eben gogotsu Txotxo-arro, esaten eutsela:

—Entzuizu Mati, urte askotan ibili zara erbestean, da orain ezkontzeko etxeratuko zinean.

—Eztaukat oraindino ezkontzeko gogorik.

—Adinik ez, edo zegaitik ba?

—Adina bai, baina gogorik ez.

—Ori eztinoe ortik-emetik; ondo zabaldu da Mundakan, ezkontzeko asmoaz etxeratu zareala. Emen gaukazuz, ona, bi, lau, sei neskatila berberton, urrunago joan baga, ta aukeratui-
zu (6) geien gogoratuten jatzuna.

—Ilun dago orain inor ikusteko.

—Bai Mati, zuk gugana baino gorago begiratuko zu, ta ondo zoaz Eladi ta bere lagunaz, nai bazaitue. Nai ezpazaitue, etzaituz estutu; emen gagoz geu ainbeste neskatila, gaztiak eta galantak. Zer nai dozu geiago? Edozeinek artuko zaituguz pozik senartzat.

—Eskerrik asko; ondo da ori jakitea.

Gau ilunean etxeratu zirean guztiak.

Biaramonean bere, batu zan Mati, Eladi ta onen lagunaz, da etzan aldendu eurakandik: jantzan be egieban biakaz, da ondo jolastu zan arratsalde guztian, baina atzegunean lez, ez eban euki Eladigaz bakarrean berba egiteko eretirik. Iluntzean, erriko gazte asko etxeratu zirean batera, bidean nai eben beste kanta, barre, zantzo ta jantza alkarregaz eginik.

Lenengo egun bietan, ez eutsen ondo urten Matiri bere asmoak, eta atzerapide onek eukan naibagez beterik. Eladik usmau eban, Matik bakarrean arrapau nai ebana, ta bururatu jakan, beragaz ezkontzeko asmoak erabiltzala, ta zerbait esan nai eutsala: bildurtu zan gogoeta onegaz, da irugarren jantzara-
zo egunean, esaeutsan amari ta neskatila-lagunari, ezin joan leitekeala jantzarazora, guztiz neketurik egoalako, igaro zirean

(6) *Aukeratu* = Elegir.

egun bietan. Etxean lotu zan Eladi, ta bere neskatila-laguna joan zan beste batzukaz.

Txotxo-arro, zabal-zabal, aritx eder baten kerizpean, egoan ara ta ona begira, noiz ikusiko ete eban Eladi: ta biotzi-kara errimeak artu eban, Eladiren neskatila-laguna beste batzukaz etorrela ikusi ebanean. Joan zan neskatila onegana ta itandu eutsan:

—Zer jazoten da Eladigaz jantzarazora ez etorteko?

—Esan dau, neketurik dagoala, ta eztatorrela.

Ona, Mati, gogamen asko buruan ebazala, argitu ezinik, zegaitik lotu ete zan Eladi etxean jantzalekura joan бага. Buruauste onegaz, zugazpe baten egon zan zirkinik egin бага, arratsalde guztian, da ilundu orduko, bakar-bakarrik etxeratu zan.

Matik uste eban, eroazan bideak zuzen da leun topauko ebazala, baina ikusten eban, aldatz, sasi ta arantzaz beteak zireala. Iru jantzarazo egunetan, ikusirik bere ibilketak eta egitasunak, beingoan zabaldu zan Mundakan Eladitxo ebala maite, ta arexeri jarraituten eutsala. Albista au eldu zan bere etxeokakana, ta baita Eladiren gurasoakana be, baina danak egozan isilik.

Aurrerantzean, len lez, batuten zan Mati, Eladi ta lagunagaz, ibiltaldietan da egurastuteko orduetan: txera ona egiten eutsen irurak alkarri, baina Matik ez eukan inoz Eladigaz bakarrean berba egiteko eretirik, eta ganera bildur zan, ezetz eran-tzungo ete eutsan, Aristoni lez.

Buru-austen ebilen gertaera onekaz; etxean gogait egiten ebanean, joaten zan ortu edo baratzera marraskilo ta bareak iltera. Ortu au egoan Eladiren aitamak euken bat baino zerbait urrunago, ta andik joan zan baten, txindor saltari bular-gorri batek urten eutsan, ain zuzen be, Eladiren ortuko orma ganera: salto-saltoka, berari begira, ta txir-txor kantaten lotu бага ikusi ebanean, Txotxo-arrota otu jakan, arek txori albistariak, albista onen bat ekarrela bere maitearen orma ganera, ta atan be esku-matik urten ebalako guztizko gogaldi onaz. Txindorrak azkorku (7) eban Mati, ta ipini eban gogo argiaz, itxaropenez beterik.

(7) *Azkorku* = Animarse.

Berak agintaritzea eban ontziak Amerikatara oster a bat egin arte, eukan ontzi-jaubeagandik, etxean egoteko baimena: izan leikezan lau ilebete inguru. Etxeratu zanik arrezkero igaro zan ilebete, ta artu bear eban burubidea alik arinen ezkontze-ko, emazteagaz al zan luzaroen egoteko ontziratu orduko.

Matik, berak nai eban berba egin Eladiri, inok jakin baga, ezetz erantzuten beutsan, isil-isilik auziak amaitzeko. Onetan igaro zirean egunak eta asteak; atzenean, ikusirik ezin ebala lortu beragaz bakarrean berba egitea, autortu eutsazan amari bere gogamen guztiak, eta emoeutsan eskubidea (8), Eladiren aitamai berba egiteko, baina oartuten eutsala, inok usmau baga egin bear zireala arazo guztiak. Baita, ama-arrebai erazagutu eutsen, txindorragaz, *ortura* bidean, gertau jakan guztia.

Inok zelan zan ez ekiala, zabaldu zan erri guztian, txindor-rrak Matiri albista onak eroan eutsazala, ta laster ezkonduko zala Eladigaz: barre-zantzoak entzuten zirean kalietan, txindorra gora ta Mati bera, ekinean egozanean. Onik bigarren egu-
nean, kalean kantaten ebezan, urrengo dagozan koplak:

Matik amari esan ei deutso,
Eldu danean etxera,
Txindor saltari bular-gorriak,
Urten deutsal a bidera.
Ain zuzen bere maite dabenen
Soloko orma ganera
Txir-txor da txir-txor, guztiz kantari,
Albistadunen antzera.

Bela zabalak aizez beteta,
Zoaz gizona aurrera!
Albista ori eroan deutsu,
Txindorrek goiko bidera.
Bildurtasun da biotzikarak,
Jaurtizuz alde batera,
Zeure barrien begira dago,
Neska begi-baltz ederra.

(8) *Eskubide* = Facultad.

Andoni, Txotxo-arroren ama, Eladi egurastuten kanpoan ebilen baten, joan zan Masimagana, ta onek, guztizko gogo argiaz, itandu eutsan:

—Zer dakazu, Andoni?

—Berbatxo bat esatera natortzu, Masima.

—Esaizu nai dozun guztia.

—Bakizu nire seme Mati zeinbat urtetan ibili dan atzerrietan bere itsasontziaz, da orain, zerbait atsedendutera ta bide batez ezkontzeko usteaz etorri da etxera. Or ibili da luzaroan, bein neskaita batzukaz ta bein beste batzukaz adiskidetasuna artuten, da ikusten zein ederretsiten jakan bere emaztetzat, eta zure alaba Eladi dala, dino, bere begikoa, ta atseginez ezkonduko litzatekeala beragaz.

—Zer dantzut, Andoni? Orduan, kalean abesauten dituen txindorren kopla barriak, Mati ta nire alabearenak dira.

—Aserre daukagu Mati, orrek koplok entzun dituanik arrezkero. Nire alabeak zerbait ageri deuto bere neskaita-lagunen bati, ta zabaldu da erri guztian. Da esaten ninoan lez, ontzia Amerikatik datorrenean ontziratu bearke daben lez, ainbat arinen gura leuke jakin aitamen da Eladiren guramena.

—Aspaldion, zabal da Mundakan, Matik maite dabela Eladi gurea, baina ainbeste guzur asmauten dituen lez erri onetako minarinak, eztoguz aintzat artu dinoezan berbak: sinistuizu Andoni, sorginak dagozana erri onetan.

—Igaro direan Jagoba egunetako jantzarazoetan, ibili ei da Eladigandik aldendu бага, ta orregaitik uste izan dabe ori.

—Nik atseginez esango deusat senarrari, ta uste dot entzutea bere baimena, baina eztakit Eladik zer erantzungo daben. Bakizu zer igaro zan Aristonegaz; ezetzean egon zan beti, gure alegin guztien ganetik.

—Ain zuzen be, orrexegaitik gura geunke zuek eta guk baino bestek ez jakitea darabilguzan asmoak, zeresanakaz euki ezteigun naibagerik.

—Bai Andoni, gugandik eztau inok jakingo: ezetzean jarriko ete da orain be?

—Eztinot Masima neure semea dalako, baina senargei oberik etxako agertuko. Aristonegaz izan ebazan auzietan, gattetxoa zan Eladi: arrezkero urte bi igaro dira, ta orain aldatuta egongo da bere burutasunetan: ganera, Ariston pilotua edo bigarren agintaria zan, da Mati gurea, lau urte onetan, *capitan* edo ontziburu dabil, da entzuizu ondo Masima, amar mila dukat daukaz, itsasketan ibili dan arte irabazi dituanak!

—Ori da diru piloa, ene alabea! Ta zeinbat urte ditu Matik?

—Ogetabederatzi. Ta zeinbat Eladik?

—Ogetabat igaro lengo egunean.

—Zortzi urteren ezbardina ezta ezer: ondo izaten da, senarra zortzi edo amar urte zarragoa.

—Bai Andoni, ori olan da: erazagutuko deutsetaz albistok senar da alabeari, ta etorri zaite etzi, jakitera zer jazoten dan.

—Agur ba Masima, etzira arte.

—Agur, Andoni.

Ermoken etxeratu zanean, Masimak esaeutsan:

—Entzuizu Ermoken; Andoni portu-ganeko, Matiren ama, egon da emen, iragarriten, bere semeak ezkontzeko asmoak darabiltzala, ta Eladi gurea dala mutil orren begikoa. Ontzia Amerikatik datorrenean ontziratu bear dabela, ta alik arinen jakin nai dabela, gure ta Eldiren guramena.

—Nik eztakit zer egin asmo orretan. Jakin dozu Eladiren guramena?

—Ez oraindino; zeurea jakinezkero, adituko naz Eladigaz.

—Guk, Masima, eztaukagu Eladi baino beste umerik, eta orregaz ezkonduko dana, geugaz bizi bearko dau; orregaitik bear dogu etxerako gizaseme esangina ta gogo-argia, aserrerik ez naibagerik ekarriko ezteuskuna.

—Zer esan nai dozu orrekaz akiakule guztiokaz?

—Zagoz ba isilik, neure berbaldia amaitu arte: esan gurot, Mati, dinoenez, guztizko aserrekorra dala, ta ondo neurtu bear direala gauza guztiak, burubidea artu orduko.

—Ene semea, eztot inoz entzun Mati olakoa danik.

—Oraintxe entzun dozu: lendik dakizu Txotxo-arro ezize-

na ezarri eutsena, ta nik sinistuten dodaz ortik-emetik dinoezan berbak. Orregaz ontzian bigarren agintari edo pilotu doanak, ez ei dau inoz egiten osterata bat baino, ain estua ta aserrekorra ei da berorren aginduetan.

—Da zer egin bear da ba auzi onetan? Uste dozu Eladiri agertuko jakala senargei ohea, mutil iruder, ontziburu dana, ta amar mila dukat, txin-txin soinua joten dabenak, daukazana baino? Aserrekorra izan arren, ohea da ori mila bidar, Ondartzako nundik norakoa dan eztagiguna baino.

—Eztaikit zer esan Masima, baina amar mila dukat baino, bakea etxean ohea da guretzat. Alan bere, Ondartzako mutil orren bildurrez, ageriten deusut neure baimena.

—Eztagigu oraindino Eladik zer erantzungo daben.

—Nik lez entzun badau aserrekorra dala mutil ori, ziur-ziur eztau gurako beragaz ezkondu, ta nai ezpadau, eztsotsagu gogortasunik egin bear.

Masimak sartu eban Eladi gela batera, ta esaeutsan:

—Eladi, Matiren ama etorri da erazagututera, bere seme-ak ezkontzeko asmoa darabilela ta eu azala bere begikoa ezkondu nai bon. Esaidan zer uste don; bakin ontziburu dana ta ganera amar mila dukat daukazana; nire ustean ezton agertuko senargei oberik.

—Gomuta izangozu ama, zelan Jagobaren egunetako jan-tzarazoetan, enintzan joan irugarren egunean: enintzan joan, atzegunean usmau nebalako, Matik bakarrean arrapau nai nin-doala zerbait esateko; bearbada, ezkontza orren ganean berba egiteko izango zan; da nik eztodan lez ezkontzeko gogorik, otu jatan etxean geratutea.

—Arriturik naukan, Eladi, eure burutasunakaz. Arrizkoa don eure biotza, edo zer uste don? Ogetabat urte igaro dozan, da zein itxaropen daukan, Matigaz ezkondu nai ezpon? Entzun don inoz mutil orren gizabide txarrik?

—Gutziz geiztoa ta aserrekorra ei da, baina ona izan balitz be, bardin izango zan niretzat: nik eztot nai senarrik oraindino.

—Ik Ondartzako jatorri bagako mutila daukan eure go-goan, da itsurik izango beste guztiakaz.

—Ama, ni enago ezetan berbatuta Ondartzako mutilagaz: ezkonduko da, berak nai dabenez, nai dabenean, da ni bere bai. Aren jatorria edo etorbidea Jaungoikoak biraldua lez da: zabal ei zan Mundakan, da gomuta izangozu, zelan Txomin-txiki ta emaztea ibili zirean oin-ortotzik urrunetako doneai euren eskintsari ta eskariak egituten, osasuna ta umetxo bat eskatuten Jaungoikoari, ta neke andiakaz ainbeste eskintsari egin ebezanen, agertu jaken Josetxo zerutik biraldua legez; bai ama, gomuta izangozu, Mundakan miraritzat euki ebela Ondartzako jazoerea, ta danak esaten ebela, Jaungoikoak biraldua zala mutil ori: ona ama, Josetxoren jatorria.

—Bai Eladi, polito dakizan edesti guztiak, eta polito erakusten don, Josetxogana daukanan maitegurea.

—Ezta orregaitik ama; nire guraria izaten da beti, baktoxari berea emotea.

—Bai, ori ekandu ona don, baina biar edo etzi, urteak igerota, senargei бага egoten baz, damu izangon oraingo ereti onak galdua, ta orregaitik gogartetu (9) bear don ondo zer egi ten donan, mutilari ezetza erazagutu orduko.

—Nik eztot nai ezkondu, ama.

Andoni portu-ganeko, Matiren ama, joan zan urrengo egunean Masimagana, zein burubide artu eben jakitera, ta itandu utsan:

—Zer diraustazu Masima, gure autuen alde?

—Andoni, albista onik ez: senarraren baimena egon da, baina Eladik eztau nai ezkondu oraindino, ta gogorrean artuten bogu, eztoгу ezer lortuko.

—Ez Masima, gogorrean ez; orrek gauzok eztira nai ta nai ez egitekoak, guramen onagaz baino: ez aitatu inon zer igaro dan, da amaitu dira erabili doguzan asmoak.

—Gugandik eztau inok ezer jakingo.

—Agur ba, Masima; gure Matik naibage andia artuko dau.

—Eztau zetan estutu orregaiti; Mundakan neskaita eder asko dagoz, besoak zabalik, Mati senartzat artuko leukienak.

(9) *Gogartetu* = Meditar.

—Bai, ori egia da. Agur, Masima.

—Agur, Andoni; poztuko naz, zeuen gogoko neskatila on bategaz ezkontzen bada.

—Eskerrik asko, Masima.

Ona zelan, txindor saltari bular-gorriak, bere kanta zolia-kaz, ez eutsan eroan Matiri albista onik.

Masimak eta Andonik alkarri egieutsezan oarpenak gorabera, laster jakin zan Mundakan, Mati ta Eladi ezkontzeko joan-etorrietan ibili zireala euren gurasoak, eta Eladik ez ebalanai ezkondu; inok ez ekian, auzi onek nok iragarri ebazan errian.

Mingarri andia izan zan Txotxo-arrorentzat Eladiren eze-tza; gogaldi ilunaz, artega ta aserre ebilen etxean, ama erruduna bailitzan lez.

Amak esaeutsan:

—Etzaitte, Mati, estutu orregaitik; neskatila on asko dagoz Mundakan, pozik artuko zaituenak, eta zeuk nai dozunean, joango naz beste bati berba egitera.

—Eztakit ama, ezkonduko banaz be; apalkeri* gogorra izan da niretzat Eladiren ezetza. Eneban sinistuko ezegaitik!

Beti bakarrik, itzal da motel ebilen Mati aurrerantzean, zerbait gertau jakana ezagun ebalan. Elizondoko zelaian etzunik egoten zan egunaro, itsasora begira, ordu bi edo iruan, da noiz-bait batuten zan egurastuten ebiltzan neskatilakaz: ez ekian Mundakan zabal zireana Eladigaz ezkontzeko erabili ebazan arazoak; berari ez eutsan inok esaten, baina minarinak (10), andik-ortik-emetik, esaten eben, berak eukala errua goietatik ebilelako.

Matiren gizabidientzat, apalkeri andiak izan zirean, bera-gaz ontzian ibili zirean batzuk, esan ebezan berbak: geiztoa ta aserrekorra zala; inor ezin izan leitekeala bere menpekoa, naitbage asko igaro bagea, ta beste berba asko. Berak ez ekiala

(10) *Minarinak* = Murmuradores.

zabaldu zirean Mundakan onek albista guztiok, baina, alan da guzti be, neskatilak txera ona egiten eutsen, da luzaroan, astiro-astiro, aldatu jakan bere gogo iluna, ta aztu ebazan Eladigazko jazoerak.

Gero batuten zan sarri Kostantzi Artzakogaz: Kostantzi Artzako esaten eutsen, portuko artza edo arritza baten ondoan bizi zalako. Zan neskatila begi-zuri, gaztaina margoko uledun, gorputz andiko eder bat; guraso aberats samarrak ebazan, baina iru nebarreben artean ainbanatu bearko zirean ondasun guztiak.

Aberatserik aberatsera ebilen Txotxo-arro; bestek ez eutsan gogoa beteten; len begi baltzduna bazan bere begikoa, orain zan begi zuriduna; ez eutsan ardura begiak baltzak, zuriak zein urdinak izan arren; beste gauza bat zan berak bilatuten ebana; beti ebilen goietatik. Luzaroan da sarri batuten zan Kostantzigaz da onen lagunakaz, baina otu jakan, neskatila au arrotxoa ta andigurakoa zala, apainduten baino besterik ez ekiana, ta etzan oso bere begikoa; ez eban nai andigurako emazterik; diru edo ondasunduna bai, baina andigurakorik ez.

Gero batuten zan, bein Kostantzigaz da bestean Aure ize-na eban bategaz. Au zan neskatila begi-uridin, ule-gorritzta, galant bat; ez andia ez txikia, ez saskela ez andigurakoa, ez neka-zalea ez aberatsa, guztiz egikorra ta etxeko arazoetan zein *plazan* tanbolin soinuan ondo aurkeztuten zana, bere ogetalau urteakaz.

Kostantzik, ogetabost urte igaro ebazan, entzute andikoa-goa ta zerbait aberatsagoa zan Aure baino, ta Txotxo-arro, buru-austen ebilen, bietarik zeineri berba egin ez ekiala, ezkontza asmoan.

Atzanean amari esaeutsan:

—Ama, aspaldion batuten izan naz, ibiltaldi batzuetan, Kostantzi Artzako ta bere lagunakaz; baita noizbait Aure Intxaurrondokogaz be. Zein deritxazu, onena nire emaztetzat?

—Euk zer nai doan egingok, baina ire ogibidea (11) ta on-

(11) *Ogibide* = Oficio.

dasunak daukazan mutilak bear dau Kostantzi lako emazte bat. Aure be neskabila ona da, baina bestea entzute geiagokoa ta aberatsagoa.

—Baina ama, Kostantziri, bere apainkera, ibilkera ta esakera guztietan ezagututen jako guztizko buru-eritxia ta andigurakoa dana, ta ori ezta ona etxerako.

—Ez Mati, kanpoan olan dirudi, baina etxean egikorra da.

—Ziur zagoz orretan?

—Bai, sarri ikusi dot etxeko arazoak egiten.

—Uste dozu gurako dabela nigaz ezkondu?

—Bai pozik; orrek gitxienez ditu ogetabost urte, ta adin orretan zeri itzarongo deutso?

—Olan bada, zoaz berba egitera Kostantziren aitamakaz, da entzuizu zer dinoen.

Biamamonean joan zan Andoni, ta Kostantziren ama Paus-tari erazagutu eutsan esateko eukan guztia.

Paustak erantzun eutsan:

—Egon zaite Andoni, ardura barik; emen guztioeren baimena egongo da. Zer geiago gura leuke Kostantzi gureak, Matiren emaztea izatea baino? Etorri zaite biar, zetan gagozan jakitera.

Kostantziren aitamak, pozik egozan, alabeak ezkontzeko eban eretiaz; bekien zelan egoan entzutea Mati aserrekorra zala berez, baina uste eben, orrek geiztotasunok ontzian izango zireala, bere egipideen ardura ona artuten ebalako.

Deitu eutsen Kostantziri gela batera; iragarri eutsen zer igaroten zan, da alaba onek erantzun eutsen:

—Ni ezkondu Txotxo-arrogaz? Ez ezegaitik!

—Noiz eukikon ereti ohea?

—Jaungoikoak nai dabenean. Zabal da erri onetan, guztizko geiztoa dala mutil ori, da nik eztot nai ezkondu, olako ekan-duak daukazan mutilagaz. Ganera, lenengo Eladigana joan da, ta a lortu eztabenean dator nigana: ez eragin geiago asmo orri, zegaitik ni enaz ezkonduko Matigaz.

—Eztakigu ba noiz eukikonan eretia, amar mila dukat daukazan *capitan* edo ontziburu bategaz ezkontzeko.

—Ama, badakidaz orrek dukatok daukazana, ta onzi baten agintaritzan dabilena, baina orregaz ontzian ezin inok egin ei dau ostera bat baino, berorren geiztotasunagaitik, eta orain agiraka ta gero makilaka biziteko, obeto da ez ezkondu, ta bizi bakean.

—Euk nai doana egingon.

Biaramonean, joan zan Andoni biotza puztuta, Kostantzi-
ren baietza entzuteko ustean, da ikaratu zan Paustaren agotik
ezetza entzun ebanean. Onek esaeutsan Andoniri:

—Ezetara be ezin izan dogu biurtu Kostantzi geure gura-
menera —gelako ormak be entzun ez eien, isil-isilka esaeutsan
belarrira—: entzutea ei dau geiztoa dala Mati, ta orregaitik ez-
tau nai ezkondu.

—Orrek guzurrok, arerioak esaten dabezanak dira: Mati
gurea izango da zerbait aserrekorra ontzian, egipide asko dau-
kazan lekuan, gauzak zuzen eroatearren, baina etxean bildots
otzan bat da, gizajoa.

—Ori esan deutsagu geuk be, olan izango dala, baina ezin
biurtu izan dogu.

—Naibageak naibagearen ganean jatorkuz, zorigeiztoko
minarinakaitik. Beste erri baten ezta egongo emen beste zere-
san gauza guztiakaitik, eta sinistuizu, Pausta: dana da onda-
muaren (12) sua ta garra.

—Erri guztietan izaten dira olako minarinak eta onda-
muak: artuizu eroapena, Andoni.

—Artu bear ba. Agur, Pausta.

—Agur, Andoni.

—Aztu jat barriz Pausta, esatea, zeuek eta geuk baino bes-
tek, eztabela zetan jakin erabili doguzan asmoak.

—Egon zaite ardura barik Andoni, gugandik eztau inok
ezer jakingo.

Joan zan Andoni etxera bildurrarren bere semeari esateko
zer jazo zan, baina bildur zein bildur baga, esan bear jakan alik

(12) *Ondamu* = Envidia.

arinen, beste burubide bat artu eien. Amak esaeutsanean zer igaro zan Kostantzigaz, guztiz aserre jarri zan, sinistu ezin ebala amak esaeutsana, ta gorrotuaz esaten eban:

—Sinisgatxak (13) dira ama, niri igaroten jatazan gertae-rak. Zein zio (14) dago, Kostantzi nigaz ez ezkontzeko?

—Oraindino eztaukala gogorik senarra artuteko.

—Ez, ama, ori ezin gertau leiteke ogetabost urte dituan neskatala bategaz. Beste zioen bat izango da.

—Nik eztakit, ene semetxoa, esan deustena baino.

Amak ez eutsan erazagutu gura, errian beragaitik esaten ebezan berba mingarriak, naibage geiago artu ez eien, da zora-tu bearrik ebilen Txotxo-arro, ikusirik atzekoz aurrera urteten ebela buruan erabili ebazan gogamen da itxaropenak.

Amari esaten eutsan:

—Nik eztakit zer egin aurrerantzean; batzuetan uste dot, ondo izango dala Aure Intxaurrondokori berba egitea; baina arek be nai ezpanau, zer jazoko da nigaz? Bilinbalaunka dabil-tzaz nire gurari guztiak! Ai! Eladitxo izango zan niretzat alaga-lako emaztea, baina enaz bere begikoa! Zer esango dabe nigai-tik jakiten badira artu dodazan apalkeriak? Karkar barre egingo dau gizeri guztiak, eta izango naz guztien barregarria. Obeto izango zan asi ezpanitz ezkontza asmoetan! Eztot eguno entzun ez ikusi beste onenbeste! Atseginez aldunduko nintzake oraintxe erri onetatik.

—Urak ez aroa, ta artuik Mati eroapena; eure burua estu-tuten bok, osasuna galdukok. Kostantzik nai ezpazaitu, beste obeago batek nai izango zaitu. Aure ezta Kostantzi baizen abe-ratsa, baina bai egikorragea edozein lanetan; da ganera inor ez bera baino josla* oberik.

—Ez eizu aitatu ama ezkontza asmorik; eztakit zer egingo dodan. Au da buruaustea!

Ama bildur zan erbestean ezkondu eitean bere semea, ta leunketa gozoaz egiten eutsazan oarpenak, ganera eroapena ar-

(13) *Sinisgatx* = Increíble.

(14) *Zio* = Motivo, causa.

tu eraginaz. Matik astebetean ez eban urten etxetik; bein ara, bein ona, orain goianengora, gero upategira, noizbait iraztiak irakurri; beti aserre-arpegi ta betilunaz, artega ta buru-austen, zer egin ez ekiala aurrerantzean artu bear ebazan burubidea-kaz. «Ezkontzeko usteaz etxeratu nintzan —esaten eban— da alde egiten bot ezkondu baga, lotsagarria izango da niretzat».

Amak esaten eutsan askotan:

—Joan adi Mati ibiltaldi bategaz egurastutera, etxean sartuta egon barik.

—Nora joango naz ama? Eztaukat inorako ez ezetarako gogorik.

—Ainbeste egunean etxe barruan ez ago ba ondo: osasuna galdukok gisa orretan.

—Urtengot egun batzuk igaroten direanean.

Bere artegasuna ibituaz, asi zan kanpoan ibiltaldiak egiten: ibiltaldien ostean, elizondoko zelaian etzunik, zeru ta inguruetako mendi ta itsasoari begira egoten zan ordu batzuetan egunaro. Neskatala nekezale batzuk, jai arratsalde baten egurastuteko orduan, igaro zirean bere ondotik eta zirikatu eben itanduaz:

—Zer jazoten jatzu, Mati, ain biotzilaz egoteko?

—Ezebez.

—Bai zerbait; besterik ezpadago emen gagoz geu emaztegei, neskatala politak eta egikorrak edozein lanetan. Zer nai dozu geiago? Esaiozu amari, emen gagozan edozeinen etxera etorri deiteala, zuretzat emaztegeia bilatutera beti goietatik ibili barik, eta ikusikozu zelan biotza birbirtuko jatzun agoa beteko baietzaz.

—Zuek barriketetan inarduteko gogoia daukazue.

—Guk egia Mati; gure ekandua ezta arpegi ilunaz isil-isilik egotea; nekazalien ekandua da, esan esango dabena, eguzkia baizen arpegi argiaz. Erdu Mati geugaz, ibiltaldi bat egitera, ta esango deusguz ipuintxo batzuk, darabiltzuzan buruaustek ibituteko.

—Zuek, ni zirikatzeke gogoia daukazue, ta mesedez itxidazue bakean.

—Agur ba Mati, urrenge emaztegeiaz zori ohea euki daizula.

Txotxo-arrok, berba onekaz, aditu eban, arek neskatilak bekiela zer igaro zan bere ezkontza asmoakaz, da len baino naibage geiagoaz jarri zan. «Bakit orain —esaten eban bere artean— erri guztiak dakiena nire amak erabili dituan autuak Eladi ta Kostantzigaz: orregaitik arek neskak etorri dira nigana, niri irri ta gogait eragitera. Zoratu eragingo deuste!»

Jagi zan etzunda egoan lekutik, eta etxeratu zanean esaeutsan amari:

—Ama, zuk Eladigaz da Kostantzigaz erabili dozuzan artu-emonak edo autuak, jakin dabez erri guztian, da geituten doa nire naibagea. Atzenean iges egin bearko dot erri onetatik!

—Eladigazko autuak zabaldu zirean errian; nik eztakit nundik ez zelan, baina Kostantzigazkoak, eztakiz inok oraindino.

—Dana dakie ama; neskatila nekezale batzuk esan deustezan berbakaz, aditu dot jazo direan auzi guztiak dakiezala. On-do zirikatu nabe berba askogaz; esan deuste amari oartuteko, beti goietatik ibili barik, joan eiteala beietara be, euren etxieta-
ra, ezkontza asmoakaz.

—Nortzuk izan dozak orrek lotsabagok?

—Eztodaz ezagututen, baina gizalaba itxura onekoak izan dira.

—Ez eiok jaramon olako barriketari.

—Zelan egon jaramon бага, etxeratu nintzanean ekarri nebazan itxaropen guztiak birrinduaz badoaz minarinakaitik?

—Ezer bere ezta birrindu Mati; eure sinismenak dituk orrek, ene semetxoa.

Urrenge egunean, bildur zan Mati, elizondoko zelaira joaten, neskatilak zirikatu ez eien, da mendirik mendi ibili zan egurastuten. Egunak aurrera joazan; ilebete ta erdiren barruan etorriko zan bere itsasontzia, ta egitu bear eban atzera edo aurrera, artu emaztea edo itxi ezkontzeko asmoari. Gogamen onegaz, amari itandu eutsan:

—Zer egingot ama?

—Ezkondu Aure Intxaurrondokogaz.

—Uste dozu Aurek gurako nabela?

—Bai pozik, ene semetxoa, neuk ziurtuten (15) deutsut, Aurek atseginez artuko zaituana bere senartzat. Zer besterik nai leuke berak?

—Bildur naz ba ama, ikusi dodazan gauzak ikusiezkeru, baina zoaz jakitera nai dabenez nigaz ezkondu.

Joan zan Andoni Aureren etxera, ta ain zuzen bere, gertau zan Kostantzigaz gertau zana. Gurasoak, nai ta nai ez, gura eben Aure ezkonduatea Matigaz, baina neskatila orrek gogor erantzuten eban, ez ebalu nai ezkondu mutil geizto, aserrekor bategaz. Andonik larritasun bat izaeban Aureren etxean albista au jakiebanean, uste izan ebalako, bere semeak burutasun txarren bat artuko ebalu jazoera onegaz. «Ai zer nago ikusteko gaur Matigaz!» esaten eban Andonik, konortera biurtu zanean.

Aureren amak esaeutsan:

—Artuizu Andoni eroapena: guk alegin asko egin dogu Aure azkortu ta biurtuteko geure guramenera, baina zoritxarreko esatea dago, Mati mendu geiztokoa dala, ta orregaitik danak dauke beragaz ezkontzeko bildurra.

Bere larritasuna igaro jakanean etxeratu zan Andoni, ta alabeari agindu eutsan, Matiri erazagutzeko zer igaro zan Aurregazko autuetan.

Matik jakiebanean albista barri au, *inpernutik* urtena irudian bere amorruez; amak eta arrebeak baileben lez gertaera guztien errua.

Ama-arrebai esaten eutsen:

—Eztot nai egon egun baten be luzarago erri zital onetan; biar joango naz Bilbora ontziari itxarotera, gero emendik urrun biziteko.

—Artuik eroapena Mati, olan eure burua estutu baga. Zer egingok Bilbon bakar-bakarrik, berba gozatsu bat, mingarria ibituteko inok esango eztoan errian? Geitu eure buruausteak

(15) *Ziurtu* = Afirmar.

eta naibageak, osasunaren kaltean: aztuizak igaro direan gauza guztiak, eta baketuik eure biotza Jaungoikoari eskariak eginaz: gaztea az oraindino, ta beste ereti baten artukok emaztea.

Sinisgatxak zirean Andonirentzat bere semeari ezkontza asmoetan igaro jakazan gertaerak, baina atzenerutz ikusi eban, zelan, andigurako aserrekorraren entzutea eukalako, ez ebela nai beragaz ezkondu, ondo bizi zirean neskatilak. Gogoeta one-gaz, Andonik uste eban, ezin izango zala ezkondu etxeraldi onetan, da orregaitik esaeutsan, gaztea zala oraindino, ta beste ereti baten artuko ebala emaztea.

Iru neskatilakaz erabili ebazan auziak jakin zirean erri guz-tian, da luzaroan izan zirean irrigarriak inarkuntza orrek. Amak eta arrebeak egin eutsezan oarpen da aleginakaz, lortu eben Matiren burutik alde eragitea Bilbora joateko asmoa. Egunaro joaten zan mendiak zear egurastutera, ta ilunabarretan egiten ebazan ibilketa (16) batzuk, batera ta bestera erri barruan. Itxi eutsan ezkontza asmoari, Jaungoigoak nai eban arte, baina ezieban birbiztu bere biotzila. Amari esaten eutsan sarri:

—Onek lotsariok artuteko, obeto izango zan mila bidar, agertu ezpanitz etxera; neskatila guztizko bioz-otzak dagoz erri onetan. Sinisgatxak izan dira niri gertau jatazan edestiak!

Auregaz izan ebazan autuak amaitu, ta amabostgarren egunean, kalean abesauten ebezan urrengo dagozan koplak:

Mati dozu zuk izena baina,
Txotxo-arro ezizena,
Ondo jantzita apainduriko,
Iruderra ta lerdena.
Andikeriaz uste ei dozu,
Askok uste eztabena,
Emaztegeitzat lortukozula,
Emeko aberatsena.

(16) *Ibilketa* = Paseo.

Diruduna ta ontziburua,
Zein bizibide oberik?
Baina dinoe eztagoala,
Zu lako andigurarik;
Egunaroko aserreakaz,
Mutil *irrituagorik*,
Eta etxean eztau inok nai,
Bakea baino besterik.

Eladitxo zan lenengo aldiz,
Zure begiko kutuna,
Egurastuten ortik-emetik,
Egunaroko laguna.
Zeure gogoan sarturik zeunkan,
A polit begi balzduna;
Beti gomutan, noiz elduko zan,
Ezkonduteko eguna.

Iragarririk Eladitxori,
Matigaz ezkondutea,
Arin bai arin erantzun eban,
Etzala bere ustea.
Eskerrak emon eioezala,
Gurari onen ordea,
Bere gogora etzala eldu,
Senar sundan bizitea.

Ostera Mati, maite zenduan,
Neska Kostantzi Artzako,
Ule gorritzta, begi zuriak,
Iruderra kalerako.
Gorputz andiko, arpegi-eder,
Apaintzalea zalako.
Antxinatxotik esaten eutsen,
Kostantzi andigurako.

Kostantzi oni eroan eutsen,
Albista ori etxera,

Erantzun eban, mutil aregaz,
Bera ezkondu? Bai zera!
Geiztotxoan dan entzuteagaz,
Biurtu zala bestera
Eta ganera, bera etzala,
Bigarren maiko *platera*.

Aure izan zan, Txotxo-arroren,
Begiko irugarrena,
Andi ez txiki, argal ez lodi,
Neskatilatxo lerdena.
Nekezalea, ez aberatsa,
Josten ondo ekiena,
Zein baterako, zein besterako,
Izan leikean onena.

Aureri bere, iragarririk,
Matiren gogo betea,
Erantzun eban, ez ebala nai,
Aregaz ezkondutea,
Aserrekor da geiztoa zala,
Egoala entzutea,
Naste orretan ibili baino,
Obea zala bakea.

Ikusi dozu, mutil panparroi,
Dirudun ontziburua,
Gauza orrekaz ezta neurtuten,
Gizasemien mendua.
Aserreakaz ezta egoten,
Bakean etxe barrua,
Bizitokian (17) jagon bear-du⁴,
Bakoitxak bere lekua.

(17) *Bizitoki* = Morada.

⁴ *bear-du* aditza *bear dogu* 1. persona pluralekoaren laburpena izan daiteke.

Kopla onek, lenengo kalean, urrengo josleak egozan etxie-tan, da gero neskameak, langilak eta edonok, edozein lekutan, kantaten ebazan. Etzan jakin nor izan zan koplaria.

Mati, lenengo onek koplok entzun ebazanean, egon zan bere izeko baten etxean, da adiketa (18) guztiaz egon zan entzuten, zein barri ete ekarren. Aditu ebazanean, zoratu bear jakan, da izekori esaeutsan:

—Eztozuz entzun orrek kopla irrigarriok?

—Bai, kantau deizela. Zer doa iri?

—Niri asko, irrigarriak direalako. Koplaria nor izan dan baneki, eztaikit zer egingo neuskion!

—Ez eiok jaramon; orrek amabostako ekinak izaten dituk; gero ezebez.

—Jakin bear dot nor izan dan koplaria, arpegiko narrua kentzeko.

—Lan orretan asten baz, euri kendukue narru ori.

—Agur, izeko.

—Agur Mati, euk nai doan arte.

Etzeratu zan Mati, ta amagana aurkeztu zanean, geztokitar bat irudian; itzal da zurbil guztiz aserre esaeutsan amari:

—Entzun dozuz, ama, or kalietan abesauten dabezan koplak?

—Bai, sarri dantzudaz.

—Zer deritxazu gaizbide orri?

—Ezkontza goraberetan, beti agertu oi doaz olako kantak.

—Beti ez ama; orrek koplok niretatzat irrigarriak dira, ta jakin bear dogu nor izan koplari ospetsu ori.

—Ziur eztozu jakingo nor izan dan koplaria; nik bakit nun topau dan orrek koplok daukazan ingi edo paper bat, baina eztaikit nor dan koplaria.

—Nun topau da paper ori?

—Terentzi Basterretzekoren atepetik barrura sartu eben paper bat arainegun gabeen, da goizean, atea edegi zanean, ja-

(18) Adiketa = Atención.

so eben. Paper ori, neuk daukat, baina an legez, beste atepe askotan sartuko ebezan, da zabal dira erri guztian.

—Emodazu ama paper ori.

—Bai, zeuk eskatu baga, enotsun emongo, naibage geiago artu ezteizun. Ona emen, kopladun paper ori.

Txotxo-arrok irakurri ebazan koplok, eta guztiz aserre jarririk, esaeutsan amari:

—Ama, egizuz abiamenak nire soineko guztiakaz; arauturik dagozanean Bilbora joango naz: ezin neiteke egon luzarogo erri onetan, buruaustea ta naibagea baino besterik topaten eztodazan lekuan.

Alper izan zirean ama-arreben aleginak Bilborako burubidea aldatu eragiteko: irugarren egunean joan zan Bilbora bere itsasontziari itxarotera.

Ama-arrebak negar asko egieban agur egin eutsenean.

Ona Txotxo-arro, atzerrietan urte askotan ibilita, etxeratu zan, dirutxoaz da ezkontzeko asmoaz, oso puztuta, erriak bere artu ezieban gisan, baina esakunea dan lez, agoa bete azurregaz lotu zan.

Sarri gertauten jake ori, geizto andigurakoai: inok eztau nai etxean aserrerik ez naibagerik, bakea dalako, Jaungoikoa-gaz zein lurbira onetakoakaz biziteko gauzarik onena.

XV

Jose txo etxean da leku askotan

Txotxo-arroren auziak amaitu ta seigarren ilebetean, etxeratu zan Jose txo, ontzian bere osterak bigarren agintari eginda, ta bere ikasgoa (1) egituta, *capitan* edo ontziburu izateko azterpenetara aurkeztuteko usteaz. Zan, erasti atan, ikusi leitekean mutilik ederrena, bere ogetalau urtegaz. Ile bigarreanean egozan Bilbon azterpenak, eta bitartean joaten zan Mundakako ikastolara, ikasgai batzuk ikastera.

Jose txo etxeratu zanean, da oraindino luzaroago be, kantaten zirean Txotxo-arroren kantak, eta jakin ebazan jazo zirean edesti guztiak. Orduan bere artean esaten eban:

—Masima ta senarrak, Eladigana maitegureaz agertuten direan mutil guztiak egiten deutse abegi ona: ni bakarrik nauke euren arerio bat legez, ezetariko zio baga: ezin autortu leie, nik eguno eurakaz gizabide txarrik euki dodanik.

Lenengo egunetan, Jose txok ikusi ebazan bere adiskide guztiak ibiltaldietako orduetan, baina Eladitxo ez eban inun ikusi, ta egon zan buru-austen, gomuta izan ebal, zer jazoten ete zan neskatila aregaz.

Eladitxo, jolas orduetan, bere neskatila-lagunagaz, da Jose txo ikusteko gogoaz, joaten zan Ondartzarutz goiko bidetik, eta Jose txo ordu orretan Mundakarutz beko bidetik: ez eben alkar ikusten, egun baten alkarren ikusbidean jarri zirean arte. Orduan beingo baten joan zan Jose txo goiko bidera, ta Eladiri odolak burura igo eutsen, mutil orregaz, irugarren urtean berba

(1) *Ikasgo* = Aprestizaje.

egin ebanean. Josetxok erazagutu eutsezan, atzerrietan ibili zan artean igaro ebazan jazoera guztiak; mingarri ta gozagarriak, atsegina da naibageak, eta agoa zabalik entzuten ebezan neskatila biak mutilaren edestiak. Iluntzean agur egin alkarri, ta joan zirean neskatilak Mundakara ta Josetxo Ondartzara, pozik alkar ikusi ebelako.

Eladiri, etxeratu zaneko esaeutsan amak:

—Pozik ago, politori; bajakiat Josetxogaz egon azana Ondartzako goiko bidean: eu joan be mutila bilatutera.

—Bai ama; egia da; beste leku batera joango ginean lez, joan gara bide atara.

—A mutila ikustearren joango intzan?

—Bai ama; eztot ikusi etorri danik ona, ta euki dot ikusteko gogoa, neure antxinako ikastetxe-laguna.

—Beste baten jakiten bot, eu joan azala beragana, ilgo aut!

—Ez ama, enaz joango geiago.

Eladixok ezin egin eban lorik gau atan, buru-austen nor izan ete zan amari ain arin salatu eutsana Josetxogaz egon zala Ondartza bidean; jazoera onek erazagutu eutsan, zelan orain bere, lenago lez, zaintzaile (2) ona eukala amak, bera nundik, zelan da nogaz ebilen zaintzeko. Beste edozein mutilegaz batuten bazan Eladi bere ibiltaldietan, zaintzaileak ez eban ezer salatuten; Josetxogazko batzarrak bakarrik salatuten ebazan.

Josetxo ikastolara ebilen lez, bazkalorduan bakarrik egoten zan bere etxean; beste orduetan ikastolan ezpazan, ikusten zan an edo emen, bere liburu edo iraztiak eskuetan ebazala, ta noizbait topaten eban Eladi kalean aurrez-aur, berbatxo bat edo beste alkarregaz egiteko; etzirean batuten beste lekutan. Baina Josetxo egurastuten zan Mundakako neskatila guztiakaz, bein batzukaz da bein besteakaz, aberats zein nekezale, eretia etorrenaz, da bardin gizasemeakaz be. Eladi zan bakarrik erri guztian, gurasoak galarazoten eutsena Josetxogaz berba egitea.

A zan zorakeria! A zan zentzunbakoak izatea! A zan ez ezagututea, gisa orretan, berezkoak eta onak direan askatasu-

(2) *Zaintzaile* = Guardian.

nak (3) galarazoezkero, adiskide direanai, birbiztu egiten jakezala egunaro alkarren biotzetako su-txingarrak! Ez egoan Mundakan beste aitamarik, aberatsak izan arren, euren alabai Jose-txogaz ibiltea galarazoten eutsenik: Eladitxo errukigarria zan bakar-bakarrik kateakaz lotuta egoana, zaintzaileak inguruan ebazala.

Irakurleak gomuta izango dau, zelan Josetxok artu eban «Ama Karmengo» izena eban ontziaren agintaritzea *ekinozioaz* galdu zalako len ontziburu izan zana. Etxeratu arte, urtebete ta erdian, ibili zan aginpide orregaz, da gero be, ontzi-jaubeak nai eben jarraitu eiela alantxe, baina *capitan* edo ontziburu izateko eskubidea artuteko aurkeztu bear eban azterpenetan, da ezin egin eban ontzi-jaubearen guraria urrengo osterara arte. Ontzi-jaubeak maite eben Josetxo, ta eskini eutsen ontziaren agintaritzea osteratik etorreanean.

Ona mutil au, bere egitasun ta gizabide onakaz, aurkituten zan, laster ontzi eder baten agintaritzea artuteko bidean, da ganera, etxeratu zanean, aitamai emon eutsazan, bere osteretan irabazi ebazan dirutxoak; mila ta laureun dukat.

Ondo pozik, Jaungoikoari eskerrak ageriten egozan Txomin-txiki ta emaztea, a diru piloa eskuartean ikusi ebenean. Euren ustean ez egoan lurbira onetan alako mutilik; etzirean eguno preminan edo ezeren bearrizanean aurkitu, Josetxo Ondartzara agertu zanezkero; beti uste eben, Jaungoikoak, eurai lagunduten biraldu eutsela mutil ori.

Josetxogaz ontzian ibili zirean mundakar batzuk, etxeratu zireanean, zabaldu eben entzute ona, euren ontziburu izan zana; esaten eben ez egoala Josetxo lako ontzibururik, ontziko lanak agintzeko, zein ontzia bide onetik eroateko, zein edozein gaitasunetan, indarra ta asmupena (4) bear zireanean.

Eladiren ama Masimak eta bere senarrak jakin ebezan onek barri guztiok; baita aitamai mila ta laureun dukat emon

(3) *Askatasun* = Libertad.

(4) *Asmupen* = Ingenio.

eutsazala be; baita laster ontziburu izateko bidean egoana be; ganera, euren begiakaz ikusi eben, bein baino sarriago, mutil ederra zala. Nun bilatuko eben bada, gizabide, irabazbide (5) ta ikusbide obeko mutila? Zein burutasun erebilen Eladiri galarazoteko Josetxogaz ibilten? Zer? Andikeria azpiratuko jakela? Bai orixe! Apalkeri andia izango zala eurentzat, Eladiri euren baimena emotea Josetxogaz ibilteko. Baina baimenik emon ez arren, aurrerantzean ez eutsen alabeari, onerako ez txarrerako, mutil aren ganean barbarik aitatuten, da esan leikean, zerbait aldatu zireala euren lengo buruera ta gurariak. Asi zirean argituten euren bekoki ilunak, eta esan leikean askatu bear zala Eladitxo lotuta eukan katea.

Eladi, egunaro joan poztuten, amak lengo beste ardura artuten ez eutsalako, ta lengo beste aserre ta naibage aitamak eta berak ez eukelako; ta ganera uste ebalako, biurtu zireala zerbait Josetxoren alde, onen gizabidea jakin ebenean: baina alan da guzti be, etzirean biak batuten alkarregaz, kalean arpegiz- arpegi topaten zireanean baino.

Egun onetan, ain zuzen be, esaten zan Mundakan, neskati- la aberats batek, bere gurasoen baimenaz, nai ebala ezkondu Josetxogaz: egieutsela berba bere ama Juana Mariri, ta mutilak erantzun ebala, gaztea zala ta oraindino ez eukala ezkontzeko asmorik, eta Josetxo bera joan zala neskati- la orri eskerrak ageritera.

Bearbada, albista onekaz, aldatu ebezan euren gurariak, Eladiren aitamak.

Erasti atan, Bermeon egoten zirean abelgorri batzarrak, domeketan ile birik baten: an batuten zirean inguruko baserritarrak euren idi, bei ta txalakaz salerosietarako. Txomin-txikik nai eban saldu eukan bei zar bat, eta erosi esne asko emoten eban bei eder bat; orretarako eukan Josetxok emoeutsen dirua. Artu bei zarra ta joan zirean Bermeora, Txomin, Josetxo ta otseina: laster saldu eben bei zarra berrogeta amabost dukate-

(5) *Irabazbide* = Empleo.

an, baina diru asko eskatuten eutsen bei eder bategaitik. Joan-
etorri asko eginda gero, erosi eben bei eder ori, eun da berro-
getabost dukatean: ordaindu eban Txominek, itxi eban otseina
beia zainduten, da Josetxo ta bera joan zirean lauretakoa artu-
tera.

Gerotxoago aurkeztu jaken otseina iragarritera zelan bei-
jaubeak kendu eutsan beia, esanaz, errakuntzea izaebala, ta di-
ru geiago bear ebala. Jagi zirean maitik Txomin da Josetxo;
joan zirean abelgorrien batzarrera, ta Txominek esaeutsan bei-
jaubeari:

—Zer darabiltzu, gizona, bei orregaz? Ordaindu jatzu bei
ori, ta neurea da.

—Ez; errakuntzea egin dot, eta amar dukat geiago emon
bear deustazuz.

—Ez adiskidea, ori irrigarria izango litzake niretzat: ber-
bea berba, ta eskatu dozuna ordainduaz, amaitu dira gure artu-
emonak.

—An ikusten dozun gizon andiak, emon gura deustaz,
amar dukat geiago.

—Nik eztaukat zereginik gizon aregaz, da itxidazu bei au
bakean. Ordaindurik eta neuganaturik euki dot, eta neurea da.

Josetxo egoan zerbait aldentuta, isil-isilik autuak entzuten,
da ikusi eban a gizon andia, amar dukat geiago emon nai ebaza-
na, etorrela astiro-astiro urreratuten beia egoan lekura, ta eldu
zaneko esaeutsan Txomini, berak nai ebazala emon amar dukat
geiago, ta itxi eiola beia bere jaubeari.

Gizon andi orrek ez ekian, an egoan morrosko gaztea Txo-
minen semea zana; uste eban abelgorriak ikustera joan zan
ikusgurakoren (6) bat izango zala.

Txominek erantzun eutsan gizon andi ari:

—Beia neurea da, ta eztot itxiko ezegaitik; ziurto leienak
daukadaz erazagututeko, zelan erosi ta ordaindu dodan.

Orduan gizon andi arek, ukabilaz bultzada bat emoeutsan

(6) *Ikusgura* = Curioso.

Txomini, ta beingoan sartu zan Josetxo bitartean, gizon ari esaten eutsala:

—Adiskidea, egizu nai dozun beste berba, baina geldi-geldi esku orregaz!

Gizon andi au zan berrogeta amabost urte ingurukoa, ta bere gorputz andiagaz uste eban Josetxo ta Txomin ikaratuko ebazala, ta berak nai ebana egingo ebala. Ez eban gomuta izan Josetxok eta berak adinean euken ezbardina, ta onek eskua geldi eukiteko esaeutsanean, beroni emoeutsan ukabilaz bultzada sendo bat. Txomin osterera ebilen aserre bei-jaubeaz, da autu onetara batun zirean baserritar asko; batzuk Txomin ikusi ebenak beia erosten, da ordainduten.

Bigarreanean Josetxok esaeutsan gizon andiari, eskua geldi euki eiela, ta gizon onek len lez emoeutsan beste bultzada sendo bat: orduan Josetxok, bere indar da azkartasunaz (7) esetsi eutsan gizon andiari, ta ukabilkada errime batzukaz, lurra jo eragin eutsan. Zuzituko eban, gizon asko bitartean sartuta, al-dendu ezpeben gizon andiagandik. Txominek beste aldetik, arpegia zauritu eutsan bei-jaubeari ukabilkada galantakaz, da ondo erakutsi eban, antxinako menduak aldean ebazala oraindino.

Burruka au amaitu zanean, Txomin, Josetxo ta otseina, euren bei ederraz, etxeratu zirean.

Bei-jaubea ta gizon andia, an lotu zirean arpegiak zauritirik, odoletan ebezala: eguno ez eben artun alako nekaltasunik, eta gogoangarria (8) izango zan eurentzat Bermeon gertau jakena, euren gizabide okerragaitik. Arek biak, alkar artuta, amar dukat geiago kendu gura eutsezan Txomini, baina onek usmau eban aren asmoa, ta txarto urten eutsen euren burubideak.

Ori jazoten jako, goiz edo belu, onbideak (9) azturik, okerkerietan dabilenari.

(7) *Azkartasun* = Vigor.

(8) *Gogoangarri* = Memorable.

(9) *Onbide* = Virtud.

Juana Mari Ondartzako pozik egoan ain bei ederra ikusi ebanean. Ez eutsen esan zer igaro zan Bermeon, da ez ekian ezer burruka arazorik.

Josetxo joaten zan egunaro ikastolara, ta amabost egunean, irakaslea geisorik egon zan arte, bera izan zan ordezkoa, ikasmen guztien ardurea eukana, irakasle bat legez.

Eldu zan Bilbora joan bear eban eguna; aurkeztu zan azterpenetara, ta artu eban ontziburu izateko eskubidea. Ona Josetxo ontziburu edo *capitan* itsaso guztietan izateko eskubideaz; ona pilotukuntzako gorengo aulkian jezarrita, ogetalau-garren urtean, «Ama Karmengoa» eritxon ontzi ederrari itxaroten agintaritzea artuteko.

Bilbotik etxeratu zanean bere ikasmenak amaituta, asi zan lenago lez, baserri-bearrak egitera. Artaldea, berak eroaten eban goizaro mendian zear, da etxeratuten eban iluntzean. Mundakara etzan joaten jaiegunetan baino; mezatara goizean, da arratsaldean, elizako arazoak amaituezkero, bere neska-mutil adiskideakaz egurastutera. Astegunetan ibilten zan etxealdeko lanetan edo arrantzuan Murgua eritxon atxean, atxarrainak arrapatzen.

Ile bi gitxienez eukazan lez etxean egoteko, bitarte onetan, amak eta berak egitu ebezan euren biotzeko done batzuri egin da eukezan eskintsariak, Josetxo izan eitean zorionekoa bere itsasketako galbide ta arazo guztietan.

Iluntze baten, Josetxo mendira joan orduko, etxeratu zirean ardiak: egieben len inoz egin ez ebena, ta ezagun zan zerbait gertau jakena basoan. Josetxok, kortara sartueran, zeinbatu (10) ebazan beti lez, ta egoan bat gitxiago; ganera ikusi eban ardi bat burua makurturik, eta ikuskatu ebanean, topau eutsazan idunean* aginkada-zauriak odoletan egozala. Ezagun zan, txakur, luki, otso edo beste abere geiztoren batek esetsi eutsela ardiai.

Joan zirean mendira Txomin-txiki, Josetxo ta otseina makila lodi banagaz ardia bilatutera; ta idoro eben ilda, muna*

(10) *Zeinbatu* = Contar.

baten ondoan; sasi arteko zulo baten urrean, buru baga, ta ikusi eben odolturik egozala ardiagandik sasi-zulora arteko bedar guztiak. Ziur zan ardia il eban aberea, sasi-zuloan barruan egongo zana ardiaren burua jaten.

Txomin-txikik gomuta izan eban zelan urte batzuk aurre-
rago, Zolaburu eritxon baso-etxeakoak erosi eben burdinazko agindun zepo (11) andi eder bat, txakurrak, lukiak zein otsoak arrapateko, ta andik urre egoan lez etxe ori, joan zirean zepoa bilatutera. Ain zuzen be, garbi ta eder euken zepo ori: imini eben sasi-zuloaren aurrean, arri andi bati lotuta, ardiaren okela zati bategaz, da bedarrakaz ondo estaldurik zepoaren burdinak.

Biamamonean goizean goizetik joan zirean irurak, eta urru-
netik ikusi eben zepoak aurreko anka bietatik oratuta eukala otso eder bat. Joan zirean aida baten bertara, ta il eben iru makilakaz: gero erre ebezan sasiak eta ikusirik sasipean egoala zulo andi bat, munan barrura sartuten zana, arriakaz bete eben a zuloa.

Erasti atan otso asko ebiltzan Bizkaiko mendietan, da sarri igaroten zirean olako gertaerak.

Mundakako mutiko gaztiak, jakiebenean otsoa ilda egoala basoan, eroan eben errira, ta dandarrez erabili eben kale guz-
tietan.

Lendik daki irakurleak, Mundakatik urre, arraunketan txalupa bategaz, ordu erdiko bidean egoana Izaro izena eban itsasleorra, inguru guztian ikusbide ederrak eukazana. Gozagarria izaten zan Izaron egotea udabarri edo udako egun baketsu argietan; alde batetik Matzaku, Sollube, Oiz, Atxerre, Ogoño ta beste mendi asko, ta ganera, ondartzta ta itsasbazter edatsuak, Mundaka ta Bermeo bitartean direala; ta bestetik urru-
nean zeru-barren edo itsasustai (12) ondo eratua, zerua ta itsa-
soa alkarreganutzen direala usten dan tokia. Arrantzaleak itsa-
sora badira, ikusten dira aldra* askotan ainbanaturik, gitxienez

(11) *Zepo* = Trampa.

(12) *Itsasustai* = Horizonte.

berreun txalupa, potin* da batel, andik, ortik ta emetik, Elan-txobe, Mundaka ta Bermeokoak, itsaso guztia zetakaz* beterik bailegoan lez.

Noizik beinean Izarora joatea, egun bat igaroten, ango ikusbide iruderrera ta aize gozatsuetara, beti izan zan Munda-kako neska-mutil guztien ekandua ta guraria. Jaiegunetan, me-za ostein joan bazkariatz; arratsaldean nai dan jantzea egin *pan-dero* soinuian Izaro ganeko zelaian, da etxeratu iluntzerako: au egiten eben, da dabe, noizbait jolas-egunetan jolastutea baino besterik euren gogoan eztaben neska-mutilak.

Eladitxo etzan inoz egon Izaron, da berezkoa dan lez, eukan gogoa ingurua ikusteko itsasleor aren ganetik. Sarri esaeutsan amari bere gogoa ara joateko, bere neska-lagunak edo adiskideak joaten zireanean, baina amak ez eutsan inoz itxi joaten. Domeka baten ebiltzan joateko asmoaz lau neskatila, Aurele, Orentzi, Do-meke ta Todora, euren mutil-lagun, Pelisen, Danel, Bitor, Erro-mul da Pelisegaz, itsasketan bigarren agintari izateko eskubidea eukenak, eta eurakanik, Bitor zan Eladiren aidea*.

Eladik eskatu eutsan amari baimena arekaz Izarora joate-ko, ta amak jakiebanean Bitor lagun zala, erantzun eutsan joan eiteala eguraldi ona begoan, baina aitak esango ebala bere eri-xia domeka goizean eguraldia ikusita gero.

Domeka goizean, ez egoan edoi bat zeruan, aizerik bere ez, da itsasoak osin bat irudian, ain egoan bare ta baketsu: aitamak emoeutsen Eladiri euren baimena Izarora joateko. Guztiak joan zirean zortziretako mezataraz; gero egiebezan abiamenak (13) eta amarretan sartu zirean sei arrauneko (14) txalupatxo baten: eurakaz joan txalupa-jaubea, ta ganera nes-kame bat, otzara baten bazkaria ebala.

Josetxo Ondartzako, ain zuzen be zortziretako mezatan egon zan, da gero, elizondoko zelaian ebilen *gira ta bira* eguras-tuten; bein jazarri, bein ibiltaldi bat egin; batak zinoana entzun, besteari zerbait erantzun. Amarrak aurretxoan, ikusirik portura

(13) *Abiamen* = Preparativo.

(14) *Arraun* = Remo.

joazala neska-mutil batzuk, joan zan bera be ikusgurakoak lez, jakitera zer igaroten zan portu aldean. Ikusi ebazan amar neska-mutilok eta txalupa-jaubea txaluparatuten, da danak adiskideak zirean lez, joan zan eurakana agur egitera. Txalupakoak, Josetxo ikusi ebenean, esaeutsen:

—Etorri zaite geugaz Josetxo; sei arraun daukaz txalupa onek eta bost baino ezkarean lez arraunketarako, bear zaituguz seigarren arraunerako; txalupa-jaubea joango da lemazain.

Neska-mutilak esaten Josetxori sartu eiteala txalupara: Eladitxo bakarrik egoan isil-isilik, eta Josetxok itaundu eutsen:

—Zer dino ba Eladik?

—Nik, zeuk nai dozuna egin daizula.

—Ori ezta oso egia —erantzun eben beste neskatilak—; begia baino naiago leuke etorriko bazintzake.

Josetxok ezagutu eban Eladi zerbait lotsor egoana, ta sartu zan txalupara: laster ezagutu jakan Eladiri bere gogo argia ta poza, Josetxo lagun zalako euren joan-etorrian, da Eladi lez poztu zirean besteak bere, arraunketarako mutil indartsu bat geitu zalako.

Urten eben portutik, eta joan zirean Izarora: txalupa-jaubea geratu zan txalupea jagoten, da besteak igo eben goiko zelaira. Mundakatik, betaurreakaz (15) ikusten zirean Izaro ganean, joan ara ta etorri ona, itsastxorien abiak bilatuten edo beste jolas asmoetan: eguraldia ezin izan zeitekean irudi obekoa; ikusbide ederra ta baketsua egoan zeruan zein lurtean, inguru guztietan.

Arratsaldeko ordu bi ta erdietan, jantzan iarduen gogotsu, baina ordu onetan Josetxok ikusi ebazan edoi txiki batzuk Bermeo aldetik, mendi ostean gora etozala, ta galarrenak (16) eratuten zirean erastia zan legez, bildurra artu eban, da esaeutsan bere lagunai:

—Mutilak, edoi geroago andiagoak datoz Bermeoko mendi ostetik gora, ta uste dot ondo izango dala ainbat arinen etxeratutea, galarren gogorren batek arrapau ezkaizan itsasoan.

(15) *Betaurre* = Anteojo.

(16) *Galarren* = Temporal local.

—Eztago oraindino itxura txarrik —erantzun eben beste mutilak—; txalupa guztiak be an dagoz kalan, zirkinik egin barga.

—Arek kalan dagozan txalupak, ezin bardindu leitekez guk daukagun txatxarraz*, da goazan etxera ainbat arinen.

—Eztago aize gogor antzik eta joango gara gerotxoago.

Iruretan jantzan iarduen, da ordu onetan asi zirean kalako txalupak euren bela txikiakaz etxeratuten. Orduan Josetxok esaeutsen:

—Mutilak, txalupak batoz etxerantz, da or Bermeo aldean agiri da aize gogor samarra itsasganean. Ondo egingogu bertan egoten bagara galarrena igaro arte, iru edo lau orduan. Orretarako txalupea leorrera jaso bear dogu, olatuak atxetan zuzitu ezteien.

—Eztago, gizona, olako arriskurik! Goazan txalupara ta etxeratu gaitzean.

—Mutilak, belu dala uste dot; bide erdi ibili orduko arrapako gaitu galarrenak.

—Eztago ezeren bildurrik; goazan txalupara.

Eladitxo zan bakarrik Josetxoren burubideak egin nai eban; baina ikusirik beste guztiak txalupara joazala, onek biok bere jarraitu eutsen besteai.

Estropadan asi zirean arraunketan Mundakarutz, baina laster indargatu (17) zirean, aize ta olatuaren indarrakaz euren kaltez, ta bide erdi ibili orduko ez eban txalupeak aurrerutz egiten: neskatilak oso makaldurik, batzuk jezarrita, ta besteak etzanda, danak egozan bertanbera erostan* deadar baten. «Jo aurrera, mutilak!» esaten eban txalupa-jaubeak, baina txalupea astiro-astiro joan atze-atzeka ta albo-alboka ekatxaren indarrak: olatu zaparrada asko sartuten zirean barrura, ta guztiak egozan oso bustita; itzalgarririk* zirean neskatilen negar da deardarrak; ur asko ebilen txalupan barruan da lemazainak kenduten eban al ebana urontzi bateaz.

(17) *Indargatu* = Debilitarse.

Ikusirik ekatxaren indarrak geituz joazala, ta Mundakatik urrundu egiten zireala bildurgarriko zabunakaz*, artu eben Elantxobera joateko burubidea, ta txalupea biurria egiten egoanean¹ Elantxobera begira jarriteko, ikaragarrizko olatu ausi gangardun batek, ondatu eban. Ona danak uretan, danak uger edo igeri, danak deadarrez txalupeari oratuta; batzuk alderdi batean, besteak bestean, da urrengoak txalupearen aurrean edo atzean, Jaungoikoari ta done askori deadarrez; olatu batek urperatu, ta besteak azaldu; beti arnasa artzeko premian, estutasun andiakaz indarrak amaituaz joazala! A zan negargarria! Josetxok jaurti eban lemea ta Eladiri elduta jarri zan txalupearen atzeko karelai oratuta; beste mutilak eta txalupa-jaubea ebiltzan bakoitxak neskabila bati lagunduten, baina indarrak eta arnasea amaituten joazan, ta ganera urdailak*, nai ta nai ez, kresalez* beteten. Arrantzuko txalupak urruntxo zirean oraindino, ta Mundakan ez egoan eguraldi aregaz itsasora urte-teko gauza zanik; danak egozan itsasoan.

Ito zirean Orentzi, Todora, ta bazkaria eroan eban neska-mea: atzenetan ebiltzan beste batzuk, ekatxak Ogoño mendia-
ren urrera eroan ebazanean. Ito zirean Pelisen da Erromul be, ta larri, estu ta atzenetan ebiltzan beste batzuk be; betozan urreratuten Elantxobeko txalupak, eta aurrerengo aize-aldetik* etorrenak ikusi ebazanean ito bearrik, beingoan joan zan eura-kana. Urrean zanean artu ebazan belak, eta arraunketan joan-
nik, artu ebazan enparauak: Aurele, Domeke, Danel, Pelis da Bitor atzeneko arnasetan, da txalupa-jaubea, Josetxo ta Eladi besteak baino zerbait sendoago. Elantxobera eldu orduko, il zirean Aurele, Domeke ta Pelis, da biaramonean lurpetu (18) ebazan; txalupea portura eldu zanean, da erriko gizeriak ikusi ebanean, an joazan negargarriko gertaerak, batzuk ilda, ba beste batzuk atzenetan, ezin erazagutu leiteke an aurkeztu zan

(18) *Lurpetu* = Enterrar.

¹ *biurria egin*: bueltea emon.

laurka arrigarizkoa: erriko gizeri guztia joan zan portura la-
gunduten, da gexoak euren etxietara eroan gurarik, danak
Jaungoikoari eskariak egiten, deadarrez da erostan, izugarrizko
gertaera ori ikusirik. Erriko nagosiak artu eban Eladitxo bere
etxean; Josetxo, Danel, Bitor da txalupa-jaubea eroan ebezan
ostatu batera.

Bertako txalupa bik eroan eben portura Mundakako onda-
tu zan txalupa txatxarra.

Gau atan il zirean Danel da Bitor, da urrengo arratsaldean
lurpetu zirean: Josetxo, Eladi ta txalupa-jaubea egozan bizirik;
beste guztiak il zirean.

Zein arrigarria, laguntasunik eztagoan lekuan, ekatx gogo-
rraz txalupea ondatutea! Zein mingarri ta ikaragarria eriotzea
beti aurrean dala itsasganean ordu bi igarotea! Zein izugarri ta
errukarria, arratsaldeko iruretan, azkar da bizkor, jantzan ebil-
tazan neska-mutil gazte ederrak, seiretan euren bizia edo iza-
mena (19) galdutea! Onak zirean Elantxobeko gizeriaren eros-
tak, elizara joazanean Jaungoikoari eskariak egitera ilak eta
biziakaitik.

Bizirik urten ebenak, ogeraturik egozan guztiz makal; osa-
gileak egiten eban alegina gexoak sendatuteko, ta itxaropen
onak emoten ebazan eurakaitik.

Mundakatik ikusi eben Izarora joan zan txalupatxoa eto-
rrela gogotsu arraunketan, galarrena sartu zanean; gero ekatxa-
ren indarra geituaz, ikusi zan atze-atzeka joala, ta geroago es-
taldu zan ikusbidetik. Elantxobeko txalupa bat, belea jatsirik,
arazoetan ebilela ikusi zanean, uste izan zan mundakarrak artu
ebazala, ta beingoan biraldu zan gizon bat leorrez Elantxobera,
zein barri zan jakitera.

Mundakako gizeri guztia egoan elizan naibagez beterik,
eskariak Jaungoikoari egiten, Izarora joan zirean zorianera-
ko. Negar errimeak egiten ebezan euren aitamak eta aideak.

Gabeko zortziretan ibitu zan ekatxa, ta leorrez biraldu zan
mandatariak baino lenago joan-etorria egingo eban ustez, txa-

(19) *Izamen* = Existencia.

lupa eder bat biraldu zan Elantxobera arraunlari onakaz; baina txalupeak urten da gerotxoago eldu zan Mundakara Elantxoberako gizalaba bat, paper bategaz, erriko nagosiarentzat. Paper onetan etorren albistea nortzuk bizi zirean, da albista au jakin zanean, erri guztian etzan entzuten besterik, negarra ta deadarra baino, alde guztietatik.

Elantxobera joan zan txalupeari itxaroten egoan portuan gizadi guztia, zein barri ete ekarren ostera jakin gurarik: gaubeko amaiketan eldu zan txalupa au, ta ekarri eban albistea Danel da Bitor bere il zireala: Josetxo, Eladi ta txalupa-jaubea bakarrik egozala bizirik, eta onek be guztiz makalik.

Gau atan etzan Mundakan lorik egin, ainbeste itzalgarriko negar da deadarraz.

Josetxok, Izarorako txalupan sartu orduko, mutiko bati, saria emonaz, esaeutsan Ondartzan iragarri eiela zelan Izarora joan dan lagun batzukaz, da etzala etxeratuko bazkaldutera. Albista onegaz, Ondartzan bekien Josetxo nundik ebilen arrasalde atan.

Elantxobeko albista mingarriak artu zirean gaubean, joan zirean leorrez bertara, Txomin-txiki, Juana Mari ta txalupa-jaubearen emaztea; jakitun joazan zelan biaramon goizean joango zirean itsasoz, txalupa baten, Ermoken da Masima, Eladiren aitamak.

Ai zein poza artu eban Josetxok, bere gurasoak ikusi ebazanean! Zein poza txalupa-jaubeak, bere emaztea ikusi ebanean, da ganera jakiebanean bere txalupa ondatua portuan egoala!

Goizean goizetik, Ermoken da Masima eldu orduko, joan zan Juana Mari, Eladitxo zelan egoan ikustera, ta itandu eutsan:

—Zelan zagoz, Eladitxo?

Ai, zein gogo argia erakutsi eutsan Eladik Josetxoren amari! Guztiz birbizturik jarri zan: ezieban ondo berba egin, baina astiro-astiro esaeutsan Juana Mariri:

—Zerbait obeto nago: bizi izaten banaz, Josetxori zor izan gotsat neure izamena: mirariak egin ebazan arek ni zainduten ito eneitean: beragaitik nago bizirik.

—Jaungoikoogaitik, ene alabatxoa!

—Ta zelan dago Jostxo?

—Onerantz egin dau zerbait.

—Zein pozik nago albista orregaz!

—Agur orain Eladitxo, laster jatortzuz gurasoak txalupa baten.

—Batoz?

—Bai, goizean txalupa baten etorteko asmoa euken, da laster elduko dira ona.

—Agur ba, Juana Mari; gorantzi asko Jostxori.

Gerotxoago eldu zirean Ermoken da emaztea, ta pozik egoan Eladi gurasoak ikusi ebazanean.

Txomin-txikik, goizaldean egieban loaldi apur bat eta go-saldu (20) ebanean etxeratu zan leorrez. Ermoken bere, bazkalostean biurtu zan Mundakara bertan txalupan. Masima lotu zan, bere alaba Eladiren ardurea artuten; Juana Mari Jostxorena, ta txalupa-jaubeagaz, bere emaztea.

Mundakan egin ebezan il zirean guztien elizkariak, eta edozein aldetatik ikusten zan gizadia iljantzi (21). Bost neskatila ta bost mutilek galdu ebezan euren izamenak adinik onean!

Jostxoren burubideak egin etzirealako gertau zirean atsekabe guztiak. Olan jazoten jake, zuzenbide (22) onetatik alden-du oi direanai.

Uste baga joan zan Jostxo Izarora, ta esan leikean, Jaungoikoak eroan ebala Eladitxoren ardurea artutera.

Irakurleak gomuta izango dau, zelan, Jostxo ta Eladi gazetxoak zireanean, ibili zirean karramarrotan elizosteko artzan: zelan Jostxo, urak, berantzaldian, eroan da sartu eban atxarte estu baten, da uraren gorantzaldia etorri orduko, zelan Eladi-

(20) *Gozaldu* = Desayunar.

(21) *Iljantzi* = Luto.

(22) *Zuzenbide* = Dirección.

txok arin-aringa joanda, lagundu eutsan atxartetik urtetera. Laguntasun au eutsan zor Josetxok Eladiri, ta orain ondo geituaz ordaindu eutsan zor ori.

Juana Marik, galarrena gogor sartu zanean, Gernikako elizan egoan «Ama Ongile» edo «Ama Sokorrukoa» esaten eutse-nari egieutsan eskintsari bat Josetxoren zorionerako.

Txomin-txikik, egun birik baten biralduten eban bere otseina leorrez Elantxobera, jakitera zelan egozan Josetxo ta Juana Mari: bide batez jakiten ebazan beste gexoen barriak be; osagileagandik jakiten eban gexo baktokak bestearen barri. Guztiz astiro, baina egunaro joazan onerantz, da Masimak esaten eutsan bere alabeari:

—Eladi, ene alabea, bein joan da bertan ikusi dozan erio-tzako orduan igaroten direan mingarri ta atsekabe guztiak. Nun egon zirean zeuen lagun gizasemeak, galarrena etorrela aurretiaz ezagutu бага? Zein gogamen euken euren buruetan aztu eragiteko txalupa txatxar bat zeunkela, ta etxeratu bear zindue-la alik arinen eguraldia aldatuten asiezkeru? Beste gauzarik gomuta izan бага, jantzan gogotsu antxe ibili gureak, galdu zindue-zan zentzunbakuok! Etortea daukan, beste baten be, nire baimenaren bila Izarora joateko! Ez az joango beste bein ni bizi nazan arte!

—Entzuizu ama: Josetxok, Bermeo aldetik edoi batzuk gorutz etozala ikusi ebazanean, esaeutsen beste mutilai, obeto izango zala etxeratu aida baten, baina besteak erantzun eutsen ez egoala itxura txarrik. Gero, galarrena urreratu zanean, Josetxok nai eban egon bertan Izaron ekatxa igaro arte, ta besteak ez eben nai izan. Geroago bakizu zer igaro zan Josetxoren burubideak jarraitu etzirealako. Nik, berari deusat zor ama, neure izamena: Jaungoikoak ekarri eban txalupara neure ardu-rea artuteko.

—Nik enekian Josetxo zuekaz zanik: ondo gordeta euki endunan albista ori.

—Ez ama, ori ezta zuk uste dozun lez; Josetxok ez ekian gu Izarora ginoazanik, baina portuan egon zan txaluparatu gineanean, da mutil-lagunak azkortu eben geugaz joateko,

arraun baterako laguna bear zalako. Olantxe, uste barik izan zan Josetxoren Izarora joatea.

—Olan bada, ondo dago.

Ogeratu ta seigarren egunean jagi zan Josetxo etxe barruan ara ta ona ibilteko; amargarren egunean jagi zan, txalupa-jaubea, ta amalaugarrenean Eladitxo.

Len esan dan lez, Eladiren aitamak eldu orduko, joan zan Juana Mari neskatila ori ikustera, ta gero be sarri joango zan, baina bekian Masimak ez eutsana begi onakaz begiratuten, da orregaitik etzan joaten: osagileagandik jakiten eben zelan egoan Eladi. Ainbeste egunetan egon zirean Elantxoben, da Masima etzan bein be joan Josetxo ikustera, jakin arren bere alabea, mutil aregaitik egoala bizirik. Zein biotz gogorra bere alabea gatxondu (23) eban mutil onbidetsu ta gizabide ona beti erakutsi ebanentzat!

Txalupa-jaubeak esaten eban, mirarizko gaitasunaz zaindu ebalá Josetxok Eladi olatupean.

Eladi ogetik jagi ta bostgarren egunean, eguraldi onagaz, joan zan txalupa nagosi bat Mundakatik Elantxobera gexoko eta euren amak bilatutera: etxeratu zirean guztiak, eta ganera, eurakaz eroan eben ondatu zan txalupatxoa. Txalupan batera joazan arte, Masimak ez eutsen berba egin Josetxori ez bere amari: apalkeria zan beretzat areri baserritarrai berba egitea.

Ondartza urrun samar egoan lez, Txomin-txikik, portuan eukan bere burdia, galtzoakaz azpia bigunduta, Josetxo etxeratzeko. Onik astebetegarrenean, irurak egozan sendo, ta urteten eben aizetegira (24) egurastutera.

Josetxo oso sendatu zanean, beronegaz joan zirean Gernikara Txomin da Juana Mari, Ama Ongileari egieutsen eskintzarria egitutera. Elizako eskariak egin ebezanean, Txomin-txikik nai eban ikusi euskaldunen Aritx maitea, ta irurak joan zirean ikustera. Txomin koplari ona zan lez, antxinatxotik ekizan be-

(23) *Gatxondu* = Salvar.

(24) *Aizetegi* = Campo.

rak asmauriko kopla batzuk, etxean, soloan zein basoan kantaten ebazanak, lan bigunak eukazanean, da otu jakan kopla onek kantatea Aritxaren azpian. Juana Mari, Josetxo, otsein da neskameak bere, bekizen onek kantok ainbeste bidar Txomini entzunik.

Jarri zirean irurak Aritxaren azpian; Txomin da Josetxok artu ebezan txapelak eskuan, da irurak batera, lerden da zoli Aritxari begira ta biotz-biotzetik, kanta ebezan urrengo dagozan Txominen koplak.

ARITX MAITEA

Nai dala osasunaz,
Zein gexo txarretan,
Naibagez ondaturik,
Zein atseginetan;
Leorreat lez bardin,
Itsas zabaletan,
Eguraldi onakaz,
Baita ekatxetan;
Bakean gagozala,
Zein gudu lanetan,
Geure erri maitean,
Zein atzerrietan,
Lurbira onetako,
Bazter guztietan,
Aritx eder bat dago,
Euskal biotzetan.

Zeuzara Aritx ori,
Zeuzorionean,
Gozagarri lastana,
Euskaldun lurrean,
Adarrak luzeturik,
Lerden da bakean,
Lege kutun bat dozu,
Ez kur bakotxean.
Poz-pozik bizi naz ni,

Zure legepean,
Neure atseginetan,
Zein atsekabea.
Lurperatu bagarik,
Nagoan artean,
Beti eukiko zaitut,
Neure biotzean.

Gero, astiro-astiro iluntzerako etxeratu zirean, da gau atan bere, apalostean, eresi edo kanta ebezan Aritx maitearen koplak.

Aurrerantzean, Josetxo ibiltzen zan lenago lez, bein baserriko arazoetan, bestean atxarrainetan, da sarri iluntze aurrean egurastuten Mundakako neska-mutil lagunakaz. Len entzute andikoa ta ondo ikusia bazan, orain ainbat ospetsuagoa ta maiteagoa zan alde guztietan, bere egitasun onakaitik. Eladiren aitag be, gogo argiaz agur egiten eutsan, kalean edo beste lekutan ikusten ebanean: Masima bakarrik zan oraindino begi argiakaz begiratuten ez eutsana, baina onek bere, ez eutsan orain Eladiri agirakarik egiten, Josetxogaz batun arren egurastuteko ibiltaldietan.

Egunak joan, asteak etorri, sendatu zan ondo Josetxo, ta etorri jakazan lengo indarrak.

Berak aginpidea (25) artu bear eban ontzi «Ama Karmen-goa» eritxona, eldu zan Bilbora: agur egin eutsen Josetxok bere adiskideai ta Eladitxori, ta ontziratu zan. Negar asko egieban Bilborako urten ebanean: amar egunean egon zan Bilbon, ontzia zamatu arte, ta gero urten eban itsasora Habanarako.

Eladitxok, egun askotan erabili ebazan bere begiak bustirik negar-anpuloak jausten jakazala, ain izan zan andia, Josetxok agur egieutsanean artu eban naibagea.

Aize ibituak eta eguraldi onakaz, berrogetazortzi egunean, eldu zan «Ama Karmen-goa» Habanara. Amar egunean karte-

(25) *Aginpide* = Mando.

gatu^{*} eben, da beste amabostan zamatuzan, Franzeako Bordeaux izena eban errira joateko.

Habatanik urten da ogeigarren egunean aize gitxi ta itsasoa bare egoala, topau eben ontzi bat, zuzenbide baga, bere belak edo aize-oialak, batzuk baterantz da besteak besterantz, txarto araturik eukazala, ta Franzeako *bandera* edo ikurrina masta puntan ebala. Beragana urreratu zireanean, ontzi atan etzan agiri gizon bakar bat baino; lemazain be ez egoan inor.

«Ama Karmengoak» jaurti eban batel bat uretara, ta pilotua edo bigarren agintaria lau arraunlarigaz, joan zan ontzi atara, jakitera zer jazoten zan zuzenbide barik egoteko. Barruratu zireanean, gizon bakarrak iges egiten eban eurakandik; Franzeako berbakuntzan esaten ebazan berba batzuk; gora ta bera, batera ta bestera igituten ebazan gogoz bere besoak, ezpanak eta begiak, zoro baten antzera. An, or da emen, odol legortuak egozan bean: atzealdean topa ebezan ilda gizon bi, ta aurrean zazpi.

Joan zirean euren ontzira Josetxori esatera zer jazoten zan, da au arriturik lotu zan arek eroan eutsezan albistakaz. Uste eban aserrekuntzaren bategaz alkar ilgo ebela agintari ta menpekoak, eta gero a gizon bakarra zoraturik jarriko zala.

«Ruan» eban izena ontzi orrek.

Ontziburua izan zanen *paperetan* jakin zan etorrela Terranovatik makailaoz zamaturik, eta ain zuzen be, joala Bordeauxera, «Ama Karmengoak» joan bear eban portura.

«Ama Karmengoan» batzartu zirean, Josetxo, pilotua, ikasgoan ebiltzazan mutil gazte bi, ta ontziko marinel zarren biak, zer egin bear zan erabagiteko, ta seiren artean erabagi eben, erdiak ontzi baktxera ainbanatutea, ta batera joatea Bordeauxera arte, «Ruan» orrek beukazan elikaturak edo janari ta edari onak eta bear zirean beste gauzak. Baita izenta ebezan, nortzuk joango zirean «Ruan» eroatera; onetarako Josetxo joan zan ontzi atara, len batelean egozan gizonakaz, ikustera zelan egozan, janari, edari ta itxasketarako gauza guztiak: danak topau ebazan ondo samar, da upategia makailaoz beterik.

Gertaera onetan ekandu oi direan eskariak Jaungoikoari eginaz, bota ebezan itsasora ilda egozan gizonak: usteldurik egozan lez, paleaz jaurti ebezan zatika. Lau edo bost egun aurrerago ilgo zirean arek gizonak: garbitu eben ondo ontzi guztia, ta gero joan zirean «Ama Karmengora».

Paperetan agertu zan amasei gizaseme zireala ontzi atako gizadia, ta amar baino topau etzirean lez, uste eben, enparauak itsasora jaurtiko ebezala burruka iardu ebenean.

Bigarren agintaria edo pilotua zan «Ruanen» aginpidea artuko ebana, ta Josetxo ta bera aditu zirean alkarregaz, ontzi batuk besteari, *bandera* edo ikurrinakaz egin bear eutsezan ezaugarrien (26) ganean, zuzenbidea aldatu, aize-oialak geitu edo gitxitu, urreratu edo urrundu, ta beste egin bear zirean arazoak egiteko, ontzi biak alkarren ikusbidetik aldendu ez eitezan.

Euren abiamenak egin ebezanean, joan zirean ontzi atara, pilotua, ikasgoan ebilen bat, eta sei gizon; euretari bat gatze-maila (27). Bertan egoan gizon zoroak ez eban jotera esetsiten, baina ondo zainduten ebezan gizon aren ibilkerak badezpada, ikusteko, txarrerako asmorik artuten beban: emoten eutsen jan da edaten, da egun batzuk igaro zireanean, asko ibitu jakazan bere artegatasunak (28).

Eguraldi ona egoan arte, alkarren urrean joazan ontzi biak, baina iluntasunik edo etxura txarrik egonezkero, aurretiaz batuten ebezan gorengo aize-oialak gizon gitxi zirealako ontzi baktotxean, da gisa onetan egun askok igaro bear eben porturatu orduko.

Bein arrapau ebazan, ekatx gogor, aize, euri ta abarregaz etorren batek, eta itsastatu² eben egun bitan, alkar ikusi baga,

(26) *Ezaugarri* = Señal.

(27) *Gatzemila* = Cocinero.

(28) *Artegatasun* = Inquietud.

² *navegar* adierazoteko darabil *itsastatu*.

nundik nora joazan ez ekiela: bigarren egunean, eguraldia argitu zanean, ez eben alkar ikusten, baina ontzi bietako masta ganietatik agiri zirean alkarren gorengo belak, eta gero urreratu zirean alkarregana.

Alkarren ikusbidetik aldentuten bazirean, bekian bako-txak Bordeauxera jarraitu bear ebana an alkartutera.

Egun batzuk igaro zireanean, eratu zan beste ekatx lengoa baino indartsuagoa, izugarriko olatuakaz, da euri landurraz estaldurik bazter guztiak, ez eben alkar ikusi iru egunean. Ekatxa ibitu zanean ez eben ikusten batak bestea masta ganetik be: jo ebazan aize indartsu batek beste aldetik, eta agertu zirean barrero alkarren ikusbidera. Gero euki ebezan egun askoko aize ederrak, eta eurakaz sartu zirean Bordeauxko ibaian.

Zein poza ta atsegina Bordeauxera eldu zireanean ainbeste bildurgarriko gertaera igarota! Ordura arte beti gogo ilunaz etorren gizon zoroa, ibai atako erriak ikusi ebazanean, jarri zan irribarreka gogo argiaz, beso, ezpan da begiakaz guztizko pariztak* egiten ebazala, ta ibilketa gogotsuakaz, bein aurrera ta bein atzera ontziko gizadi guztiari barre eragiten. Gero, lotuta imini eben zoro ori, leorrera iges joan ez eitean, Josetxok erri atako itsastar nagosiari aurkeztu bear eutsalako eroan eien zoroetxe batera.

Aurkeztu zan Josetxo nagosi orregana, gizon zoroagaz da ontzi bien paperakaz, da ageri eutsazan nagosi orri itsasoan igaro jakezan jazoera guztiak. Gero joan zan, lenengo «Ama Karmengoko» zama-jaubeakana (29), ta urrengo «Ruanen» jaubeakana: danai erazagutu eutsazan itsasoko gertaera guztiak: «Ruango» zama-jaubeak ageri eutsazan eskerrak bere egitasun onakaitik, eta ganera esaeutsen gomuta izango ebela bere gizabidea. Ontziratu orduko jakieban, zelan portuko aginpidea eukanak, biraldu eban gizon zoroa, erri atan egoan zoroetxe batera.

Gaberdian, ontzi bietako gizadia ogean lo egoala, aurkeztu

(29) *Zama* = Carga.

zirean bost errizain (30) ontzi baktotxean, da Josetxo, bere menpeko guztiakaz, eroan eben gudu-ontzi batera, ta an imini ebezan katiguturik, arik eta jakin arte, zelan il zirean «Ruango» gizonak.

«Ondo eginen saria
Sarritan da mingarria.»

Josetxok eta bere menpekoak igaro ebezan arriskuak eta egiebezan aleginak zuzenbide baga topa eben ontzia porturatu-teko, arrigarrizkoak izan zirean: ain gizon gitxigaz ontzi baktotxean, ekatxetan igaro ebezan estutasunak eta nekeak, ezin azaldu leitekez ondo norberen begiakaz ikusi barik, eta egitasun onbidetsu orrekaitik, lenengo emoeutsen saria, izan zan katigutegia, Jaungoikoak nai eban arte.

Gudu-ontziko gizadiak zainduten ebazan ontzi biak, eta zama-jaubeak kartegatu ebezan.

Jaten ondo emoten eutsen katigu egozanai, baina Josetxok, bere bizian ez eban euki naibage mingarriagorik, eta bere menpekoai esaten eutsen:

—Gizonak! «Ruango» gizadia zelan il zan jakin arte, dinoo gaukezala katigu: nundik, zelan da noiz jakin leie ori?

—Onegia izateak dakaz onek atsekabeok —erantzun eutsen bere menpekoak—; mila bider obeto izango zan guretzat aurrera jarraitu bagendu, ontzi ari jaramon baga.

—Baina orduan zital batzuk izango ginean. Zelako gizabidea eukiko genduke, laguntasunen preminan, itsas zabalean dagoan ontzi bati jaramon ezik? Egitasun ori, Jaungoikoak be eleuskigu parkatuko! Guk, porturatu dogu a galdu bear eban ontzia, ta leorreratu dogu a gizon zoro errukarria: egitasun orren gogobetea edo lasatasuna (31) daukagu, bestetik naibagea euki arren; da emen gizon maiteak, datorrena datorren lez, eroapenez artu bear doguz gertaera guztiak. Jaungoikoaren

(30) *Errizain* = Policía.

(31) *Lasatasun* = Satisfacción.

aurrerako ondo gagoz; lurbirakuok eztakigu zer egingo deuskuen argitu ezin badabe jakin nai dabena; baina ondo egin dabena, edo bide onetik jarraitu dabena, goiz edo belu, beti urteten dabe garaipenaz euren auzietan, da eztogu galdu bear itxaropen ori.

Olako berba onakaz, azkortuten ebazan Josetxok beragaz katigu egozanak.

Erabagileak eukan pekua «Ama Karmengoko» gizadiak il ete ebazan «Ruangoak», gero ontzi onegaitik, guzurak bitarte zireala, sari ona artuteko ustez. Guztiak banan-banan eroan ebezan bi bidar erabagileagana erantzutera onek egiten eutsezan itaunai, ta danak erantzuten eben bardin gauza guztietan.

Erabagilea gizon ona zan; erruki ebazan katigu egozanak, egia bazan eurak esaten ebena: zinoan, alan izanezkeroko, etzireala katigu egon bear ebenak, ezpada, sari ona bear ebenak baino.

Katigutu ta ogeigarren egunean, Josetxo ta bere lagunak euren zoritxarraz, itzal da motel, naibagez beterik egozanean, eldu zan gudu-ontzira erabagilearen agimen (32) bat, esaten ebala jaregiteko katigu egoan «Ama Karmengo» gizadi guztia, askatasunaz joan eitezan euren ontzira edo nai eben lekura, zirealako erruezak «Ruango» auzietan.

Aida baten, poz-pezik joan zirean euren ontzira. Zer jazo zan, len eurakaz artu ebezan burubide guztiak beingo baten aldatuteko?

Gomuta izango dau irakurleak, zelan zoroetxera biraldu zan «Ruango» gizon zoroa. Gizon au, ogeigarren egunean, gaubean ames asko egin da gero, goizean itzartu zanean, jagi zan ogetik adimen argiaz; jantzi zan da ibili zan ara ta ona egurastuten etxe barruan. Osagilea eldu zanean, joan zan beragana ta esaeutsan:

—Osagile jauna; niri on egin deuste zuk emon deustazuzan osagarriak.

—Ori ondo, zer jazoten jatzu ba?

(32) *Agimen* = Orden, mandato.

—Gaur goizean adimen argiaz itzartu naz.

—Zein atsegina niretzat! Beti uste izan dot egun baterik bestera sendatuko zineala, ta orra orain ondo zagoz. Egon zaite bertan neu gerotxoago etorri arte, ta orduan esango deutsut zer egin bear dozun.

Erabagileak esanda eukatsan osagileari iragarri eiola zoro ori adimen argira biurtuten zanean, da orregaitik, osagilea aida baten joan zan erabagileari esatera zer jazoten zan. Joan zirean biak zoroetxera, ta erabagilea asi zan zoratuta len egoanari itanduten:

—Egia da zu oraintsu «Ruan» deritxon ontzi baten ibili zareana?

—Bai jauna.

—Gomuta dozu ontzi orretan eriotzak izan zireana itsas zabalean?

—Bai jauna.

—Orrek eriotzok jazo zireanean, begoan ontzirik zeuekan-dik urre?

—Ez jauna, biaramonean bere ez.

—Bakar-bakarrik zengozen ikusbide guztian?

—Bakar-bakarrik jauna.

—Orduan zeuen artean izan zirean auziak eta eriotzak. Ezta egia?

—Bai jauna, barruan egozanen artean.

—Egizu ba mesede esatea, zegaitik eta zelan igaro zirean arrigarrizko gertaera orrek.

—Bigarren agintariak zeatu eban sendo menpeko gizase-me bat, agindu eutsan bearra berak nai eban lez egin ez ebalako: beste marinel bik esetsi eutsen bigarren agintari orri, a nekaldu ebalako: orduan *capitan* edo ontziburuak, arpegi emoeban bigarren agintarien alde, ta il eban marinel bat gani-beta zorrotz bategaz; beste marinel bik il nai eben bera, baina ontziburuak il ebazan orrek biok be. Alkartu zirean marinel guztiak, ta lenengo il eben bigarren agintaria, ta gero, ondo zauriturik, jaurti eben itsasora ontziburu. Bost il zirean burru-ka onetan. Bizirik lotu zireanak ez ekien pilotukuntzea ta on-

tzia lotu zan zuzenbide baga: ez ekien zein bide jarraitu itsasorratzean (33). Batzuk zinoen txarto egin ebela nagosia ilteaz, besteak ondo egina izan zala, ta auzi onetan aserratu zirean gogotsu guztiak eta il eben alkar. Bizirik zauri andiakaz geratu zirean batzuk, il zirean biaramonean. Ni auzi guztietatik iges nenbilen, baina zauriturik egoan batek, bere alde egin enebalako, jarraitu eustan batetik bestera ontzi guztian; zauritu nindoan beso baten, baina atzenean, odol baga geratu zanean, jausi zan da etzan geiago jagi. Onek ilgo nindoala uste neban, da artu neban bildur da artegatasunak jarri nindoan guztiz urduri (34), geldirik ezin egon nintzala: gau atan eneban lorik egin: batetik bakartasuna ta bestetik ilak ikusiak, geituten eben nire urduritasuna. Biaramon goizean otu jatan ilak itsasora jaurti bear nituala, neure itzaltasuna zerbait ibituteko, ta neke andiakaz bota nituzan lau. Gero eztakit zer gertau jatan; ordurik onako barririk eztakit; uste dot adimen baga egon nazala.

Gizon orrek kondaira (35) ori ageri ebanean, erabagileak agindu eban «Ama Karmengoko» gizadia jaregiteko, joan eitezan euren ontzira.

«Ruango» zama-jaubeak, emoeutsen irabazita eukana sendatu zan gizon zoro ari, ta joan zan bere errira.

Esan leikean Jaungoikoak argitu eutsala adimena, katigu egozan ongileak askatu eitezan.

Egun batzuk igaro zireanean, errizain batek eroan eutsan Josetxori erabagilearen agimen bat, zinoana joateko beragana ontziko guztiak aldi bitan; lenengo ontziburua erdiakaz, da gero *pilotua* edo bigarren agintaria beste erdiakaz.

Errizainagaz batera joan zirean Josetxo ta menpeko erdiak, bildurrez nasteren bat ostera asmau ete eban. «Ruango» zama-jaubeak egozan erabagileaz, da onek esaeutsen:

—Eskerrak eta saria bear dabez zuen egitasun onak, eta eskerren ganera, onek, emen dagozan «Ruango» zama-jau-

(33) *Itsasorratz* = Brújula.

(34) *Urduri* = Nervioso.

(35) *Kondaira* = Historia.

beok, euren gurariaz da ontzi-jaubearen eskubideaz, «Ruan» porturatu dozuelako, emongo deusuez oraintxe, legeak aginduten daben lez, zortzi mila dukat «Ama Karmengoaren» jautzientzat; bost mila ontzi orretako nagosiarentzat; iru mila, bigarren agintari «Ruanen» aginpideaz etorri danentzat, eta mila bana dukat beste guztientzat. Etorri ta artuizuez zeuenak.

Zama-jaubeak ainbanatu ebezan diruak. Josetxok artu ebazan zortzi mila dukat «Ama Karmengoaren» jautzientzat eta bost mila beretzat: eskerrak ageri, agur egin, da ondo pozik ontziratu zirean. Gero joan zirean bigarren aldikoak, eta areri bere ainbanatu eutsezan euren diruak.

Zein poza ta atsegina «Ama Karmengoko» gizeriak, naibage guztiak aztuteko, artu ebenean egitade onaren saria! Onegina beti da onbidea, ondasunak sarri ekarten dituana!

Egun batzuk igaro zireanean, aberats antzeko gizon ondo jantzita egoan bat, joan zan «Ama Karmengora» ta Josetxori esaeutsan ontzia ikusi nai leukeala. Josetxok erakutsi eutsazan zokondo guztiak eta eskerrak agerita joan zan gizon ori. Arik lasterrean jakieban zelan gizon arek erebilen «Ama Karmengoa» erosteko asmoa, ta ebilela autuetan ontzi-jaubeakaz. Ontzi ona zan, baina balio izan eban baino diru geiago eskini eban gizon orrek, eta saldu eutsen beste barri andiago bat egiteko usteaz. Ona Josetxo ta beste ontziko guztiak geratu zirean etxeratu bearrean, ontzia Franceko ikurrinaz jarten zalako.

Zortzigarren egunean urten bear eban Bilborako, Holandako ontzitxo batek, eta an joateko usteaz egin ebezan abiame-nak; jakieban Holandarrak eroango ebazala ogei dukategaitik bakotxa.

Artu ebezan osteran irabaziriko diruak, eta len eukezanan ganera, diru pilo polita eukan bakotxak etxeratzeko.

Joan zirean Holandako ontzira ta urten eben Bilbora joateko, aize gitxi ta itsas-baredun eguraldi onagaz: olan jarraitu eben lenengo iru egunetan. Laugarrenean ez egoan inundik aizearen putzik; sartaldeko zeru-barren edo marboilean, asi zan jasoten, edoi orma-ilun antzeko bat; geroago agertu zan olatu zabal, ontziari zabun andiak eragiten eutsazana. Zeru-barrene-

ko orma antzeko edoi baltza jasoten zan geroago gorago, ta ezbai бага, ekatxa etorren ganera: arautu zirean gauza guztiak eguraldi txar orri arpegi emoteko.

Ontzi txikia zan, baina *galeotea* esaten eutsen guztizko gaitasun andikoa ekatxai arpegi emoteko. Iluntzean sartu zan ekatxa izugarrizko indarraz, da sinisgatxa zan, ontzi txiki arek, bere bela txikienaz, zelan jasoten zan ikaragarrizko olatuen ganera³: galanto arpegi emoten eutsan arerio guztiai; esan leikean jolastuten edo olgetan ebilela aize ta olatuakaz, irri egiten guztiai, ain zoli igoten eban olatu ganera. Ekatz gogorra zan baina, Donata bere etxean lez, artegatasun бага, egozan ontzikoak eguraldi onari itxaroten; noizbait artuten eben burutik bera itsas-zaparrada bat, bideko aizeak jasoten daben autsa lez, da aurrera mutilak.

Egun bitan iraun eban ekatz orrek; irugarren gaubean agertu zirean zeru-argiak (36), aldatu zan aizea beste aldera, zabaldu zirean belak, eta irugarren egunean, osasunaz da kalte бага eldu zirean Bilbora. Ordaindu eutsezan Holandarrai bakotxaren ogei dukatak, eta mendiak zear joan zirean euren errietara. Josetxo bakarrik geratu zan Bilbon «Ama Karmengoaren» jaubeakana aurkeztu bear ebalako, jazoera guztiak erazagututera, ta eurentzat ekazan zortzi mila dukatak emotera.

Aurkeztu zan Josetxo bere ugazaba nagosiagana, ta guztizko txera ona egieutsan onek; bere seme bat izan balitz be, ez eutsan egingo abegi oberik. Josetxok erazagutu eutsazan osterran da Bordeauxn igaro zirean jazoera guztiak, len irazkie-tan (37) egin eutsazan baino obeto, ta arriturik geratu zan ugazaba, edesti guztia entzun ebanean: emoeutsazan Josetxok, Bordeauxn beretzat artu ebazan zortzi mila dukatak, eta ondo

(36) *Zeru-argi* = Astro.

(37) *Irazki* = Carta.

³ Komunztadura okerra: *ontzi txiki arek* ergatiboari *jasoten zan* aditza dago-kio.

pozik lotu zan ugazaba diru orregaz da Josetxoren egitadeakaz. Egun atan ugazabagaz jan, beragaz egurastu ta bere etxean lo egin eban Josetxok.

Ugazabak esaeutsan zelan «Ama Karmengoa» eritxon ontzia saldu eban uste бага, beragaitik diru asko emoeutselako, eta ontzi barri andiago bat eregiko ebela laster berari agintaritzea emoteko usteaz, baina bitartean, nai bebañ, etxeko «Ibaitzabal» eritxon ontzian joan leitekeala bigarren agintari edo pilotu: ontzi ori egoala bertan Bilbon zamatuten Buenos Airesera joateko, ta ogetabost egun barru urtengo ebala itsasora: uste bebañ an joatea, amabost egunean egon leitekeala bere gura-soakaz.

Josetxok itandu eutsan nor zan ontziburua, ta jakiebanean Longin Mundakako, bere ezagun zarkote bat zala, erantzun eutsan jarraituko ebala bigarren agintari Longinegaz. Orduan ugazabak esaeutsan:

—Longin zarkotetxoa dan lez, gazte sendo bat bear izan dot pilotu joateko, ta eskerrak ageriten deutsudaz beragaz zozalako.

—Eskerrak neuk, beti ongilea zarealako.

Biaramonean etxeratu zan Josetxo, amabost eguneko egotaldia gurasoakaz egitera. Mila dukat bere osterako irabaziak, eta ganera bost mila Bordeauxen artu ebazanak, orra sei mila dukat emoeutsazan aitamai.

Txomin-txiki ta Juana Mariri zoratu bear jaken pozen pozaz, a diru piloa ikusi ebenean begien aurrean: eguno euren bizian ez eben ikusi etxean ainbeste diru.

Orduan Juana Marik bakarrean esaeutsan Txomini:

—Eneutsun nik esaten Txomin, Jaungoikoak biraldu eskula Josetxo geure zorionerako?

—Bai, alan da Juana Mari: Josetxo geuretzat artu genduanik arrezkero, soloak eta basoak be ekarkorrakoak dira, ta beti euki dogu aparitako ardaotxoa: orain berorrek irabazi dituzan diruakaz, bizi garean arte eukiko dogu ardaotxoa, eguerdi ta aparitako. Zer gura dogu geiago? Lurbira guztian eztago olako mutilik: bere irabazbidean igaroten ditu arrisku ta naibage go-

gorrak, baina atzenean beti urteten dau garaipenaz (38) jazoera guztietan.

Ain zuzen be, oraingo etxeraldion gertau jakan Mundakan egotea erriko jantzarazo egunetan, nai eban beste olgateko. Done Kepa edo Pedroren egunean da urrengo bietan, elizako arazoen ostean, etzan lotuten egunaro, larogei urte ebazan atso-agurarik jantzan gogotsu egin baga, plaza edo enparantzako tanbolin soinuan. Meza aurrean, meza ostean; batean enparantzan, bestean kalerik kale, urrengoan portuan edo elizondoko zelaian; tanbolina joten zan leku guztietan, eratuten zirean auresku luze-luzeak, zar da gazte batera erreskadan jarrita: egun orretan zoroak irudien Mundakako gizaseme ta gizalaba guztiak, zar da gazte, ezkonduak zein ezkongeiak eta ume guztiak. Josetxo, geratu barik ebilen ekinean aureskuan edo jantzan, nekezaleakaz zein aberatsakaz; eurraz* batzukaz zein besteakaz, da noizbait Eladitxogaz: guztiz asko ta ondo olga eban egun orretan.

Josetxogaz ontzian ibili zirean batzuk mundakarrak izanik, laster jakin zirean erri guztian itsasoan da Bordeauxen igaro ebezan arazoak. Arriturik egoan gizadi guztia ikusirik zelan Josetxok urteten eban beti ondo estutasun guztietatik. Zeinbatek ete euken, arek aitamai emoeutsen diru piloaren ondama*!

Zer uste ete eban Masimak Josetxogaitik, ikusiezkeru mutil orren gizabide ona? Bere irudimenean ziur ebiltzazan burruka, alde batetik andikeria ta bestetik apaltasuna. Bai, apalkeri andia izango zan Masimentzat, Josetxogaz adiskidetasuna artutea! Zentzun orretako gizalabentzat eztago Jaungoikorik, ez onek erakusten daben bide onik! Andikeria bakar-bakarrik da olakoen gozagarria ta atsegin guztien sustraia.

Josetxok, azkartasun errimeaz emoten eutsen arpegi, ekatx gogor da beste itsasoko arrisku guztiai, baina Masimaren arrokeriari ez eutsan inoz erakutsi apaltasuna baino, Eladitxori naitzakerik ez emotearren.

(38) *Garaipen* = Victoria.

Arantzaz beteriko sasiak bidean egon arren, eroapenaz da gizabide onagaz, bigunduten dira bideak aurrera jarraitzeko.

Arin igaro jakazan Josetxori amabost egunak: egieutsan agur adiskide ta Eladiri, ta joan zan Bilbora «Ibaizabal» eritxon ontzira, *pillotu* edo bigarren agintari: seigarren egunean, urten eben itsasora Buenos Airesera joateko.

Etzituan inok ikusi Josetxo ta Eladiren negar-malkoak alkarri agur egieutsenean. Zein ordu biotz-ila bientzat! Esan leikean ez ebela geiago alkar ikusiko!

Txomin-txiki ta emazteari be, joan jaken euren begiak ikusten eben argirik ederrena, ta geratu zirean naibagez beterik. Joan zan itsaso zabaletara, Mundakako eguras-lekuak (39) gogo argiaz ipinten ebazan mutil ederra! Joan zan Josetxo Ondartzako, Jaungoikoak nai eban arte!

Españako itsasbazterretatik urrundu zireanean, laster artu ebezan, beti iparraldetik putz egiten daben aize baketsuak, eta egun da gabe, zeru garbi ta itsaso bareakaz, joan zirean lenengo ogetamabi egunetan: gero sartu zirean, erasti atan, aize aldakor, edoitsu, euri, trugoi, oinaztu ta abar sarri egoten zirean lekuan. Bein geldi, aizearen putzik inundik eztala, bestean iru edo lau orduko *turbonada* gogorak, trugoi ta oinaztuakaz; urrengoan jausialako euri errimeak; noizbait ordu batzuetako aize indartsuak: gisa onetan ibili zan «Ibaizabal» egun askotan.

Gau baten, aize apurtxoaz, zeruak botala euri jausten egoala, ilun-ilunetan, ontzi batek jo eban «Ibaizabal» erdi-erdian.

Ezin iratzi leiteke ondo, an, ordu atan aurkeztu zan laurkea (40). Garrasi emetik, deadar ortik; batak zinoan «zuloa egin deusku!», besteak «ondatu bear dogu!», urrengoak «gizonak, bota daiguzan batelak uretara!», agintariak zein menpekoak, itsas-mutilak zein gatzemaileak*, dan-danak aginduten eben da inok ez eban ezer egiten. Batak zinoan «goazan upate-

(39) *Eguras-leku* = Paseo.

(40) *Laurka* = Cuadro.

gira urik sartuten bada ikustera!», besteak «udendatu⁴ daigun upategia!». Olan deadarka ebiltzala, aldendu zan eurakandik beste ontzia: Josetxok udendatu eban upategia, ta lau oin igo ebazan urak zama azpian; ezagun zan beste ontziak zuloa egieutsela ta ondatuten joazala astiro-astiro. Ordu bigarrenean sei oin igo ebazan urak, eta orduan bota ebezan itsasora batel nagosi biak: Longin joan zan batera gizadi erdiaz, da Josetxo bestera enparauakaz. Zorro bete *galleta* artu eben batel bako-txean euriaz guztiz bustirik, eta bakotxak arin-arinka arrapau al izan ebezan soinerakoak.

Ilun da euritsu egoan lez, batelak ez eben alkar ikusten; Longin, aizea atzealdetik arturik, joan zan arraunketan gau guztian, eguraldi onera urteteko usteaz: Josetxo geldi egon zan bertan, «Ibaizabalen» urrean. Goizean, eguna argitu ebanean, Josetxo egoan lekutik etzirean agiri ontzi «Ibaizabal» ez Longin egoan batela: ontzi au ziur ondatu zan, baina batela, aize gogor ez olatu andi бага, nora joan zan? Izaturik egozan Josetxo ta bere bateleko lagunak.

Zorroko *galleta* apur bat jaeben egun atan guztiz gogo gi-txigaz: biotzilakaz guztiak, naibagezko berbak baino etzirean entzuten euren artean, begira beti alde guztietara ontzi bat ikusteko gogoaz.

Egun atan goiz-goizean artu ebazan Longin da bere lagunak, Montevideotik Habanara joan España ontzi batek, eta iluntzean ontziratu zirean Josetxo ta bere lagunak, Malvinak eritxoen itsasleorretara joan Irlandako ontzi baten.

Longinek eta Josetxok ez ekien alkarren barririk. Longin joan zan ontzia, aize ibituakaz, luzamen andiaz eldu zan Habanara. Longinek iragarri eutsazan portuko nagosiari, osterako gertaera guztiak: gero, nagosi onen agimenaz, amabostgarren egunean, ontziratu zirean Longin da bere lagunak, Bilbora joan ontzi baten, da berrogetabost egunetan eldu zirean Bilbora.

⁴ *udendatu*: uraz hutsitu.

Longin aurkeztu zan «Ibaizabal»en jaubeakana, ta autortu eutsezan jazoera guztiak: naibagez beterik, onek esaeutsen:

—Arriturik gagoz gertaldi orrekaz, baina alegina eginezke-ro, gauzak datozan lez artu bear dabe. Kalte asko daukagu «Ibaizabal» galduteaz, baina ontzi geiena ziurpeturik (41) dago. Ta zer dinozu Josetxogaitik?

—Eztakit jauna ezebe euren barririk, esan deutsuedana baino.

—Uste dozu beste ontziren batek artuko ebazala?

—Izan leiteke, jauna; toki atatik joaten dira arutz da onutz, Montevideo ta Buenos Airesera osterak egiten dabezan ontziak, eta onetariko asko batuten dira leku atan.

—Erruki dogu gizajoa! Tamal andia izango litzake a mutil ederra galdutea!

—Bai, jauna; ezin topau leiteke bera baino egikor da esan-ginagorik.

Longinek, ugazabaren etxean artu ebazan ontzian egon zan arteko irabaziak, eta joan zan Mundakara. Etxeratu zan, emazte ta seme-alaben uste baga, onek egunaro, Buenos Airesera eldu zirean albistea itxaroten egozala.

—Entzuizu, Justa —itandu eutsan kalean emakuma batek beste bati—: jakin dozu zer esaten diarduen kale batzuetan?

—Ez nik, Susane.

—Longin etxeratu ei da ontzia galduta.

—Jesus, ori da izatekoa! Ontzikoak osasunagaz urten bade, ontziok egingo dituez.

—Erdiak urten ei dabe, baina beste erdiak bateltxo baten lotu ei zirean, da eztakie beste barririk.

—Ori da albista alatsua, ene alabea! Da, nortzuk dira bate-lean geratu zireanak?

—Josetxo Ondartzako ta beste zortzi: euretarik bost, mundakarrak; Alipi Enparantzako; Erroka Zubiko; Alesander Iru-lako; Koldobika Basterretzeko ta Josetxo Ondartzako.

(41) Ziurpen = Asegurar.

—Naibage gogorak daukaguz ba errion.

—Bai, negarra ta erostea ugari da orren etxe guztietan: Juana Mari Ondartzako egon ei da Longinen etxean jakitera albista barriok, eta jakin dabenean Josetxo zelan geratu zan, beia jo ei dau larritasun bategaz: ordu bian egon ei da konorterratu (42) baga.

—Errukarria da izan be, Juana Mari: mingarri andia izango da beretzat Josetxoren albista ori. Nok sinistu leike galdu dala, oraindino lengo egunean erri guztiari jolastu eragiten ibili zan mutil ederra!

—Zeu zara Kertude? Agur Elixabete! Bazatuz Anatole? Zein barri dakaskuzue?

—Barri onik ez, ene alabatxoak; Mundakan gaur alde guztietatik ezta entzuten, Longin, ontzia galduta etxeratu dala, ta Josetxo Ondartzako beste batzukaz ito ete direan ezbaia. Zein mutil ederra ta guztien maitagarria zan Josetxo gizajoa! Juana Mari Ondartzakok larritasuna euki ei dau, ta ikaratuta, ilgo dan ustez, abadea be eroan ei deutse.

Etxietan, kalietan, enparantzan, portuan da toki guztietan etzan beste berbarik entzuten; eurras erri guztian iarduen errukarrizko berbak esaten, Josetxo ta beragaz egozanakaitik: «Ali-pi bada —esaten eben—, lauziri^{*} barik itxiko leukez bere emazte ta seme-alabatxoak; Erroka bada, bere aitama zar-zarrak, euren semearen irabazitxoai begira dagozanak ilgo litzakez; Alesanderren emazte ta ama zarra, eskean aterik ate joan bearean geratuko litzakez, ta Koldobika bada, Beronike bere emaztegeiaz (43) ezkontzeko izan zan osteratik (44) etorrenean, da ona, neskabila orri be naibage andiak jatorkaz agertuten eypadira.»

Masima, Eladitxoren amak be neskameagandik jakin ebanzan albista txarrok, eta kalean zear berbetan joazan gizalaba biri, itandu eutsan leiotik Eladi alboan ebala:

(42) *Konort* = Sentido, sensibilidad.

(43) *Emastegei* = Novia.

(44) *Ostera* = Viaje.

—Entzuizue, Eukene ta Aure, zegaitik dira ortik eta emetik entzuten direan aldarriak*?

—Longinek galdu ei dau ontzia: erdiak gatxondu* ei dira, baina beste erdiak batel baten geratu ei zirean da inok eztaki euren barririk.

—Nortzuk dira batelean geratu zireanak?

—Zuk arpegi ilunaz beti begiratuten izan deutzazun mutil eder bat, eta beste lau mundakar.

—Nik arpegi iluna nori? Nor da nik arpegi ilunaz begiratu-ten izan deutzadana?

—Josetxo Ondartzako.

—Ez eizu ori esan Eukene; nik ezteutsat Josetxori inoiz izan gogo txarrik. Jaungoikoak agertu daizala zorionaz!

Eladitxo sartu zan bere gelan negarrez, da egun askotan jarraitu eban negar malkoak begietara etorkazala; beti isil-isilik, bai edo ez baino beste berbarik egiten ez ebal. Goiz da arratsalde joaten zan elizara, Jaungoikoari eskariak egitera, Josetxo ta bere lagunak osasunaz agertu eitezan: ez eban etxetik urteten elizarako baino; alperrik zirean guraso ta neskabila lagunak aleginak ibiltaldi batzukaz egurastutera joan eragiteko; guztiz itzal da gogo ilunaz ebilen errukarria.

Ai, zein mingarria ete da gisa atan itxaroten dagoanen atsekabea! Zein artegatasuna ete da gogoan artu burutasun bat, eta lo, jan ez atsedean baga, buru-austen luzaroan ibiltea! Olantxe egozan batelean zireanen guraso, emazte, seme-alaba, ta maite ebezan guztiak, itxaroten noiz agertuko ete zan albista ona.

Longin etxeratu zanik arrezkero, igaro zirean egunak, asteak, ilebete ta bi bere bai: etzan agertu aren barririk. Zein naibagezko egunak, egunaro itzalagoak! Zeinbat negar da eskari Jaungoikoari, bere Ama Dontsoari ta beste done askori! Erri guztiko gizadiari ezarri jakan askoren mingarria ta guztiak ebiltzazan itzal da motel negar egiteko gogoaz, erri txikietan gertau oi dan lez.

Igaro zan beste ilebete be, ta gizadi guztiak zinoan arek itoko zireala, ta elizkariak (45) egin bear leukioezala alik arinen.

(45) *Elizkari* = Funerales.

Bost egunean, bakoxtari egun baten, egieutsezan elizkariak, eta Mundakako gizadi guztia elizaratu zan egun orretan. Amaika negar egieben euren guraso, emazte, seme-alaba, emaztegei ta aide enparauak!

Lurbira onetako gauza guztiakaz gertau oi dan lez, egunak joan da egunak etorriaz, astiro-astiro, aztuten joazan arek giza-joak be.

Eladitxo, len lez joaten zan elizara eskariak egitera; ezin eben azkortu bere lagunakaz joateko egurastutera; etxetik elizara ta elizatik etxera, gaur, biar da egunaro zirean bere joan-etorriak. Oraindino uste eban Jaungoikoak agertuko ebalá Joesetxo, lenagoko arrisku askotan agertu zan antzera. Argal da zurbil jarri zan, bere naibage ta buruausteakaz ainbeste ilebetean.

Txomin-txikik eta emazteak be, noizik beinean egituten ebezan, batean ango ta bestean emeko doneai egiten eutsezan eskintsariak, Joesetxo ta bere lagunak, Jaungoikoaren guramenaz, agertu eitezán osasunagaz.

XVI

Irugarren senargeia

Mundakan egoan, bertako Pontzen izena eban osagile, ogetasei urte ebazan mutil iruder bat: urte bi igaro zirean osagiletasuna lortu ebalá. Mutil onek, urtebete lenagotik eban go-goan Eladitxo: uste eban neskátíla onegaz dá bere irabazbidea, asko neketu barik biziko zala ondo. Aurrerago etzan azartu neskátíla orri ezer esaten, gomuta izan ebalako zer jazo zan Ariston dá Txotxo-arrogaz: baina orain, Josetxori egin jakazala elizkariak, ganera gizadi guztiak uste ebalá arek ito zireala, ta sinismen onekaz Eladik beste burubide bat artuko ebalá. Onek zirean Pontzen osagileak erabiltzan asmoak, eta bildurrez beste batek aurea artu ez eion, etzan ibili aiko-maikoetan; aida baten iragarri eutsan bere guramena Eladiren aitari.

Ermokenek ageri eutsan bere emazteari, Pontzenen guraria, ta biai ederretsiten jaken lez mutil ori, artu eben burubidea, biak alegina egiteko osagilearen alde.

Burubide orregaz erazagutu eben, lenagoko biotz gogorak eukezala oraindino Josetxorentzat, eta agertuko ete zan bildurraz, nai eben ezkondu Eladi alik arinen Pontzenegaz.

Masimak eroan eban Eladi gela batera, ta esaeutsazan agora etorri jakazan berbarik onenak, artu eien osagile orregaz ezkontzeko gooa. Esaten eutsan:

—Eladi, zer nai don ereti oberik mutil gazte, eder, jakitun, osagile, beti alkarregaz bizitekoa baino? Orrekaz itsastarrokaz ezkontuten danak naibage asko igaroten jozan; batean albistarik eztagolako, bestean eguraldi txarrak dagozalako, ta urrengoan ontzi bat edo beste ondatu dala jakin dalako.

—Nik, ama, itsastar ez leortarregaz eztaukat ezkontzeko gogorik.

—Josetxo mutil ona zan, baina joan zan gizajoa, ta eroape-na artuaz, aldatuizan buruan darabiltzan gogamenak: aztu igaro direan edestiak; jarri gogo argiaz, da osagile orregaz ezkondu-tea izangon burubiderik onena.

—Ama, ez niri aitatu ezkontzarik. Nik eztot inoiz Josetxo-gaz euki ezkontza auturik; maite izan dot umea nintzanik ona, ta uste izan dot berak be maite izan nabela: orra orain arteko edesti guztia.

—Eztinonat ezer orregaitik, ezpabere, a joan zala, ta orain aztu bear donala eure osasunaren onerako.

Onetan egozala, sartu zan aita gelara ta Eladik jarraitu eban esaten, negar-anpuloak eriozala:

—Bai, neure aitamak; bakit joan zala Josetxo; alan dinoe beintzat; bakit joan zala a mutil zerutik jatsirikoa; bakit ziur-ziur, joan bazan, etorri zan bidietatik, zuzen-zuzen joan izango zana Jaungoikoaren aurrera, bere lurbirako gizabide ona, ta zuen areriotasunak erazagututera. Bai neure guraso maiteak; ondo gogorak izan dira zuen biotzak mutil apal (1), esangin da ongile arentzat! Baserritarra zala, jatorri bakoia zala; au zala ta ori zala! Bai neure guraso laztanak; Jaungoikoari sarri ta biotz samurraz eskatu bearko deutzazue parkamena, mutil ari, eze-ren erru бага, izan deutzazuen gorrotuagaitik!

Erm.— Zelako berbak dozan orrek, Eladi?

Ela.— Nik egia, aita; eztozu gomuta izango Josetxok inoiz inori txarto egin deutzanik: bere oneginak barriz, lurbira onetan ibili dan leku guztietan esango deutzuez.

Mas.— Eztotsagu guk inoiz gorroturik izan Josetxori.

Ela.— Ez eizu ori esan, ama; ain arin aztu dozuz, beragaz egurastutea ta berba egitea galarazo zeustezan erastiak? Ai ama, niri etxataz aztu!

(1) *Apal* = Humilde.

Erm.— Eladi, barriketa gitxiaz, aitamak nai dabena egin bearko don. Josetxo joan zan, da a ezta zetan ekarri autuetara: Pontzen osagileagaz ezkondu bear don eure onerako, ezpabere ezton ikusiko eure aitamen arpegi argirik. Ereti oberik ezton inoiz eukiko senar on bat artuteko, ta ez ein ezetz esan.

Ela.— Eztaukat, aita, ezkontzeko gogorik, eta nik ezetz esan bear.

Zaplada zoli bat emoeutsan aitak, eta itandu eutsan:

Erm.— Esain ezetz ostera be.

Ela.— Nik ezetz beti, aita!

Beste zaplada gogor bi emoeutsazan, da len legez itandu eutsan:

Erm.— Ezetz oraindino?

Ela.— Beti ezetz, aita, ilten banozu be! Nire biotzean, bizi dala zein il dala, Josetxo dago, ta eztago lekurik besterentzat.

Aitak larregi zeatu eban bere alabea berba orrek esan ebazanean, da amak be esaeutsan:

Mas.— Oraindino geiago artukozan, gurasoen esana egiten ezpon!

Ela.— Ja... ja... ja; nik Josetxo dot neure senarra; Buenos Airesera joan zan «Ibaizabalen» Longinegaz.

Mas.— Zer dinon? Zegaitik orrek barre gangarrok? Zoratirik ago ala?

Ela.— Elizara noala.

Mas.— Jatorduan oa elizara?

Ela.— Portura; Kalegoikora; Josetxo ikustera.

Erm.— Zelako erantzupenak dozan orrek?

Ela.— Ondartzara Josetxogana.

Gurasoak ezagutu ebenean Eladik ez ebala zuzen erantzuten, da adimen бага zoratuta jarri zala, oso bildurtu zirean, da orduan damuturik ainbeste gogortasun egina, emoeutsezan mosu asko ta esaeutsezan berba eztsuak, bere adimena sendatu gurarik, baina ez eben ezer lortu.

Ermoken da emazteak, bekien ondo Eladi aspaldian buru-austen ebilela, elizara ta ostera, Josetxo gomuta izan ebala; gogoratuten beti ito ete zan, bizi ete dan, albistea noiz etorriko

ete dan, da gisa onetan, ondo nekaturik euki bear ebazala bere adimen da irudimena. Ta olan ebilen emakuma gaztia, ganera estutuezkero Eladi egieben lez, berezkoa zan zerbait jazotea aren buru nekalduan; bai, berezkoa zan adimena lausotutea, ainbeste mingarriaz.

Aitamak, euren asmoetan, zentzun baga, ta burubideak ondo neurtu baga ibili zirealako, galdu eben euren alaba onbidetsua!

Ondo damutu jaken ainbeste estutua ta zeatua euren alaba ederra: lenago be, bein baino sarriago damutu jaken alabea nekaldua, baina lengo gertaerak aztuten ebezan, da barriro agertuten zirean naibage alatsuak (2). Kendu ezin zana, kendu gura eben; urratu ezin zana, zuritu nai eben; mirariak egin nai ebezan: Eladitxok Josetxori eutsan maitetasun zintzo, sustrai gogorak eukazana, ausi, eten, apurtu nai eben, baina ezin zana, ezin egin, da atzenean jazo zan, jazo bear ebana: neskatila zintzo errukarri ari, bere adimena lausotu jakan.

Egia da, gisa atan ikusi ebenean euren alabea, erruki andia artu eutsena: bene-benetan damutu jaken askatasun geiago emon ez eutselako Josetxogazko ibiltaldietan, da bake-bakean itxi ez eutselako jarraituten bere gurari zintzoetan; baina belu agertu zirean onek damutasunok.

Eladik aparitan itandu eutsen:

—Josetxoren albistarik egon da?

—Ez, ezta egon albistarik.

—Orduan, nik ames egin dot.

Aitamak egieutsezan berbai, ez eutsan jaramon; gitxi jae-ban, da maitik jagi zaneke ogeratu zan. Gurasoak uste eben, bere buruari emoeutsan estutasunak, lausotu eutsala adimena, ta ogeko atsedenez (3) jarriko zala ondo.

Biaramon goizean, neskamea erosketara (4) joan da gero-

(2) *Alatsu* = Doloroso.

(3) *Atsedez* = Descanso.

(4) *Erosketa* = Compra.

txoago, aitamak itzartu orduko, jagi ta jantzi zan Eladi, ta uleak apaindu barik joan zan zeiarda erosketak ikustera. An ibili zan batera ta bestera, sagar, madari, gaztaina, aza, porru ta salduten zirean gauza guztiak ikusten: etxeko neskamea arritu zan apaindu baga, zoro antzera, ikusi ebanean, da itandu eutsan:

—Zer darabiltzu Eladi, ain goizetik, eta apaindu baga, zoro baten antzera?

Arpegi ilunaz begiratu eutsan neskameari, ta ez eutsan ezer erantzun. Neskameak ez ekian zoratuta egoana, ta bere erosketea egiebanean, joan zan etxera.

Juana Mari Ondartzako be, an egoan bere gauzak saldu gurarik, eta Eladi ikusi ebanean, otu jakan zerbait jazoten jakala, ain goizetik eta edozelan, apaindu baga zeiarda joateko; eta bere ondora joan zanean, itandu eutsan:

—Zer jazoten jatzu Eladitxo, ain goizetik ona etorteko?

—Josetxo bilatutera urten dot, baina ez tot inun ikusten!

Erantzupen onegaz jarri zan negarrez Josetxoren ama, ta bertan, sendo besartetuta, emoeutsazan mosu batzuk Eladitxori, esaten eutsala:

—Ai ene alabatxoa, Josetxo urrun dago gugandik! Jaungoikoaz egon deiteala dagoan lekuan!

Neskameak, etxeratu zanean, esaeutsan Masimari, Eladi apaindu barik, zoro bat lez, ebilela zeian, da bere berbai ez eutsala jaramon.

Ikaratu zan Masima, itsasora, atxetara edo galbide lekue-tara joango ete zan; jantzi zan beingoan, da joan zan zeiarda. An topau eban Eladi gizadiak inguraturik eukala, batagaz, besteaz da guztiakaz berbetan: danak ezagutu eben zoratuta egoana, ta Juana Mari, Josetxoren amak, bere alaba bat bailitzan, egin ebazan negar gogorak.

Masimak eldu eutsan besotik etxeratzeko, baina alabeak erantzuten eutsan, Josetxo bilatutera urten ebala, ta ez ebala nai joan etxera mutil ori ikusi arte; geroago joango zala beste toki batzuetara, ta nun edo nun topauko ebala. Baita gizadi guztiak entzuten ebala, esaeutsan amari:

—Zuk, amatxo, nai nozu etxeratu, atzo lez nekaltzeko, Pontzen osagileagaz ezkondu nai eztodalako; baina enaz joango!

Zein alatsu ta lotsagarriak izan zirean Masimarentzat, Eladitxok autortu ebazan berbak, gizadi guztiak entzuten ebazala!

Ain zuzen be, Eladiren izeko Eustaki eldu zan toki atara, Eladi orrek berbok esaten egoala, ta jakiebanean zoratuta egoala, naibagez beterik negarrez jarri zan. Emoetsazan mosu batzuk Eladiri, ta itandu eutsan bere ama Masimari:

—Zer jazoten da Masima, zeure alabeonegaz?

—Nik eztakik Eustaki, zoratuta dago atzo arratsalderik ona; goizean urten dau inok ikusi бага, ta eztau nai etxeratu.

—Atzo nekaldu zindoela esan dau, ta, zelan nai izango dau etxeratu, nekaltasunak artutera? Zuk eta zure senarrak eztaukazue zentzunik!

—Zaplada bat emon jakan erantzupen bategaitik: orixe izan zan guztia!

—Au da lotsagarria!

Masimak egiten ebazan aleginak Eladi etxeratzeko, baina ezieban lortu, ta orduan Eustakik esaeutsan:

—Zoaz Masima etxera, ta neuk eroangot laster neurera.

Ikusgarria zan an batun zan gizadia, ta danak erazagutzen (5) eben euren errukia, Eladiren jazoerakaitik: danak inarduen Masima ta senarragaitik txarto esaten, alaba orri noizbait emoeutsezan naibageakaitik: naibageak, maite ebalako, MUNDAKAN zan mutil maitagarriena.

Aleginen aleginaz, izeko Eustakik eroan eban bere etxera ta emoeutsan gosaria: gero eroan eutsen, errian urte askotan egoan osagile zar bat, eta onek esaeutsezan artu bear ebezan ardurak eta sendagarriak; agindu eban, goiz da arratsalde atara eiela egurastzera, ta bizi eiteala aitamakaz, izekogaz edo berak geien nai eban etxean.

(5) *Erazagutu* = Revelar.

Masima bere ama joaten zan egurastzera atara gurarik, baina gurasoaren bildurra artu eban, da ez eban nai amari jarraitu: aita be joan zan beragaz atarateko usteaz, baina ez eban nai aitagaz be, ta izekogaz urteten eban jolas lekuetara. Bere neskatila lagunak eta beste askok, txera ta leunketa onakaz, egiten eben alegina, Eladi gogaldi (6) onera aldatzeko, baina gogo iluna ta itzaltasuna etxakazan argituten.

Izekoagaz egurastzera joan zan baten, topau eben aurrez aur Pontzen osagilea, ta au aurreratu zanean Eladiri zerbait itandutera, zaplada zoli bat emoeutsan neskatila onek, arpegi ilun-iluna ipinirik, eta aida baten aldendu zan Pontzenen ondolik.

Izekoana¹ joan da amabostgarren egunean, neskamea erosketara ta izekoa mezatara zirean bitartean, urten eban etxetik, eta joan zan Ondartzara. Juana Marik, besartetu, eta emoeutsazan mosu batzuk, eta ganera, gosarizat esne-sopa ederra.

Izekoa elizatik etxeratu, ta Eladi idoro ez ebanean, joan zan bere gurasoakana, baina ez egoan,an bere: gero Masima ta bera joan zirean enparantzara, ta ez eben idoro an be. Ermoke-ni bere ageri eutsen zer jazoten zan, da eurak eta aide guztiak asi zirean Eladi bilatuten, batzuk andik, besteak emetik; onek itsasertzera, arek atxik atx da leku guztietara. Erriko gizadiak jakiebanean zer jazoten zan, goiko kalean bizi zirean batzuk esaeben ikusi ebela bakar-bakarrik Bermeorantz joaten.

Joan zirean bide orretatik, eta bide batez Ondartzan itandu eutsen neskameari:

—Eladi gurea ikusi dozu emetik?

—Bai, goian dago.

—Eztogu jakin nora joan dan, da estutasun mingarriak igarro doguz goizeon, berori bilatuten!

—Zoaze gora.

(6) *Gogaldi* = Humor.

¹ Izekoana: *izekoagana*.

Igo eben gora ta an batun zirean Eladi bilatuten ebiltzazan guztiak. Baso-etxe atan batun zirean Ermoken da emazte Masi-ma be, euren andikeriak otzandurik, apaltasun andiaz alabearen ardurea artutera. Nok sinistu eragingo eutsen eurai, Ondartzako mesedien preminan aurkituko zireala egunen baten!

Eladik ez eban nai izan Ondartzatik joan inora, ta bere gurasoak ez izekok ez eben lortu eroatea. Ondo egoala Jose-txoren etxean adierazoten eutsen guztiai.

Juana Marik negarrez esaten eban:

—Egon beite geugaz berton, da geure alabea balitz legez zainduko dogu.

Mas.— Osagileak esan deusku, beronek nai daben etxean egon deiteala.

Orduan, Txomin-txikik, oso errukiturik, negar-malkoak eriozala, esaeban:

—Osagileak ori esan badau, egon beite berton Eladitxo; guretzat gozagarria izango da, erruki dogun neskatila onen ardurea artutea.

Eladiren aitamak eta izekoak, ageri eutsezan eskerrak eta etxeratu zirean, egunaro agerraldi bat egiteko usteaz.

Eladi, biaramon goizean goizetik jagi zan ogetik; ikusi eban otseina artaldeaz mendira joala, ta beragaz joan zan pozik, artzain baten antzera, ardien ardurea artutera. Aspaldiko gogo argiena erakutsi eban ardiakaz mendira joan zanean: karkar barre egiten eban ardiren bat aldenduten bazan besteakandik. Ardiak mendiratu, ta etxeratu zanean, zeresan asko euki eban, mendira joan-etorria egiebalako. Josetxok, artzain ebile-nean iragarriko eutsazan sarri, bere goiz da iluntzeko *jirabirak*, artaldeaz mendiratu ta etxeratzeko egiten ebazanak, eta Eladik, zoraturik egon arren, gomuta izan ebazan arek esanda eukatsazan berbak.

Menditik etxeratu zanean, Juana Mariri poz-pozik, arpegi argiaz egin eutsan berbaldi nastedun ondo aditu ez ebana, baina esan gura eban zelan Josetxoren antzera joan zan artaldeaz mendira, ta ganera erazagutu eban; aurrerantzean egunaro jarraituko ebalaa artaldeaz eroan da ekartera.

Osagileak agindu eban lez, al zan geien egurastu eragiteko, mendira egiten ebazan *jirabirak* etorkazan erara, bere gexoa sendatzeko. Aurrerantzean, otseinaren ordeez, neskameak artu eban artaldearen ardurea, ta Eladigaz batera zuzenduten eban ardi-arazoak goiz da iluntze.

Ganera Eladik, berak berez, artu eban oiloen ardurea; goizean edegi oilatokia, emon oiloai jatekoa; batu egiten ebezan arrautzak, eta ilunabarrean itxi atea, tokiratu eitezanean. Oilo edo txitaren bat eskuan ebala jolastu oi zan egunaro, umetxo baten antzera.

Aitamak eta izekoa, sarri joaten jakazan ikustera; baita Mundakako gizadia be sarritan joaten zan Ondartzarutz egurastutera, bide batez Eladitxo ikusteko usteaz.

Eladiri, Ondartzan, ogeigarren egunean ezagutu jakan, onerantz egiebana bere adimenean, noizik beinean erantzupen zuzen da garbiakaz berba egiten ebalako.

XVII

Jose txo Montevideon

Irakurleak gomuta izango dau, zelan Longinek ez eban jakin, bera ontzi batek artu eban eguneko iluntzean, artu ebazana Jose txo ta bere lagunak, Malvinas izena eben itsasleor batzuetara joan bear eban Irlandako ontzi batek.

Ilebeteko luzamenaz eldu zan ontzi au itsasleor aretara, ta Jose txok eta lagunak dirurik ez euken lez, arrantzalien etxietan bizi izan zirean, arrantzuan oneri lagunduaz, jan bear ebena zuzentzeko. Malvinak dira, Montevideo baino urrunago dagozan itsasleor batzuk.

Ile birik baten joaten zan Montevideotik ara, ontzi txiki bat, eta ontzi onetan uste eben Motenvideora joatea, baina oraingo osteran, luzamen andiaz eldu zan irugarren ilebetean. Ontzi orretan joan zirean Montevideora amabost egunean.

Jarri zirean ostatu baten, irabazbidea zuzendu arte, edo euren errira joateko eretia agertu arte.

Jose txok biraldu eutsan irazki bat, bere aita Txomin-txikiri, iragarriten eutsazala «Ibaizabal» ondatu zanik arrezkero, bere lagunak eta berak igaro ebezan gertaerak. Irazki orretan zinoan ez ekiala Longin da bere lagunen barririk, eta amaituten eban aitamai esaten eutsela, guztiz maite ebazala, ta alik arinen etxeratuko zala, andik ezpegoan irabazbide onik, eta Eladitxori agur gogo argidun bat egin eioela, ezkongei begoan.

Mundakan ez eban inok uste izan, Jose txo ta bere lagunak agertuko zireanik; aztuaz joazan guztiak. Txomin-txiki, Juana Mari ta Eladitxo zirean oraindino, Jaungoikoaren mirari (1) ba-

(1) *Mirari* = Milagro.

tegaz, agertuko zireala uste izan ebenak, eta itxaropen orregaz egozanak.

Eladi Ondartzaratu zanik ogetamabostgarren egunean, ar-tu eban Txominek, Josetxoren irazkia: Juana Marik eta berak, poz-pozaz negarrez egozala irakurri eben iru bidar irazkia: eroan eben Eladi gelara ta Juana Marik negar gozoaz esaeu-tsan:

—Eladitxo, Josetxo bizi da; osasunaz dago Montevideon!

Eladik ez eutsan erantzun; begira batera ta bestera begi zoliakaz, joan ara ta etorri ona, zerbait igaroten jakan. Juana Marik barriro esaeutsan:

—Zer dozu, Eladitxo, ez erantzuteko? Josetxoren irazkia artu dogu, ta bere agurrak ageriten deusuz gogo argiaz; ona emen irazki ori, irakurri nai badozu.

Aida baten Eladik artu eban irazkia ta joan zan leioko argitara irakurtera: irakurri ebanean, jaeban mosuka Juana Mari eztizko negarrak egiten egoala, ta adimen argi-argiaz, itandu eutsen Txomin da emazteari:

—Zer gertau jat niri, aitamak Pontzen osagileaz ezkondu nai nindoetik ona? Eztot ezer gomuta, ta esaidazue zer jazo ja-tan.

Juana Marik erazagutu eutsazan gertaera guztiak, eta Ela-dik erantzun eban:

—Sinistuten dot esan dozun guztia; nire burua lausoturik egon bear izan dau¹, ta Josetxoren irazkia irakurri dodanean, argitu jat neure adimena. Zein mirari ta atsegina da, elizkariak eginda daukezan gizasemeak bizirik agertutea! Zein mirari ta gozagarria, Josetxoren irazkia irakurriak, nire adimen lausotua argitutea! Jaungoikoak izentau daben zeru-argiren bat dabil beti Josetxo jagoten, lurbira onetako galbidietan!

—Bai Eladitxo, olantxe da izan be.

Juana Mari joan zan irazkiaz Mundakara, Josetxogaz bate-ra zirean lagunen etxietara, erazagututera artu eben albista

¹ Komuntzadura-hutsa: *nire burua* subjekto absolutiboari *egon bear izan dau* aditz transitiboa dagokio.

ona. Guztiak jakiebenean, zer izan zan ango zaratea, leioetan, kalietan da bazter guztietan! Len negarrak, gogo ilunak eta elizkanpak itzaldtu beben gizadia, orain barre-zantzo ta tanbolin soinuak gogo argiaz jarri ebezan guztiak. Josetxogaz batera zan Alesanderren anae batek artu eban aurrekua kalerik kale: Txomin-txiki be joan zan Mundakara ikusgurakoa lez, zer jazoten zan ikustera, ta aurrekuak kalean arrapau eban lez, nai ta nai ez, sartu eben aurrekua luzetutera. Gero joan zirean enparantzara (2), ta eratu eben egun guztiko jantzarazoa. Txomin-txikik zarkotea izan arren, erakutsi eban, oraindino anak be-reak ebazana; guztiz ondo jolastu zan poz-pozik egun atan.

Juana Mari beste etxietara lez, joan zan Masimagana bere, Eladitxo sendatu zala erazagutzen, da egunoko arpegi argiena erakutsi eutsen senar-emazte biak. Iluntzean joan zirean biak Ondartzara Eladi bilatutera, ta eroan eben etxera. Artzain jarraitzeko gurariaz egon arren, bekian osasunaz egonezkero bere gurasoakaz bizi bear ebana.

Txomin-txikik, egun aretan erebilen pozaz, koplata batzuk asmau ebazan Josetxo ta Eladiren gomutagarri, ta Mundakatik bere etxera, jostera joaten zan josleak, iratzi ebazan ingi baten, da laster ikasi ebezan erriko gizadiak, eta kanta edo eresiten ebezan², kalietan, etxietan da leku guztietan.

Ona emen koplata orrek:

Agertu jaku Montevideon,
Josetxo geure lastana,
Oneginetan,
Mundu onetan,
Inoz aspertu eztana.
Elizkariak il zan ustean,
Ziurpetu jakazana,

(2) *Enparantza* = Plazuela.

² *eresi* izen legez ezaguna bada be, nekez irakurten da hemen legez aditz modura.

Bizibidean,
Zoritzarrean,
Sarri ibili oi dana.

Izar eder bat egon bear dau,
Josetxo beti zainduten,
Naibagietan,
Galbidietan,
Bere ardurak artuten.
Eriotzea bere aurrean,
Sarri euki dau deituten,
Barre eginda,
Ikusi oi da,
Garaitsu (3) beti urteten.

Elizkariak egin da gero,
Guztiok uste genduan,
Done artean,
Bizi obean,
Egongo zala zeruan.
Baina iltea etzan egongo,
Jaungoikoaren gogoan,
Agaitik berez,
Mirariz legez,
Agertu jaku munduan.

Elizkariak egin zirala,
Josetxok dakienean,
Jantzan jarrita,
Barre eginda,
Esan lei bere artean:
Emetik gora, zeruetara,
Biraldu nabe etxean,
Laster ostabe,

(3) *Garaitsu* = Victorioso.

Esango dabe,
Jaio da bigarreanean!
Eladitxoren gertaerakaz (4),
Egongo da arriturik,
Jakinezkero,
Itzal da ero (5),
Zelan egon zan galdurik.
Zelan adimen argi-argiaz,
Jarri zan pozez beterik,
Josetxo beren,
Irazkiaren,
Albistak irakurririk.
Olako gauzak, jazoten dira,
Gure Lurbira onetan,
Maitetasunak,
Naibagedunak,
Indarrak dabez orretan.
Biotz samurraz, gura deutesenak
Alkarri bene-benetan,
Jira ta bira,
Biziko dira,
Jaungoikoagaz baketan.

(4) *Gertaera* = Suceso.

(5) *Ero* = Fatuo, loco.

XVIII

Jose txo Argentinako etxaguntza baten

Ettxeratuteko eretia agertu arte, Jose txo ontziratu zan bigarren agintari, Montevideotik Buenos Airesera osterak egiten ebazan ontzi txiki baten, ilean berrogei ogerleko ta jana irabazten ebazala: bere lagun guztiak be, ontziratu zirean itsasbazter atan porturik portu osterak egiten ebezan ontzi txikietan, ilean amabost ogerleko ta jana irabazten.

Jose txo ebilen ontzia, sarri egöten zan Buenos Airesen, da mutil au joaten zan leorrera lan bitartietan, euskaldunak egozan lekuetara, eurakaz berbaldiäk* egitera. Agerraldi baten, euskaldunakaz topau eban gizon zarkote, zurbil, argal, Dari deituten eutsen Abadiñoko seme bat, eta ordubete inguruko berbetea egin ebanean, deitu eutsan albora Jose txori, ta itandu eutsan:

—Bizkaitarra zara?

—Bai, jauna.

—Zein aldetakoa?

—Mundakatik urreko baso-etxe batekoa.

—Orduan jakingozuz baserriko arazoak?

—Bai, jauna.

—Nik zulako mutil bat bear neuke neuri laguntzeko, daukadan etxaguntzan: emongo neuskizuz eun ogerleko ilean janen ganera, etorri nai bazindu neugaz bizitera. Abere asko daukadaz, zezen, bei, ardi, auntz da zaldi, ta aren ardurea artuteko bear zaitut: bertoko erritar asko daukadaz langintzarako, baina arekaz eztaukat abespelu (1) osorik. Zure egipidea izango da

(1) *Abespelu* = Confianza.

gauza guztien ardurea artutea; nire urrengo, zeuk eukiko dozu aginpidea, ta eztozu inoz eukiko gorputza neketu bearrik, ezpada, agindu besteai egin bear direan lanak. Abereak zaindu, esneak batu, gaztaiak egin eragin, ta biraldu saldutera: *tasajoa* edo zezina arautu ta zokondo guztiak garbitzeko daukadaz amabost gizon, da ganera bost artzain, bost artaldegaz: bako txari emoten deusat, ilean amar ogerleko ta jana. Gero, zeure gizabidea ona bada, igoko deusut zerbait ileko saria. Nik ogetamabi urte daroadaz emen, da osasun osorik eztaukat aspaldion; gibela daukat mingorturik, eta noizik noizera enaz ondo egoten; orregaitik bear dot lagun sendo bat: neugaz ikasikozuz laster artu bear dozuzan ardura guztiak; Buenos Airestik ogei orduko bidea dago etxaguntzara, baina zaldi ederrak daukadaz edonora joateko; ganera, geu biziteko etxe on bat daukat, etxaguntziaren erdian. Orain zeuk esangozu, nai badozu geratu nigaz.

—Etixeratuteko asmoa euki dot, baina ikusi bear dot, zelan artuten nabean lurralde (2) onek: esaidazu nun batuko garean biar.

—Erdi neugaz da erakutsiko deusut zein ostatutan na-goan: antxe batuko gara.

Ostatua ikusi ebanean, joan zan Josetxo bere ontzira; la-gundu eban egun atako lanetan; esaeutsan ontziburuari artu eban burubidea; egin ebazan bere abiamenak; artu eban irabazita eukan dirua, ta biaramonean joan zan ostatura Darigana; au zan orain bere ugazaba. Urrengo egunean, zaldi ganean, joan zirean etxaguntzara: Basogane zan Dariren abizena, ta Basogane eritxon etxaguntza orri. Baso, mendi ta solo, etxetik legua laurengo ingurua, beria eban Darik, eta ganera eukazan:

500 bei,
214 idi,
125 zezen,
410 ardi, bost artaldetan,

(2) *Lurralde* = Territorio.

55 auntz
5 aker,
10 belarluze (3),
25 zaldi, ta egazti asko.

An, or da emen, eukazan bost baso-etxe, korta andiakaz, eta bost artzain bost artaldientzat; bere etxetik urre eukazan beste teilape luze batzuk, arazo guztiak egiteko, ta eguraldi txarretan abereak eukiteko. Amabost menpekok, bost artzainen ganera, Josetxo agintari zala, zuzenduten ebezan egunaro arazo guztiak.

Lenego egunetan, Dari ta Josetxo, biak batera ebiltzan zaldi ganean, abereak eta etxaguntzako ondasun guztiak ikusten, da bide batez Darik esaeutsen bere menpekoai, zelan Josetxok aginduko eutsen aurrerantzean. Josetxok ikasi ebanean arazo guztiak zuzenduten, Darik artu eban etxealdeko lanaren ardurea, ta Josetxo joaten zan egunaro, urrun egozan abere, artalde ta lanak ikuskatzera.

Abelgorri asko geituten zirean lez, egiten eben *tasajo* edo zezin asko, euren menpekoentzat eta Buenos Airesen da beste errietan salduetako; ganera, egunaro salduten ebezan, batez beste, eun da berrogei *azunbre* esne, berreun gaztai, abelgorri bizi batzuk, il zireanen narruak, adarrak, azurrak eta tripak: zaldiak joaten zirean etxaguntzara, onek gauzok bilatutera erri txikietatik.

Belarluzeak zirean etxerako; eurak bear ebezan urdai, lunkainka ta koipe¹ zuzentzeko, ta zaldiak zirean errietara eroateko saldu bear ebezan gauza batzuk.

Josetxori ederretsi jakan artu eban irabazbidea, ta egiten ebazan aleginak bere arduretan, ugazaba pozik egon eitean.

Seigarren ilebetean gexotu zan ugazaba, ta joan zan Buenos Airesera osagileagana, jakitera zein gexo eban, da zeintzuk sendagarri, janari ta edari artu bear ebazan. Osagileak esaeu-

(3) *Belarluze* = Cerdo.

¹ Artikuluaz argiago legoke: *koipea*.

tsan gibleko gexoa zala: aste bian egon zan Buenos Airesen, da gero etxeratu zan, sendatzeko usteaz, osagileak egieutsazan oarpenakaz, da agindu eutsazan osagarriakaz (4). Sendatu zan ilebetegarrenean da jarraituten eban zoli bere arduretan.

Ango mendietan ebiltzan katamotzak (5) egiten eutsezan kalteak abere txikietan; noizbait ilda topaten ebezan ardi, bildots da auntz bat edo beste. Katamotzak arrapateko euken burdinazko txaoilatxo bat, burdinsarez inguratuta: atea zan berakotan ixten zana, katamotza okelea jatera txaoilara sartuten zanean. Gisa onetan katigutu ta ilten ebezan katamotz asko.

Alan da guzti be, Josetxo an lotu zan urtean irabaziak asko geitu zirean, da ugazabak, bere irabazien ganera emoeutsazan bostmila ogerleko atsegin-sari (6). Baita esaeutsan, aurrerantzean irabaziko ebazala berreun ogerleko ilean.

Josetxo arrezkero, pozen pozaz, beti egoten zan Bizkaiko abestiak abesauten, da Dari, agoa zabalik, guztizko gogo argiaz egoten zan entzuten bere jaioterriko koplak eztatzen, ainbeste urtetan entzun ez ebazanak.

Sorterria (7), urrunago ta maiteago izan oi da, da Dariren atsegin eztsuena izaten zan, Josetxori Gernikako Aritx ederraren abestiak entzutea: Bizkaian egoala uste eban, abesti orrek entzuten ebazanean. Berak be, andik-ortik-emetik, bakarrrik ebilenean, gogotsu kantaten ebazan Josetxogaz ikasiriko koplak batzuk: alagala bizi zan mutil orregaz.

Bizkaira ezkontzera joateko usteaz, igaro jakazan urte asko, ta ezkongei egoan oraindino.

Dariren etxetik ordubeteko bidean, egoan beste etxaguntza eder bat, eta Sabas, angu ugazaba, joaten zan noizbait Dariri agerraldi bat egitera. Sabas zan, aita ta ama euskaldunak izan ebazana, baina inoz Euskalerrian egon etzana: etxaguntza atan

(4) *Osagarri* = Medicina.

(5) *Katamotz* = Tigre.

(6) *Atsegin-sari* = Regalo.

(7) *Sorterria* = Patria.

jaio ta bizi izan zan, ta orain eukazan emazte ta lau alaba: ekian euskera berbetan, eta zan guztiz euskaltzalea (8).

Bein, askotan lez, joan zan Sabas, Darigana, ta topau eban Josetxo lan guztien ardurea artuten: txera onaz agur egin da gero, itandu eutsan Josetxori:

- Nungoa zara?
- Ni bizkaitarra.
- Dariren senideren bat?
- Ez jauna, bere menpekoa.
- Nun dago Dari?
- Uste dot etxean egongo dala.
- Banoa berba batzuk beragaz egitera.
- Agur ba.
- Agur urrengora arte.

Joan zan Sabas Dariren etxera, ta onek ikusi ebanean esaeutsan:

- Agur Sabas aspaldikoa.
- Agur Dari, zelan bizi zara?
- Bizi ondo, baina gibelego gexoak neketuten nau sarri-

txo.

—Ori berez osatuko jatzu.

Sabasek, gero itandu eutsan:

—Nundik ekarri dozu or ikusi dodan mutil eder ori?

—Lurbira guztian bilatuten ibili izan banintz be, sinistuizu Sabas, eneban topako mutil egikor da ekarkorragorik. Len, amaseirik ogei mila ogerlekora irabazten izan dira urtean etxaguntza onetan, da joan dan urtean, mutil orregaz, irabazi doguz ogetabosmila ogerleko, ta ganera asko geitu dira abelgorriak eta enparauak: baita soloetan, lur-sagar, baba, india-baba, gari, artagarau ta ortuari edo baratzari guztiak be, ugariago artu doguz: etxaguntzan bizi garean guztientzat daukaguz urte guztirako elikaturak, esne, egazti ta arrautzak geituezkero aren ganera. Zeruan nago mutil ori daukadanik ona; egunaz bada,

(8) *Euskaltzale* = Vascófilo.

berorrek artuten ditu lan guztien ardurak; neketu be ezta egiten, da iluntzean etxeratuten danean, eroturik ipinten nau bere Bizkaiko kanta edo abestiakaz.

—Adu (9) onean zagoz orduan mutil orregaz: gure etxaguntzan be bear genduke olako mutil bat.

—Poz-pozik nago, Sabas.

—Egoteko da olako lagunaz.

Egin ebezan beste berba asko, ta gero joan zan Sabas, bere zaldiaren ganean.

Bigarren egunean, zaldi ederrago bategaz aurkeztu zan ostera Basogane etxaguntzan, da Josetxori egieutsan berba leunketa eztituaz; gero joan zan Darigana ta ordubetea inardu eben berbetan: iluntze aurretxoan, igo eban bere zaldi ederraren ganera, ta etxeratu zan.

Ile bitan ibili zan olako agerraldi asko egiten Basoganera, ta beti aurkeztuten jakan Josetxori txera onaz, da berba gozatsuakaz.

Bein agertu zirean Sabas da bere alaba zarrena, ikusgarriko zaldi eder biren ganean, ondo apainduta eurak eta zaldiak: Josetxo topau eben egunaro lanetan erabilten eban zaldi ganean, da lotsatuta jarri zan au, neskatila galant aren aurrez-aur: biotzikara errimeaz erantzuten ebazan bere erantzupenak. Neskatila orrek ez ekian euskera, gaztelarren berbakuntzea baino, ta esan leikean buruz artuta² eukazala Josetxori esaeutsazan berba zintzoak. Esaeutsan arpegi osasuntsuaz, mutil ederra egoala: Darigaz egieben egotaldi luze bat, eta gero etxeratu zirean.

Beste egun baten, Sabas aurkeztu zan alaba zarren biakaz, irurak ondo apaindurik, iru zaldi ederren ganean. Berba asko egin da gero, neskatila gaztienak, irribarreka, begirakuna argi-argiaz, destaine antzera, esaeutsan Josetxori:

—Zuk, onegaz edo neugaz ezkondu bear dozu; begiratu-

(9) *Adu* = Suerte.

² Buruz ikasita, 'de memoria'.

guzu³ ondo biori, ta urrengo ikustaldian esango deuskuzu, zein dan zeure begikoa.

—Zuek jolastzeko gogoia daukazue; nire gogoan eztago oraindino ezkontza asmorik.

—Etzaite lotsatu gizona; esan dodana ezta izan destaine bat baino. Lau neskatila gagoz etxean artu daizun zein gura; zer nai dozu ezkontzeko ereti oberik?

Sabasek eta Darik barre asko egieban neskatila aren esakerakaz, da Josetxo gizajoa zerbait lotsatuta egoan: iluntzean etxeratu zirean Sabas da alabak, arro ta lerdan, euren zaldi ederren ganean.

Arik bosgarren egunean agertu zan Sabas Basoganera bere lau alabakaz, bata baino bestea zaldi zoliagoaz da ikusgarrian apaindurik. Bekien neskatilok Josetxo onegia zana, ta edozein berba esaten eutsen barre eragiteko usteaz; lau neskatilak artu eben euren lau zaldien erdian, da esaeutsen:

—Katigutu zaituguz Josetxo, ta eztozu zaldi artetik urten-go, esaten ezpozu, lauroetatik nor dan zeure begikoa.

—Laurok zarie neure begikoak.

—Ori ezin izan leiteke; bat izango da besteak baino zeure begikoagoa.

—Orrek ezbardinok ezin dodaz nik neurtu zuen artean; laurok zarie neskatila galantak.

—Eskerrik asko, Josetxo; eztizkoak dira orrek berbok! Zelan neurtu dozu ba gure galantasuna?

—Ikusmenaz.

—Ja... ja... ja, bai ba semetxoa, ikusmenaz neurtuko zu nor dan zeure begikoa be.

Ekinean egozan barreka Dari ta Sabas, neskatilai otuten jakezan gauzakaz.

Onetan, Dari be bizkortu zan, da neskatilai esaeutsen:

—Ni bere ezkongei nago, baina ezteustazue esaten berbatxo bat be.

³ *begira eiguzu.*

—Ordu onean zatoz, Dari, neskatilen txera ona bilatutera! Zer egin zendoan lenago, erasti obean? Emazteak etxaguntza guztia jango eutsula uste izango zendoan. Orain astun dagoz, Dari, orrek bizar zuriok, neskatilen gogoa beteteko!

—Nik, neure jaioterrian ezkontzeko ustea izan neban, baina il egin zan maite izan nebana, ta gero eztoz ezkontzeko gogorik euki.

Sabasek, urrengo domekan eurakaz bazkaldutera joateko baietza emon eragin eutsen Dari da Josetxori, ta gero etxeratu zirean.

Darik eukazan lau zaldi, guztiz ederrak, euretarik bi zuriak, Sabasen ederrenai ondamura ez eutsenak; eta ikusirik ain apaindurik joazala beti besteak, biraldu eban Josetxo Buenos Airesera, zaldi bi ondo apaintzeko bear zirean gauza barriak bilatutera, len eukazanak zerbait zarturik egozalako. Topa zituuan ederrenak erosi ebazan Josetxok, eta ederretsi jakazan Dariri.

Urrengo domekan, ondo apaindurik eurak eta zaldi zuri biak, joan zirean bazkaldutera Sabasen etxera.

Arriturik lotu zirean Sabas da bere lau alabak ikusi ebenean arek eroen edertasuna, zaldi zuri, azkar da eder biren ganean. Josetxok, apaindurik egoala, ez irudian Basoganen ara ta ona otsein antzera arazoetan ibiltzen zan mutila, ezpada, aberats baten seme ederra baino.

Arpegian agiri jaken Sabasen alabai, aren zaldi bien ondama eukela: amazortzirik ogetasei urte bitartean ebiltzan lau neskatilok, eta ezagun zan, Sabasek, Josetxo eurakanatu nai ebana. Guztiz aberatsa zan Sabas, baina Dari zerbait aberatsa goa.

Sabasek itandu eutsan Dariri:

—Nun idoro dozuz orrek zaldi zuri eder biok? Errege ta seme dirudizue ain ondo apaindurik: alagalako zaldiak daukuzuz.

—Onek zaldioak antxinarik daukadaz etxean.

—Eztoz ikusi orain arte; guztizko iruderrak dira.

Bazkaritan da bazkalostean, gogotsu inardu eben berbetan ezkontza-ipuinak esaten, da guztizko gogaldi onaz egon zirean ordu bian barriketak esaten, da barrezka ondo olga edo jolastuten. Iluntze aurrean, Dari ta Josetxo, jarri zirean zaldi ganietan, ta Sabasek, lau alabakaz, lagundu eutsen biderdira arte. Neskatilok, etxeratu zireanean, esaten eutsen alkarri:

—Josetxok eztau irudi izan Basoganen ikusten izan dogun mutila. Zein gizaseme ederra, apaindurik dagoanean!

—Apainduta zein apaindu barik, inguruon eztago Josetxo lako mutilik, alan edertasunean, zein esangin da onbidean.

—Bai, pozik artu leiteke senartzat.

Urrengo domekan, Dariren etxera bazkaldutera joateko, berbatuta lotu zirean aita-alabak. Esan da egin, joan zirean; erregina batzuk irudien Sabasen alabak, mendiak zear, gora ta bera, zugazpean (10) joazanean, zaldi ganietan, guztiz ondo apaindurik.

Eldu zirean Dariren etxera, ta batun zirean guztiak batera, nesken leunketa ta ipuinakaz, barre asko egiteko gogoaz. Janari onak eta edari obeak egozan bazkaritako, ta ekinean berbetan, esakera barre eragitekoakaz igaro jakezan iru ordu, maitik aldendu barik: Sabasen alaba gaztiena, edariak apurtxo bat azkurturik, jarri zan guztizko gogaldi onaz, danai barre eragiten, burura etorkazan destaine asmutsuakaz.

Bazkaria amaitu ebenean, artu eben albistea, zelan kata-motz eder bat egoan katigu burdintxaolan*: joan zirean guztiak katamotza ikustera, ta izugarriak zirean arek egiten ebazan orruak eta aldarriak. Eurak begira egozala il eben langile bik txaolearen aizetegitik (11) lan orretarako eukezan iskiloakaz. Arazo ori ikusi ta gero, etxaguntzan, batera ta bestera, abere ta artaldeak ikusten egurastu zirean arratsalde guztian, barre asko egiten ebela txitean-pitean, neskatilen asmo ta esakerakaz: iluntzean etxeratu zan Sabas bere alabakaz: Dari ta Josetxok lagundu eutsen biderdira arte.

(10) *Zugazpe* = Bajo árbol.

(11) *Aizetegi* = Campo, exterior.

Sabasen alaba zarrenai⁴ erakusten eutsan maitetasuna, bere etxaguntzako saldu-erosietan ibiltzen zan, Buenos Airesko mutil, Zenon izena eban batek, baina neskatileak ez eutsan egiten txera onik mutil orri, etzalako bere begikoa. Gertaera au, ez ekien Dari ta Josetxok.

Sabas joan zan bein Basoganera, ta esaeutsan Josetxori:

—Josetxo, alaba zarrenai ta niri lagundu bear deuskuzu Buenos Airesera, ostera bat egitera; iru eguneko jirabirea izango da.

—Atseginez lagunduko deusuet, Dariren baimenaz izanezkeru.

—Goazan ba Dariren baimena jadetsitera (12).

Jadetsi eben baimen ori, ta Josetxo geratu zan biaramon goizean joateko zaldi ganean Sabasen etxera, ta andik irurak jarraitzeko Buenos Airesera. Egun bat osoan egon zirean erri atan, ibilketak egiten kalerik kale, ta ikusten zer egoan, an, or da emen: Zenon topau eben aurrez aur kale baten, da beragaz egin ebezan berba batzuk. Zenonek sarri begiratuten eutsan Josetxori, guztizko arpegi ilunaz, da Sabas da alabeak be ikusi eben begirakune ilun ori. Zenon joan zanean, Josetxok itandu eutsan Sabasi:

—Eztozu gogoatu (13) gizaseme orrek niri egiten izan deustan begirakunea?

—Bai, beti da ori olakoxea.

—Nik ezpot ezagututen?

—Ez eiozu jaramon.

—Begirakuna itzala euki dau beintzat niretzat!

—Olakoxe gogaldi ilunekoa izan oi doa sarri.

Sabasek eta bere alabeak ondo aditu eben Zenonen begirakuna iluna zegaitik zan, baina ez eutsen esan gura Josetxori.

(12) *Jadetsi* = Conseguir.

(13) *Gogoatu* = Observar.

⁴ Singularrari dagokio *zarrenai*. Beste gehiagotan be bardin jokutzen dau.

Gogaituten egoan Zenon, Josetxo bere maitearen lagun ikusi ebanean, da orregaitik zan arek erebilen bekoki iluna. Biaramon goizeko lauretan urten eben Buenos Airesen, da iluntzean etxeratu zirean jirabira gozatsua eginda.

Arik seigarren egunean, Darik biraldu eban Josetxo Buenos Airesera, arturen eukazan diruak batu, ta lengoak eukazan lekuan ipintera. Zenonegaz aurrez aur topau zan kale baten, da urrengoan lez guztizko begirakune ilunaz begiratu eutsan Josetxori. Gau atan, goizeko lauretan urten eban Josetxok etxerutz zaldi ganean, da ordu biko bidea igaro ebanean, bidean egoan baso-etxe baten urrean, aurkeztu jakan Zenon zaldi ganean, da esaeutsan:

—Adiskidea, jakizu aspaldion nabilena ezkontza asmoetan Sabasen alaba zarrenaz, da esan bear deustazu olako asmorik badozu beragaz.

—Nik eztaukat inogaz ezkontza asmorik.

—Lengo egunean ikusi zendudazan beragaz, da etxatan ederretsi.

—Aregaz nengoalako zan orduan, zure begirakune iluna nigana?

—Bai, orrexegaitik.

—Lagundu eioetala esaeustan Sabasek⁵, eta lagundutera joan nintzan.

—Bakit joan-etorri asko egiten dozuena alkarren etxieta-
ra, etxaguntza batetik bestera, ta zuk ezkontza asmoak darabil-
tzuz Sabasen alaba zarrenaz.

—Ez gizona, sinistuizu nik eztaukadana ezkontza asmorik.

—Berbea emon bear deustazu ba, Sabasen etxera etzarea-
la joango geiago, ta eztozula eguno berba egingo bere alaba za-
rrenaz.

—Ja... ja... ja; asko eskatuten deustazu, zorrik eztotsudala;
zoraturik ete zagoz, gizona?

⁵ *lagunda neiola.*

—Ez eizu barre egin; onek gauzok eztira barre egitekoak!
—Ja... ja... ja, zelan eztot egingo barre, zure zorakeriak entzunezkerok?

—Bigarreanean dirautsut ezteizula barre egin, ostarantzean joko zaitut emen daukadan makila onegaz.

—Ja... ja..., bai zera!; emen daukat neuk be olako makilea: nik eztaukat zure makilearen ez zure bildurrik, eta obeto egingozu etxeratu bake-bakean.

—Ez; lenengo esan bear deustazu, eztozula berbarik egingo neskabila aregaz.

—Nik ezin neike artu egipide ori, ta berbetan aditu ezin bagara alkarregaz, jatsi gaitzean zaldi ganetik, eta beingoan adituko gara geure makilokaz.

Zenon, Josetxoren azkortasunak (14) bildurtuten eban, da etzan azartuten areri ezer egiten.

Auzi onetan egozala, eurakandik urre samar ebiltzan olgaten, burruka antzera, abelgorri gazte bi; artu eben abiadea zaldidunak egozan alderutz; izutu zan Zenonen zaldia; artu eban abiada zolia *postan* (15), da an egoan baso-etxetik urrean jaurti eban zaldiak, eta onek jarraitu eban oinaztua baizen arin etorri zan bidean zear. Baso-etxeok eta Josetxok jaso eben Zenon da eroan eben etxe atara: zauri andiak odola eriola eukazan arpegi, esku ta gorputzean; ogeratu ebenean jarraitu eban Josetxok etxerutz, ta ilunduta etxeratu zan.

Iragarri eutsan Dariri, Zenonegaz bidean gertau jakana, ta arriturik geratu zan au mutil aren gizabideaz, deunge baten antzera, bidera urten eutsalako Josetxori.

Arik zortzigarren egunean, joan zan Sabas Basoganera, ta Josetxogaz berba batzuk egin da gero, igo eban etxera Darigana. Onek erazagutu eutsan Josetxori Zenonegaz igaro jakana, ta sinistu ezinik egon zan luzaroan: «Ori da mutilaren geiztoke-ria! —esaten eban Sabasek—. Entzun bear ditu entzunalak,

(14) *Azkortasun* = Animo.

(15) *Postan* = A todo galope.

urrengo gure etxera datorrenean! Nor da bera, edo zein eskubide dauko inori galarazoteko gure etxera etortea, ta nire alabegaz berba egitea?».

Dari ta Sabas luzaro egon zirean berbetan alkarregaz. Onek, etxeratu zanean, agur atsegintsu bat egieutsan Josetxori.

Sabasen alabak, guztiz aserre ta naibagez beterik jarri zirean, jakin ebenean Josetxori Zenonegaz igaro jakan gertaerea, ta aitari esaten eutsen:

—Zenonek eleuke sartu bear gure etxean!

—Ikusikogu zer dinoan urren datorrenean, da orduan artukot burubidea egin bear dana egiteko.

Iluntzean, lanak amaitu zireanean, etxeratu zan Josetxo, bere euskerazko abestiak abesauten, da gora igo ebaneko, esaeutsan Darik:

—Albista barri bat daukat zuretzat.

—Zer jazoten da?

—Sabasek esan deust zuri iragarritako, zelan nai leukean ezkondu zaitezan bere alaba bategaz, zarrenaz balitz obeto, aldizka zarrik gaztera ezkondu deitezan; baina zarrena nai ezpoz, beste edozeinegaz. Nik esan deust, euren etxera bizitera joatea bada, eztotsudala ezer esango, ta emen biziteko egipideaz izango dala ezkontza ori. Ni, aspaldion, ikusten egon naz, Sabasek ainbeste agerraldiaz, atzenean asmo au ekarriko ebal: orain zeuk esangozu zer deritxazun asmo orri. Onek gauzok ondo gogartetu bear izaten dira erabagi orduko. Baita esan dau, zelan bere alabak euki dituen ezkontzeko ereti asko, baina orain arteko mutilak eztireala izan euren begikoak, eta zu guztiak ikusten zaituela begi argiakaz.

—Nik, Dari, biotzaren barru-barruan daukat neure erriko neskatala bat, zeuk euki zenduan lez, da nire biotzean eztago besterentzat lekurik: nik usmaten izan dot, Sabas asmo orregaz etorriko dana, ta eskerrak zor dotsadaz, bere ta alaben guramen onagaitik, baina ezin neiteke ezkondu: datorrenean, neure eskerrak erazagutuaz, esaiozu berbatuta nagoala neure erriko neskatala bategaz, ara noanean ezkontzeko, ta ezin egin leitekeala berak nai dabena.

Josetxo ez egoan inogaz ezkontzeko berbatuta, baina Eladitxo eukan bere biotzaren barru-barruan.

Arik bigarren egunean, agertu zan Sabas, da Darik esaeutsan Josetxoren erantzupena. Orduan Sabasek, arpegi zurbilduaz erantzun eban:

—Nire alaba batentzat, ona izango zan mutil ori, baina bakotxak daki zer egin bear daben: mutil orren itxaropena euki dogu etxean, da gaur, naibage alatsua artuko dabe nire alabak: eroapena artu bear dogu, Dari, naibage guztietan.

—Bakizu, Sabas, zein indar daukan euskaldunaren berbeak, eta berbatuta badago, ezin leike aldatu ezegaitik.

—Bai, Dari, adituten dot, gizaseme zintzoak olan egin bear dabena.

Agur egin Dariri ta joan zan Sabas: Josetxok zaindu eban aizetegian, da eskerrak ageriaz esaeutsan, ez eiela artu txarustean bere burubidea, ta agindu eiola beti berak lagundu al eutsan arazoetan.

Sabasek erantzun eutsan:

—Bai, Josetxo, gurean maite izan zaituguz, baina jakin dot ezin zineitezana etorri gurera, ta lengo adiskidetasunaz jarraitukogu aurrerantzean bere. Agur urrengora arte.

—Agur Sabas.

Gero Sabas joaten zan Basoganera noizik noizera, bein bakarrik, bein alabaren bategaz, da jarraituten eban lengo adiskidetasun zintzoaz.

Urrengo urteko irabaziak, izan zirean ogetabost mila ogerleko, ta ganera asko geitu zirean abere guztiak. Lengo urtean lez, Darik emoeutsazan Josetxori bosmila ogerleko atsegin-sari*, bere alogeren ganera, ta poz-pozik geratu zan Dariren gizabide onegaz. Atsegin-saria emoeutsanean, esan eutsan Josetxori:

—Nik orain, neure gibeledko gexo onegaz, eztot ezer egiten; zeu zara gauza guztien ardurea artuten dozuna, ta orregaitik, aurrerantzean eztozu eukiko aloger izentaurik: etxaguntzearen urteko *errenta* edo saria, bosmila ogerleko nik artuezkero, enparaua egingo dogu erdibana.

—Eskerrik asko, Dari; neure aita bazintzake be, ezin zineike egin geiago nire onerako.

—*Merezi* dozuna, Josetxo.

Darik geroago alatsuago eukan bere gibleko mingortasuna, ta ostera be joan zan Buenos Airesera amabost egunetan, osagile on batek esaten eutsana egitera; Josetxok, bost egunik baten biralduten eban menpeko bat, jakitera zelan egoan ugazaba bere gexoaz. Lenengo amabostan etzan lez oneratu, jarraitu eban bertan osagilearen ardurapean: ilebetegarrenean, sendo samar aurkituten zan, da berrogeigarren egunean gexoa asko ibiturik, eta Buenos Airesen gogaiturik, etxeratu zan.

Erasti luze baten ibili zan ondo samar, da gero agertu jakan ostera bere betiko gexoa. Esan leikean gexo orrek indar geiago artuten ebala, ezetariko ardura бага, jan, edan, egurastu ta lo eginaz, nai eban atsegite (16) guztiaz bizi zanean: sarri joan bear izaten eban Buenos Airesera, osagilearen ardurapean egotera. Geroago zurbilago ta argalago, sustrai gogorraz jarri jakan bere gexoa, ta urtearen atzenetan, Bizkaira joateko asmoak erabiltzazan: ilteko bildurra artu eban, da bere jaioterrira nai eban joan iltera⁶.

Urte onetan irabazi ebezan ogetamar mila ogerleko: Darik artuezkero bosmila etxaguntzearen saria, geratu jakezan ogeta-bosmila euren artean ainbanatzeko edo amabi mila ta bosteun ogerleko bakotxentzat.

Ona Josetxok, etxaguntzan eroazan iru urtietan, irabazi ebazan ogetabosmila ogerleko.

Darik egiten ebazan aleginak sendatuteko, baina ikusirik ez ebala onerantz egiten, erabagi eban bere jaioterrira, alik arinen, joatea. Onetarako esaeutsan Josetxori:

—Irabazten izan dogunen erdia artuten izan dozun lez, abere erdiak zeureak izan dira: beste erdiakaitik eta salerosietan (17) artu bear neukeanagaitik, emongo deustazuz ogei mila

(16) *Atsegite* = Descanso.

(17) *Saleroste* = Comercio.

⁶ Etxeitaren hurrengo elabarriaren izena be berori dogu: *Jaioterra maitia*. Beste batzutan *sorterra* hitza be badarabil.

ogerleko, ta zeuretzat lotuten dira, txiki ta andi, abere guztiak eta salerosian irabazten dozuna. Etxaguntzearen urteko saria izango da bosmila ogerleko, ta biralduko deustazuz urtearo Abadiñora: ganera emoten deusut eskubidea etxaguntza au salduteko, eun mila ogerleko nok emon dagoanean, zein jarraitzeko berton, zeuk nai dozun artean.

—Ondo da, Dari; ageriten deusudaz nire biotzean sortu direan eskerrak, zeure *mesede* guztiakaitik.

Ona, Josetxo geratu zan artu-emon da saleroste guztien jaube, ogei mila ogerleko Dariri emonaz. Etxaguntzea ta bosmila ogerleko urteko saria, zirean Darirenak aurrerantzean.

Atzenengo urtean lez irabaziezkeró, Josetxori geratuko jakazan, ogetabosmila ogerleko urte baktotxean; zorionean jarrita egoan osasuna beukan.

Arazo guztiak arautu, abiamenak egin, da ile bigarreanean, ontziratu zan Dari, Coruñara joan ontzi eder baten: Josetxok lagundu eutsan ontzira arte, ta bere aitamenzat emoeutsazan bi mila ogerleko.

Eun da berrogetabosmila ogerleko artuko ebazan Darik Bilboko etxe baten, ara elduten zanean: onek zirean bere irabaziak, eta ganera eukan etxaguntzea, gitxienez eunmila ogerleko *balio* ebazana.

Dari ta Josetxok, negar malkoak jausten jakezala, agur egieutsen alkarri, Bizkaian barrero alkar ikusteko usteaz.

Dari Coruñara etorren ontzian, etozan etxeraldi bat egitera, Buenos Airesen luzaro egon zirean mundakar bi, Josetxo ezagututen ebenak, eta Darik esaeutsen mutil arek eukan zori ona bere etxaguntzara joanaz, da zelan lau edo bost urte barru izango zan diru askoren jaube.

Eldu zirean Coruñara, andik Bilbora, ta gero etxera.

Mundakarrok arin zabaldu eben errian, Josetxok irabazbide ona eukala, abere askoren jaube zala, ta diru asko irabazten ebala.

Txomin-txiki Ondartzakok artu eban Josetxoren irazki bat, esaten eutsala zelan bere ugazabaz biralduten eutsezan aitamai, bi mila ogerleko eurentzat; ugazaba orrek egingo ebala

agerraldi bat Ondartzara diru ori eroatera, ta bide batez erazagutuko eutsezala etxaguntzako arazo guztiak.

Dari, Abadiñon astebetean egon da gero, joan zan Ondartzara: guztiz abegi (18) ona egieutsen Txomin-txikik eta emazteak. Darik emoeutsezan Josetxoren bi mila ogerlekoak, eta gero ageri eutsezan etxaguntzan igaro zirean jazoera guztiak: Txomin-txiki ta emaztea, adurra⁷ erioela egon zirean poz-pozik Dariren berbak entzuten, da esker eztsuak erazagututen. Egun bitan egon zan Dari Ondartzan, da egun bietan, imini ebazan etxe atakoak, Josetxo egoan etxaguntzan egiten zirean lan, saleroste ta irabazien jakitun. Irugarren egunean joan zan Abadiñora, noizbait agerraldi bat Mundakara ta Ondartzara egiteko usteaz.

Zein arpegi argiak egozan Eladitxoren etxean, Josetxoren albista onak jakin zireanean! Aberastuten egoala, ta aberastuta laster etxeratuko zala! Zein gogo argia erriko gizadi guztiak be, Josetxoren adu ona jakiebenean! Josetxo gora ta Josetxo bera, egun askotan etzan besterik entzuten! Eladitxo birbizturik jarri zan albista orrekaz.

(18) *Abegi* = Recibimiento.

XIX

Dari bere jaioterrian

Darik eukazan iru arreba Abadiñon; bi ezkonduak, eta berrogeta bost urte ebazan ezkongei bat: ganera Durangon ezkondata eukan anae argina^{*} zan bat; neba-arreba guztiok lanean sendo iardu bear ebenak, jango beben.

Lenengo egiebana izan zan, amar mila ogerleko emon neba-arreba bakotxari, ta danak ipini nasaiturik euren neke gogorretan. Buenos Airestik etorrela, itxasoko aize osasuntsuak, zerbait sendatu eben bere gexoa, ta gero uda guztian ibili zan, orko, ango ta besteko urak edaten osagileen aginduaz, da guztizko osasun onaz jarri zan. Etorri ta urtebetegarrenean, oso beste gizaseme bat irudian, ain ondo artu eben bere erriko aizeak, urak, ibilketak, neba-arreben maitegureak, eta erbesteko bakartasunai alde eginak.

Berrogetamazortzi udabarri igaro ebazan lurbira onetan, baina sendo ta zoli aurkituten zala ikusi ebanean, ezkontzeko asmoak etorkazan noizbait bere burura: oso birbiztu eban bere sorterriak.

Durangon bizi izan zan, gaztetan Dariren adiskidea izan zan, Nemesi eritxon gizalaba bat, alargun egoana, ta onek eukan ezkongei berrogetabat urte ebazan alaba Nikerate izena eban elizale onbidetsua. Dari sarri joaten zan Abadiñotik Durangora, ta beti egiten eban agerraldi bat Nemesiren etxera: au ta alabea guztiz pozik eta amultsu (1) egoten zirean Dariren berbak entzuten, da noizbait Nemesik esaten eutsan:

(1) *Amultsu* = Amable.

—Dari, orain osasunaz zagozanezkero, gogaituko zu bakar-tasunean, da oraindino gizon gazte samarra zarean lez, laster artuko zu burubidea emaztea artuteko.

—Esatea be gizon gaztea nazala berrogetamazortzi urte-gaz! Eztot artu oraindino ezkontzeko asmorik.

—Baina artu bear dozu, zegaitik laster ezkonduko jatzu etxean daukazun arrebea, ta orduan bakarrik neskameaz geratuko zara.

—Nire arreba berrogetabost urtekoa ezkondu?

—Bai, Dari, len eztau inok jakin nun bizi izan dan, baina amar mila ogerleko zugandik artu dituzanik ona, irugarren senargeia agertu jako: sinistuizu.

—Eztakit ezebe, baina poztuten nau albista orrek; nai neuke ezkonduko balitz gizaseme on bategaz, betiko neskazar geratu ezteitean.

—Barrinkuko etxagunaz ei dabil gogo beroz, ezkontzeko usteaz.

—Ezteust ezer esan, baina senargei ona bada, ondo egingo dau ezkonduetea.

—Bai, gizaseme ona da, ta gitxi gorabera, biak izango dira adin batekoak.

—Arrebea ezkonduen bada, eztakit zein burutasun artuko dodan, baina ezkonduen banaz be, ezta izango gazte zoroaz, ezpada zentzun onekoaz baino.

—Bai, Dari, zure adinekoak eztau bear gazte zororik.

Agur egin da joan zan Dari astiro-astiro Abadiñora, bidean gomuta izan ebazala Nemesiren berbak. Etxeratu zanean, itandu eutsan bere arrebeari:

—Entzuizu, Kenobebe, egia da ezkontzeko asmoaz zabiltzana?

—Nok esan deutsu?

—Nemesi Durangokok.

—Nik eztakit nundik eta zelan jakiten dituezan orrek al-bistok: uste izan dot inok eztakiala. Ezbaian nago oraindino, ta orregaitik eztotsut ezer esan: Barrinkuko etxagunak nai dau

nigaz ezkondu, ta eztakit zer egin; gizaseme ona da, ta ganera etxaguntza ederraren jaubea.

—Gizon ona, etxaguntza onaz bada, eztozu zetan egon gogartetuten; erabagi senargei ori artutea, ta ezkondu alik arinen, neskazar geratu etzaitzezan.

—Zeure guramena izanezkero, urrengo ikusten dodanean esango deusatsat egin daizala ezkontzeko abiamenak, ezkondu gaitzezan alik arinen. Baina zeu, Dari, zelan biziko zara bakarririk?

—Orduan ni bere ezkondu egingo naz.

—Ondo egingo dozu. Da nor da zeure begikoa?

—Eztakit oraindino. Nai dozu egun baten ezkondu gaitzezan?

—Bai, zeuk nai badozu.

—Nemesiren alaba Nikerategaz ezkonduko nintzake nai banindu.

—Neskatila ona da; zuretzat oberik ezin izan leiteke, zarkotetxo zorakeriarik eztaukana: ondo pozik artuko zaitu neskatila orrek.

Biamonean joan zan Dari Nemesiren etxera, ta esaeutsan oni:

—Egia izan zan atzo esan zeustana, arrebea ezkontzeko asmoaz ebilela: bera ezkonduetzkeronik be emaztea bear dot, eta esaidazu Nemesi, nor izango dan niretzat emazte ona, zarregia ez gaztegia, zorakeri bakoa, etxeko ardurak artuten dakiana, ta ezkontzen danean senarra daukana jakingo dabena.

—Eztakit ba, Dari, nor izan leitekean zeure begikoa: nire alabea nai bazindu, esango neuskio; uste dot pozik izango litza-keala zeure emaztea. Zeuk nai dozulakoa da, zarregi ez gaztegia, zorakeria bakoa, ta etxeko gauzen ardurea artuten ondo dakiana: ezta zetan esan be, nire alabearen zentzuna daukanak, ezkonduetzkeronik, jakingo dabela senarra daukana.

—Esaiozu ba, datorrela ona.

Agertu zan Nikerate, matrailak gorri-gorri ta bero-bero ebazala, ta Darik itandu eutsan:

—Nai dozu ezkondu nigaz?

—Pozik amaren guramenaz bada.

—Bene-benetan da poz-pozik?

—Bai.

—Amaren guramena jakin dot: biar asiko gara elizako abiamenak egitera, ta onek egiten direanean, ezkonduko gara. Nire arrebea Barrinkuko etxagunaz da zu nigaz, egun baten ezkonduko gara, ta ementxe, etxe onetan egingoguz ezteguak*, guztiok batera.

—Ondo da, Dari; erazagututen deutsudaz esker zintzoak, gomuta izan nozulako.

Egin ebezan abiamen guztiak, eta ezkondu zirean: eztegu ederrak egin ebezan aide guztiakaz, ta Kenobebe joan zan Barrinkura bere senarraz. Dari geratu zan Durangon, Nemesi ta alabeaz alagala biziten: geroago eregi (2) eban etxe eder bat, nasaiago biziteko usteaz.

(2) *Eregi* = Edificar, construir.

XX

Jose txo Etxaguntzan, osteran da etxean

Darik etxaguntzatic alde egiebanean, zerbait itzaldurik edo gogo motelaz ebilen Jose txo egun batzuetan, baina gero egiten ebazan aleginak etxaguntzako lan guztiak egin eitezan gogoz: ondo artuten ebazan bere menpekoak, eta orregaitik, alperkeri baga egiten ebezan lan guztiak.

Dari joan zan urtean, ogetazortzi mila ogerleko irabazi ebazan Jose txok; onetarik bosmila, etxaguntzearen saria Dariiri biralduetzkerok, lotu jakazan garbi beretzat ogetairu mila ogerleko, ta ganera abere geituak.

Urrengo urtean irabazi ebazan ogetamaika mila ogerleko. Orduan biraldu eutsen irazki bat aitamai, esaten eutsela, zelan uste eban, beste iru urtean irabaztea biziteko bear eban beste diru, ta orduan etxeratuko zala. Arik lau ilebetegarrenean, aitamak artu eben beste irazki bat, esaten eutsela zelan ondo egoan, baina bertako erritarrak aserre zireala euren askatasuna gurarik, eta ezbaian egozala gudu arazoetan asiko ete zirean Españarrakaz.

Jose txo, gau ta egun egoten zan buru-austen etorkazan gogamenakaz, jakin gurarik zer jazoko ete zan beragaz da bere ondasunakaz an basamortuan (1) guduak indarrak artuten ebazan.

Ogei menpeko, danak bertako erritarrak eukazan etxaguntzan: alkar artuezkerok, nai ebenean ilgo eben, da geratu leiteke-

(1) *Basamortu* = Desierto.

zan etxaguntza ta abere guztiakaz. Gisa onetako gogamen itzalakaz ebilen gizajoa, gudu asmoak usmau ebazanean; uste eban, gudulariak joanezkeru bere etxaguntzara, kalte andiak egingo ebezala, ta bildur onegaitik, artu eban burubidea, etxaguntza ta abere guztiak salduteko, eroslarik agertuten bazan.

Ain zuzen be, Buenos Airesko aberats, diru asko irabazteko eretiak bilatuten ibiltzen zan batek, jakinik Josetxo egoan etxaguntzan asko irabazten zala, ta gogoraturik, guduaren bildurrez diru gitxigaitik saldu nai izango ebalu, joan zan Josetxogana beste gizon batzukaz, ta itandu eutsan:

—Nai dozuz saldu etxaguntza ta abere guztiok?

—Ondo ordainduten bozuz bai.

—Zeinbat ogerleko nai dozuz guztiakaitik?

—Etxaguntza andia da; an alde atan agiri dan arri zurira arte; ta an dagoan artzain txabolatik an beste aldeko mendi bizkarrera arte. Gitxienez eun da ogetamar mila ogerleko emon ditu Darik etxaguntza au erosi, ta dagoan lez ipinteko, baina eun da ogeimila ogerlekoan saldukotsut.

—Ori larregi da, ta goraberetan ibili ezkaitezan emongo deutsudaz, eun da bosmila ogerleko: eztot geiago emongo.

—Gitxi deritxot ba olako etxaguntza edatsua, ekarkorra, ta gauza guztiak ondo araturik daukazanentzat: emoidazu zerbait geiago.

—Ogerleko bat bez geiago: esaidazu orain abereak zegan direan.

—Beiak batez beste, ogetamar ogerleko bakoxta; idiak ogetabost; zezenak ogetamar, zaldiak be ogetamar; ardi, auntz, arito ta akerrak, iruna ogerleko; belarluzeak ogei bakoxta, ta oilar da oiloak lau erreale. Orra guztiz merke guztiak.

—Ezin emon neizu orrenbeste: gudulariak badatoz ona, kalte andiak egin leiez, da orregaitik, ordainduko deutsudaz, bei, zezen da zaldi, batez beste ogetabost ogerleko bakoxta: idi ta belarluzeak, ogei; ardi, auntz, arito ta akere, ogerleko bi bakoxta, ta egaztiak lau erreale batez beste.

—Zuk diru asko irabaziko dozu abere orrekaz gudulariai salduta: emoidazu zerbait geiago.

—Arrisku andiak daroadaz, da ezin emoneizu geiago.

—Zeinbatu daiguzan ba diru guztiak:

	Ogerleko
Etxaguntzea	105.000
845 bei, zezen da zaldi	21.125
230 idi ta belarluze	4.600
609 ardi, auntz, arito ta aker	1.218
115 egazti	23
	<hr/>
	131.966

Guztiak joten eben, eun da ogetamaika mila ta bederatzireun da irurogetasei ogerleko. Ta Josetxok jarraitu eban esaten:

—Orrek dira emon bear deustazuzan diruak.

—Bai, orrexek dira: etorri zaite biar Buenos Airesera etxaguntzako eskubide ta argimen (2) guztiakaz, jaube-aldatzea egin daigun; ta garbitasunak egiten doguzanean, emongotsudaz orrek diru guztiok.

Josetxo joan zan biaramonean Buenos Airesera; ta egin ebezan egin bear zirean arazo guztiak.

Josetxori bereak lotu jakazan:

	Ogerleko
Dariri abereak erosi eutsazanean lotuak ...	3.416
Dari joan zan urteko irabaziak	23.114
Urrengo urtekoak	26.262
Etxaguntzea saldu arte, atzeneko urtean ...	16.400
Aberearen <i>balioa</i>	26.966
	<hr/>
GUZTIA	96.158

Dariri lotu jakazan:

	Ogerleko
Etxaguntzearen balioa	105.000
Atzeneko urtean, etxaguntzearen saria	3.250
	<hr/>
GUZTIA	108.250

(2) *Argimen* = Aclaración.

Amabosgarren egunean urten eban ontzi eder batek Santanderrera joateko, ta antxe ontziratu zan Josetxo: beragaz ekan lenengo ingiak (3), diru guztiak Bilboko etxe baten artuteko: bertan Buenos Airesen, esku onetan itxi ebazan bigarren da irugarren diru-ingiak (4), urrengo etozan ontzietan biraldu eiezan bere aita Txominen izenean.

Josetxo etorren lez etxaguntzea salduta lenengo urten eban ontzian, ezin leikean biraldu etxera, bera baino lenago elduko zan irazkirik. Aitamak eukezan atzenengo irazkiak zinoen: batak, iru urte igarota uste ebala etxeratuko zala, ta besteak, ondo jarraituten ebala ta gudu asmoak ebiltzazala.

Albista orrekaz, etxekoak ez euken Josetxo etxeratuko zan itxaropenik, iru urte igaro arte, baina bidean etorren etxerutz.

Jakin zan Españan, gudu arazoetan asi zireala Buenos Airesen, baina gero esaten zan, egin ebezala bakeak, eta pozik egozan Txomin-txiki ta Juana Mari albista onegaz.

Josetxo etorren ontziak igaro ebazan iru ekatx gogorrek Españako itsasaldera eldu orduko, baina arek baino indartsuago izan zan Santandertik urre egozala artu ebena.

Estalki iluna zeruan; edoi-moltzo andiak eta oinaztu zoliak alde guztietan; eguzkien ezaugarriarik etzan inun agiri; aize-oial edo bela txikienakaz egozala, ondatu bear eban ontzia aize gogor da mendiako olatuen indarrak. Argitasun baten ikusi ebazan leorrek urrun samar, da uste eben Santanderreko mendiak zireala: euri landurraz estaldu zirean leorrek; eldu zan gaubeko iluntasuna arrigarrizko aize ta olatuen indarrakaz; ontzia joan aize ta olatuak eroen lekurantz zuzenbide bage, ta goizeko iru-retan, dart-dart, jo ebazan atxak. Askatu zan alde guztietatik; jausi zirean mastak atx ganera euri ta abar ezer ikusten etzan orduan: izugarriak zirean, olatuak atxetan egiten ebezan joteak, zaratak eta goraberak. A zan estutasuna, eriotzea begien aurrean ebela! Zelan urten garaitsu atx zorrotzetan olatuen gora-

(3) *Ingi* = Papel.

(4) *Diru-ingi* = Letra de giro.

bera errimeakaz? Jaungoikoaren guramenaz bakarrik gertau leikean gatxontzea!

Josetxo morrosko sendoa ta ondo uger edo igeri egiten ekiena zan, baina, lenengo ontzi birrinduan da gero atxetan, jo a, jo au ta jo bestea olatu artean, zauriturik eta kresal asko edaten ebala ebilen arte, galdu ebazan indarrak: alan bere, mendielako olatu batek jaso eban atx andi baten bizkarra baino beratxoagoraino, ta atzeneko eginaz igo eban zerbait gorago bizkarrera arte, olatuen zaparradak baino elduten etzirean lekura, ta an geratu zan luze-luze etzanda, indarrak amaiturik eta odoletan gorputz guztiko zaurietatik.

Etzan ezer agiri, ta ez ekian zer igaro zan beste ontziko gizadiaz; uste eban danak itoko zireala; ain zirean ikaragarriak iluntasuna ta ekatxaren indarrak. Zauriturik eukan gorputz guztia, kresalez beterik urdaila; soinean arkondara zuri, uretan barruan beragaz ibili ebana, otzituta eta ikara, ekatxak ekazan galgarri* guztiak artuten, da Jaungoikoari eskariak egiten, eguna argitu eien alik arinen, ikusteko laguntasuna arin eukiteko lekuan begoan, ala galdua izango ete zan.

Egunaren lenengo argi-izpiakaz batera, Josetxok arpegia sortalderutz (5) ebala, geratu zan euria jaustea, ta garbitu zirean inguruko lainoak. Argitasun atan, zer ikusi eban Josetxok? Bere etxetik beti ikusten ebazan gauzak; lenengo Izaro ugarte edo itsasleorra, Ogoño mendia edo itsasmunea ta itsasoa; beste aldetik Ondartza, bere aitamak bizi zirean etxea. Ai zein atsegi-na, negargarrizko atsekabearen gozagarria, Santanderreko atxetan egoala uste ebanean, bere etxetik urre-urre egozanetan aurkitutea! Zein pozik bere biotza, gaztetan egunaro egoten zan, Murgua eritxon atxen ganean ikustea bere burua! Gorputzari ezin eutsan zirkin eragin, da noizean bein, besoak jasoten ebazan, laguntasuna bear eban ezaugarri.

Gau atan estu ibili zan gizadi guztia itsasondoko errietan, ekatxaren indarrak egin ebazan kalteakaz, alan portuetan, txalupetan zein etxietan.

(5) *Sortalde* = Oriente.

Txomin-txikik eta emazteak ez eben eguno ezautu gau atako ekatxak eukan beste indarrekorik: teila asko eroan ebazan aizeak eta errekek irudien teilatutik etxera jausten zirean urak: uste eben etxea eroango ebala aizearen indarrak: lurrikareaz^o lez ebilen gau guztian ikara-ikara: etxeoak, bildurrez da urak ataraten, ez eben lorik egin.

Eguna argituten asi zanean egjeban ateraldian^o, Txomin-txikik leio batetik, begiratu eban itsasalderutz, da arrituta lotu zan ikusi ebanean ontzi bat birrinduta Murguako atxetan, da ganera norbait Murguaren bizkarrean etzanik, besoakaz laguntasuna eskatuten ebala.

Mutila zan Txomin arazo onetan! Beingo baten artu eban estalki on bat, eta emaztea, otseina ta neskamea aurretik arturik, joan zan Murguan egoan gizasemea biziratuteko^o usteaz: itsas-ura egoan oraindino Murguaren inguruan, da ezin igaro zirean atx atara, baina urberantza^o zan lez, laster agertu bear eben bitarteko atxak: onek agertu zireanean, joan zan lenengo Txomin arrisku andiaz, da eldu zanean Murgua bizkarrera, etzanda egoan gizonari itandu eutsan:

—Bizirik zagoz?

—Bai, aita.

—Zer? Zer entzuten dot?

Txominek erantzupen au entzun ebanean, begiratu eutsan ondo arpegira ta belarpean eban orainenera^o, ta ezagutu ebanean bere seme Josetxo zala, jaeban mosuka negar-malkoak eriozala, ta aida baten kendu eutsan soineko arkondara bustia, ta batu eban ondo eroan eban estalkiaz. Gerotxoago eldu zan Juana Mari, ta ikusirik Txominen arpegi itzala, ta negar-malkoak eriozala, itandu eutsan:

—Zer jazoten da, Txomin?

—Ezebez, ikusizu nor dan.

Juana Mari urreratu zanean, Josetxok ozta-ozta deitu eutsan:

—Ama!

—Zer? Ama? Ai neure seme laztana! —mosu ta mosu, negar da negar—. Ez intzala etorriko iru urtetan, da zer jazo

jak orren arin etorteko? —mosu ta mosu, negar da negar; erantzi bere ganeko gonea ta batu Josetxo lengo estalkien ganetik; mosu ta mosu, negar da negar: erantzi eragin neskameari ganeko gonea, ta estaldu Josetxo—. Eure etxe ondora ekarri au Jaungoikoak, eure aitamen laguntasunaz gatzontzera —mosu ta mosu, negar ta negar: Txomin be negarrez, otseina ta neskamea be negarrez; danak negarrez.

Ezin iratzi leiteke an eratu zan laurka arrigarrizkoa! Juana Mari, ezautu ebanean bere semea, jausi zan bere ganera, ta mosuka egoala izaeban larritasun bat: ilun egoan itsasaldea, ta Txominek igitu ebazan guztiak: lauren artean, alik arinen eroan eben etxera, ta ogeratu eben. Oso indarga egoan Josetxo; oztaoztan egiten eban berba bat edo beste. Neskamea biraldu zan Mundakara osagilea bilatutera, ta laster jakin zan erri guztian Josetxoren gertaerea.

Joan zan osagilea Ondartzara; agindu ebazan Josetxorenztat osagarriak, eta Juana Marik artu eban ardurea osagilearen aginduak zeatz egituteko.

Eguraldia guztiz ilun egoan itsasaldetik, eta Txomin-txikik otseinagaz, etxean eukazan teila zarrakaz, arautu ebezan teila-tuko zuloak. Esan leikean Jaungoikoak ekarri ebala lau orduko eguraldi ona Josetxogaitik, berau biziratuteko egin bear zirean arazoak amaitu arte. Eguerdian, arrigarrizko iluntasun bategaz etorri zan barriro ekatxa len baizen gogor, da iraun eban biaramon iluntzera arte. Ontzi galdua ta mastak, joan zirean zatitan: ekatxa igaro zanean, an, or da emen, atxetan, ondartzetan, itsasoan da itsasbazerretan, agertu zirean ontziko gauza asko, ta ito zireanen gorputzak.

Josetxok ez eban atara soinean eukan arkondarea baino; galdu ebazan dirutan 650 ogerleko, ta ganera, bere ta Dariren diru-ingiak; baita etxerako ekazan opari on batzuk be. Diru-ingen ardurarik ez egoan; bigarren da irugarren diru-ingiak etorriko zirean urrengo ontzietan.

Eguraldi txarrak jarraitu eban arte, artega ebilen Eladi, Josetxo ikusteko gogoaz; goianengora joaten zan bakartasuna bilatutera, ta negar asko egitera, min-arinak esaebelako, Jose-

txo txarto egoala ta etzala biziko. Zoratuta egon zanik arrezke-ro, Eladi etxekoa zan Ondartzan, da eguraldia zerbait oneratu zanean, joan zan bere izekogaz Josetxo ikustera. Juana Marik sartu ebazan mutila egoan gelan, baina aurretiaz esaeutsen, osagileak galarazo ebalá gexoari berba egitea. Eladitxo ikusi ebanean, birbiztu zan Josetxo; luzetu eban besoa, artu eban Eladiren eskua, ta mun egieutsan esku ganean. Eladi asi zan negarrez amaituten etzirean negarrakaz: ordu erdi igaro zanean, agur eginaz etxeratu ziran; Josetxok be, ozta-oztan da motel-motel agur egieutsen.

Gero, iru egunetarik baten, joaten zan Eladi, Josetxo ikustera, bein amagaz da bestean izekogaz.

Batzuk orain da besteak gero, Mundakako gizadi guztia joan zan Ondartzara Josetxo ikustera, baina osagileak galarazota eukan lez beragaz berba egitea, sartu-urten bat egiten eben.

Josetxori urten eutsan urdailean eukan kresalak, baina zauri geienak soldu* jakazan, da mingorturik, guztiz alatsu eukan gorputz guztia, zirkinik egin eziebala: ganera, jateko gogo бага ta guztiz bero ta artega. Astebetegarrenean ezagutu zan oneratz joana; asi zan berbetan astiro-astiro gogo argiaz: bigarren astean zauri asko osatu jakazan, da neketu barik, egiten eban berba. Orduan esaeban, norbait biralduteko Abadiñora, Dariri esatera zer jazoten dan beragaz, da egin eiela agerraldi bat Ondartzara.

Astodun batek eroan eban albista ori, ta arik bigarren egunean aurkeztu zan Dari Ondartzan, bere emazteagaz. Josetxok eta bere aitamak, ez ekien Dari ezkondu zanik, eta asko poztu zirean emazteagaz ikusi ebanean.

Josetxok erazagutu eutsazan Dariri, etxaguntzan da osterran igaro ebazan gertaera guztiak, eta Dari guztiz pozik jarri zan, jakiebanean bidean etorkazala diru-ingiak, Bilbon 108.250 ogerleko artuteko.

Egun bitan egon zirean Ondartzan da Mundakan, da gero etxeratu zirean zaldi ganeko kartoletan jarririk.

Joan orduko, Darik esaeutsan Txomini:

—Eneutsun nik esan, Josetxo laster aberastuko zala?

—Bai, gomuta izan dot.

—Jakingo zenduan larogetamabosmila ogerlekoren jaube dana?

—Jesus, ori da diru piloa! Diru olaren* bat euki dau ala? Ezteusku ezer esan oraindino.

Ain zuzen be, egun atan, badezpada ilgo balitz bere, otu jakan Josetxori, aitamai esatea, zelan Txominen izenean etozan diru-ingiak, Bilbon 95.000 ogerleko artuteko. Alde batetik Josetxok onerantz egiebalako, ta bestetik ain aberats etorrelako, zeruan jarri zirean Txomin da emaztea. Orduan Juana Marik esaten eutsan senarrari, betiko soinuaz:

—Gomuta izan dozu Txomin, zelan antxina esaten neutsun, mutil onek ekarriko eskula zoriona?

—Bai, Juana Mari, beti egon zara orretan, da Jaungoikoak entzun deutsuz zeure berbok.

Laster jakin zan Mundaka guztian, zeinbat diru ekarren Josetxok, eta arriturik egoan gizadia, bada erriko aberatsenak be ez eukan Josetxoren erdirik. «Miraria da —esaten eben— diru olaren bat euki ezpadau!»

Eladiren aitamai zerua zabaldu jaken, jakin ebenean ain beste diru ekarrela Josetxok. Lenengo, baserritar, jatorribako, nekezale bat izan zan; orain ez egoan lurrean Josetxo lako mutilik; antxinako andikeria eta asmo txarrak azturik, Ermoken, Eladiren aita be, joan zan Josetxo ikustera.

Ilebetegarrenean jagi zan Josetxo ogetik, etxe barruan ibiltaldiak egitera; geroago iruderrago, betorren sendatuten astiro-astiro. Txomin da Juana Marik ezin sinistu eben euren zoriona, ikusirik Josetxoren gogo argia, ta Txomin poz-pozik asi zan bere koplak kantaten, arazoetan ebilenean.

Egun baten osagileak, bere agerraldian, esaeutsan Txomini:

—*¡Hola Chomin! ¿Cómo vamos?*

—Osagile jauna, eztot uste izan erderazkoa zineanik, iza-tez mundakarra izanezkerok.

—Zer gauza txar dakar ba, erdera berba egiteak adituten daben tokian?

—Zer gauza txar dakarren? Zuk lez, euskaldun guztiok erdera berba egingo bageunke, laster amaituko litzake euskaldun da Euskalerrriaren izatea; zegaitik, euskera barik, ezin egin leiteke euskaldunik ez Euskalerririk. Orduan erdaldunak izango gintzakez guztiok.

—Adimen onekoa zara, Txomin.

—Nik eztakidaz baserriko lanak baino; alan bere, neure zentzun apurtxoak diraust, euskaldunak alkarregaz ez leukiela egin bear euskera baino beste berbakuntzarik. Ona da erdera jakitea erdaldunakaz berba egiteko, eurakazko artu-emonetan edo salerosietan; baina euskaldunak alkarregaz, beti egin bear leukie euskeraz. Nik ikusten dodaz Mundaka ta Bermeoko neska-mutilak *kanpoetako* ikastetxietan egin direanak, Ondartzara arte egurastutera datozanean, zelan erdera gogoz berbetan etorten direan, geuk legez euskera dakienak; erdera dakiela erakustearren, arrokeriak eragiten deutsen okerkeria. Orrelangoak eztakie nortzuk garean, nun bizi garean, asabak euki genduzanik, ez euren berbetea ta ekanduak aitarik- seme beti maite izan bear doguzanik. Ni zarra naz, da eztot ikusiko, baina olan jarraituten bada, euskaldunak alkarregaz erdera berba egiten, laster joango dira ikusbidetik, euskerea, euskaldunak eta Euskalerrria, guztia biurtuaz erderara: geu izango gara errudunak, alkarregaz erdera berba egiten dogulako.

—Ikastoletan egin dan gizon jakitun bat dirudizu, Txomin.

—Ezta zetan izan jakituna, orrek egiok bururatuteko.

—Agur, Txomin; orain Josetxo ondo doa, ta iru egunik baten etorriko naz.

—Agur ba, Kerman, bakizu urrengoan etxe onetan euskera egin bearko dozuna.

—Ja... ja... ja, bai, Txomin.

Txominek, erasti atan kantaten ebazan, urrengo doazan koplak, berak asmauak:

BIZI BEDI EUSKERA MAITAGARRIA

Laztan dot nik amatxo,
Geure euskerea,
Inun bere eztago,
Berbeta ohea.
Niretzat izaten da,
Eztizko berbea,
Esaten dodanean,
Amatxo maitea!

Euskaldunen artean,
Berbeta gozoa,
Asabak (6) itxiriko,
Kutun-kutuntxoa.
Baita biotzetako,
Pozgarri osoa,
Esaten dogunean,
Neure laztantxoa!

Guztiok egin daigun,
Gogotsu euskera,
Oso galdu eztaigun,
Geure berbaera.
Erazagututeko,
Asaben antzera,
Euskal endea¹ dala,
Gure izakera.

Izan gura badogu,
Asaben ordeak,
Euren errietako,
Zentzundun semeak;
Jarraitu bear doguz,
Euskaldun bideak,
Enda, berbakuntza ta,
Ekandu maiteak.

(6) *Asabak* = Antepasados.

¹ *Enda*: arraza.

Ile bigarreanean urten eban Josetxok etxetik aizetegira, ta txaka-txaka, astiro-astiro, joaten zan aita lanean egoan tokira, edo zugatzen kerizpe on batera. Sarritxo egiten eutsezan agerraldiak Eladi ta aitamak; baita Mundakako adiskide ta ezagun guztiak be, ta danak egoten zirean pozik beragaz, urrintako gertaerak esaten iarduenean.

Artu eban Txominek Buenos Airesko irazkia: an etozan Dari ta Josetxoren bigarren diru-ingiak. Dariri biraldu jakazan bereak, eta laster ipini ebazan Bilbon geigana (7) edo urteko saria irabazten eben lekuan: Josetxo makal egoan oraindino, Bilbora joateko.

Irugarren ilean, geldi-geldika joaten zan Mundakara be, ta Ermoken da emazteak esaeutsen lez, nai ebanean joan eiteala eurenera, artu eban Eladiren etxera sarrerea, ta aurrerantzean, Mundakara joanezkeru, etzan andik aldentuten, Eladigana agerraldi bat egin baga.

Zerbait obeto aurkitu zanean, joan zan Bilbora; artu eban diruak imini ebazan *korriduan* edo geiganatzen; larogetamar mila ogerleko bere izenean, da bosmila Txominenean. Etxeratu zanean, emoeutsazan aitari bere diru-ingiak, nai ebanean geiganak artuteko. Onekaz bosmila ogerlekuokaz, len eukezanan ganera, ondo pozik egozan Josetxoren gurasoak.

Juana Marik, done batzuri egieutsezan eskintsariak Josetxo gatxontzeko, egitu ebezan onerapen andiaz.

Laugarren ilebeteen osatu zan oso Josetxo, ta jarri zan inoz baino mutil ederragoa: Ondartzako esneak eta bere aitamendurak, ondo artu eben.

Eladiren etxera joan zan baten, esaeutsan oni:

—Nai dozu, Eladitxo, ezkondu gaitezan?

—Zeuk nai dozunean, Josetxo; beti uste izan dot maite izango nozula, ta zeuri itxaroten egon naz ainbeste urtetan.

—Ezin izan zeitezan, izan zaitudan baino maiteago; beti egon zara nire biotzean da irudimenean, emen da urrintan

(7) *Geigana* = Rédito.

izan dodazan gertaera guztietan. Diruduna izateko aleginak egin dodaz, zure aitamak atzerapiderik* imini ezteien ezkondu nai dogunean: nik uste izan dodan baino geiago emon deust Jaungoikoak, eta uste dot orain eztala egongo atzerapiderik. Ogetamar urtera eldu naz diruduna izateko aleginak egiten, da zuk bere, ogetazortzi eztozuz urrun izango. Zuk sarri erakutsi dozu zeure egitadeakaz maite izan nozuna: biotz beteko esker-rak ageriten deusudaz, nigaitik ainbeste bidar artu dozuzan naibageakaitik. Joanak joan dira, ta orain jarraitu bear dogu alik arinen atzenean eldu bear dogun bizierara: ezkontzera, senar-emazteak izatera: oraintxe noa zeure amari esatera, dodan gogoa.

—Maite zaitue orain; antxinako gertaerak aztu zirean.

Joan zan Josetxo Eladiren amagana ta esaeutsan:

—Masima, Eladigaz nai neuke ezkondu, zeuek aitamok atzerapiderik (8) ezpozue.

—Guk ez, Josetxo, atzerapiderik; ondo maite izan zaituguz aspaldion, Eladik maite zinduzala ezagutu genduanik ona. Ermoken beste gelan dago, ta deituten noa, batera guztiok berba egin daigun.

Batun zirean irurak, eta Ermokenek jakin ebanean Jose-txok ekarren asmoa, esaeutsan:

—Zuek biok gura dozuenean ezkonduko zarie geugaz biziteko egipideaz, eztaukagulako berori baino beste seme-alabarik. Guk ogetamar mila ogerleko daukaguz geiganatuten (9), da ganera etxe au ta iru solo. Elikaturak erdibana ordaindukoguz, da ilten gareanean, zeuentzat geratuko dira gure ondasun guztiak.

—Ondo dago; nik larogetamar mila ogerleko daukadaz geiganatuten, da aitamak esan deuste, neuretzat izango dala dauken guztia, ilten direanean.

—Eladiren guramena jakin bear dogu orain.

(8) *Atzerapide* = Inconveniente.

(9) *Geiganatu* = Reditar.

—Eladiri egin deutsat berba, ta erantzun deust ezkonduko dala, zeuen guramena bada. Nire aitamak be atseginez nai dabe Eladigaz ezkondu neitean, da abiamenak egin da ezkondu bear dogu alik arinen.

—Ondo dago.

Abiamenak eta elizako arazoak egin da gero ezkondu zirean: tanbolinak urten eban kalera, ta egunoko jantzarazorik zoliena egon zan errian. Josetxok elizatik etxera etorrela, jaurti ebazan kalietan bosteun erreal laukotan: arratsaldean, enparantzako jantzarazoan ipini ebazan nai ebanak nai eban beste jan da edan egiteko ardao ta ogi. Ortik deadar, emetik barre ta bestetik zantzo, atso-agura guztiak bere, guztiz ondo olga edo jolastu zirean gaubeko amarrak arte; ganera Eladiren etxean egin ebezan ezteguak aide guztiakaz.

Lurbira onetan, gauza guztiak dauke atzena, ta egitu zan noizbait Josetxok eta Eladik ainbeste urtetan euken gogoa. Bero-bero euken beti umetan alkarregana artu eben maitetasuna: izan ebezan atzerapide ta naibage gogorrak, ainbat beroago jarriten ebezan euren biotz zintzoak. Batun zirean atzenean arek bioztxo laztan biak, Jaungoikoak nai eban arte, ta Bera izan deiela beti lagun.

Egun batzuk igaro zireanean, gau izarratu eder baten, Josetxoren lagun batzuk, bere etxe-aurrean, kanta edo abesau ebezan urrengo doazan koplak:

Itsasketako* bizibidean,
Itsaski errimietan,
Estualdirik estualdira,
Josetxo itsasoetan,
Biotzikara minberatuaz,
Eriotzea berbertain,
Sarri-sarritan aurkitu oi zan,
Olako gertaeretan.

Errekatxoak dirudiela,
Biotza minez eukiak,
Amaika negar erion dabe,

Eladi zure begiak!
Elizbidea artzen zenduan,
Zeuganatuten doneak,
Eskariakaz ibituteko,
Zeure naibage guztiak.

Kastor da *Polux*, izar bikotxak,
Dabiltzaz beti batera,
Zuek biok be, orain zoaze,
Aren izarren antzera,
Ezkonduriko kutun-kutunak,
Alkarregaz bizitera,
Atsekabeak egin dozuez,
Aldatu zorionera.

Zeinbat arrisku, zeinbat mingarri,
Josetxok alde batetik!
Zeinbat naibage ta atsekabe,
Eladik beste aldetik!
Atzenerako sendagarria,
Artu dozue zerutik,
Onbidetsuen atsegin-sari
Jaungoikoaren eskutik.

XXI

Zelan jakin zan Josetxoren jatorria

Irakurleak gomuta izango dau, zelan Josetxo agertu zan Ondartzara *gitano* batzukaz, ogetabi ilebete inguruko mutikotxoan zanean. Izatez zan naparra, Etxauri eritxon erri batekoa, bikotxa bere arreba bategaz, da biak guztiz alkarren antzekoak, biak euken eskumako belarpean orainen andi samar bat, eta esan dan lez, zirean alkarren antzezkiak (1). Aita zan gizon eder bat, *comandante* esaten jakan agipidedun gudularia (2), gaur ara ta biar bestera, erregeren menpean ebilena. Ama zan emakuma iruder, argaltxo, elizale, onbidetsua, ta ez eukezan umetxo bikotx biok baino.

Ondartzara joan zirean *gitano* emakuma bietarik batek, ostu eban Josetxo Etxaurin, da irakurleak badaki gero zelan geratu zan Ondartzan, Txomin-txiki ta emaztearen semetzat.

Mutikoau ostu orduko, ile bi lenago, joan zan bere aita Manilara, an españarrak erebilen gudura: amak naibagez betetarik egin ebazan aleginak Josetxo bilatuten alde guztietatik, baina ezin izaeban idoro. Aitak, arik bosgarren urtean artu eban *coronel* esaten eutsen agipidea: amaitu zan gudua, ta urtebetegarrenean itxi eutsan gudulari izateari, ta geratu zan ilaroko sari onaz, da diru apur bat eskuartean ebala.

Manilan egon zan arte, usmau eban, gauza batzuen salerosiaz, irabazi leitekeala polito dirua, ta asi zan salerosietan, eukan diruaz. Ogetabi urtetan egon zan Manilan, da etxeratu zan

(1) *Antzezki* = Imágen.

(2) *Gudulari* = Militar.

erdi makalik, baina diru askogaz: etxean, urtebeteen jarri zan gizon ederra.

Josetxoren aitari eritxon Erromulo, amari Anatole ta arrebeari Jule: zorionean, ezeren bearrizanik ez eukela bizi izan zirean, Erromulo etxeratu zanezkero, baina atseginak gitxitan izaten dira osoak, eta arek be euken biotzetik aldenduten etzan mingarri bat. Anatoleri sarri jatorkan gomutara bere Josetxo laztana, ta sarri jausten jakazan negar malkoak, gogartetzen egoanean, nun da zelan ete egoan, bizi ete zan ala il ete zan, euren biotzeko seme kutuntxoa.

Erromulok esaten eutsan emazteari:

—Ogetazortzi urte igaro dira Josetxo ostu ebenik ona; agertuteko izan balitz, oraingo agertuko zan. Ez eizu artu mingarri geiago bera gomuta izanaz; egin eskariak bere alde, ta artu eroapena; olako gauza asko igaroten da lurbira onetan, da sinistu daigun ondo iltzala ta Jaungoikoagaz dagoala.

—Ori olan da, Erromulo, baina nik ezin aztu neure seme kutuntxoa: sarri-sarri gomuta izaten dot, zer egin ete eben lapurrak aregaz neure biotzeko ataltxoagaz. Josetxoren barri onakaz izango gintzakez oso zorionekoak: ogetazortzi urtetan nago egunaro Jaungoikoari eskariak egiten, erazagutu daiskun Josefuxoren albistaren bat.

Egun batzuk igaro zireanean eldu zan euren etxera *monja antzera* jantzita egoan emakuma bat: jarri zan belauniko Erromulo ta emaztearen aurrean, da esaeutsen:

—Ni naz *gitana* bat, ara ta ona, erririk erri, emen lapurretan da bestean zantarkeri asko egiten aspertu nintzana: sartu nintzan neska *monjaetxe* batera, ta urte bigarreanean biurtu nintzan Jaungoikoagana damututa ainbeste gauza txar egina. Neu izan nintzan zuen mutiko eder bat ostu ebana!

Anat.— Ai zorigeiztokoa, ezteutsu Jaungoikoak parkatuko lapurreta ori! Nun itxi zenduan neure semetxo maitea?

Git.— Igaro zan guztia esatera noa. Umetxo bardin bi egozan bakarrik burditxo baten, etxe onen ostean, da emendik basorutz ninoiala, artu ta eroan neban bietarik bat. Orduan *gita-*

noakaz nenbilen erririk erri, da geugaz asto ganean erabili genduan mutikoa ile bitan, beti negarrez ta deadarrez.

Anat.— Ai neure laztantxo!

Git.— Bai; beti negarrez, da atzenean itxi genduan Munda-ka deritxon Bizkaiko erri batetik itsasalderutz, ordu laurengo bidean dagoan baso-etxe baten. Mutikoak besartetu eban etxe orretako ugazabandrea, ta ezegaitik ezin izan genduan jaregin beragandik: berak eta senarrak esaten euskuen itxi daigula bertan euren ardurapean, da eurakaz itxi genduan amar ogerleko ta amar egaztiren orde: arrezkero eztakit mutiko aren barririk, baina etxe atan jakingo dozuez bere barriak. Orain, autortuezkero neure txar-egina, damu dodan lez biotz-biotzetik egin neban deungekeria, apaltasun andiaz eskatuten deuntsuet zeuen parkamena (3).

Errom.— Aspaldion eztogu euki gaur lako atseginik: a seme laztana galdutzat euki dogu, baina orain, zure edestiaz, dakigu bizkaitar artean itxi zenduena, ta bearbada idoroko dogu: poz-pozik gagoz bizkaitarrakaz geratu zalako, geu lako euskaldunak eta gizabide onekoak direanakaz. Andiak izan dira guri ogetazortzi urtetan emon deuskuzuzan naibageak mutikoa ostuaz, da ezteutsugu parkatuten zeure arrigarrizko deungekeria mutila agertu arte. Etorri zaite onik ilebetera!

Josetxo ezkondu zanik seigarren ilean, eldu zirean Munda-kako ostatura Josetxoren aita legezkoa (4) ta arrebea; aitik eroan eban beragaz alaba au Josetxo ezagututeko usteaz, ume-tan, len esan dogun lez, zirealako alkarren antzezkiak, eta gainera biak euken orainena eskumako belarpean. Zerbait atsendu zireanean, gizon onek itandu eutsan etxekandreari:

—Gomuta dozu, zelan orain ogetazortzi urte, *gitano* bazuk itxi eben mutiko bat emendik urreko baso-etxe baten?

—Bai, gomuta dot; Josetxo Ondartzako da ori; Buenos Airesen diru asko irabazita etorri zan, da orain sei ilebete inguru

(3) *Parkamen* = Perdón.

(4) *Legezkoa* = Legítimo.

ezkondu zan bertoko neskatila aberats, umetatik maite izaeban bategaz. Gaur Josetxo inguruetako aberatsena da: neskamea biraldukot, nai badozu esatera, zelan gizon batek ikusi nai da-ben, da etorri daiteala.

—Eskerrik asko, biralduizu.

Josetxok uste eban, urrinetako ezagunen bat izango zala, ta joan zan ostatura.

Gizon da emakuma biakana aurkeztu, ta emakuma aren arpegia ikusi ebanean, arriturik lotu zan, da bera legez aita ta arrebea be Josetxoren arpegia ikusi ebanean, belarpeko orainez. Aitak, biotzikara errimeaz besartetu eban sendo ta emoeutsazan mosu atsegintsuak; urrengo Josetxok besartetu eban bere arrebea, ta emoeutsezan alkarri pozgarrizko mosuak. Pozen pozaz irurak negarrez egozala, aitak esaeutsan Josetxori:

—Ezagututen gozuz?

—Bai, neure bizi guztian zeuekaz bizi izan banitz legez. Zu izango zara nire aita legezkoa ta au arrebea: onen arpegia ikusi dodanean, neurea ikusi dot, eta arriturik lotu naz, neure irudimenera jatortala, aita ta arrebea izango zariela.

—Bai, alan da, Josetxo; ori da zeugaz batera jaioriko arreba bikotxa, ta umetan be alkarren antzezkiak izan zinien biok, zeuen belarpeko orainen orregaz.

—Neure aita ta arreba laztanak, zein zorioneko eguna! Zelan idoro nozue ogetazortzigarren urtean? Zelan gertau da mirari au?

Orduan aitak erazagutu eutsan *gitaneak* autortu eban edesti guztia. Josetxok uste eban Jaungoikoa ebilela bitartez, bere atsekabe guztietan ibili oi zan lez, da esaeutsan:

—Ainbeste urtetan ibili naz, gogoan beti dodala, nortzuk ete direan, da nun ete dagozan neure aitama legezko maiteak, nundik asi eztakidala eurak bilatutera, ta ona emen berton, uste baga argitasun guztia! Au da atsegina!

Negarrez egozan irurak pozen pozaz, da aitak erantzun eban:

—Atsegina geurea da, Josetxo! Amatxo zureak jakiten dabenean topa zaituguzala, zerua ikusiko dau begien aurrean!:

estu egongo da gure barriak jakin arte, ta oraintxe iratzi ta biraldu bear deusat irazki bat.

—Bai, aita, egizu irazkia, ta neuk be, zeure urrengo, bertan irazkian iratziko dot zerbait.

Erromulok aida baten iratzi eban irazkia zinoala:

Anatole Zubizuriko
Naparroa
Etxauri.

Neure emazte maitea: Mundakan gagoz Josetxo geure seme laztanaz: morrosko galanta ta aberatsa da; emeko emakuma aberats onbidetsu bategaz ezkondu zan oraintsu: lenago lez, bere belarpeko orainenaz Juleren antzekia da arpegian. Biotzikara errimeaz, sendo besartetu dogu alkar, da zu ikusteko gogo andia dauko: irurok gagoz negarrez pozen pozaz, da datorren aste erdirutz ikusiko zaituguz Josetxok, emazteak eta guztiok.

Maite zaitu beti zeure senar esanginak

ERROMULO GAZTAINALDEKO.

Neure amatxo maitea: laster besartetuko zaitut! Bizi guztian ezagutu eztodalako¹ atsegina izango da niretzat, ikusten zaitudan egunekoa! Datorren astera arte.

Laztan zaitu beti zeure

JOSETXOK.

Onek gertaerok ostatuan igaroten zireanik ez ekien Eladik, bere aitamak ez Ondartzako Josetxoren aitamatzakoak. Irazkia amaitu ebenean, joan zirean Eladi ta bere aitamakana:

¹ ez dodan lango.

an jazo zan beste ustebako agerraldia! Arriturik lotu zirean Eladi ta gurasoak jakin ebenean Josetxoren aita ta arreba legezkoak zireala. Arrituago oraindino, ikusi ebenean Jule ta Josetxoren arpegiak alkarren antzezkiak zireala, euren orainen da guzti. Eladi sendo besartetu eben Erromulok eta alabeak.

Orduan Josetxok gomuta izaeban, zelan Masimak antxinatxo ebazan buruausteak bere jatorriaz (5); gomuta izaeban esaten ebana, jatorri ilunekoa zala ta beste berba asko: orregaitik, destainez irribarreka esaeutsan:

—Ama Masima, noizbait antxinatxo ibiltzen zinean buruausten nire jatorria iluna zala, a zala, ori zala ta bestea zala. Orain, ona emen argituta a iluntasuna; ona emen nire aita ta arreba legezkoak, eta urrengo astean, Jaungoikoak gura badau, ikusikogu neure amatxo laztana.

—Euskalduna zinean Josetxo, ta eneban inoiz euki zure jatorrien bildurrik.

Ordubetean egon zirean autuetan, da gero joan zirean Ondartzara, Josetxo, aita, arreba ta emaztea, ango gurasotzakoai agerraldi bat egitera. Josetxok, bidean joazala esaeutsan aitari, zelan gurasorik onenak be, ezin artu leiela seme bat ardura zintzoagoakaz, bera Txomin-txiki ta emazteak artu eben baino obeto gauza guztietan: bere aitama maite-maiteak izan direala beti. Erromulok erantzun eutsan Josetxori:

—Jaungoikoak leku onean itxi zinduzan!

Ondartzan guztiak batu zireanean, Erromulok besartetu eban Txomin, da Julek Juana Mari: zurbildurik lotu zirean Ondartzako senar-emazteak, Juleri ikusi eutsenean bere arpegia Josetxoren antz-antzekoa, orainena belarpean ebala. Ordu bi egin ebezan alkarregaz, batzuk eta besteak euren edestiak ageriten: da Erromulo ta Jule arriturik egozan, Josetxok, amabi urte ebazanik aurrerantzean igaro ebazan arrisku ta naibageakaz, itsaso ta atzerrietan. Onetan batzar guztietan, Eladitxok sarri besartuten eban Jule, poz-pozik, Josetxoren arpegia berbera eukalako.

(5) *Jatorri* = Origen, descendencia.

Eladiren etxera joan zirean lo egitera: Ermoken da Masi-
ma, Eladiren aitamak, mila bidar damaturik egozan, alabeari
emoeutsezan atsekabeak emoeutsezalako, ta egunerik egunera
ainbat laztanago ebezan euren alabea ta Josetxo.

Biamamonean Josetxoren aita Erromulori otu jakan, On-
dartza etxaguntzea erosi egin bear ebala, Txomin da emazteari
atsegin-sari emoteko. Etxagunak nai eban saldu: izentau ebe-
zan auzi onetan adituten eben gizon bi saneurria (6) zeinbat
izango zan erabagiteko. Amar mila ogerlekoan erabagi eben
etxaguntzearen balioa, etxe, solo, baso ta eukazan gauza guztia-
kaz. Etxaguna pozik egoan saneurri orretan salduteko: baita
Erromulo be erosteko. Onek, Bilboko etxe baten eukan dirua,
ta biaramonean joan zirean Bilbora, etxaguna, Erromulo ta Jo-
setxo: aldatu ebezan paperak edo ingiak Txominen izenera;
Erromulok ordaindu ebazan amar mila ogerlekoak, eta biga-
rren egunean etxeratu zirean.

Joan zirean Ondartzara, Josetxo, emaztea, aita ta arrebea,
ta Erromulok emoeutsazan Txomini etxaguntzearen jaube egi-
ten eben paperak, esaten eutsala:

—Artu Txomin onek paperok; eurokaz zarie emaztea ta
zeu etxaguntza onen jaubeak: au da emoten deutsuedan atse-
gin-saria, Josetxo zeuen seme bat lez beti artu dozuelako.

Negar-malkoak erioezan pozen pozaz Txomin da emaztea-
ri: baita Josetxo ta Eladiri be, ta Txominek erantzun eutsan Ro-
mulori:

—Eskerrik asko Erromulo; guk merezi izan dogun baino
asko geiago emon deuskuzu; emen eukiko dau Josetxok etxa-
guntza au, gu ilten gareanean; guk artu badogu beti seme bat
legez, ondo ordaindu ditu guk egin deutzaguzan mesedeak, be-
ronek be aitamak lez artu gaitualako. Nire emaztearen soinua
beti izan da, Jangoikoak biraldu euskula mutil au, geure zorio-
nerako, ta ondo igarri eban; ondo zorionean jarri gara.

Guztiak egozan negarrez, pozgarritzko biotzikareaz.

Amar egunetan egon zirean Mundakan Erromulo ta alabea,

(6) *Saneurri* = Precio.

ta luzaroago egongo zirean, baina uste izan eben, estu ta artega egongo zala Anatole Etxaurin eurak joan arte, ta orregaitik artu eben joateko burubidea. Ederretsi jaken Mundaka bere itsaso, ondartz, itsasbazter, itsasleor ta ikusbide ederrakaz.

Erromulok nai eban ikusi Gernikako Aritxa etxerutz joanean, da zaldi ganeko kartoletan joan zirean, Erromulo ta alabea zaldi bategaz, da Josetxo ta emaztea beste bategaz: Txomin-txiki ta emazteak be lagundu eutsen Gernikara arte. Ikusi Aritx ederra, bazkaldu, abesau edo kanta Aritxaren kantak, agur egin alkarri urrengora arte, ta aldendu zirean alkarregandik: Txomin da emazteak jarraitu eben Mundakarutz da besteak Napparroartz, Etxauri eritxon errira.

Bigarren egunean eldu zirean Etxaurira; Josetxo ta emaztea sartu zirean etxera Erromulo ta Jule baino lenago, ikustearren amak ezagutuko ete eban bere semea. Aurkeztu zan Josetxo amagana, ta onek ikusi ebaneko gizaseme aren arpegia, aida baten ezagutu eban, da sendo besarteturik esaeutsan:

—Nun egon az, neure seme laztana, igaro direan ogetazortzi urtetan? Zeinbat gau igaro joadaz loak artu ezinik, ire gomuta itzalakaz! Zeinbat eskari egin jeutsadaz ainbeste urtetan Jaungoikoari ta bere Ama dontsoari, agertu eitean eure aitamakana! Ona emen, agertu az noizbait gurasoen zorionerako!

Negar gozatsua egiten eban Josetxoren amak, onek berbok esaten egoanean. Erromulo ta alabea eldu zireanean, oraindino besarteturik eukan Josetxo amak, ezin itxita: mosu asko emoeutsezan alkarri, ta negarrez atsegin andiaz egozan biak eta Eladitxo: urrengo Eladik besartetu eban Anatole, ta jaeben alkar mosuka.

Zein laurka biotzikaratsua! Zein atsegina alkar ikustea ta besartetutea, ogetazortzi urtetan alkarren barri jakin eztaben ama-semeak! Zein gozagarria, galdu zala uste izan eben seme biotzekoa agertutea! Anatolek eta senarrak ezagutu eben zer zan atsegina euren seme Josetxo ikusi ebenean: aldendu zan Josetxoren urrundeagaitik² etxea ilunduten eban estalkia, ta orain argitasuna ta gogo argia alde guztietatik ikusten zan etxe

² urrunde: 'ausencia'.

atan. Agoa zabalik egoten zan Anatole, bere semeak esaten ebazan gertaerak entzuten, ain zirean asko ta arrigarrizkoak lurbira onetan igaro ebazan atsegin da atsekabeak. Eladitxok be erazagututen ebazan antxinatxo igaro ebazan naibageak Josetxo maite izan ebalako; baina beti jarten ebazan gizabide onean bere aitamak, esanaz, ondo usteaz egin ebezala euren gogorkeriak.

Ilebetegarrenean, agindu jakan lez, agertu zan *gitanea*, *monjak* erabili oi daben antzeko jantziak: eroan eben eurak egozan gelara, ta Josetxok itandu eutsan:

—Ezagututen nozu?

—Ez, jauna.

—Au belarpean daukadan orainenau be, eztozu ezagututen?

—Ai... bai, bai, bai barriz! Gomuta dot zelan arek mutiokak eukan olakoxe orainen bat! Zorionekoa izan zaitezala!

Onak berbok esan ebazanean, jarri zan belauniko Josetxoren aurrean, da esaeutsan oni:

—Zeure aitamai lez, parkeske naiagotzu ostu ta eroan zendudazalako, ta nigaitik naibage andiak luzaroan euki dozuezalako.

—Zutundu zaitte, emakuma biurtua —esaeutsan Josetxok bere biotz samurragaz—, len arrigarrizko deungekeria egin bazinduan, orain *pekatari* edo obenduna zareala autortuaz, da mutikoa nun itxi zenduan argituaz, irabazi dozu gure parkamena: Jaungoikoak be parkatu daizula. Ogetazortzi urtetan egon dira nire aitamak naibagepean, beti gomuta izan ebela zer jazo ete zan euren semeagaz. Ni oster, orain arte guztian egon naz buru-austen nortzuk ete direan da nun ete dagozan nire guraso legezkoak.

—Sinistuten dot, jauna; parkeske nago!

—Orain, autortu dozunean nun itxi ninduzun, bilatu ta idoro nabe, ta ona emen batera alkarregaz guraso ta seme. Egitate on bat egin dozu, ta emoten deusudaz onak berrogetamar dukatok atsegin-sari.

—Eskerrik asko, jauna; nik eztodaz merezi onak diruok! Ni nentorren parkamena bilatzera, neure pekatuak garbitzeko, eriotzako ordua etorri orduko.

Parkatu eutsen, ta juan zan pozik.

Ilebetean egon zirean Etxaurin Josetxo ta emaztea, gura-soen eztizko leunketakaz aspertu ezinik, ta guztiak geratu zirean gogotsu negarrez aldendu zireanean. Aurrerantzean, urtean bein joango zirean Etxaurikoak Mundakara ilebetean egurastu-tera, ta Josetxo ta emaztea Etxaurira, beste ilebetean egotera.

Etxaurikoak lotu zirean poz-pozik, guztiz zorionean: Ondartzakoak zoraturik euren etxaguntza ta diruakaz: Josetxo, aitamak Ondartzan da Etxaurin ebazala, guztiz pozik bere biotzeko Eladitxogaz: au, bere senarra legez, da onen guraso Ermoken da Masima, Jaungoikoari parkamena eskatuten, damututa euren alaba onbidetsuai, andikeriakaitik, ainbeste nekaltasun da atsekabe emoeutselako, ta Josetxori urte askotan apalckeriaz begiratu eutselako.

Josetxok legez bizibidean,
Bear genduke jarraitu;
Txomin-txikik lez etxealdean,
Iluntasunak argitu;
Juana Marik lez ardurapean,
Bazterrak ondo garbitu;
Eladitxok lez, lege onean,
Maitetasunak egitu;
Onbiderako geure lanean
Ez inoz bere gogaitu.

Andikeriak ondamengarri,
Izaten dira etxean,
Gorrotua ta deungetasunak,
Osasunaren kaltean.
Egipideko arazotxoak,
Eginik bake-bakean,
Apaltasunaz jarraitzen bogu,
Errukiorren bidean,
Zerutarrak lez, biziko gara,
Gutzizko zorionean.

AMAI.

OARPENAK

Masima, Eladi ta Kostantzi izenak, irakurri beitez, *Masime, Elade ta Kostantze*. Beste utsak, irakurleak beteko ditu.

* * *

Irakurgetan honetan, aurrerago inun ikusi baga, sarturiko berba barriak, dira:

Jantza-arazo = jantzarazo = romería con baile.

Itsaso-uztai = itsasuztai = horizonte del mar.

Gatxa-ondu = gatxondu = salvar, mejorar el mal.

Aizetegi = campo, exterior.

Ura-goren = urgoren (1) = pleamar.


Ura-beren = urberen = bajamar.

Ura-gorantz = urgorantz = flujo de marea.

Ura-berantz = urberantz = refluo de marea.

Irakurleak, jakinezkero berba barri onen etorbidea, egingo dau, artu edo itxi, ondoen deritxona.

(1) *Aots garbiagoaz, esan leitekez* urkoren ta urkorantz.



ARGIBIDEA

	Orr.
Itzaurrea	67
Advertencia	69
I. ONDARTZA	
Antxina nun egoan da zelakoa zan Ondartza izena eban baso-etxea	71
II. TXOMIN-TXIKI TA JUANA MARI	
Nun bizi zirean. Ekanduak eta lanak. Martin-zaldi ogipekoa. Zortzi urte ezkondu zireala ta umerik ez. Eskintsa-riak eta eskariak Jaungoikoari umetxo bat eta osasuna-ren eske	72
III. <i>Gitanoak</i> ETXE-AURREAN	
Ostatu eske. Iru gizaseme, iru gizalaba, lau ume, lau asto ta txakurtxo bi. Euren endakoa etzan mutiko bat, ama ta ama deadarrez da negarrez. Juana Mariri oratu sepdto ta itxi nai ez. Mutikoa ostua ete zan pekua. Txomin da Juana Mariren aleginak mutikoa eurakanatzeko. <i>Gitanoen</i> ibilketak, autuak eta goraberak. Mutikoa itxi eben amar ogerleko ta amar egaztiren orde. Josetxo izena eban au-tormena	75

IV. MIRARIA ETE ZAN?

Juana Mariren sinismenak Jaungoikoak biraldua izango zala mutiko ori eurak egin ebezan eskariak entzunik. Urte ekarkorra. Zorrak ordaindu. Neskamea artu lanetan laguntzeko 81

V. JOSETXO GAZTETAN

Ondartzako ikusbideak. Txominen kanta edo abestiak. Josetxoren jolasak edo olgetak eta okerkeriak. Zeatzeak eta nekaltasunak. Ikastetxera zazpigarren urtean 85

VI. MARTIN-ZALDI, KARLOS-GEIZTO, TA MARI JESUS DEMIKUKO

Martinen joan-etorriak. Demiku. Mari Jesus eben maite mutil biak. Jai arratsaldeko jantzak. Mutil bien burrukak. Mari Jesusen naibageak. Koplak. Mari Jesusen eskariak Jaungoikoari. Gudura mutil biak 94

VII. JOSETXOREN IKASMENAK

Ikasmen, ibilketa ta jolasak. Josetxo ta Eladitxoren adiskidetasuna. Eladiren aitamak nai ez adiskidetasun ori. Masimaren andikeriak. Koplak, agirakak, zantzoak eta deadarrak. Masima artoginaren alabea. Goizean artoak erre, ta arratsaldean bekorotzak batu. Juana Mari bildurrez da Txomin bildur baga 109

VIII. JOSETXO ARRAINTZALE

Josetxo jausi itsasora. Nor da neskatotxo begi-baltz ederra, txalupak ikusten portura joaten dana? Ekatz gogor bat txalupak itsasoan egozala. Gizadia negarrez da deardarrez elizara eskariak egitera. Nor zan elizan negarrez egoan neskatotxo begi-baltz ederra? Lainocean. Txalupa bat Izaroko atxetan. Gertaera asko. Beste ekatz bat. Iru txalupa ondatu. Josetxoren gaitasunak. Koplak. Josetxo itsasketara. Agurrak eta negarrak 124

IX. GUDUTIK ETXERA

Karlos-geizto makalik. Martin-zaldi arraintzale. Itsaslapurrak. Martin zauriturik. Demikuko gertaerak. Martin ta Mari Jesus ezkontza asmoetan. Mari Jesusen atzerapi-deak bere senargeiari Martin-zaldi esaten eutselako. Martin-zaldi esatea, zein Martin-asto esatea, bardin zala. Txomin-txikiren barreak. Juana Mariren oarpenak. Martin da Mari Jesusen ezkontzea. Koplak

144

X. JOSETXOREN OSTERAKO JAZOERAK

Jose txo Montevideora «Ama Dontsoa» eritxon itsason-tzian. Itsaslapurrak Martinikatik urrean. Oinaztarriaren lanak. Arrigarrizko jazoerak. Martinikan egotaldia. Habanako arazoak. Itsasoko estutasunak, uren ganeko edur edo lei-mendiakaz*. Lainupeko ontzi biren nastea. Eusko ta Englandarren burrukea ontzi nastauetan. Kork-en bigarren burrukea. Geroko osterak. Jose txo etxera. Eladitxoren nekaltasunak, Jose txogaz berba egiten ebalako. Eladiren egiak

167

XI. JOSETXO PILOTUKUNTZEA IKASTEN

Jose txo egunaro ikastolara. Eladitxo Bilboko ikastetxe batera, Jose txogaz jolasetan batun ez eitean. Eladi gexorik. Aita-alaben berbak. Eladiren negarrak. Eladitxo etxeratu guztiz makalik. Aitamen damutasuna alabea nekaldu ebelako. Gizadi guztia zurrumurru. Eladi sendaturik. Jose txo itsasketara. Agur negartsuak

181

XII. ELADIREN SENARGEI BAT

Agerraldiak eta autuak. Eladitxok nai ez ezkondu. Nai ta nai ez, ezkondu eragin gura. Izekoa bitartez. Amaren aletinak Abade Nagosia bitartez ipinirik. Zapladak eta beste mingarriak. Gizadia aserre. Eladi izekoren etxean. Koplak batzuk. Koplak abesau ta geroko gertaerak

188

339

XIII. JOSETXO KATIGU MEXIKON

Jose txo katigu lau lagunegaz. España ko gudu-ontziaren joan-etorriak. Katigutuak jaregin. Andik Englandara ta gero etxera. Bigarren agintaritzarako eskubidea. Arriturik Eladitxoren jazoerakaz. Jose txoren biozketak, Eladiren amak esaten ebazan berba deungeakaitik. Jantzak. Agirakak eta zeatzeak. Jose txo *pillotu* edo bigarren agintari «Ama Karmengoa» izena eban ontzi eder baten. Ekatz izugarria. Iru ontzitan arrigarrizko gertaerak. Itoak eta biziak. Jose txo ontziburu. Nekeak eta kalteak. Puerto Ricon egotaldia. Andik Habanara

203

XIV. BIGARREN SENARGEIA

Mati, Txotxo-arro ezizena eban mutil iruder, ontziburu, dirudun, ondo jantzia ta obeto apaindua, baina andigurako aserrekorra. Ezkontzeko asmoaz etxeratu zan. Gertaera asko. Txindorraren agerraldia. Koplak. Eladitxok nai ez ezkondu Matigaz. Kostantzik bez. Aurek bez. Mati guttiz aserre. Koplak. Kopla osteko naibageak

217

XV. JOSETXO ETXEAN DA LEKU ASKOTAN

Jose txo mutil ederra. Eladi goiko bidetik eta Jose txo bekotik. Alkarren abegia. Eladiren ama aserre. Jose txoren gizabide ona. Bei zarra saldu ta eder bat erosi. Geldigeldi eskua! Burrukea. Jose txoren ontziburu izateko eskubidea. Otsoa artaldera. Neska-mutilak Izarora txalupatxo batean jolastutera. Galarren antzak sartaldetik. Jose txoren oarpenak. Txalupea ondatu. Itoak eta biziak. Jose txoren indarrak eta gaitasunak Eladi biziratuten. Arrigarrizko jazoerak. Elizkariak eta eskintsariak. Gernikako Aritx maitearen koplak. Jose txo itsasketara. Negar askogaz agurrak. «Ruan» eritxon Franceako ontzi bat zuzenbide bage itsas zabalean. Gizon zoro bat bizirik eta besteak ilda. Batzarrak eta erabagiak. Gizadia ainbanatu ontzi bietara, ta jarraitu Bordeauxera. Itsasoko ger-

taera bildurgarrizkoak. Bordeauxen katigu Josetxo ta bere menpeko guztiak, jakin arte nok il eban Ruango gizadia. Zoroa zoroetxean. Ondo eginen saria, sarritan da mingarria. Autuak eta pekuak. Ogeigarren egunean zoroa adimen argiaz. Zoroaren autormenak. Jaregin ebezan katigu egozanak. Eskerrak eta saria Josetxo ta bere menpekoai. «Ama Karmengoa» saldu. Josetxo ta lagunak Bilbora, Holandako ontzi baten. Osterako gertararak. Josetxo etxean. Aitamai emoeutsazan diruak. Erriko jantzarazoak. Josetxo itsasketara bigarren agintari «Ibaizabal» eritxon ontzian. Agurrak eta negarrak. «Ibaizabal» ondatu. Ontziburua batel baten da Josetxo bestean. Ontziburua agertu. Josetxo ta bere lagun mundakarren albistarik ez. Mundakako negarrak eta deadarrak. Elizkariak ito zirealakoan. Eladitxoren eskariak. Txomin-txiki ta emaztearen eskintsariak 239

XVI. IRUGARREN SENARGEIA

Aitamak nai eben Eladitxo ezkontzea Pontzen osagileaz. Eladik nai ez ezkondu. Nekaltasunak eta naibageak. Eladitxo zoraturik adimen бага. Aitamak bildurrez zeatua damuturik. Eladi Ondartzan iges eginda. Eladitxo artzain neskameari lagutzen. Aitamen da izekoren agerraldiak 275

XVII. JOSETXO MONTEVIDEON

Josetxoren Montevideoko irazkia, zinoala osasunaz egozala bera ta lagunak. Eladitxo adimen argiaz Josetxoren irazkia irakurri ebanean. Mundakako gogo-argiak, zantzoak eta jantzaketak, albista barriak artu zireanean. Koplak batzuk 284

XVIII. JOSETXO ARGENTINAKO ETXAGUNTZA BATEN

Josetxoren agerraldiak euskaldunakana Buenos Airesen. Dari Basoganetar, Abadiñoko semea. Etxaguntzako abereak, egunaroko lanak eta salerosiak. Sabasen etxaguntzea. Sabas da alaben agerraldiak zaldi-ganietan. Neska-

tilen leunketak eta asmoak Josetxogaz berba egiten ebe-
nean. Ezkontza ipuinak. Katamotza katigu txabolan. Ze-
non eta Josetxoren aserrea. Josetxok nai ez ezkondu Sa-
basen alabeagaz. Etxaguntzako irabaziak. Dari gexorik.
Dariren atsegin-sariak Josetxori. Dari bere sorterrira. Jo-
setxoren entzute onak. Eladiren etxean arpegi argiak .. 289

XIX. DARI BERE JAIOTERRIAN

Eldu zan zerbait sendaturik. Amar mila ogerleko neba-
arriba bakotxari. Ondartzara agerraldia. Durangora
joan-etorriak. Ezkontza asmoak berrogetamazortzi uda-
barri ganean ebazala. Arrebearen oarpenak. Dariren ez-
kontzea bere arrebea ezkondu zan egunean. Alagalako
emaztea. Etxe barria Durangon 306


XX. JOSETXO ETXAGUNTZAN, OSTERAN DA ETXEAN

Irabaziak. Iru urtetan aberastzeko itxaropena. Gudu as-
moak Buenos Airesen. Josetxoren bildurrak eta bu-
ruausteak. Etxaguntzea saltzeko asmoak. Saldu etxagun-
tza ta abereak. Josetxo ontziratu etxera joateko.
Arrigarrizko ekatxa Santandertik urre egozala. Ontzia
ondatu atxetan. Josetxo luze-luze, gorputza zauriturik,
atx baten ganean. Santanderreko atxetan egoalakoan
aurkitu zan Ondartzako atxetan. Txomin-txiki ta emaz-
tea, ogipeko ta neskameaz, atx-ganean egoan gizasemea
biziratutera. Zan Josetxo euren seme laztana, Buenos
Airesen egoala uste izan ebena. Arrigarrizko laurkea.
Mosuak eta negarrak. Etxeratu ta ogeratu. Mundakako
gizadiaren ikustaldiak. Eladitxoren agerraldia. Onerantz
astebetegarrenean. Dariren agerraldia. Aitamak arritu-
rik irabazi ebazan diruakaz. Txomin-txiki ta osagilearen
autuak, onek erdera berba egiebalako. Txomin aserre
euskaldunak alkarregaz erdera berba egiten ebelako.
Koplak euskerearen alde. Josetxo osaturik. Eladigaz ez-
kontzeko asmoak. Ezkontza aurre ta osteko gertaerak.
Kopla batzuk 310

XXI. ZELAN JAKIN ZAN JOSETXOREN JATORRIA

Jose txo naparra, Etxauriko semea. Jose txo ostu eban *gitanea* biurtu Jaungoikoagana. Bere autormenak, ogeta-zortzigarren urtean. Parkamenaren eske. Jose txoren aita ta arreba legezkoak Mundakako ostatuan. Jose txoren barriak. Jose txo ta aita-arreben abegia. Pozgarrizko negarrak eta gertaerak. Amari irazki bat. Txomi-txiki ta emazteari atsegin-saria. Jose txoren agerraldia. Etxaurira, ezagututen ez eban ama legezkoa ikustera. Negar gozatsuak. Zoriona. Atzeneko koplak.

325



Glosarioa

Textuko berba berezi eta jakingarrien ezagupidea¹

A*bespelu*: iz. uste on (confianza).

abia: iz. kabia (nido).

abiamenak egin: iz. atondu, prestatu (hacer preparativos):
urrengo egunean asi zirean gurasoak abiamenak egiten.

adituta egon: *ad. multz.* alkar hartuta egon.

adobatu: *adj.* adabarri edo adabakidun: *erropa zar adobatuakaz ebilena.*

adu: iz. zori, patu: *Josetxoren adu ona jakiebenean.*

adur: iz. ahoko bitsa.

agerraldi: iz. ikustaldi, bisita.

agiraka: iz. haserre, berba garratz: *agiraka egiten jakan, osasuna galduteko arazoetan da arriskueta ebilenean.*

aida: iz. une labur, santiamén: *aida baten, lau berba esan orduko, jaurti eutsezan ukabilkadak.*

aide (ahaide): iz. senide.

ainbanatu: *ad.* banandu, partildu.

ainbarik: *adv.* bape barik, ha barik.

ainen: iz. birao.

aizealde: iz. haizea datorren aldea.

aizetegi: iz. kanpoaldea, etxe barruaz ate: *Ile bigarreanean urten eban Josetxok etxetik aizetegira.*

alatsu: *adj.* mingarri: *Ori da albista alatsua, ene alabea!*

alborengo: iz. birikietako gatxa (pulmonía).

¹ Textuan goiko puntu lodi batez (*) ezagutarazo da berba bakotxa, lehenen-
goz agertu izan danean. Glosarioko berba-sarrerei, esanahiaren ondoren gehie-
netan gehitu jaken adibidea, elaberriko beste pasarte batetik hautatua da ia beti.

aldarri: iz. deadar, garrasi: *izugarriak zirean arek egiten ebazan orruak eta aldarriak.*

aloger, alogerean: diru edo jornalsari lan egin: *alogerean baino arrantzoan zerbait geiago irabaziko eba.*

amabosta: iz. hamabost eguneko aldia (quincena): *da beste amabostan zamatu zan.*

apalkeria: iz. lotsari (humillación): *Zer esango dabe nigaitik jakiten badira artu dodazan apalkeriak?*

arautu: konpondu, eratu (disponer): *ainbat ondoen arautu eutsen zuloa.*

ardurak hartu: ad. multz. kargu hartu (tomar o pedir responsabilidad): *egunen baten Ermokeni artuko eutsazala bear zirean ardurak.*

argimen: iz. argibide, lorratz.

argin: iz. harria lantzen dauena; 'cantero'.

arturen euki: iz. inor/norbera zorretan egon; norbera hartzeko egon (tener en crédito): *alkarri zorrik ez arturenik ezteutsagu orain.*

atxarrain: iz. Hatxetako arrain mueta bat: *arrantzuan Murgua eritxon atxean, atxarrainak arrapaten.*

atxurren: adv. atxurka (cavando).

asmo: iz. : 1. intentzio: *ez eidazu ekarri olako asmorik* 2. plan (iniciativa): *apaltasun onagaz, asmorik ez auzirik бага, jolas-tu oi eban, bere lagunakaz, pelotan, da beste asmo askotan* 3. asmakuntza (invención): *Ni katigutegian? Orrek dozan asmoak!*

aurki: adv. antza, itxurea.

aurrez aur: adv. 'de frente': *kalean aurrez aur alkar topaten ebe-nean.*

ausitu: ad. ibitu, baretu.

azartu: ad. ausartu, aurrera jo.

azterpen: iz. azterketa (examen).

Baltzeran: adj. baltzuzkin (moreno).

batu: v. 1. alkartu, juntatu (norbaitegaz): *Ez adi batu Martiñegaz.*

bedar: adj. medar, estu: ontzi luze bedar bat.
beira: iz. kristal: ausi ebazan leio bateko beirak.
berbabide: iz.: eztaukazu zentzunik ez berbabide onik.
berbalAri: adj. berbaldun, berbatsu, berbati: berbalari zagoz goizeon.
bertati: adv. berehala (al instante).
berbatu: ad. berbea emon (apalabrar): ni enago ezetan berbatuta Ondartzako mutilagaz.
biotzildu: ad. tristetu.
biraldu: ad. bialdu, bidali: biralduko ebazala mutikoaren bariak.
birrindu: ad. zehe-zehe, txiki-txiki egin: ekarri nebazan itxaropen guztiak birrinduaz badoaz.

D*eiera: iz. deitze-modua (aita eta ama deitzea seinak): adurra jausten jaken [...] deiera ori entzunaz.*
destaina: iz. burla, izeka: destainatsu zatoz goizeon, enaz destaina gura, ta esaizu esan gozuna.
deunge: adj. gaizkin, gaizto-gaizto (malhechor): Gudu ostean beti agertu oi doaz lapurrak eta deungeak.
doe: egin doe: egin deue (hika), deutsue.
done: iz. santu.
durundi: iz. zaratots jarraitua: urreratu zan asko durundia.

E*derretsi: ad. ondo eretxi, gogoko izan: guri ederretsi jakuz beti bere egiteak.*
edoi: iz. odei: zerua bete zan edoiakaz.
egiatsu: ad. egiaztatu.
egipide: iz. eginbehar (obligación): izango da zerbait aserreko-rra ontzian, egipide asko daukazan lekuan.
egisari: iz. eginaren saria (premio).
egitasun: iz. egitada, ekintza (acción): egitasun txarraren damutasuna artutekoak.
egitu, egiatu: ad. egiaztatu, burutu (realizar, verificar).

ekandu: ad. ohitu (acostumbrarse): *lanean ekanduta egoan gizona*. 2. iz. ohitura (costumbre): *gaztetan artu bear jako ardurea ekandu onetatik aldendu ezteitean*.

enparau: gainerakoak, osteangoak: *loa gomuta izan бага ibili zirean Ondartzakoak eta beste enparauak*.

erabagila: iz. juez: *alan egitu zan erabagilen erabagia*.

erabatera: adv. batera: *erabatera asten zirean biak*.

erantzupen: iz. erantzun, ihardespen: *Mari Jesus-en erantzupe-nakaz*.

erasti: iz. aldi, sasoi: *gauzak euren erastian zuzendu bear dira*.

eratzi: ad. narrua kendu (desgarrar la piel).

ereti: iz. abagadune, era: *barre asko egiteko ereti ona egon zan atso-agura biaren jantzakaz, agertu jakan Josetxori eretia joa-teko Bilbon egoan ontzi batera*.

erkin: adj. kivil, makal: *Karlosen erkin, argal da itzaltasuna*.

erkindu: ad. hazurrutsean gelditu: *askatu ebenean egoan oso erkindurik, azala ta azurra baino ez eukala*.

erosta: iz. negar-jote, hileta-jote (lamentación): *danak egozan bertanbera erostan deadar baten*.

erramari: iz. arraunlari.

errime: adj. itzal, ikaragarri: *burruka errime bat aprikarrakaz*.

erruez: adj. errubako (inocente): *egoala Jaungoikoaren erabagia erruezak zainduten*.

erruki izan: ad. multz. pena, lastima emon: *Txominek be erruki eban*.

esetsi: ad. eraso: *da esetsi eutsan Martini ukabilka errurik ez eukala*.

eskintsari: iz. promesa: *Eztozuz gomuta gure eskintsari eta eska-riak*.

etxe-sari: iz. etxearen errenta-saria.

eurraz: adv. behin bat, gero beste bat (sucesivamente): *eurraz erri guztian iarduen errukarrizko berbak esaten, Josetxo ta beragaz egozanakaitik*.

ezbai: iz. zalantza: *Josetxo Ondartzako beste batzukaz ito ete direan ezbaia*.

eztegu: iz. ezkontza-ospakizuna (boda).

G*algarri*: iz. galbide, hondamendi.

galtzo, galtzu: iz. galbedar lehortua (paja de cereal).

gangar: iz. gandor (cresta): *izugarrizko olatuak, euren gangar zuriakaz*.

gangartasun: iz. txotxolokeria (fatuidad)².

gatxondu: ad. salbatu.

gatzemaile: iz. sukaldari.

girten: iz. adar, orakarri (asta, palo).

gogait egin: ad. multz. aspertu, ernegau: *etxean gogait egiten ebanean, joaten zan ortu edo baratzera marraskilo ta bareak iltera*.

gogait eragin: ad. mmultz. ernegarazo (hacer rabiar): *arek neskak etorri dira nigana, niri irri ta gogait eragitera*.

gogaitu: ad. ernegetan jarri, amorratu (ponerse rabioso): *Gogaituten egoan Zenon, Josetxo bere maitearen lagun ikusi ebanean*.

gogaldi: iz. umore: *arpegi itzal da gogaldi motelagaz*.

gogoratu: ad. bururatu, akordua izan: *Ez eben gogoratu itsasgo-rea zala*.

goianengo: n. ganbara: *oraindiño beterik eukezan sabaia ta goianengoa*.

gomuta izan: ad. multz. gogoratu: *gomuta izango dau zelan Aprikarren gudura joan zirean*.

guramen: iz. borondate: *orrek gauzok eztira nai ta nai ez egitekoak, guramen onagaz baino*.

I*bilkor*: adj. bizkor, ibilte errazeko: *Guztiz zan ibilkorra*.

ibitu: iz. sosegatu, baretu: *Txalupetara eldu orduko ibitu jakan oso aizea*.

idoro: ad. aurkitu, topau: *idoro eban kalean etxera joala*.

² Horren antzeko balioa dauka textuan. Halanda be, *harropuzkeria* edo *astinkeria* zentzuaz erabili ohi da *gangartasun* edo *gangarkeria* berbea.

idun: iz. sama ingurua.
igargarri: iz. seinale.
igitu: ad. mogitu, zirkin egin.
ikasgo: iz. ikasketak (estudios).
ikasmen: iz. ikasketa: urte bi bear zirean ikasmenak amaitzeko.
iltzale: iz. eraile (asesino): iltzaleak eta lapur deungeak, olakoxe atzena dabe.
inarkuntza: iz. ekite, jardun (habladuría, comentario): Olako inarkuntza asko oi dira aserrekuntzak eta gorrotuak birbiztuteko.
indarga: adj. adv. indar barik, adore barik.
irago(n): ad. garraiatu, karriatu (transportar): arrikatza iragoten ibili zara goizean.
iratz: ad. idatzi, izkribatu.
irritu: adj. jenio biziko, aserrebera: Egunaroko aserreakaz, Mutil irrituagorik.
itsaserri: iz. kostako herri (pueblo costero).
itsaslapur: iz. pirata.
itsasleor: iz. isla: Antillas izena eben itsasleor batzuk.
itsasketa: iz. itsas bidaia (navegación): Josetxo ebilen itsasketan.
izarratu: iz./adj. izarrez bete (estrellado): guztizko gau izarra-tuakaz.
izurde: iz. delfin, itsasoko urde.
izuzki: iz. ginerra, erratz.

Jantzarazo: iz. erromeria: *Eldu zirean Jagoba eguneko jantzarazoak.*

josla, -e: iz. jostun, joskile: jostera joaten zan josleak.

Kartegatu: ad. deskargatu.

katigu: adv. atxilo, preso: katigu gela ilunean egin ebazan egunak.

katigutegi: iz. presondeg: sartu ebazan katigutegian iru lapur-rak.

kiskildu: ad. kiskali.

kresal: iz. ur gazi: *zauriturik eta kresal asko edaten ebala.*

L*andur, euri-landur*: iz. euri-lanbro: *Euri landurraz estaldurik egoan itsasalde guztia.*

lapikoko: iz. cocido: *lapikoko ta beste janari guztiak.*

laurka: iz. lauki, kuadru (neol. aran.): *Zein laurka atsegintsua! leitu*: ad. izoztu.

lemazain: iz. timonel: *txalupa-jaubea joango da lemazain.*

lerden: adj. artez, lirain: *beti ebilen ondo jantzirik eta obeto apaindurik, zuzen da lerdin.*

lor: iz. eroanbehar astuna.

luzamen: iz. atzerapen, itxarote (demora): *Luzamen andiaz kartegatu zan ontzia.*

M*atxura*: iz. aberia, kalte.

mendekatu: ad. bengai hartu: *zelan edo alan mendekatuko zire-ala eurakaz.*

mendu: iz. berezko izate edo berezko joera (índole natural, genio): *Karlosek lenagoko menduak ebazan aldean.*

minarin: adj. 'deslenguado': *minarinak isildu daitezán.*

mingortu: ad. minberatu, min zolia hartu: *euren gorputzak zauriturik eta guztiz mingortuta ito bearrean ebiltzanean.*

mokil: iz. lur-orapilo gogortua.

muna: iz. muga (linde): *zulo andi bat, munan barrura sartuten zana.*

N*aibage*: iz. pena, min, disgustu: *nire burubideak eztabe inoiz naibagerik ekarriko.*

nastau: ad. 1. ordenabakotu: *azpikoz-gora ta goikoz-azpira, nastaurik, lapurrak ipini ebezan gauza guztiak* 2. itsatsi (enganchar, enredar): *ontzi biak nastau zirean, alkarren belak eta txikotak urratuaz.*

nekal (neke-al): zigorraldi: *nekalak eta zemaiaik baino eztauka-zuez.*

nekaldu: ad. zigortu: *errueza nekaldu zala*.
nekaltasun: iz. zigorraldi: *bigarren nekaltasuna etxean emoteko*.
norezko: ezinbesteko, derrigorreko.

O*artu*: ad. kontuan ipini: *Igaro zan, Eustakik egun batzuk aurrerago oartu eutsen guztia*.

oialgei: iz. oial (pañó, tejido).

oinaztarri: iz. tximista (rayo): *Oinaztarriak, ganera, egieban zulo andi bat*.

oles egin: ad. agur egin.

ondamu: iz. bekaitz, enbiria.

ondartu: ad.: *Txotxo-tontorren txalupea portuan ondartu zanean*.

oneraspen: iz. debozino.

ontxo: iz. merienda.

osin: iz. pozu: *itsasoak osin bat irudian*.

ostera: adv. barriro: *laster joaten zan ostera lengo arazoetara*.

otzan: adj. mantso, apal: *etxean bildots otzan bat da, gizajoa*.

otzandu: ad. mantsotu: *apurtxo bat otzandurik joan zan egun atan*.

P*arizta*: iz. (mueca).

peku: iz. susmo (sospecha): *geixorik ete egoan zan Josetxoren pekua*.

S*askel*: adj. persona fardel itxia (desaliñado): *neskatila begiurdirin, ule-gorritzta, galant bat [...], ez saskela ez andigurakoa*.

sendatu: ad. indartsutu; atzera sendo parau (fortalecer; recuperar fuerza): *Astebetean sendatu zan Josetxo, zuk sendatuen dozuz aren naitasun guztiak*.

soldu: ad. zauria heldu.

sunda: iz. usain berezi: *Ziur zan arrain-sundara, Senar sundan bizitea*.

Txaola, *burdintxaola*: iz. jaula (de hierro): *Katamotzak arrapateko euken burdinazko txaolatxo bat.*

txatxar: adj. erkin, gauzeztan.

txikot: iz. ontziaren sokak: *txikotak urratu, ta galdu zan oso batela.*

txupil: iz. txupin, txaleko.

Upategi: iz. bodega: *Aprikarrak urten ez eien upategitik kanpora.*

urdail: iz. tripa: *kresalez beterik urdaila.*

urganetu: ad. iru ordugarrenean *urganetu zan txalupea.*

urratu, urreratu: ad. hurrera heldu: *Aize ta eguraldi onakaz joan zirean itsasketan Terranovara urratu arte.*

usmau: ad. susmo hartu: *ondo usmau eban zer jazoko zan.*

utsune: iz. laguna, ausencia: *Utsune asko topako dozuz.*

Zabun: iz. zibi-zabu (balanceo).

zantzo: iz. deadar, oihu.

zeatu: zigortu, banatu: *etzeunkeala zeatu bear zapladakaz.*

zetaka: iz. mota, orban (mancha).

zimel, zimelkote: adj. igar, lehor (enjuto).

zirkin egin: ad.multz. mogitu: *ankak eta besoak zerbait zirkin egiten ebela.*


zolitasun: iz. bizitasun (brío, viveza): *aren zolitasunaz da egipideak egituteko gurariaz, ezin zan egon geldirik.*

zuzendu: ad. lortu, eskuratu 'conseguir': *Amak zuzendu eutsazan jantzi barri bi.*

zuzitu: ad. olatuak atxetan *zuzitu ezteien.*

AURKIBIDEA

	Orr.
1. Etxeitaren idazlangintza. Sarturre antzera. <i>Adolfo Arejita</i>	7
2. Josetxo. <i>Jose Manuel Exeita</i>	65
3. Glosarioa	345



6. EDO GEUK EDO IÑOK EZ.
EUSKERAREN ALDE
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)
Aurkezpena: Xabier Perea-Adolfo Arejita
7. IPUIN ANTZEKO ALEGI
MINGOTSAK
Mikel Zarate
Aurkezpena: Igone Etxebarria
8. BATETIK BESTERA
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
9. AUÑEMENDIKO LOREA
Txomin Agirre
Aurkezpena: Rosa M^a Arano
10. KRESALA
Txomin Agirre
Aurkezpena: Mirari Alberdi-Jon Arretxe
11. JAIOTERRI MAITIA
Jose Manuel Etxeita
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
12. TXURIO TXORIA
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Igone Etxebarria
13. GAROA
Txomin Agirre
Aurkezpena: Bingen Zupiria
14. LATSIBI
Resurrección M^a Azkue
Aurkezpena: Mirari Alberdi-Karmele Olano
15. IXTORIO-MIXTERIO/IPUIN-
-MIPUINAK
Jean Barbier-«Otxolua»
(Bernardo M^a Garro)
Aurkezpena: Igone Etxebarria
16. GUDA NAGUSIA (1914-1918)
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)
Aurkezpena: Xabier Perea
17. ZAAR-BARRI
Jose Antonio Oar-Arteta
Aurkezpena: Segundo Oar-Arteta
18. EUSKO-UMEAK ATZERRIAN
Xabier Goitia
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. ARRANEGI
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte

Agertzekotan:

ABERE DONTSUAK
C. R. Hallack-«Otxolua»
(Bernardo M^a Garro)

AUXE DA ETXEKOA. GORA JELI
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)